

DOMINGO AGIRRE

Kresala

DOMINGO AGIRRE

Kresala

Sarrera: Sebastián García Trujillo

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2009

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

1. argitalpena: 2001
2. argitalpena: 2009

© *Sarrera-azterketarena*: Sebastián García Trujillo
© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S. L. L.

ISBN: 84-89816-36-0
Lege Gordailua: BI-895-09

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez. Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zati-
ren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

AURKIBIDEA

Hitzaurre antzeko oharkera batzuk. <i>Sebastián García Trujillo</i> . . .	9
Gure edizinoa. <i>Begoña Ereño</i>	44

KRESALA

Oharkera batzuk hitzaurrea legez	57
I. Ekatxa	63
II. Zeresanak	69
III. Ohartxu bat eta albiste onak	77
IV. Garizumako egunetan	83
V. Atsedeen orduak	91
VI. Atsedeen orduak oraindino	99
VII. Lehengo bidetik	105
VIII. Arrain-saltzaileak	111
IX. Gure gazteak	117
X. Aterpean	121
XI. Kitolis	129
XII. Bedar txarrak	135
XIII. Alkarren aurrean	143
XIV. Nahigabeak	147
XV. Ustebageko jazoerak	153
XVI. Alderdi argaletik	159
XVII. Jardun-etxeak	165
XVIII. Hatxetan	173
XIX. Mazia	181
XX. Geroago eta txarrago	189

XXI. Lazka-matazak	199
XXII. Otsoaren belarriak	209
XXIII. Ezkonbarriak	215
XXIV. Hondamena	221
XXV. Elizkariak edo eliz arrenak	227
XXVI. Eskertsu	235

HITZAURRE ANTZEKO OHARKERA BATZUK

Domingo de Agirre da euskal lehen nobelagilea. Kritikariok nahasturik gabiltza, kriterio zorrotzegi baten arabera (agian, ez interesik gabekoa; batzuetan, bederen¹), J. B. Dasconaguerreren *Atheke gaitzeko oihartzunak* edo *Ganich de Macaye* eleberriari (1870) egozten diogunean euskal nobelagintzaren lehen postua. Ezer izatekotan, *euskarara itzulitako* lehen nobela izango litzateke Dasconaguerreren hori, jatorrizko testua (*Les échos du Pas de Roland*) frantsesez idatzi baitzuen Baionako notario batek, eta frantsesez agertu ziren lehendabiziko bost argitaraldiak (1867-1870), harik eta hiru-lau adiskidek testua euskarara bihurtu zuten arte².

¹ *Atheke gaitzeko oihartzunak* euskal eleberrien artean lehena zela aldeztu zuen aurrena Pierre Lafitte izan zen. *Herria*, 1966, 11-VIII: "Zaharrena: *Atheke...*". Lafitte Lahuson jaioa zen. Lapurdiko herrixka horren inguruan gertatu ziren narrazioko istorioak.

² Jean Vinson euskalzalea, Martin Hiribarren Bardozeko erretora, Daskonaguerre bera. Lehenik Larreguy Senpereko jaun apezak jardun zuen itzulpenean; baita Guibert zeritzan Larresoroko ikasle batek ere. Nori egotzi behar genieke lehen euskal 'eleberri' aren aitatasuna? Frantsesez idatzi zuenari (Daskonaguerri) ala itzulpenean aritu zirenei?

Dudazkoago litzateke oraindik euskal nobelaren hastapena *El doctor Peru Abarka o Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan* testuari egotziko bagenio (1801ean idatzia, 1880/81 lehenengoz argitaratua), norbaitzuek aldarrikatzen duten bezala (ñabardura askorekin, haatik³). Baina horretan ere, hori izurra izurtzea besterik ez delako iritzikoa nauzue. Izan ere, nekez dei diezaiokegu eleberria, XVI. mendeko Juan L. Vives-en elkarrizketa didaktikoen gisara taiututako zazpi *berba-jardun* baino ez diren “helburu praktikoa batekin tesi-liburu honi”⁴, zeinetan —bide batez esan dezagun— ezin baitaiteke esan inolako ekintzarik dagoenik, ezta pertsonaien bilakera nîmiñorik ere⁵. Testuan euskal gizartearen argazki-erakusketak soila laburtzen zaigu: euskal ostatueta zelakoa den (edo behar duen), euskal baserriko bizimodua zelakoa den (edo behar duen),

³ AZKUE, R. M^a. de: “Irakurgetzaren, *osoz oso ezarren*, ondo etorkionik, *Peru Abarka* izan ezik ezegoan, oraintsura arte beintzat, beste libururik”. ECHAIDE, Y., (Uarrain), *Eusko Gogoia*, 1951, II (9-10 zk.), 10. or. “Caroia Eleberria”: “Eleberri bat idazten saiatu diran euskaldunak bakan-bakan batzuk besterik ez dira eta idatzi direnetan are gutxiago izen onen lain egin diranak. Lenengo, ene ustez, Mogel, Markina’ko semeak, idatzitako ‘Peru Abarka’ izan zan. Geroxeago etorri zitzaigun Domingo Agirre jauna”. MITXELENA, L., *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid, 1969, 108. or. “Primer conato de novela vasca”; eta “El texto de Peru Abarca”, *ASJU*, 1978-1979, 208. or.: “... los seis diálogos de la ‘novela’ (SG, sic) a secas...”. OTEGI, K., *Pertsonaia Euskal Nobelagintzan*, Gero, Bilbo, 1976, 51. or.: “Kronologiaz mota hontako (SG, eleberrikoa?) lehen alea, zabal zabal harturik, *Peru Abarca* liburua da”. KALZAKORTA, X., *Euskera*, 2002, 2, Bilbo, 427. or.: “... gure literaturan nobela edo *eleberriaren itxura* duen lehen liburuetakoa da”.

⁴ KALZAKORTA, X., o. a., 427. or.

⁵ LASAGABASTER, J. M^a., “Introducción a la narrativa vasca actual”, *Antología de la Narrativa Vasca Actual*, Ediciones Mall, Barcelona, 1986, 12. or.: “En 1800 Juan Antonio de Mogel escribe su *Peru Abarka*, conjunto de diálogos inscritos en un mínimo marco narrativo, pero con una clara finalidad didáctica y apologética. Aunque algún crítico ha considerado a *Peru Abarka* como la primera novela euskérica, hay que esperar hasta finales de siglo para encontrar las primeras obras hechas explícitamente desde las convenciones de los géneros narrativos”.

nolakoak diren euskal olak edota euskal basoak, euskalkien arteko erkaketa, latinetik itzulpenak egiteko euskarak duen egokitasuna... Juan Antonio Mogel harri eta zur geratuko zen eleberri bat idatzi zuela esan baliote; beste literatura molde bat zuen segurki buruan *Peru Abarka* idazten jardun zuenean⁶. Elkarrizketa didaktikook (lexiko edota errefrauen zerrenda luzeak lekuko), ohiko literatura generoetan sartu behar izanez gero, antzerki generoan sartuko genituzke hobeto narratiba generoan baino, antzerkigintzatik hartu baitzituen Mogelek pertsonaiak aurkezteko erak, baita espazioa eta denpora adierazteko oharrak ere (gaztelaraz adierazita gainera, euskal testuarekin zerikusirik ez balute bezala).

Domingo de Agirre da lehen euskal nobelagilea, beraz, eta (ausartuko ote naiz?) *Kresala* (1901) *lehen euskal nobela* (bizkaitarra naizen hau honelako txokokerietan interesatua al nago, bada?).

Badakit, diakronikoki begiratuta, Domingo de Agirrek berak euskaraz idatzi zuen *Auñemendiko Lorea* irakurgeta (1898) dela berez lehen euskal eleberria⁷. Baina *Auñemendiko Lorea* Euskal Herrian (?) kokaturik egon arren eta Euskal Herriko pertsonaiez (?) horniturik egonagatik (Fortum euskal pertsonaia edota Riktrudis eta besteak?), ez du euskal bizierarekiko zantzurik batere

⁶ Maisu Juan eta Peru baserritarraren arteko zenbait autuk (lehen atalburukoak, batez ere) Don Kixote Mantxako eta Santxo Panzaren artekoen itxura dute (aldeak alde direla).

⁷ AZKUE, R. M.^a de, *Euskaltzale*, II, 1898, 12. or.: “Auxe da euskeraz egin dan lenengo irakurgaia. Au baiño aurrerago iaio direnak, batzuk erdziz erdizean baiño eztira agertu (*Batxi guzur*, *Peru Matraka ta Pedranton* eta besteren bat); beste batzuk irakurgaia baiño irakurgaitxuaren izena egokiago edo aituagoa dabe”. LASAGABASTER, J. M.^a, “Introducción a la narrativa vasca actual”, o. a. 12. or.: “Aparte de algún relato corto, y de uno largo pero escrito originalmente en francés, y traducido luego al euskera, la primera novela euskerica propiamente dicha es de 1898. Se trata de *Auñemendiko Lorea*, y su autor, Txomin Agirre, iniciador, con sus obras posteriores de la novela costumbrista vasca”.

erakusten, *Kresalan* lehenengo, eta *Garoan* gero, idazleak erruz azaltzen dizkigunak; maisuki azaldu ere:

(Estas) dos novelas... aciertan a describir y plasmar las dos facetas principales de la vida tradicional vasca: la vida del mar y la vida del campo⁸.

Hori dela eta, *Auñemendiko Lorea* deritzana *euskarazko lehen* eleberria genuke; ez, haatik, *lehen euskal* eleberria.

Kriterio praktikoaz arituz gero, beraz, lehen euskal eleberria *Kresala* dela esango nuke... Iritzi honetan bateratsu nator euskal literaturako beste ez nolana hiko adituekin; Ibon Sarasolarekin, esaterako:

La actividad novelística comienza con el siglo (SGT, XIX. mendeko lehen eleberria *Kresala* izan zen, 1906). El tipo que más se cultiva es el costumbrista de ambiente rural, líricamente idealizado, sin el menor rasgo naturalista. La novela vasca de la preguerra, que escasamente supera la docena de obras, presenta un grado de desarrollo inferior al de la poesía o el teatro⁹.

Edota Jon Kortazarrekin:

A grandes rasgos la novela (en euskara) se inicia con su adscripción al costumbrismo¹⁰.

Eta Pierre Lafitterekin ere bai:

Euskerazko ele-berria nekez abiatu zen *Piarres Adame* eta *Atheka* liburuxkekin hemeretzigarren mendean: ipui batzu baidzik ez ziren. Domingo Agirrerren *Garoa* eta *Kresala* xutik daude; nahiz ele-berriak egin duen bidean 1912tik hunat. Opa

⁸ VILLASANTE, L., in *Euskal idazleak, gaur*, Jakin, Oñati-Arantzazu, 1977, 193. or.

⁹ SARASOLA; I., *Historia social de la literatura vasca*, Akal 74, 1976, Barcelona, 146. or.

¹⁰ KORTAZAR, J., *Literatura Vasca Siglo XX*, Etor, Donosita, 1990, 30. or.

ginezake maisu zaharra bainagoak balira geroztiko idazlariak¹¹.

Badakigu iritzi horrekin xehetasun batzuk galdu egiten ditugula (ez aipurik gabe, haatik¹²), baina kontrastea ere behar dugu arte lanetan... eta, dudarik ez da, euskal eleberraren hasieran Domingo de Agirrerren *Kresala* eta *Garoa* gailurtzen zaizkigu lehendabiziko erraldoitzat (“nuestras grandezas son siempre relativas”¹³):

El mejor y más completo de los novelistas vascos de la preguerra; maestro en la utilización de los recursos prosísticos tradicionales de nuestro idioma¹⁴.

Domingo de Agirre lehen euskal nobelagilea dela diogunean, ez dugu arrazoi formalakatik bakarrik esaten. Lehenengoa izan dadin bigarrenak ere egon behar du (*Auñemendiko Loreari* gertatu ez zitzaiona¹⁵), jorratu berri den bideari jarraituko diotenak,

¹¹ *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Collection ‘Aintzina’, Librairie ‘Le Livre’, Bayonne, 1942, 71. or. eta “Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bidean”, *Gure Herria*, Bayona, 1974, 29-31. orr.

¹² *Atheka Gaitzeko Oihartzunak* eleberriaz gain, Sarasolak honako hauek ere aipatzen ditu: “el ensayo novelístico de Elissamburu (*Piarres Adame saratarren zenbait historio* (1889, narración novelada inacabada, de trama sencilla y prosa fluida) y la adaptación por A. Apaolaza de un relato de A. Trueba *Pachito Txerren* (1890)”.

¹³ MITXELENA, L., “Miscelanea filológica vasca”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1978, X., 224. or.

¹⁴ SARASOLA, I., in *Euskal idazleak, gaur*, o. a., 198. or.

¹⁵ Gure artean eleberrri historikoak lehen eta oparoen idatzi dituen Yon Etxaidek ez du *Auñemendiko Lorea* aipatzen. Ikus *Gorrotoa Lege*, Elkar, Donostia, 1984, 393. or. “Esan dezadan ere, Domiku Agirre zenaren pausoak jarraituz, nekazaritza obra bat eta arrantzale giroko beste bat mamitzen saiatu naizela neure bizitzan. *Garoaren* ordez *Joanak joan* eta *Kresalaren* ordez *Markes baten alaba*. Hirugarren hau (SG, historikoa) beste baten ordez dator. Izan ere, Ondarrutar apez jauna eleberrri bat mamituz ari zen Heriok eraman zuenean. Delako eleberrria, eskuartearen daukazun hau bezalaxe, Oñaztarren eta Ganboatarren borroketan giroturik zegoen eta *Ni ta ni* izen ernegarriaz argitaratu asmo zuen. Beraz, *Ni ta ni* haur galduaren ordez eskaintzen dizut... nere *Gorrotoa Lege*, nolabait bete ahal izateko gogoz gure Jaun Domiku Agirrek bete ezinean utzi zuen zuloa”.

alegia. Eta jarraitzaileak izan zituen lehen euskal nobelagilea Domingo de Agirre izan zen, eta Domingo de Agirreren eleberrietan, *Kresala* eta *Garoa*.

Si no fuera por otra cosa, al menos por la influencia ejercida en nuestra generación¹⁶.

Jarraitzaileak

Domingo de Agirrek euskal letretan izan duen garrantzia gauza bitan ikusi da nabarmen: a) izan dituen jarraitzaileen kopuruan, eta b) bere eraginak iraun zuen urte luzeetan:

Se sigue considerando a Domingo Aguirre como el mejor de los novelistas en lengua vasca (1960)¹⁷.

Izan ere, Domingo de Agirreren ildotik idatzi zituzten euren eleberriak Espainiako gudu zibilaren (1936-39) aurretiko euskal nobelagile guztiek: Jose Manuel de Echeitaren *Josecho* (1909) eta *Jayoterrri maitia* (1910), Resurrección M^a de Azkueren *Bein da Betiko* (1893), *Ardi galdua* (1919) eta *Latsibi*¹⁸, Jean Barbierren *Piarres* (1926-29), Agustín Anabitarteren *Usauri* (1930) eta *Donostia* (1933), Tomas Agirreren *Uztaro* (1937), baita gudu osteko ez gutxi: Juan Antonio Irazustaren *Joañixio* (1946), Jose Eizagirrerren *Ekaitzpean* (1948), Eusebio Erkiagaren *Arranegi* (1958)...

Oro har, eleberri hauek guztiok ez zuten Domingo de Agirreren neurria gainditu, eta, interesgarriak izan arren —are gehiago hain murrizta dugun euskal literaturan—, euren egileek ez zituzten berridatzi baino egin Domingo de Agirrek ‘idatzita’ utzi zituen eleberriak:

¹⁶ MITXELENA, K., in *Euskal idazleak, gaur*, o. a., 192. or.

¹⁷ MITXELENA, K., *Historia de la literatura vasca*, o. a., 156. or.

¹⁸ XIX. mendearen azken urteetan edo XX. mendeko lehenengoetan idatzia eta 1989. urtean argitaratua (Bilbo, Labayru Ikastegia & Euskaltzaindia).

Y no deja de ser una lástima que quienes han recogido el testigo... lo hayan hecho empeñándose en escribir novelas que ya estaban escritas¹⁹.

Eta ez da hori Domingo de Agirrereren meriturik txikiena behintzat!

Itzulpenak

Kresala beste arlo batean ere aitzindari gertatu da euskal letretan: beste hizkuntza batera *itzuli* eta *argitaratu* den lehen eleberria izatean, hain zuzen. Gaztelerara lehenengo, eta frantsesera gero.

Izan ere, 1907-1908 bitartean, *Patria* izeneko liburutegiak lehiaketa bat iragarri zuen eleberri labur bat argitaratzeko helburuz. Lehiaketa horretara aurkezteko asmoz, Bonifacio de Echegaray, Madrilgo Goi-Auzi etxean Laterriko Salako idazkari izatera iritsiko zen euskaltzainak gazteleratu zuen *Kresala* (Karmelo Etxegaray anaiaren begiradapean²⁰). Baita aurkeztu ere, nahiz eta, forma arazoak arrazoi zirela, irabazle suertatu ez²¹. Handik urte batzuetara, haatik, Madrilgo *El Correo Español*-ek *Kresala* argitara eman zuen “como folletín” (tarteka, alegia), “antes de 1918”²².

¹⁹ LASAGABASTER, J. M.^a, “Introducción a la narrativa vasca actual”, o. a., 22. or.

²⁰ K. de Echegarayri Domingo de Agirrek eginiko eskutitza, 07.12.22, Azkue Biblioteka, Bilbo.

²¹ J. de Urquijori K. de Echegaray-k eginiko eskutitza, 09.10.20, Azkue Biblioteka, Bilbo: “La novela fue excluida del concurso, por no reunir las condiciones materiales que se exigían en el cartel, y por exceder en tamaño del de la novela corta que se pedía... Urbina lo sintió, porque le pareció que la obra era de gran mérito, así en su fondo, como en su forma castellana”.

²² K. de Echegaray-ri Domingo de Agirrek eginiko eskutitza, 09.02.07, Azkue Biblioteka, Bilbo eta *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Literatura II, Auñamendi, 1976, 248. or.

Ohartzekoa da Madrilgo egunkari batek Euskal Herrikoei aurrea hartu zuela, Domingo de Agirrerren *Kresala* gazteleraz argitaratzeko gurarian eta horri ekitean. Euskal argitaletxeen hutsune hau betetzeko asmoz, Karmelo de Echegaray saiatu zen Bilboko argitaletxe batean *Kresala* argitaratzen:

Yo pensaba pedirte autorización para incluir esa traducción en una *Biblioteca Vasca* que nos proponemos publicar en Bilbao. La iniciativa es mía, aceptada por Olascoaga, y quisiéramos, en sociedad con el sucesor de Don Juan E. Delmas, publicar unos tres tomos al año; bien escogidos y bien presentados²³.

Proiektu honek, haatik, porrot egin zuela dirudi, haren zantzurik ez zaigu inondik agertu eta.

Atal hau bukatu aurretik, esan dezagun, *Kresala*-ren gaztele-razko bertsiorik agertu ez bazen ere, bai oster, frantsesez (1958. urtean), P. Arburuk itzulita, *La Brume salée. Moeurs et traditions des pêcheurs basques* izenburupean, Biarritzko Cino del Duca argitaletxean (125 orrialde).

Lehena izatearen alde onak eta txarrak

Domingo de Agirre lehen euskal nobelagilea izan zen, hizkuntza gutxiendu batean generoko lehen testuak idazteak dakartzan alde on eta txar guztiekin²⁴. Euskal nobelagileek behin bai-

²³ Domingo de Agirre Karmelo de Echegaray-k eginiko eskutitza, 09.02.16, Azkue Biblioteka, Bilbo.

²⁴ Euskal Herriaren txikitasunak dakarzkigun alde on eta txar hauek bada gogoeta interesgarri bat in ETXEBERRIA, H., *Bost idazle*, Alberdania, Irun, 2002, 66. or.: ETXEBARRIA, Hk: “Txiki izateak bere bentajak ditu”... ATXAGA, Bk.: “Bai ezagutzen dut Saizarbitoriaren iritzi hori... Kasu honetan ez nago bate-re konforme. Kontrakoa da nire ustez... Legea da: zenbat eta handiago merkatua, hainbat eta toki gehiago denentzat, baita bazterreko jardunetarako ere; baita jardun ‘sutiletarako’ ere... Nik uste eskala txikiaren abantaila bakarretakoa talde-lanerako aukera dela”; 262. or., SAIZARBITORIA, R.: “Txikiak gara, eta horrek baditu bere alde on eta txarrak”.

no sarriago jardun dute ardi itxurako mozorroaz ageri zaien gai honezaz: ‘Zergatik idatzi hain gutxi ezaguna den hizkuntza batez, euskaraz... literaturak guztiona izan behar badu? Ez al da hobe gazteleraz idaztea?’

Literatura arloan lehena (lehenengoetakoa) izatearen abantaileri dagokienez, bi baino ez ditut aipatuko, zein baino zein erakargarriagoak:

1. Bat, idazle izatea bera dugu, honek ematen duen protagonismoarekin eta gizartean (baita historian ere) duen eraginarekin. Hizkuntza gutxiendu batean idazten eta argitaratzen hasi diren idazle ez gutxik (eta ez beti erdipurdiko idazleak) ez ziratekeen, agian, hizkuntza normalizatu batean argitaratzen ausartu edo animatuko. Etxepare bera, edota Bitoriano Gandiaga, euskara eta zerbait gehiago salbatzarren bere burua mugiarazi beharra sentitu zuena²⁵, edota Ramon Saizarbitoria²⁶... eta Domingo de Agirre:

... nai degunik eztegu, irakurle, ta aldeguna bearko. Gaur eztago aukerarik. Erneko al dira euskeraz irakurgai gozo, ugari ta mardulak²⁷.

2. Bi, hizkuntza baten arte-errekurtsoen bilatzailerik aurrenatarikoa izatea. Bestek topaturikoaz ez baliatzea. Norbera izatea bitxi horiezaz norbere hizkuntzan lehenengo aldiz baliatu izan dena:

Nekez aurrera egiten ari den literatur hizkuntza batean idazteak... erosotasun gutxi ditu... baina horrek badu idazle batentzat abantaila sortzaile nabarmena ere: zeure hizkuntzan pionero izatearena... Euskara, oraindik ere, erretorika askorik

²⁵ GANDIAGA, B., “Nere obraz”, *Hegats* 4, 209. or.: “Euskara bera salbatzarren ere idazten genuen guk...”.

²⁶ SAIZARBITORIA, R., *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania, Irun, 1999, 63. or.

²⁷ AGIRRE, D., “Irakurleari”, *Garoa*.

gabeko hizkuntza delako. Inguruko hizkuntzen aldean, zamarik gabeagoa da... Ez dauka gauza guztietarako eredu tinkorik..., baina horrexek berak aukera ematen dizu ereduak sortzeko, eta eredu horiek irakurlearen erabakimenera jartzeko²⁸.

Ez dira, haatik, zama gutxiagokoak hizkuntza minorizatu baten desabantailak edota gainditu beharreko oztopoak²⁹ (ausartiena ere desanimatzeko adinakoak), arinki bada ere aipatuko ditudanak, euskarazko lehen idazkietako balore eskasia azpimarratzen baititugu gehienetan, aitzindari haiek (artesanak gehiago profesionalak baino) erakutsi zizkiguten ausardia (errealitate batenganako maitasunaren adierazle ohi dena) eta lanerako grina kontuan hartzeke; baita, noizbait bederen, ezinbesteko trebezia ere. Ezin baitaiteke jaritsi lehendabiziko saioan maisu-lana burutzea. Haiena bai oztopo lasterketa, oztopo erraldoiak, gainera (gaurtik ikusita pentsaezinezkoak, segurasko); harrigarriena da ez jausi izana; betiko jausi ere³⁰.

Lehen oztopoa: Bateratu gabeko hizkuntza batean idatzi beharra. Zelan idaztera ausartu:

Zu goierritarra bazara, txorierrian edo lurbarrian jaiotako bizi zareana, ezteustazu ezer ulertuko, ta bear bada nire euskerea ez tala euskerea esaten jardungo dozu³¹.

Ezer idazten ausartuko ginateke gaur egun, euskara batua zabaldurik ez balego? Eta bateratasun falta hori lexikora ez ezik,

²⁸ LERTXUNDI, A., in *Bost idazle*, Alberdania, Irun, 2002, 163. or.

²⁹ ATXAGA, B., in *Bost idazle*, o. a., 66-68. orr.: “Legea da: zenbat eta handiago merkatua, hainbat eta toki gehiago denentzat, baita bazterreko jardunetarako ere; baita jardun ‘sutiletarako’ ere”.

³⁰ AGIRRE, D., K. de Echegaray-ri eskutitza, 03.07.28, Azkue Biblioteka, Bilbo: “Lo único que voy a intentar durante el mes de agosto es concluir de cualquier manera mi *Kresala* para dejar en paz por siempre a mi pluma infeliz, que maldito para lo que vale... Es que me he convencido de la ninguna utilidad que yo puedo prestar a las letras euskaras”.

³¹ AGIRRE, D., “Oarkera batzuk itzaurrea legez”, *Euskal-Erria*, 1901, 502. or.

sintaxi eta ortografiara ere zabaldurik balego? Areago, istilutsua balitz:

Igaroriko urtietan, iru, lau edo bost eratara izkiriatu dogu euskaldunak. Askori entzun deusat, eta milla aldiz bai, oso neketsua dala guk egiten ditugun gauzak irakurtea, errezago ipiñi bearrean, dana ipiñi dogula geroago ta gatxago, ta ortik datorrela euskerazko libururik iñok ez ikusi gura izatea³².

Bada, baldintza horietan idatzi behar izan zuten euskal lehen nobelagileek.

Bigarren oztopoa: Giro krispatu batean idatzi beharra. Purismoa vs. herrikoitasuna³³. Literatura idatzian jarduterakoan, hasieran batez ere, idazleak ezinbesteko arazo bati erantzuna eman behar dio: zein erregistro mota erabili, hain zuzen. Arazotsuena izaten dena da, are gehiago euskaldunen artean, hizkuntza arazoak muturreraino eramane ohi ditugula. Zelan idatzi horrelako giroan, nahigabeak sortaraziko baitizkit jardute horrek, eta, agian itzulerarik gabeko bidean sarrarazten badut euskara?:

Barriak dirala nik dakardazan itzak esango deustazu, irakurlea? Ez naz barri zalea... baina, zer, barriak izanda be?... Ainbeste euskaldun zintzori ezteutsegu geuk buruetan sartu zer esan gura daben *excelentea*, *admirablea*, *infinitamente poderosa*, *sabioa*, *principioa*, *fiña*³⁴ ta beste olango erderakada ta mordollokeri askok? Eta euskerea erakustearren erdere base-ritarren buruan sartzeko aña lan eztogu egingo? Ona dago beraz gure erri zaletasuna!³⁵.

³² ACIRRE, D., *Ibidem*.

³³ SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, o. a., 98-99. orr.: “La prosa literaria que hasta entonces venía utilizándose es sustituida por un estilo de prosa mucho más ‘popular’ (en el mal sentido de la palabra), por una parte, y mucho más artificial, por otra”.

³⁴ Hernialdeko parrokoa izan zen Juan Irazusta (XVIII. mendekoa).

³⁵ ACIRRE, D.: “Oarkera batzuk itzaurrea legez”, o. a.

Hirugarren oztopoa: Ez kopuruaren, ez kalitatearen aldetik behar adinako irakurlegoa ez izatea. Zertarako idatzi, gutxi baino (eta gutxi horiek herriko bajuenak) irakurriko ez badit?

Yo no sé lo que se habrá vendido (*Kresala*), ni quiero saberlo por ahora: me da miedo preguntarlo. En Zumaya, por supuesto, nadie ha comprado un sólo ejemplar y sólomente se han leído los que he regalado yo³⁶.

Nork esango zion Don Domingori³⁷, *Kresala* argitaratu eta ehun urte igaro baino lehen zazpi argitaraldi (azkenengoa, oraingoz, hau berau) ezagutuko zituela?

Laugarren oztopoa: Literatura hezkuntza nahikoa ez edukitzearena. Bazegoen beste oztopo bat: literaturan adituak ez izatearena. Euskal idazlerik gehienek ez zuten literaturaren ikasketa kritikorik izan, ezta euskaraz idazteko heziketarik hartu ere. Domingo de Agirre ikasketa laburreko abadea izan zen, Etxeita itsasontzi-kapitaina, Jean Barbier teologoa, Agustín Anabitarte Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialeko kutxazaina, Tomas Agirre salgaien artekaria, Jose Antonio Irazusta abokatua eta poli-

³⁶ Carta de DA a C. de Echegaray, 28.02.07, Azkue Biblioteca, Bilbo. “Entre enero y septiembre de 1907 se habían distribuido/vendido 579 de los 1000 ejemplares de la edición, entre los que hay que incluir los 100 que adquirió la Diputación de Guipúzcoa y los sólo 25 de la Diputación de Vizcaya (y eso que el autor, la historia y el dialecto del relato eran vizcaínos). ‘Malos tiempos corren por allá para los euskaristas’. En los años siguientes las ventas (distribuciones) fueron mucho más bajas: 6 ejemplares en fecha indefinida (1907-1910?), otros 6 hasta septiembre de 1910, otros dos hasta octubre de 1911 y otros 12 hasta diciembre de 1912 (la mayoría a través del propio autor). Además, sin especificar fecha, se vendieron, con un descuento del 30% unos 179 ejemplares, con lo que al 16 de marzo de 1915 sólo quedaban en depósito 216 ejemplares”. Ikus GARCIA TRUJILLO, S., *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, IDTP- Desclée de Brouwer, Bilbao, 1993, II, 64. or.

³⁷ Larregi zabaldu da euskal munduan *Txomin* Agirreren hipokoristikoa, Domingo de Agirrek bere lagunik minentzako gorde zuena. Domingo de Agirre itzal handiko abadea zen, zeini mundu guztiak *Don Domingo* deitzen baitzion.

tikari erbesteratua, Eusebio Erkiaga bankuko langilea... Hortixe irten ziren lehendabiziko euskal nobelagileak.

Non ikasi, ostera, euskarazko eleberririk ez bazegoen?

Guk Euskal Herriaren aipamen gutxi ikusi genuen gure eskuarteko liburuetan. Historiakoetan izen batzuk eta karlistadetatik geroko gerra galduak. Geografian gure luraren txiki-tasuna eta pobrezia. Literatura liburuetan ez zen euskararik³⁸.

Bosgarren oztopoa: Hizkuntzan ere ikasketarik ez izatea. Eus-kara ere ez zuten eskolan ikasi... etxeke euskaratik... liburuetara. Ikasketak burutu zituztenak (teologia, merkantilak....) gaztelera hutsean egin zituzten, non eta euskara mesprezatu eta erasotua izaten zen ikastetxeetan. Usu esan denaren kontrara³⁹, Euskal Herriko seminarioetan (elizbarrutikoetan zein konbentuetan) eus-kara debekatua eta erasotua izan ohi zen. Haietara joan ziren gehienek euskara utzi, galdu edota baldartu egin zuten (Azkue⁴⁰, B. Gandiaga⁴¹, Amuriza⁴²...).

³⁸ GANDIAGA, B., "Ni neu euskal idazleetako bat", *Hegats*, 17/18 zkiak., 1997ko abendua 107/108. orr.

³⁹ Abertzaletasunaren txokoak zirela, alegia.

⁴⁰ KINTANA, J., *Vizcaytik Bizkaira?*, Euskaltzandia-BBK Fundazioa, Bilbo, 2002, 31. or.: "Azkuek... aitaren bidez idatzizko euskararen berri izan zuen arren, ikasketa guztiak gaztelaniaz eginik (lau urtez Gasteizko seminarioan, eta hiru urtez Salamancakoan), Salamancatik bueltatzean, 'hablaba mal el euzkera (según confesión propia), pues lo había olvidado en la carrera'".

⁴¹ GANDIAGA, B., "Ni neu euskal idazleetako bat", o. a., 102. or.: "(Aran-tzazu, Foruan...) euskara, erabili ezaren ezaz, baldartu samar nuela eta erderakadaz josia".

⁴² AMURIZA, X., *Enaz banaz*, 1999, 60. or.: "Giro haren barruan (Seminariokoan) euskeraz egitea arriskuaren inkontzientziak bakarrik ekar zeikeen... Halan be, iristen zen goikoen belarrietara, edo ezustean harrapatzen ginduezen edo igarten euskuen, edo nonor txibatzen zen... konduktaren behargarri bat, hau be publikoki ohartuazoa, (norbera zutunik eta komunitate osoa entzuten), 'hablar demasiado en vasceuce durante los recreos' izaten zen".

Seigarren oztopoa. Argitalpenarenak. Zertarako hartu itzeleko nekeak nobelak idazten, eskuzkribua behin betiko gordeta mantentzekotan? Poesia solteak, bertso-paperak... ipuinak ere... tira; nobelak? Ez zen argitaletxeen jarrera inondik inora bultzagarria. Egoera horri aurre egiteko, eleberriak errebistetan argitaratzea asmatu zuten, nola eta “atalga ta zatika”. “Jaiocera txarra” benetan (idazleak berak dixit)⁴³... norbere nobela batentzat inork nahiko ez lukeena; alde batetik, irakurleengan interesa sortzea zailtzen duelako, eta bestetik, idazlea ere presiopean sartzen duelako, batez ere. Normalean hori gertatzen zen, nobelak bukatu aurretik argitaratzen hasi zirenean, historia bere osatasunean burutu baino lehen.

Okerragoa ere, liburuaren argitalpena idazleak berak ordaindu behar bazuen, *Kresalaren* (baita *Garoa*ren?⁴⁴) kasuan Domingo de Agirrerri gertatu zitzaion bezala:

Como lo he editado por mi cuenta (SG, en formato de libro), es natural, quisiera venderlo⁴⁵.

Baldintza gogor haietan idatzi eta argitaratu behar izan zituzten lehen euskal nobelagileek euren eleberriak⁴⁶; erdipurdikoak, gehienetan, zeinetatik orrialde batzuk salbatzea ez baita gutxi. Gainditu behar izan zituzten oztopoen aurrean erraldoi gisa agertzen zaizkigu euren ibiliak. Are gehiago, eurok gabe, euskal literatura ez zen sekula ere salbatu izango. Gaur egun, euskaraz irakurri ahal baditugu *Obabakoak* bezalako euskal eleberri ederrak, edota Saizarbitoria, Sarrionandia, Arrieta, Eizagirre, Iturriagare-

⁴³ *Kresalaren* hitzaurrean.

⁴⁴ *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, o. a., 134. or.

⁴⁵ Carta de Domingo de Agirre a C. de Echeagaray, 20.02.07. Azkue Biblioteka, Bilbo.

⁴⁶ VILLASANTE, L., “Domingo de Agirre Badiola, 1864-1920”, *Garoiari* egindako hitzaurrea, EFA, Oñati, 1966: “Olatu guzti oen erdi erdian murgildurik bizitzea tokatu zitzaion gure Txomini”.

nak... XIX. mende amaiera eta XX.aren hasierako lehen eleberrigileei esker da. Euskal Herri honetako mirariak:

Erneko al dira euskaraz irakurgai gozo, ugari ta mardulak. Betoz ordu onean, betoz ainbat lasterren. Nork daki, ni ain kaxkarra ikustean, liburu eder bat zeuk asmatuko ezpadezu?⁴⁷.

Domingo de Agirre nobelagilearen argiak eta itzalak

Narratiba kritikariek, balorazioak egiterakoan, narrazioaren *edukia* eta *forma* bereizi ohi dituzte. Edukiaren barruan honako alderdiok baloratzen dira: historia (argumentua, tonua, gaia edo tema zein idea nagusia), pertsonaien konplexutasuna eta taiuera, lekua eta espazioaren presentzia eta eragina, idazlearen inplikazioa: jarrera, ikuspuntua... Formaren barruan, bestalde, narratiorak izaten dira aztergai: esaldien zabalera eta borobiltasuna, pertsonaiekiko egokitasuna, erretorika figurak... espresibitatea, eta abar.

Domingo de Agirrerren euskal nobelagintzaren ekarpenik adierazgarrienak *formaren* arloan kokatu behar ei dira:

Esta nueva prosa (literaria en euskara)... logra un nivel elevado en manos de Domingo de Aguirre, gracias, sobre todo a su instinto literario y a que en la época en que se escribieron *Garoa* y *Kresala* la artificiosidad lingüística no se había apoderado todavía completamente de la lengua escrita⁴⁸.

Euskal letretan adituek horretantxe (forman zein Domingo de Agirrerren esakeran, alegia) atzeman dituzte idazlearen aurkikuntza eta ekarpenik nabarmenenak:

Uno piensa que alguno de nuestros costumbristas, Txomin Agirre, desde luego, y a lo mejor Echeita, Anabitarte o Erkia-

⁴⁷ AGUIRRE, D., "Irakurleari", in *Garoa*.

⁴⁸ SARASOLA, I., *Historia social de la literatura vasca*, o. a., 99. or.

ga, tenían todavía algo que aportar a la formación de una prosa narrativa vasca. Es indudable el camino que (Domingo de) Agirre recorre desde su primera novela —*Auñemendiko lorea*— hasta *Garoa*, la expresividad y rigor plástico de las descripciones, el dominio y la agilidad de los diálogos, la incorporación de lenguajes coloquiales, etc., son logros que ofrece en más de un caso la prosa costumbrista...⁴⁹.

Domingo de Agirrereren esakerak, beraz, herri-hizkera eta dotorezia (“un no se qué de distinguido”⁵⁰) elkartzen jakin baitzuen:

Domingo de Agirre tiene un euskera popular, rico en giros y modismos, tomados de la misma boca del campesino; pulcro y elegante a la vez⁵¹.

Herrikoitasun eta erretorika nahasketa orekatua, ur bion artean nabigatzen (erraza ez ohi dena) jakin baitzuen Domingo de Agirrek: Batetik, herriko jendeaganako hurbiltasunagatik:

Agirrereren itzaldi batzuk baserritarren aotik beretik artuak dirala dirudi⁵²...

Entzun ezazue ondorengo auxe eta esaidazue une oietan Donosti`n ala Ordizia`n, Ernani`n, Tolosa`n edo alakoxeko erri batean derizkiozuten zuen buruak peri egun batez gure baserritarren arteko autu edo entzenaz⁵³.

Bestetik, latinezko eta gaztelera-zko klasikoengandik ikasita zuenagatik⁵⁴, horrezaz klaseak ematen baitzizkien Zumaiako

⁴⁹ LASAGABASTER, J. M^a., *Antología de la narrativa vasca actual*, o. a., “Introducción”, p. 22.

⁵⁰ VILLASANTE, L. *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, 1979, 328. or.

⁵¹ IRIGARAY, A., “Garoa”, *RIEV*, 1935, XXVI, 196-197. or.

⁵² LHANDÉ, P., “Agirre, irakurgaikiña”, *Itzaldiak*, 1923, II, 103. or.

⁵³ ETXAIDE, J. (UARRAIN), “Garoa Eleberria”, o. a., 11. or.

⁵⁴ KORTAZAR, J., *Historia de la literatura vasca. Siglo XX*, o. a., 39. or.: “El narrador utiliza un sistema muy retórico como evidenció Mikel Zarate”. Domingo de Agirrereren erretorikarekiko hurbiltasunaz jabetzeko irakurtzekoak dira DOMINGO DE AGIRRE, *Sermoiak*, Labayru Ikastegia- BBK Fundazioa, Bilbo, 2000.

ikastetxeko neska-mutilei, non kapilau lanean jardun izan baitzuen Domingo de Agirrek, 1889.ko maiatzaren lehenetik 1920ko urtarrilaren 14a arte:

Ya acabé con la serie de pláticas de mayo y hoy terminarán las lecciones de latín y castellano, retórica y poética a ciertos muchachos que mañana van a ser examinados en el Instituto de San Sebastián”⁵⁵.

Zerbait konkretuago aipatu nahi izanez gero, goresmenik gehien merezi duten Domingo de Agirrerren alderdirik nabarmenak ondoko hauek lirateke:

1. Pertsonaien arteko *elkarrizketa biziak*:

Los aciertos lingüísticos en el diálogo de Txomin Agirre suponen metas altas en la narrativa vasca⁵⁶.

2. *Esaeraren jatortasuna* edota zuzentasuna, zeinen eredutzat adibide bi besterik ez baititut ekarriko:

Lehena: gramatika aldetik oso zorrotza (zorrotzegia ote?) izan genuen Sebero Altuberena, “observaciones acerca de las oraciones de afirmación inquirida” aritzerakoan, *Kresalaren zatitxo bat* (“Kitolis” atalburukoa zehazkiago) hautatu zuen eredutzat, zeini gehigarri bat jarri baitzion azalpen modura:

Es uno de los *muchos* sintácticamente *muy* correctos que contiene la novela *Kresala* (Agirre, 89)⁵⁷.

Bigarren: Lino Akesolok azpimarratzen duen Domingo de Agirrerren honako testu jator hau: “Eta itaundu geutsan alkarri: Gizonak, zer izan da au? ‘Itaundu geutsan’ horrek ez du bear

⁵⁵ Domingo de Agirrek Azkueri bidalitako eskutitza in “Domingo de Aguirre, poeta del mar y figura señera en la creación de la Academia de la Lengua Vasca”, *La Gran Enciclopedia Vasca*, Tomo IV, 1976, 542-544. orr.

⁵⁶ KORTAZAR, J., *Historia de la literatura vasca. Siglo XX*, o. a., 39. or.

⁵⁷ ALTUBE, S., *Erderismos*, Gaubeka'ren Irarkolan, Bermeo, Bizkaya, 1929, 60. or. Kurtsibak nireak dira.

aurretik ez auxe, ez orixe, ez onelantxe ez antzekorik. Olakorik izan balu, esaldi horrek, abiada galduko zuen, ez zen jatorrago gelditu, motelago baizik”⁵⁸.

3. Domingo de Agirrerren esaeraren *adierazkortasuna*. Esan-guratsua zaigu, alde honetatik, laudorioetarako (are gehiago, etxeko batentzat izanda, kasu honetan bezala) oso neurritsua izan ohi zen K. Mitxelenaren testigantza:

Siempre recuerdo la impresión que me hizo la primera lectura completa de *Garoa*, en Burgos, allá por 1941 ó 42. Sería difícil de comprender para las nuevas generaciones mejor iniciadas en los secretos del arte y de la naturaleza, pero hay que tener en cuenta que nosotros éramos gentes, sobre sencillas, nostálgicas.

Eta adierazkortasun honen adibide gisa, honelaxe darraio errenderiarra:

Y de esta lectura nunca he olvidado la frase que... inserta en los comienzos de un capítulo más bien de transición: “Arratsaldea zan alakoa” (*Garoa*, XV), en que la tensión (hablo en términos relativos) decrecía, me impresionó por lo que tenía, a lo que me pareció, de particularmente expresivo. Más de una vez volvía a pensar en ello, ya con intenciones oscuramente analíticas, hasta que tuve que caer en la cuenta de que lo expresivo estaba en el orden de las palabras, orden inusual y por lo tanto marcado, en el sentido (no tan diferente en el fondo de otro anterior) en que se usa esta palabra⁵⁹.

Ildo beretsuan mugitzen da Eusebio Osa, zeinek euskal prosak dituen adierazkortasun errekurtsoen erakusgarritzat, Domingo de Agirrerren “Ura zan gizona (ura)” aukeratu baitigu. Esaldi

⁵⁸ AKESOLO, L., “Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste”, *Euskera* 24 (1979), 371-380. orr.

⁵⁹ MITXELENA, K., “Miscelanea Filológica Vasca III”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1979, XI, 213-236. orr.

horretan “adjetibo ordainak ez du errematasunez indarrrik galtzen subjetuaren alde”⁶⁰.

Edukiaren aldetik murrizagoak ditugu Domingo de Agirre-ren eleberrietako baloreak edota ekarpenak. Izan ere, edukiaren aldetik ohiturazko narrazioei nagusitu zitzaizkien hutsuneen (mugiezintasuna, orokortasuna, moralismoa...) zordun izan baitzen Domingo de Agirre⁶¹:

Lasagabaster ha señalado sus caracteres básicos (ohiturazko eleberriarenak): la vida centrada en una geografía tradicional, no industrial; la aldea o el puerto marinero, en cualquier caso el estamento gremial aparece en mayor medida que el proletariado; es un mundo de conflictos y luchas menores, normalmente conflictos en torno al enamoramiento resueltos desde el orden moral y ortodoxo; otros rasgos de estilo son su caracterización en torno a los tres grandes ejes del pensamiento: fe, patriotismo y vasquidad; y, por último, la técnica del narrador omnisciente. Gotzon Garate recoge estas mismas características..., pero añade quizá uno o dos rasgos sobresalientes como la simplicidad, la narración y una concepción de la defensa de la lengua sobre la conciencia literaria del autor.⁶².

Dena den, edukiaren aldetiko alderdi batean gutxienez, aitziindari bikain agertu zitzaigun Domingo de Agirre: pertsonaien taiukeran, hain zuzen:

Aguirre es..., además de *laudator temporis acti*, un magnífico pintor de costumbres y de caracteres... y si alguno de sus personajes —como el viejo Joanes— en los que ha compendiado las virtudes tradicionales no pasan de ser idealizaciones

⁶⁰ OSA UNAMUNO, E., *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*, Colección Lingua, EHU Argitarapen Zerbitzua, 1990, 278-280. orr.

⁶¹ OLEZA, J., *La novela del XIX. Del parto a la crisis de una ideología*, Laia, Barcelona, 1984: “una de las formas, quizá la más literaria de negar y combatir la novela, se llama costumbrismo”.

⁶² KORTAZAR, J., *Historia de la literatura vasca. Siglo XX*, o. a., 31. or.

borrosas, otros tienen la consistencia y la rica matización de los seres de carne y hueso⁶³.

Horretan, haatik, zehaztasun bat erantsi beharrean nago Mitxelenaaren iritzi horri, kritikari guztiek azpimarratu baitute “el carácter técnica y psicológicamente ‘plano’ de los personajes (Domingo de Agirrerrenak)”⁶⁴.

Domingo de Agirrek pertsonaiak taiutzean duen maisutasuna, bigarren mailako pertsonaien taiukeran datza; ez eleberriko protagonistaen taiukeran, hauek guztiz lauak izan ohi dira eta.

“¿Donde están, pues, los personajes de carne y hueso que ha percibido Mitxelena en los relatos de Domingo de Agirre?... Se trata, sin duda, de Tramana y Brix..., quizá la patética figura del viejo Kitolis en *Kresala*; y Ana Josepa, el médico Patxiko, tal vez Moxolo⁶⁵, algunos escasos momentos de Mari Batista, Kataliñ, Mikalla y Luisa en *Garoa*. El propio Domingo de Agirre cita a Tramana y Brix... como personas tomadas de la realidad⁶⁶... Pierre Lhande, cuando trata de afirmar el realismo de las novelas de Domingo de Aguirre, recoge exclusivamente fragmentos de *Kresala* y de *Garoa* que hacen referencia a Tramana, Brix, Ana Josepa, Moxolo...; y también J. Echaide (Uarrain). Es de notar que todos

⁶³ MITXELENA, K., *Historia de la literatura vasca*, o. a., 156. or.

⁶⁴ Ikus OTEGI, K., *Pertsonaia euskal nobelgintzan*, Mensajero, Bilbo, 1976.

⁶⁵ OLAIZOLA, J. M.^a, in ANASAGASTI, P. de: “La arrolladora personalidad de Domingo de Agirre”, *Arantzazu*, 1966, XLV, 25. or.: “Lea la descripción magistral de Manolo Potxolo: no es un mero personaje de ficción, sino un retrato humano de una auténtica persona, a la que Domingo de Aguirre fue añadiendo vivencias psicológicas de otros personajes, siempre reales”.

⁶⁶ ZUBICARAY, A, de “Domingo de Aguirre. Poeta...”, o. a., 534. or.: “Kresala no es invención, sino retrato... Aun estoy por decir que muchas veces Aguirre retocó paternalmente a sus personajes en sus expresiones a fin de evitar retratos demasiado fieles y acusados y comprometedores. A pesar de ello tuvo sus disgustos por lo vivo de sus pinceladas y puedo decir que el miedo a las naturales reacciones de los personajes dibujados influyó evidentemente en que su última novela quedara inacabada”.

éstos son personajes secundarios a quienes el autor ha cogido en su propia salsa... sin definiciones caracterizadoras previas y sin las preocupaciones ideológicas preferentes a que Domingo de Aguirre somete a los protagonistas, apenas interesantes, de sus novelas”⁶⁷.

Eleberria ala ohiturazko laukia?

Atal honen izenburua erretorika-galdera irudipean ulertu behar dugu, dudarik ez baitago *Kresala* eta *Caroa* nobelak direla, beste arrazoi batzuen artean, a) ez dagoelako arrazoi berezirik beste literatura generoetan sartzeko; b) halakotzat jotzen direlako antzekoak diren beste narrazio batzuk, bai euskal bai erdal literaturan; eta c) idatzi zituenak halaxe epaitu zituelako, artean deitzen zietenaren arabera, ‘irakurgetia’ izenburupean:

Eznau egundo neuk egin dotan gauza batek ase, ta ainbat gutxiago irakurgeti honek⁶⁸.

Eta, halaz guztiz ere, goiko galdera hori ez dago lekuz kanpo, *Kresalaren* ohitura laukiek, gutxi-asko, narrazioaren %50a osatzen dutelako, alde batetik; eta, bestetik, narrazioaren literatura balioa argiroago biltzen delako ohitura laukietan, protagonisten arteko maitasunezko historian baino; hainbestearino, ezen dudazkoa den zer kontatzen zaigun zehazkiago *Kresalan*: ala Mañasi eta Anjelen arteko maitemintze-historia guztiz ahula ala Arranondoko eguneroko historiak, guztiz koloretsu eta jatorrak... Eleberriaren izenburuak ere ez digu duda hau askatzen laguntzen, *Kresala* izenak, alegia (“*Kresala* esaten deusagu Bizkaian ur gaziarri”⁶⁹...). Zer dakarkigu gehiago gogora *Kresala* izenburu horrek?

⁶⁷ GARCIA TRUJILLO, S., *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, o. a., II, 206-207. orr.

⁶⁸ AGIRRE, D., “Oarkera batzuk itzaurrea legez”, o. a.

⁶⁹ AGIRRE, D., *Ibidem*.

Mañasiren negar-antuluen zaporea ala Arranondo (hitzez hitz idazlearen herriaren hizki berberak: Ondarroa, alegia) edo edozein euskal itxaserritan barruraino sartzen zaigun ur-arrain usain fuertea?

Zorionez, ez dugu aukeratzen ibili beharrik. Biak oso nahasurik ageri zaizkigu eleberrian. Izan ere, nobelagileak narrazioa txirikordatzeko gehien erabili duen baliapidea protagonisten historia eta euskal ohitura laukiak nahastea izan da. Obrako atalik gehienetan, ohitura lauki baten deskribapenez hasten zaigu kontatzen... Kasurako, ekaitza, edo ezizenei buruzko atalburua, gari-zumarena, eta abar... eta, laukion barruan sartu gaituenean agertaraziko dizkigu eleberriko protagonistak..., Mañasi dela, Anjel dela, Josepa edo Artobero direla, Indianoa dela..., ohitura laukietako pertsonaiak balira legez, maitasun historia batean endredaturikoak.

Zatika argitaratua eta zatika idatzia

Euskal Herrian euskal liburuak argitaratzeko zegoen azpiegitura eskasagatik eta, batez ere, euskal irakurle kopuru murriztagatik, *Kresala* (eta *Garoa*) zatika idatzi eta argitaratu behar izan zituen Domingo de Agirrek. Zatika idatzi, nobelagilea idazle profesionala ez zelako:

Erdi gexorik eta ainbeste zeregiñez beterik bitartean⁷⁰.

Eta zatika argitaratu, batetik, diru ezagatik, eta, bestetik, euskararen egoeragatik beragatik; zerbait egiteko honelako premia sortu zitzaielako XIX-XX. mende bitarteko euskaltzaleei:

Gaur eztago aukerarik⁷¹.

⁷⁰ AGIRRE, D. *Ibidem*.

⁷¹ AGIRRE, D., Irakurleari”, in *Garoa*.

Eleberriak idazteko baldintza txarrak, benetan, idazleak berak aitortuko digunez:

Izan be, jaiocera txarra izan dau (*Kresalak*), atalga ta zatika⁷².

Baldintza txarrak, idazleak ez baitzekien, eleberria zatika argitaratzen hasi zenean, aldizkariak bizirik iraungo zuenentz eleberria bukatu zezanerako; orduko aldian askotan gertatzen baitzen aldizkariak sortu eta lasterrera desagertu beharra (euskal aldizkariak, batez ere); are gehiago kontuan hartzen badugu *Kresalaren* lehen zatia argitaratu zenetik XXIV. kapitulua argitaratu arte (eleberri osoak XXVI kapitulu ditu) hiru urte eta erdi igaro behar izan zirela, eta are txarragoa *Garoa*ren kasuan, lehen XVI kapituluak argitaratzea (eleberri osoak XX kapitulu ditu) *zazpi urtez!* luzatu baitzen.

Aurrera jo baino lehen argitu behar dugu, gauza bat dela zatika idaztea eta beste bat zatika argitaratzea; zeren gerta daiteke (*Auñemendiko Lorea* eleberriarekin gertatu zena) idazleak eleberria osorik idatzi izatea argitaratzen hasi aurretik, eta argitaratze-ko orduan zatika argitaratu beharra (zatika argitaratu, baina ez zatika idatzi, beraz). Beste batzuetan, ostera, eleberriaren zatiak idatzi ahala argitaratzen dira (zatika idatzi eta zatika argitaratu).

Kresalari dagokionez, badirudi Domingo de Agirrek zatika idatzi eta zatika argitaratu zuela; neurri handi batean, behinik behin. Arrazoi bigatik:

1. *Kresala* argitaratzen 1901eko abenduan hasi zen, eta XXVI. kapituluan, 1904ko irailean, Antiguako Andra Mariaren ohorez, Ondarroan ospatu zen jaia kontaketa hutsa da. Hiru urte geroago, beraz, *Kresalaren* lehendabiziko zatia argitaratu zenetik. Dena den, azken kapitulu hau eraskin bat besterik ez izatea ere izan daiteke, eleberria (XXV. kapituluan) bukatua izan eta gero.

⁷² ACIRRE, D. "Oarkera batzuk itzaurrea legez", o. a.

2. 1903ko uztailean, Domingo de Agirrek karta bat bialdu zion K. de Echegarayri, honako aitortza hau eginez lagun minari:

Lo único que voy a intentar durante el mes de Agosto es concluir de cualquier manera mi *Kresala* para dejar ya en paz por siempre mi pluma infeliz, que maldito para lo que vale⁷³.

Kasu honetan argiago dakusagu Domingo de Agirrek ez zuela *Kresala* bukatu, argitaratzen hasi zenetik urtebete eta erdi beranduagora arte, eta XXVI. kapituluaz aritzeko goizegi zela.

Zatika idazte honek, kontrakoak badirudi ere, idazkiei kalte gehiago egin ohi die, mesede baino⁷⁴.

Kresalaren mezua edo tesia

Edukiari dagokionez, zaharren zalea

Dudatan ibili naiz atal hau sartu ez sartu iruzkin honetan, nire ustez, autoreak eman nahi ez zion gai bati garrantzia ematea balitz bezala. Domingo de Agirrek *Kresala* idatzi zuela bainago, ez Mañasiren eta Anjelen arteko maitasun historia kontatzeko, euskal eleberrigintzari hasiera emateko baizik, lehenengo eta behin; eta euskal ohitura laukiak argitaratzeko, bigarrenik.

Dena den, eleberria dela onartzen badugu, eta ez ohitura laukien bilduma soila, derrigorra dut eleberriaren tesiaz jardutea, labur baino ez bada ere. Bestalde *Kresala*, eta are gehiago *Garoa*, euskal *tradizionalismoaren* lekuko pribilegiatuak gertatu zaizkigu, bai etikaren aldetik, bai herriaganako maitasunaren aldetik. Eta alde hauek ere komentariotxo bat merezi dute:

⁷³ K. de Echegaray-ri Domingo de Agirrereren eskutitza, 03.07.29, Azkue Biblioteka, Bilbo.

⁷⁴ FERRERAS, J. I., *La novela por entregas 1840-1900. Concentración obrera y economía editorial*, Taurus, Madrid, 1972.

Una buena parte de su atractivo está sin duda en su leve tono crepuscular, de nostalgia del buen tiempo pasado⁷⁵.

Domingo de Agirrek, *tradiziozalea* zela aitortzeko erreparo ñiminoenik ere ez zuen izan:

Neu bere, iñor bada, gauza zarren zalea naz... be⁷⁶.

Are gehiago, arrotasun pixka bat ere bai:

Ez naz berri zalea⁷⁷.

Eta ironia puntu batez, K. de Etxegarayri bidalitako eskutitz batean:

Así acaba esta epístola el reaccionario Chomin⁷⁸.

Tradiziozale militantea, gainera⁷⁹.

Ildo honetan, *Kresalan* planteiatzen diren pertsonaien denpora (lehen vs. orain) eta lekuen (goia vs. behea, herria vs. hiria) arteko kontradizioak, tradizioaren eta modernitatearen arteko balantzaren arabera askatzen dira: tradizioaren aldekoak, onak eta ederrak, langile finak, elizkoiak; modernitatearen aldekoak, ostera, gaiztoak edo makalak, alperrak, negozio zikinetan aberastuak, eliz-ostekoak... Eleberriko euskaldunak onak dira, eta erdaldunak txarrak; antzinako profesioak (arrantzaleak zein baseritarrak) onak dira; berrikoak, ostera, (herriz herriko saltzailea, Ameriketara joandako indianoa, iskilosduna...) kanpotarrak eta txarrak, hiritarrak (bilbotarrak)... gaiztoak eta arriskugarriak:

⁷⁵ MITXELENA, K., *Historia de la literatura vasca*, o. a., 156. or.

⁷⁶ Resurrección M. de Azkueri Domingo de Agirrerren argiratu gabeko eskutitza, 97.01.06, Azkue Biblioteka, Bilbo.

⁷⁷ AGIRRE, D., "Oarkera batzuk itzaurrea legez", o. a.,

⁷⁸ 1900/12/19. Azkue Biblioteka, Bilbo.

⁷⁹ "Carlita furibundísimo" zioen Domingo de Agirrez 12.10.06ko *Bizkaitarra*-k.

Arranondon ezta biontz gaiztokorik, arranondotarra bada⁸⁰.

Lantegiko langileak susmagarriak dira, mendiko xendra berriak kaltegarriak, liburuko jakituria susmagarria, eta abar. Euskara, herriskako bizitza, betiko lanak hesiak dira Ilustrazioak eta horrelakoek dakarzkiguten gaitzentzat.

Eskema sinpleegi honek ez zion Domingo de Agirrerri arazorik sortu, berak ez baitu historia bat kontatzen, parabola edota alegia bat baizik, munduaren aurrean irudi jatorrak erakutsiz.

Baliteke zantzu horiek guztiak kaltegarri izatea eleberrirako; baina interesgarriak zaizkigu, literatura mota baten lekuko adierazgarrienetakoak diren aldetik.

Hizkunza arloari dagokionez, berrizalea

Bizikerari begira tradiziozale sutsua zen hau berrizalea zen euskal arloan (Domingo de Agirre izan zen Euskaltzaindi berrirako lehendabiziko euskaltzainen artean kontrako botorik gabe hautatua izan zen bakarra). Espresuki berrizalea, gainera (agian bere lagun minenak: Azkue, Echegaray... euskararen berrikuntzan protagonistak izan zirelako).

Barriak dirala nik dakartzadan itzak esango deustazu, irakurlea?... Baina zer, barriak izanda be?⁸¹

Berrizalea *idazkerari* begira:

Nik geure euskera maite-maitea dan baño be geiagoan bigun da irakurgarri egin gura neuke⁸².

Berrizalea *izkirakinde* edo izkitalegeari (ortografia, alegia) begira:

⁸⁰ *Kresala*, XXI atalburuan.

⁸¹ AGIRRE, D., "Oarkera batzuk itzaurrea legez".

⁸² AGIRRE, D., *Ibidem*.

Laster eukiko dogu danontzat lege bat, aldanik errezena, garbiena ta onena, eta orduan ikusiko da irakurlien esate ori euren alperreteria estalduteko akiakula bat zan edo ez⁸³.

Berrizalea *lexikoari* begira, Domingo de Agirre ez baitzen soilik Azkueren *Diccionario Vasco Español Francés* horren aldeko propagandista sutsua, baita eredutzat hartzeko ahalik eta arinetakoa ere:

Hiztegi horren ondoreak aztertu nahi dituenak euskal literaturan har bitza bi liburu. Azkueren kide zen Txomin Agirrenenak: *Kresala* eta *Garoa*. Euskalkia gora-behera hitzetan duen aldea, eta ez da gutxikoa, Azkueren hiztegi berriaren gidaritzari zor zaio, soil-soilik⁸⁴.

Kresala* eta *Garoa

Kresala (1901/5-1906) eta *Garoa* (1907/12-1912) Domingo de Agirrerren bi eleberririk entzutetsuenen artean (José M. Peredaren *Peñas arriba* eta *Sotileza* eleberriekin parekatu ohi direnak) honelako lehiaketa bat antolatu da zein baino zein hobea den argitzeko⁸⁵.

Ez dut uste horrek merezi duenik, zaila baita (eta argi gutxikoa, gainera) arte-lanak honelako dinamikan sartzea, are zailagoa eleberrri biak autore berarenak izanik eta epe estu-estuan idatzita egonik bata eta bestea.

⁸³ AGIRRE, D., *Ibidem*.

⁸⁴ MITXELENA, K., “Azkie eta Euskal Hiztegia”, *Zeruko Argia*, 09.08.64, 4. or.

⁸⁵ ZUBICARAY, A. de, *Zeruko Argia*, 1964, Garagarrillak, 145. or.: “*Garoa* erromantikuagoa da, dotoreago; baña *Kresala* biziago, jatorrago, egokiago; aundikirotsuagoa *Garoa*, giza-bidetsuago *Kresala*; bigunago *Garoa*, gordiñago *Kresala*; baketsuago *Garoa*, egitsuago *Kresala*... *Kresala*’k berez urtengo eutsan..., *Garoa*’k nekea emongo eutsan”.

Dena dela, interesgarria deritzot konparaketa honezaz iritziak biltzeari, hortik atzeman baititzakegu euskal literaturaren adituek eleberri hauezaz azpimarratutako ñabarduraren batzuk.

Nikolas Ormaetxea ‘Orixe’, giputza izanik, *Kresalaren* aldera makurtzen da, *Kresalaren* hizkera *zaintsuago* iruditzen zaiolako *Garoarena* baino:

Garoa’n idaztankera belaxka-antxa gertatzen zait, emexkoa edo zain gutxi duena; *Kresala*’n zaintsuagoa; euskalkiari egotzi ditiok e ori, *Garoa* bizkaieraz egin balu, aurki etzen ain usu irakurriko, ez agortuko; baino bizkaieraz balego, balinba, irakurle jakintsu denak, eskerrago lioke⁸⁶.

Santiago Onaindia, itsasaldeko amorotoarrak (‘arranondotarren’ mugakide, beraz) *Kresala* hobesten du *Garoaren* ondoan; kasu honetan, itxuraz, lurraldeekiko arrazoiak direla medio:

A otros fascina más *Garoa*... Para mí son deliciosas las páginas donde relata las faenas cotidianas y sinsabores inherentes de los marineros ondarreses⁸⁷.

Literaturaz landako antzerako motiboez markatzen dituzte A. de Zubikaray ondarrutarraren preferentziak:

Para mí *Kresala* aventaja a *Garoa* en naturalidad, espontaneidad y conocimiento más íntimo y particular de los personajes y más que conocimiento, sentimiento vivo de los mismos... Si *Kresala* hubiera sido escrita en Guipúzcoa, las preferencias por ella hubieran sido más acusadas⁸⁸.

Juan San Martinek nobelgintzaren aldetik *jantziago* ikusten du *Kresala* *Garoa* baino, nahiz estiloaren aldetik apainduago iruditzen zaion azken hau hura baino:

⁸⁶ ORMAETXEA, N., “Euskal-literatura’ren atze edo edesti laburra”, *Euskal Esnalea*, 1927, Lotazila, 247. or.

⁸⁷ ONAINDIA, S., in *Euskal Idazleak*, gaur, Jakin, 1977, 195. or.

⁸⁸ ZUBICARAY, A. de, “Domingo de Agirre. Poeta del mar...”, o. a., 534. or.

Agiri agirian dago Txomin Agirrek *Kresala* bere bizitzaren arruan eroiala, ta *Garoa* azalez. *Kresala* prantzesera itzuli zan, orretarako aña zalako. *Garoa* itzuliko ba litz, konturako giñake, ez lekiala erdirik balioko... *Kresala* neurritz dabil; euskeraz idatzi diran nobelarik onenetakoa dugu. Nobelaren teknika aldetik esan nai nuke. *Garoa* aspergarri samar egiten da. Liteaturaz aberatsagoa ta estilu bikaiña badu ere, apaindura larregi du ta pertsonaje paltsuak gañera. Nobelaren izan bearra ezta literaturazko arte utsa⁸⁹.

Gabriel Arestik ere *errealistago* ikusten du *Kresala Garoa* baino, gihartsuagoa; modernoagoa, alegia:

Garoak ospe geiago daduka *Kresalak* baño. Baña *Garoa* ez da ain nobela andia. *Garoa* eskribitu eban Agirrek bere denporako erromantiko espirituari amore emoteagatik, eta erromantiko ez dan gizonari eskuetatik jausten jako liburua. Sus-traitik arakutzen badogu liburua, faltotasun aire bat arkituko dogu lenengo orrietatik asita eta amaia lortu arte... Nik egia esan bear badot, eta jentea neugaz asarratu dadin arriskuan jartzen banaiz bere, au esan bear dot, *Garoa* ez dela nire atsegiñekoa, ez jatala gustatzen. Baña *Kresala* beste gauza bat da. Bertan ez dago erromantiko usañik. Azken larogei urte oneitan pixka bat aldatu dira denporak eta gaurkoak ez gara erromantikoak. Literaturak beste jo-muga batzuk dadukaz, eta lekua merezi dau *Kresalak*. Agirrek bere euskera propioan idatzi eban, Bizkaiko euskera latzean, Gipuzkoako ez-titasunetatik igesi. Indarra billatu eban, eta gauza egiazkoak tratatu ebazan. Mesede andi egin euskun gaurko literaturzaleori, eta guk esker-rrak emon bear deutzaguz, gorazarre bizi batean⁹⁰.

⁸⁹ SAN MARTIN, J., in "Domingo de Agirre. Poeta del mar...", o. a., 538. or. *Jakin*, 1964, 17 zb., 31. or.

⁹⁰ ARESTI, G., "Lengo eta oraingo euskal poesia erritarra. Ondarroan 1964eko Garagarrilaren 8an irakurritako berbaldia", *Literatur lanak*, 10. *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, Susa, Bilbo, 1986, 43-44. orr.

Gotzon Garate⁹¹ eta L. M. Mujika ere *Kresalaren* aldeko ditugu.

Pierre Lhande Zuberoan birziklaturiko jesuita baionarrak *Garoa* hobesten du, ez bakarrik *Kresalaren* aurrean; baita ordura arteko beste edozein euskal eleberriren aurrean ere:

Garoa est le chef d'oeuvre d'Agirre et la plus belle oeuvre d'imagination qui ait été écrite dans la langue basque⁹².

Gamizek *sintasi baloreei* atzematzen die *Garoa Kresala* baino hobeia dela onartzeko:

Joskera *Kresala*-n baño obea da (*Garoa*), an utsen batzuk agertzen ba'dira, emen bat ere ez... *Kresala* baiño asko obeto josita dago eleberri au, aria obeto eroana da. Baiña onetan be ba ditu, nere ustez, obetu legikezan gauzak⁹³.

Elerti gaietan nolanhiko gizona ez zen Jon Etxaide ere *Garoaren* aldekoa dugu, arrazoi garbirik eman gabe baina:

Gai guztietan irizpide bereziak ba'dira ta batzuk diotenez *Kresala* eleberri bezela *Garoa* baño obea omen da. Aitzea ere ba'dut 'Kitolis' deritzan atala edonungo literatura azalpenik

⁹¹ GARATE, G., *Euskal eleberrien kondaira*, Gero, Bilbo, 1991, III, 106. or.: "*Garoa* baino eleberri hobeia da *Kresala*... Guttienez kontutan hartzen badugu, *Garoa*-ren haria motelago dela, denera askoz epikoago bada ere. Pertsonaiak eta ekintza biziago dira *Kresalan*". MUJIKA, L. M., *Historia de la literatura euskérica*, L. Aramburu, San Sebastián, 1979, 338. or.: "Quizá, esta novela (*Kresala*) sea superior a *Garoa*. Pensamos que existe más acción y garra".

⁹² LHANDÉ, P. "Bulletin de Littérature basque", *RIEV*, 1920, Tomo IX, 153. or.

⁹³ ONAINDIA, S., *Euskal Literatura*, Etor, Bilbo, 1974, III liburukia, 67. or. Iritzi berekoa omen zen Domingo de Agirre bera, zeren ondarrutar batzuei bidalitako eskutiz batean honako hau idatzi zien: "Me dicen que ha gustado mucho *Kresala*, pero ahora estoy preparando otra que será mejor. Pero vosotros, los ondarreres, seguid firmes a *Kresala*". Ikus ZUBIKARAY, A. de "Domingo de Aguirre. Poeta del mar y figura señera de la creación de la Academia de la Lengua Vasca", *La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao*, 1976, Tomo IV, 533. or.

gorenetakoa dala eta au diona eztegu nolanaiko gizona elerti gaitan⁹⁴. Geienak ordea *Garoa* obeagotzat jotzen dute eta nere iritzian alderik eztago bi eleberrien artean, *Garoa*, osoki jota, nun-naiko literaturetan agertu den eleberririk bikainenakin berdindu litekela bai-derizkiot⁹⁵.

Garoa hobesten dute Koldo Mitxelenak⁹⁶ eta Luis Villasantek ere:

Garoa es por muchos conceptos la obra cumbre de Domingo de Aguirre... ha conquistado el puesto de obra cumbre de la literatura vasca contemporánea y como a tal se la da un valor normativo⁹⁷.

Baita Ibon Sarasolak ere:

Novela tradicional vasca por excelencia, fundamental en el desarrollo de la prosa novelística moderna⁹⁸

azalpen nahikorik eman gabe baina⁹⁹.

⁹⁴ Jose de Arteche?: “El escritor se limita a transcribir las palabras de éste (Kitolis) relatando un naufragio que le acontece en circunstancias trágicas, cierto anochecer invernal. En tiempo de Domingo no existía el magnetófono, pero es imposible una transcripción más perfecta... Son, a mi manera de ver, seis páginas de valor literario universal”.

⁹⁵ UARRAIN, “*Garoa* eleberria”, o. a., 10-18. or.

⁹⁶ MITXELENA, L., *Historia de la literatura vasca*, o. a., 156. or.: “No debe este título (el mejor de los novelistas en lengua vasca” [1960. urtean]... a *Kresala*, excelente cuadro costumbrista de un puertecito vizcaíno, su Ondarroa natal, sino a *Garoa*, la novela del caserío vasco”. Ikus *Euskal idazleak, gaur*, 192. or. Mitxelenari eskatzen zaio euskal literaturaren hamar libururik onenak aukeratzeko. Itzulinguruz beteriko iritzi baten arabera, zazpigarren lekuan *Garoa* aukeratzeko du. Ez du, hamarren artean, *Kresala* aukeratzeko. *Historia de la literatura vasca*, o. a., 156. or.

⁹⁷ VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, o. a., 326-327. orr.

⁹⁸ SARASOLA, I., in *Euskal idazleak, gaur*, o. a., 194. or.

⁹⁹ Sarasolaren iritzi hau zeharkako bidetik atera dut. Euskal literaturako hamar lanik ederrenak aukeratzeko eskakizunari Sarasolak *Garoa* aukeratu zuten, ez *Kresala*.

Sarrera hau burutzen duen kristau honek ere bere burua sartuta ikusi du bilatu ez duen Domingo de Agirrerren eleberri bion arteko iritzi kontraste honetan. Izan ere, UNEDen *Historia de la Literatura Vasca* liburuan, honelaxe idatzi dute Domingo de Agirrerren *Kresala* eta *Garoa* eleberrien arteko konparaketaz:

... exceptuando alguna opinión como la de S. García Trujillo, se considera que la novela *Garoa* definió la madurez narrativa del autor¹⁰⁰.

Puntu hauek argitzea interesgarri iruditzen zait, ez soilik nire iritzia argi (ber)uzteko (hainbeste buelta merezi ez lukeena, bestalde), baizik eta sarrera honek irakurleari *Kresalari* buruzko zehazpen batzuk agertzeko bidea ematen didalako.

Nik ez diot *Kresala Garoa* baino eleberri hobea den baieztapenari eusten, eta hori, goraxeago adierazi dudanez, arrazoi xume bategatik: ez dudalako uste horrelako eztabaidetan sartzea merezi duenik, idazle beraren hain antz-antzeko eleberriak izanik. Honelakotan sartuz gero, alde batzuk bereizi beharko genituzke: idazkera, gaiaren bilakaera, pertsonaien taiukera eta aldaketak, leku eta denboraren presentzia, historiaren egiantzerakotasuna, narrazio osagaien lotura, narratzailearen presentzia, gaiaren jatortasuna, ideologia... eta abar... Bereizketa eta analisi horietan alde nabarmenik topatuko ez genukeelakoan nago lehenengo eleberritik (*Kresala*) hurrengora (*Garoa*). Oso antzerakoak baitira bata eta bestea kritikari gehienen arabera. Bereizketa eta analisi horiek eginez gero, eleberri baten zein bestearen osagaien balorazioaz aritu beharko genuke, argi baitago osagaien batzuk hobek omen direla eleberri batean bestean baino, baina ez kasu guztietan norabide berean... Gauzak horrela izanik, eta ñabardurak direla kontuan hartuta, azken erabakia hartzeko alde nabarmenik ez dagoela uste dut.

¹⁰⁰ *Historia de la Literatura Vasca* (batzuen artean), UNED, Madrid, 2000, 511. or.

Nik beste gauza edota ñabardura bati eusten diot (bere neurrian garrantzitsua, nire ustez), eta horretan nago, kriterio hobarik irakurri arte:

El horizonte hermenéutico desde el que se vierten al lector las novelas de Domingo de Aguirre *se estrecha* progresivamente de... *Kresala* a *Garoa*... Da la impresión que el narrador de las novelas de Domingo de Aguirre se va atrincherando en un sistema novelesco que se expresa *progresivamente* cerrado, donde los elementos narrativos se acoplan y autosostienen, cuanto más posteriores, con más autocontrolada precisión... El proceso de *esclerotización* de los valores axiológicos, de los personajes, del tiempo y del espacio novelescos, etc., se va acentuando desde *Auñemendiko Lorea* a *Kresala* y desde *Kresala* a *Garoa* donde va a encontrar su limitación (narrativa) *relativamente extrema*¹⁰¹.

Modu errazagoan esateko, nire ustez, *Garoaren* gaia, espazioa, pertsonaiak *ideologizatuagoak* dira (errelatiboki, jakina, eta alde nabarmenik gabe) *Kresalakoak* baino. Hori narratibarako kaltegarria izan ohi da, baina balorazio orokorra egiteko (bietarik zein hobea, alegia) beste elementu asko sartu beharko genituzke konparazio saskian (irakurlearen eta kritikarien jarrera zein preferentzia pertsonalak tartean direla: zeini garrantzi handiagoa eman: pertsonaiei, eta pertsonaien artean protagonistei, ala bigarren planoko pertsonaiei, idazkerari, deskribapenari, ohiturazko laukiei?...).

Amaiera

Domingo de Aguirre eleberrigile *klasiko* bat da euskal letretan. Eta klasikoak ezagutu eta irakurri egin behar dira; ez beti one-

¹⁰¹ GARCIA TRUJILLO, S., *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*, II, o. a., 200-201. orr.

nak (edota onak) direlako; *ezinbestekoak* direlako baizik. Literatura arloan, klasiko maila alderdi bitatik lor daiteke: literatura generoan (eleberrigintza, gure kasuan) edota aro bateko ordezkariatzat jo daitekeelako. Alderdi biotan klasikoa dugu Domingo de Agirre: euskal nobelagintzaren sortze eta bilakaeran ezinbesteko autorea dugu, baita euskal *ohiturazko* literatura ezagutzeko ere:

Kresala, obra en la que el dialecto vizcaíno alcanza una de sus más altas cimas... Su obra por su sentido del idioma coloquial y narrativo marca un hito decisivo en el establecimiento de la prosa novelística moderna¹⁰².

Behar hori, gainera, gure kasuan, ez da gustorik gabeko egitekhoa. Bai edukiaren, bai idazkeraren aldetik gaur eguneko eleberririk gehienaren konplexidadearen aurrean (abantaila eta desabantaila guztiekin gero eta irekiago eta nahasiago nagusitzen zaigun gizartearen ispilua) Domingo de Agirreren eleberririk ur fresko gisa agertzen zaizkigu, marra erraz eta jatorraz burututakoak (errazegiaz eta jatorregiaz, agian), eskertzekoa dena, hala nola Picasso, Tapiès edota Zumetaren aroan, Arteta edota Zubiaurretarren laukiak ikustea bezalaxe...

Gakoa (beti ez bada, kasurik gehienetan, bederen) ez da erkatzea, batu edo biltzea baino. Batzuk eta besteak gabe gure euskal esperientzia txikituta edota moztuta geratuko litzaiguke..., ergelki gainera. Ez dakigun guri ere gerta, Lasagabasterrek dioskunez, oraintsu arte euskal eleberrigilerik gehienei gertatu izan zaiena:

La expresividad, el rigor plástico de las descripciones, el dominio y la agilidad de los diálogos, la incorporación de lenguajes coloquiales, etc. son logros que ofrece en más de un caso

¹⁰² SARASOLA, I., *Historia Social de la literatura vasca*, o. a., 147. or.

la prosa costumbrista y que los actuales narradores no han sabido tal vez apreciar y aprovechar¹⁰³.

Betoz ordu onean (Agirrereren eleberrietan ikasitako euskal kontatzaileak), betoz hainbat lasterren¹⁰⁴.

Sebastian Garcia Trujillo
Bilbon, 2003ko iraila

¹⁰³ LASAGABASTER, J. M^a., o. a., 22. or.

¹⁰⁴ AGIRRE, D., “Irakurleari”, *Garoa*.

GURE EDIZINOA

1. Kresalaren idazkeraren ezaugarri batzuk

Herriko hizkera landua darabil Txomin Agirrek. Bere euskera herrikoia da baina dotorea eta goi mailakoa. Zahar kutsua ageri da askotan (batez be, geroago agertuko diran aditz forma batzuetan) eta hiztegi aldetik ez dauzala neolojismoak eta erderakadak atsegin esan daiteke. Euskera jatorraren aldekoa da eta hagaitik, ez dau izango arazorik beste euskalki batzuetako hitzak erabilteko. Honetan egon daiteke, egotekotan, eleberraren ulermenerako eragozpen bakarra guk oin-oharren bidez konpondu gura izan doguna.

1.1. Pluraleko hirugarren persona nori kasuan deklinatzeko *-oe* morfema agertuko da, *-ke* edo *-kie* agertu beharrean:

Barregurea *etorkoen* gogoratuta beste barik, eta barrez egotzen zalduntxo batzuk, barrez negarrak legortzeko asmoetan ebiltzala!.

Elizkoiak dira eta nahikoa ondo jakin ohi daroe kristinauen ikasbidea, autortuten dabe ona dala ikasbide hori urtean behin itandutea, dana ahaztu ez *dakioen*...

1.2. Sarri erabiliko dau iraganeko ondorioa. Ez bakarrik nork-nor paradigma azaltzeko, nork-nori-nor paradigmarako be bai. Honeen zentzuna *probablemente hubieran hecho* edo antzerakoa litzateke:

Egia zinoan: ondo ezagututen eben biak alkar, ume-umetatik ziran maite, eta bata besteagaitik edozer egingo *eukien*.

Egingo *eukeon* Doneari bederatziumen beroa Mañasik, honen gurariko mirari barri baten orde...

1.3. Askotan ez bada be, zenbaitetan ahal partikula eta ahaleraren aditza elkarrekin agertuko dira:

Abadeak, Jesusen elizmahai aurrera urtenda, hasi ziran *Misere* deritxan Dabid Igarlearen arrena esaten, eta herri guztia egon zan, ordu erdiren batean, gauza danak *ahal daikezan* Jesus onaren aurrean ahuspez, eskaririk beroenagaz, itsasotar guztiak osasunez etxeratu eizala eskatuten.

1.4. Subjuntiboko eta inperatiboko formak bizkaiera klasikoaren paradigmatic hartuko dauz:

—Ez, gordeizu. Ibili *gaitean* astiro eta patxada onean: erabagi hobe emongo dogu.

Arrantzalea zinan zu be, eta errukitu *zaite* gure arrantzaleakaz...

1.5. Geroaldiko aginte era be bizkaiera klasikoko paradigmatic hartuko dau. Holako aditzak, gehienbat, nork-nor paradigmian baino ez ziran erabilten, baina Agirrek, paradigma hau oinarri hartuta nork-nori-nor muetakoa garatuko dau:

Iskilosdunak: —Ez *zaite* haserratu, gizona; baina jakin *eikezu* euskereak ez dauela zuk uste dozun aina edertasun.

Andrea, ipini *eikeguzu* gaur aparri on bat.

1.6. Tradizinoa jarraituaz, ohikotatsuna adierazteko *eroan* aditza laguntzaile moduan agertuko da. Baina *ohi* eta *eroan* biak batera be topau daitezke:

Joan be luze joaten dira gazteentzat, bada, gazteak mahaian baino kaleko soinu eta olgeta edo jolasetan gehiago *euki daroe* euren gogoa.

Herritik begira dagozanak orduan *euki ohi daroen* larri eta estutasuna ez da esatekoa, eta nire lumeak ezin daike ondo esan.

1.7. Bestalde, *esan* edo *erantzunen* parekoa dan *irau(n)tsi* aditzaren *zirautsan* eta *zirautsen* moduko forma soilak sarri erabiliko dauz:

—Ez eiozu jaramonik egin —*zirautsan* lagunak Josepari—: holangoxea dozu hori beti.

2. Testua eguneratzeko erabili diran erizpideak

Lan honen helburua Txomin Agirreren testua ahalik eta gehien errespetatea izan da. Halanda guztiz be, testua ulergarriago egiteko eta gaurko irakurleak zailtasun gitxiago eukiteko, ikututxo batzuk egitea ezinbestekoa izan jaku, beti be, gaur egungo bizkaiera literarioaren ikuspegitik. Sarrera honetan ikusi ahal izango dan moduan, aldaketa gehienak ortografia eta fonetikan egin doguz, gainontzeko mailetan aldaketak sartzea atrebentzia handiegitzat jo dogulako. Edozein kasutan be, dudazko kasuetan gurago izan dogu Agirreren formari eutsi.

Gaurkotze lana egiteko, *Kresalaren* bigarren argitalpena hartu dogu oinarri, hau da, 1906an Florentino Elosuk Durangon argitara emon ebana. Zalantzetarako, ostera, *Euskal Erria* aldizkarian 1901etik 1904ra bitartean argitaratutako pasarteetara jo dogu.

2.1. Grafemak

—Txistukarien nahasketa zuzendu eta egungo grafiara ekarri egin dogu: *aberatza>aberatsa, itxaso>itsaso, eskaratza>ezkaratza, ezkatu>eskatu, jatzi>jatsi...*

—Sabai-aurreko afrikari ozena fonema mantenidu egin dogu, egileak hots hori adierazteko dakarren grafia aldatu badogu be, eta tradizioan gehien erabilten izan dana ipini: *dsangada>dzangada, dsaus>dzaust...*

—Bustidurak desegitera jo dogu: *gañeko>gaineko, erabilli>erabibili*. Baina zenbaitetan, idazleak darabilzan formak gorde doguz: *bakotxa, antxina, Mañasi, añaniñua...*

—H grafia gaurko erabilerarekin bat jarri dogu: *oiturak>ohiturak, bearbada>beharbada...* Baina *iges, legor, zugatz* halan itxi doguz.

—Toponimoak eta izen bereziak ahalik eta gitxien aldatzen aha legindu gara, autoreak berak darabilzan formak errespetatuz: *Iziar, Barzelona* baina *Zumaya>Zumaia*.

2.2. Puntuazinoa

—Harridura eta itaunen hasierako markak kendu egin doguz.

—Alkarrizketetan marra luzea jarri dogu. Norbere pentsaera edo gogoetak, ostera, kakotx artean agertuko dira.

—Ohiko puntuazino-markak gaurko erabilerara ekarri behar izan dira ulergarritasunaren mesedetan.

—Izen berezia eta kasu-marka banatzeko erabilten dan marra-txoa gehienetan kendu egin dogu: *Jose Maria Zubia-ri...>Jose Maria Zubiari*. Hitza kursibaz agertzen bada, orduan mantenu egin dogu: *KRESALA-ren...>Kresala-ren*.

—Hitz elkartuetako marra gaurko erabileraren arabera jarri dogu. Zalantzako kasuetan, beti be, idazlearen forma jagon dogu.

2.3. Fonetika

2.3.1. Armonia bokalikoa deklinabidean:

—ia>ea: *euskeriari>euskereari*, *beriala>berehala...*

—ua>oa: *aua>ahoa*, *orruak>orroak...*

—ie>ee¹: *urtietan>urteetan*, *irakurlien>irakurleen...*

—uo>oo: *legorrekuok>legorrekoak*, *astuok>astook...*

2.3.2. Kontsonanteen galera (*g*, *r*, eta *d*): *Nausi>nagusi*, *hoixe>horixe*, *aiskidetu>adiskidetu...*

2.3.3. Bokaleen eta diptongoen jokabidea. Itxidura, irekidura, asimilazinoa: *Treineru>traineru*, *igari>igeri*, *bidar>bider*, *ariniketan>arineketan...*

2.3.4. Amaierako bokalak *o/u* alternantzia eta *a* itsatsia:

—*O/u* alternantzian *amo*, *zisko* eta *musto* mantenu egin doguz bai *na arrisko>arrisku* eta *erlojo>erloju* bihurtu doguz.

—*A* itsatsidun hitz honeek aldatu doguz: *arase>arasa*, *maste>masta*, *asabe>asaba*, *ohiture>ohitura*. Baina, *itaune* bere horretan itxi dogu forma zaharragoa *da-ta*.

¹ Ikus morfologiaren barruan aditz laguntzailearen atala.

2.3.5. *Eta* juntagailua: *ta>eta*, *da>-ta*.

—*Ta/da* emendiozko juntagailuak (kopulatiboak) diranean *eta* bihurtu doguz: *jaio ta bizi zareana...>jaio eta bizi zareana*.

Baina *ta/da* kausazko lokailuak diranean, berriz, lau kasu bereiztu doguz:

*Aditz laguntzaileagaz batera doanean, *-ta* jarri dogu. *-t* bukaeradun aditzekin izan ezik, holangoetan *-eta* agertzen da: *autortuten dot, begien aurrean daukagun egia data>autortuten dot, begien aurrean daukagun egia da-ta* eta *nire irudimenak sortu ebanean, ez nerabilen eder-amesik, neure indargetasuna badakit eta>nire irudimenak sortu ebanean, ez nerabilen eder-amesik, neure indargetasuna badakit-eta*.

*Konpletibagaz batera agertzen danean, *-la-ta* forma hobetsi dogu: *Anjeli ez jako oraindino gogoratu, gurasoak zaharrak daukazalata>Anjeli ez jako oraindino gogoratu, gurasoak zaharrak daukazala-ta*.

*Partizipioagaz agertzen danean, *-eta*: *egon apur baten, ez dot amaitu ta >egon apur baten, ez dot amaitu-eta*.

*Adberbio eta gainontzekoekin, *eta*: *ez dinot gura dabenak ikasi ez daiela, ikasia beti dator ondo ta>ez dinot gura dabenak ikasi ez daiela, ikasia beti dator ondo eta*.

Testu mailako ondoriozko lokailuetan be kasu bi bereiztu doguz:

*Aditz partizipioagaz, *eta*: *langile danak lurrean zabal-zabal jarri ta, lau aldietatik bardinak diran otzaratxo zapalak hankartean harturik>langile danak lurrean zabal-zabal jarri eta, lau aldeetatik bardinak diran otzaratxo zapalak hankartean harturik...*

*Aditza ez diran enparauekin, *eta*: *Mañasik ez eban inoiz ikasi gauzen azterren edo sustrairik ataraten, eta ez ekian, ez zan errez be ta, zelan jausi zan bera maitetasunaren lakio artean>Mañasik ez eban inoiz ikasi gauzen azterren edo sustrairik ataraten, eta ez ekian, ez zan errez be eta, zelan jausi zan bera maitetasunaren lakio artean*.

Moltsoa adierazteko *ta/da>-eta* bihurtu doguz: “*Hemen datoz Paulota! Hemen datoz Joseta!*” ziharduen gizon eta emaku-

meak>”*Hemen datoz Paulo-eta! Hemen datoz Jose-eta!*” *ziharduen gizon eta emakumeak.*

—Bestalde, *ta/da gero* eta *ta/da laster* egituretan *ta/da* aditzarekin batera jarri dogu Agirrek berak zenbaitetan darabilen formari eutsita: *ilundu arterainoko guztian, eta ilunduta gero be bai>ilundu arterainoko guztian, eta ilunduta gero be bai.*

2.4. Morfologia

2.4.1. Deklinabidea

—*Keri* atzikia *-a* itsatsiarekin jarri dogu: *mordoilokeri>mordoi-lokeria, lohikeri>lohikeria, astakeri>astakeria...*

—Norenganako eta norgaitik kasu-markak bananduta agertzen diranean izenarekin alkartu doguz: *Angel ganako>Anjelenganako, ikustea gatik>ikusteagatik...* Azken kasu-marka honetan (norgaitik), Agirrek *-akgaitik* forma darabil baina guk *-akaitik* jarri dogu: *zaldipurdikoakgaitik>zaldipurdikoakaitik...*

—Gehienetan, nori plurala *-ai* morfemagaz agertzen da. Baina zenbaitzutan *-ei* aurkitu daikegu. Holangoetan guk *ei>ai* egin dogu. *Esanei>esanai, behartsuei>behartsuai...*

2.4.2. Erakusleak

—Txomin Agirrek, ahal dala, *-ee* grafiaz ez dauela idatziko dino *Kresalaren* sarreran², horren ordean hizkuntza bizian forma “bigunagoak” badagozala-ta. Hagaitik, erakusleen pluraleko formetan ez

²Nik geure euskera maite-maitea dan baino be gehiagoan bigun eta irakurgarria egin gura neuke, eta horregaitik kendu nahi neuskioz Bizkaikoari beren laztasun, kozka eta ahoa zabalik egoteak, *aa* bi edo *ee* bi alkarregaz datozanean gertetan dan legez. Bizkaiko herri batzuk, inok erakutsi barik eta guztiz ederto dakie esakera batzuen laztasuna gozatuten: nunbaiten, *aa* bi edo *ee* bi alkarregaz etorri arren, beti bat bakarra esan daroe. Durangoarrak uste dot dirala *dabee* esatoko *dabie* eta *ezteutseez*-en ordeaz *ezteutziez* esan ohi daroenak. Ondarroatarrak *honeek* esan beharrean *honeik* dinoe beti, eta holan beste hitz asko beste herri batzuetan.

Holango herrietatik hartuko ditut hitz gogorak bigunduteko egokizko era batzuk, norbaiteri txarto irudituko ete jakon bildurrez bada be.” (Ikus. 58-59. orrialdeak).

darabil bizkaiera literarioaren *honeek*, *horreek* eta *hareek*, ezpada *honek/honeik*, *horrek/horreik* eta *harek/hareik*. Guk, ostera, pluraleko eta singularreko formen arteko neutralizazioa apurtu guran, gaurko grafiara bihurtzeari, hau da, *e* bikotxagaz idazteari, hobeto eretxi deutsagu.

2.4.3. Aditza

2.4.3.1. Banaketa eta aldaketa fonetikoak

—Ezezkoa gehi aditza agertzen danean, banatu egin dogu: *ezteustazu>ez deustazu*, *ezkagoz>ez gagoz*...

—Aditz nagusia eta laguntzailea lotuta agertzen diranean, banatu egin doguz: *esateutsan>esaten eutsan*, *jausi bieban>jausi behar eban*... Aginte erakoak, ostera, bere horretan itxi doguz: *gordeizuz*.

—Aditz bukaerako *-zen* pluraleko morfema *-zan* bihurtu dogu: *etozen>etozan*, *gaitezen>gaitezan*, *eukezen>eukezan*...

—*Ba-* osorik idatzi dogu: *betozan>baetozan*, *begozan>baegozan*...

—Forma batzuk osatu egin doguz: *gebiltzan>gebiltzan*, *getozan>gentozan*, *jaokon>jagokon*, *deitxot>deritxot*...

—*Jakue*, *dariue*, *deritxue*... formak *jakoe*, *darioe*, *deritxoe* bihurtu doguz.

—Nik personari jagokozan morfema gorra gaurko grafiara ekarri doguz: *dotan>dodan*, *daukatan>daukadan*...

—Askotan, aditz batentzat aldaki ezbardinak aurkituko doguz. Besteak beste, *doia-doa*, *jazu-jatzu*, *nazu-nozu*, *dautse-deutse* bikoiteak aurkitzea leitekena da. Guk halakoetan bizkaiera literarioaren ereduaren alde egin dogu.

2.4.3.2. Aditz laguntzaileak

—*Daue*, *dauez*, *euen* eta *euezan* formak *dabe*, *dabez*, *eben* eta *ebezan* egin doguz. Bestalde, “hak ha” gehi menpeko esaldien *-N/-LA* adierazteko askotan *daben/dabela* formak erabilten dauz. Guk *dauen/dauela* jarri dogu. Bardin jokatu dogu *nabela/nabenean* eta antzeko aditzekaz.

—Gorago aitatu dogun moduan, Txomin Agirrek berak esana da e bikotxik ez dauela erabiliko, eta egin be halan egiten da, erakusle-etan ezeze, aditzetan be.

Aditzetan hartu dogun bidea adar bikoa da:

*Bizkaiera arautuaren formei eutsi egin deutsegu, bai aditz trin-koetan (*daroe/daroe* >*daroe*), bai aditz laguntzaileetan (*dabe/dabie* >*dabe*).

*Zer-nori-nork aditz laguntzailearen saileko aditz joko batzue-tan (hareek persona darabilen batzuk), ostera, egileak dakarrena bere horretan itxi dogu, nahi-ta hori eginda, neutralizazinoari be eutsi. Esaterako, *deutsie/eutsien* aditz jokoak “hak hareei”, “hareek hari” eta “hareek hareei” formak hartzen ditu Agirrerren eskuan, azkenengo laurak *deutse/eutsen* formekaz alternantzian badatoz be. Gaur eguneko bizkaieraz, *deutse/eutsen*, *deutsie/eutsien* eta *deutsee/eutseen* grafia-modua behar dabe horreek formok, hurrenez hurren. Halanda be, dan-danak ez doguz aldatu eta tradizinoan sano indartsua izan dalako *-ee* metatzen dan forma horretan *-ie* itxi egin dogu *deutsie/eutsien* forma “hareek hareei” aditz jokorako be.

—Aditz paradigma horretan, aitzateko modukoak be badira, egi-leak erabilitako “nik hareei” eta “hareek niri” personentzat *deutsiet* eta *deustie/eustien* formak. Honeek be gaurko erabilerara ekarri doguz.

Bestalde, “hak hari” aditz jokoan (bai laguntzailearen paradig-man, bai aditz trinkoarenean), *deutsa>deutso*, *deritxa>deritxo*, *etab*. bihurtu doguz, baina “hari” horren *a-* morfemari eutsi egin deutsagu gainerako jokoetan; hau da, *deutsogu>deutsagu*, *deritxot>deritxat*, *etab*.

—Baldintzaren aldaki batzuk (*ginake*, *zinake*), egungo bizkaiera literariora ekarri doguz (*ginateke*, *zinateke*).

—*Deiteke>daiteke*, *deikegu>daikegu*... bihurtu doguz. Bestalde, *zeikean* aditza erabilten dau *zeitekean* agertu beharko leuken lekue-tan. Adibideok geuk aldatu doguz.

—Subjuntiboan nork-nori-nor formako aditzetako *dai>dei* egin dogu: *daiogun>deiogun*, *daiegun>deiegun*...

—Aginte era azaltzeko erabilten dauzan subjuntibozko formak aldatu doguz: *daidazu>eidazu, daidazuz>eidazuz...*

2.4.3.3. Aditz trinkoak

—Egileak *etorri* aditzaren forma soiletan gipuzkera eta bizkaieraren erdibidean dagozan formak erabilten dauz. Guk gaurko bizkaieraren erabilerara ekarri doguz: *jatorkon>etorkon, jatorkit>jatort, etorkigun>etorkun, datorkigu>jatorku, datorkoez>jatorkoez.*

—Bestalde, *joan* aditz trinkoaren singularreko eta pluraleko hirugarren personentzako, aldian-aldian, *eioan* eta *eioazan* formak erabilten dauz. Guk holakoetan *joian* eta *joiazan* jarri dogu berak be batzuetan horreek erabilten dauzalako.

—*Egon* aditz trinkoari gehi menpeko esaldiko -N/-LA lotukeran, Agirrek *dagon* eta *dagola* formak erabilten dauz. Holakoak *dagoan, dagoala* bihurtu doguz.

—*Bailirean* forma singularrerako zein pluralerako erabilten dau Agirrek. Pluraleko *bailirean* horri eustea ebatzi dogu; ez baina singularrerako, holakoetan, *bailitzan* jarri dogu eta.

2.5. Hiztegia

Itsaserriko elebarria izanda, *Kresalak* barrukaldeko baserritarrentzat edo kaletarrentzat arrotza dan berba andana dauka. Horreek argitzeko asmoz, oin-oharretan hainbat azalpen edo sinomino emon doguz. Bestalde, Agirrek darabilen berbaren aldakia oso ezaguna ez bada, gurago izan dogu oin-oharraren hasieran hedatuago dagoen forma erabili.

Baina guk gehitutako azalpenez gain, Txomin Agirrek berak 1906ko edizinoan idatzitako batzuk be gorde doguz, ezinbestekotzat jo doguzanean. Azalpen mueta biak bereizteko, oin-oharrak ezbardin idatzi doguz: Agirrerenaak “[]” artean agertuko dira eta guk gehituta koetan, ostera, ez dogu ezer jarri.

Dana dan, oin-oharretako azalpenak ez doguz hiztegi inguruko zalantzak argitzeko bakarrik erabili. Egitura bereziak edo lekuan

lekuko aldaketan barri emoteko be erabili doguz. Aldaketa edo egitura horreek, gehienetan, bakanak dirala-ta, egokiago eretxi deutsa-gu oin-oharretan azaltzeari hitzaurre honetan baino.

Amaitzeko, esan beharra dago, zenbait egitura edota berba kursibaz agertzen dirala, besteak beste, hirugarren kapituluko Ankaluze zumaiarraren jarduna eta Indianoaren berbaldietako osagai batzuk. Txomin Agirrek berak kursibaz jarri dauz gipuzkoar batek zelan ahozkatuko leuken azaltzeko eta Indianoaren euskera ez dala garbia adierazteko. Guk pasarteok dagozan moduan itxi doguz.

Begoña Ereño

Labayru Ikastegiaren
Hizkuntza Arloaren ardurapean

KRESALA

KRESALA¹

OHARKERA BATZUK HITZAURREA LEGEZ

Bizkaiko euskeran eta itsasaldeko ekandu edo ohiturak gogon ditudala, ipuintxu bat esaten edo lan urri ezkeltxu bat egiten hasten naz, irakurlea: eta zu, goierritarra² bazara, txorierrian³ edo lurbarruan jaio eta bizi zareana, ez deustazu ezer ulertuko, eta beharbada nire euskerea ez dala euskerea esaten jardungo dozu.

Baina hori ez da egia izango. Goierrian esaten ez dozuezan hitz asko daukiez beterrokoak, eta itsasondoan osterazuek egunero ahoan daukazuezan hitz eder asko, garbi-garbiak eta guztiok ondo gorde behar gendukezanak, aspaldietan ahazturik dagoz.

Batzuk eta besteak gogoratu eta ikasi behar ditugu, eta ez urruindu⁴ eta bazterrera bota, geureak ez dirala-ta beste barik. Itsasondoko herrietan esaten diran hitzak bakarrik baleukaz euskereak, euskerea ondo arlotea legoke; goierrikoen ahoan entzuten diranak bakarrik baleukaz, ez litzateke oso aberatsa izango. Eus-

¹ [Kresala esaten deusagu Bizkaian ur-gaziari. Badakit hobeto legokela *Gezala* esatea, baina parkatuko al deustie euskerazale jakintsuak arrantzaleen ahotik hartu dodan lez ipinten badot izen hori liburutxu honen buruaurrean].

² Goierri: goiko eskualdea.

³ Txorierri: barruko eskualdea.

⁴ Urruindu: gitxi eretxi, gitxitzat euki.

kerea aberatsa da, baina bere aberastasunak toki batean hesiturik ez dagoz, Euskal Herri guztian zabaldurik daukaz: batzuk baso zugaztitsuen barruan, beste batzuk mendien hegaletan, beste batzuk Kantauriko itsasoaren ertzean; Bizkaian legez Gipuzkoan, Gipuzkoan legez Nafarroan, Nafarroan legez Franziaiko anaien artean. Alderdi guztietan sartu jako euskereari gorrinea; alderdi guztietan dagoz oraindino euskerearen sustrai onak eta landara mardulak bere bai. Gorrinea kendu eta sustrai onetik datozen landarak lur batetik bestera aldatu, hori da guk egin behar doguna. Ez dogu erderazko hitzik ahotan erabili behar, esan gura doguna euskerazko hitzakaz esan daikegunean.

Barriak dirala nik dakardazan hitzak esango deustazu, irakurlea? Ez naz barrizalea, eta hitz barri asko ez dot esango: jatorri oneko hitz zaharrak izango dira gehienak, zuk lehenago entzun ez arren; bada Euskal Herriko hitz guztiak dakizan euskaldunik ez dago, nire ustez, Gaztelerriko danak dakizan gaztelarrik ez dagoan antzera. Baina zer, barriak izanda be? Ez gabiltz egunero Gaztelako hizkuntzan hitz barriak ikasten? Eta zegaitik ikasi behar ez dira geureak? Hainbeste euskaldun zintzori ez deutsegu geuk buruetan sartu zer esan gura daben *excelentea*, *admirablea*, *infinitamente poderosoa*, *sabioa*, *principioa*, *fiña* eta beste holango erderakada eta mordoilokeria askok? Eta euskerea erakustearren erdere baserritarren buruan sartzeko aina lan ez dogu egingo? Ona dago beraz gure herri zaletasuna!

Nik geure euskera maite-maitea dan baino be gehiagoan bigun eta irakurgarria egin gura neuke, eta horregaitik kendu nahi neuskioz Bizkaikoari beren laztasun, kozka eta ahoa zabalik egoteak, *aa* bi edo *ee* bi alkarregaz datozanean gertetan dan legez. Bizkaiko herri batzuk, inok erakutsi barik eta guztiz ederto dakie esakerra batzuen laztasuna gozatuten: nunbaiten, *aa* bi edo *ee* bi alkarregaz etorri arren, beti bat bakarra esan daroe. Durangoarrak uste dot dirala *dabee* esateko *dabie* eta *ezteutseez*-en orde *ezteutsiez* esan ohi daroenak. Ondarroatarrak *honeek* esan beharrean *honeik* dinoe beti, eta holan beste hitz asko beste herri batzuetan.

Holango herrietatik hartuko ditut hitz gogorak bigunduteko egokizko era batzuk, norbaiteri txarto irudituko ete jakon bildurrez bada be. Ez daukat ahaztuta, hizkerako gauzetan herri bateko legeak ez dirala danentzat ipini behar, baina bigungarriak diran ezkerro eta esakera batzuk bigundutea ondo jatorkunean, ontzat hartu behar ditugula deritxat; bada, nire iritxiz⁵, gure liburutxoak inok irakurriko baditu, zerbait gehiago orrazturik eta ahal dan guztia leunduta argitaratu beharko dira. Ez dakit ondo egingo dodan edo ez; inok erakusten badeust lanbide gaiztoa darabildala, itxiko dot laster neure arloa. Ez neuskio neure usteari eutsi nahi, neurea dala-ta beste barik.

Eta jakin daiela irakurle guztiak: Bizkaiko euskerearen lazta-sunak aitatutean ez dot esan gura Gipuzkoakoa edo beste lurralde batekoa bardinagoa, samurragoa edo akats gitxiagokoa bada edo ez bada. Gaur, bizkaitarrez lantxo hau egitean, Bizkaiko akatsak idoro ditut; bihar, gipuzkoatarrez zerbait egiten badot, badaikit Gipuzkoako hizkuntzearen hutsuneak bilatuko ditudana. Euskerea, aberatsa dan legez da ederra eta egokia, eta hobetoago edo txartoago, guztiz antxinetatik dabil gizonen ahoan; baina liburuen orrietan oraindaino atzo goizekoa da eta izkiratzaileen lumeak ikutu, palagu, txera eta leunketa gitxi egin deutso gaur artean. Ez gabiltz bada hasieratik urrin, eta ez da mirarituteko gauzea edozeinek eta Euskal Herriko lurralde guztietan leundu beharreko esakera bat edo beste idorotea. Urrea urre da beti, baina, halanda guztiz be leundu beharrak izaten ditu urreak berak.

Egin daigun lan aspertu barik. Inorenagaz aberasturiko hizkuntz asko dakusguz harro eta lerdan, alderdi guztietan euren buru apainduak erakusten; atera daiguzan guk be geure etxe barruko aberastasunak, apaindu daigun ahal dogun ainan euskerea eta erakutsi deiegun erbesteko arerio eta herritar erbestetuai ez dala hilteko zorian bizi eta ez dala gainera eurak uste daben

⁵ Iritxi: eretxi.

legez hilgarria. Nik ez daukat asti handirik eta lanbide honetarako behar litzatekean argi eta indarrrik bez, baina danon artean asko egin daikegu. *Kresala* da nik euskerearen alde gaur dakardan hondar aletxoa.

Oraindino ohar batzuk egin beharrean nago. Igaroriko urteetan, hiru, lau edo bost eratara izkiratu dogu euskaldunak. Askori entzun deusat, eta mila aldiz bai, oso neketsua dala guk egiten ditugun gauzak irakurtea, errezagot ipini beharrean, dana ipini dogula geroago eta gatxago eta hortik datorrela euskerazko libururik inok ez ikusi gura izatea.

Autortuten dot, begien aurrean daukagun egia da-ta, danok era batean izkiratutea askozaz dala garbi, hobe eta errezagoa, eta horren beharrean gagozala; baina nik badakit irakurleak eurak daukiezala erru handiak (parkatu, baina holango egia edozeini esan behar jako), irakurlerik gehienak erbesteko izkiralegeai lotuegiak dagozala, euren nagitasunak eta ezer ikasteko gogorik ezak ekarri eutsiezala iluntasunik, nahasterik eta okerrik handienak; bada euskeraz ohitu izan diran izkirakinde edo izkiralege⁶ guztiak ordu erdi baten ikasi leikez edozeinek, gura izan ezkerro. Laster eukiko dogu danontzat lege bat, ahal danik errezena, garbiena eta onena, eta orduan ikusiko da irakurleen esate hori euren alperreria estalduteko akiakula bat zan edo ez. Bitartean *Euskal-Erria*-k antxinatik darabilen izkirakindea aukeratu dot *Kresala*-rentzat, *Euskal-Erria*-n agertu behar dauen ezkerro.

Euskaldun guztiak euskerazko gauzen irakurzaleak egin gura nituke, eta gauza astunak hain gogoz irakurten ez diralako, zerbait errezagot eta gogotsuagot irakurri daien hartu dot ipuin bat egiteko lanbide eta asmoa.

Hara hemen nire *Kresala*. Ikusi egizue gura dozuenok. Bertan agertuko diran gizon eta emakumeak ez dira neure irudimenak

⁶ [Gaztelarren *ortografía*].

asmau dituanak: oso itsua ez banago eta amesetan ez banabil, bizi-biziak dira, Arranondoko sardinak legez; neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itsaserritan ikusi daikez. Euren alkarren arteko jarduna be guztiz da egiazkoa, gatz-garau handiak kenduko deusadaz baina. Nahitanahiezkoa da, zerren Tra-manak eta Brixek ohituten daben hizketea bapere gozatu barik ipini ezkeru, irudi hobeak egingo nituke beharbada, baina gaziegiak, eta gauza gaziegiak ez dagoz behin bere ondo.

Beste gauza bat. Danok dakigu hiru eratako hizketea egiten deusagula euskaldunok alkarri: *hi*-gaz esaten dana lehenengoa, *zu*-gaz esaten dana bigarrena eta hirugarrena *berori*-gazkoa. Lehenengoaren zalea naz, zaharrena dalako, eta opa dot bere bizitza luzea; baina antxina hil zan Arranondon eta horregaitik ez da hemen agertuko hizketa zahar hori.

* * *

Hauxe ninoan *Kresala*-ren lehenengo agerraldian.

Baina gaur, bigarrena gertau nahirik, neure lantxoia osorik irakurri dodanean, garbiro dakust uste neban baino be askozaz arloteagoa urten dala.

Ez nau egundo neuk egin dodan gauza batek ase, eta hainbat gitxiago irakurgeti honek.

Nire irudimenak sortu ebanean, ez nerabilen eder-amesik, neure indargetasuna badakit-eta; banekian mamin gitxikoa eta erkina izango zala, halako gurasoa eban-ta; baina ez honenbestearaino erkina eta mamin bagea.

Izan be, jaiocera txarra izan dau, atalga eta zatika, erdi gaixorik eta hainbeste zereginez beterik nengoan bitartean.

—Zetarako dakarzu ba zelaira? —esango dau norbaitek.

Nik ez dakart; neure lagun batzuk daroe, barriro ikusi gura leukiela-ta.

Hor konpon. Gura dauenak irakurriko dau, eta gura ez dauenak, ez deiola begiratu.

I EKATXA

Ipargoiko haizea, gehiagoko barik, bat-batera eta guztizko haserre amorratuan sartu zan Arranondoko herritxoan. Bakean eta geldirik egozan kale bazterretako paper, zotz, zakar, lasto, buruko ule eta maluta⁷ galdu guztiak, arrastaka eta bira-biraka ibilita gero, hegazti bihurtu gura bailirean⁸, jaso ebazan haize horrek etxeen buruak baino askozaz gorago; zabalik egozan ate eta leiho danak, jo hau eta bultza bestea, itxi zituan danbadaka egundokorik arinen, kristal edo leiarkien erruki bage; etxe gaintan ondo lotu barik egozan teila zaharrak eta teilatuen hegaletako harriak zatitu ziran lipar batean kalekoen kontra, eta euren bizilekuetatik urten eta hasi ziran emakumeak eta herrian egozan gizon banakak itsas aurrera eginahaletan.

—Ai ene, gure txalopak! —zinoan atso gerri lodi, gonamotz, esku zikindun batek, ondo lotu barik eukan buruko zapiaren atzeko txistana⁹ dindilizka, oin bat orpozik eta bestean abarketa zahar bat oso narrazean eroiazala—. Ai ene Jesus!

⁷ Maluta: kapaxa, artazorro; artaburuaren orria.

⁸ [Balira legez].

⁹ Txisten: begiten, txorten; buruko zapia lotu eta gero, dindilizka geratzen dana.

—Ee, Tramana, begiraaa! —deadar egin eutsan atzetik joian beste emakume argal, zimel, hazurtsu batek, leiho erdika bat goitik behera hegan etorrela ikusirik; eta aurrekoa, okerkera eta goruntz begira alderatuten hasi zanean, piper potu mailatu baten estropozu eginda, jausi zan surrez aurrera, bere alboan leiho erdikea leiarren¹⁰ zidar-hots tintintsuagaz zatitu zanez batera.

Atzekoari barregura handia etorri jakon, baina kalean luze egoanari begiratu bat emonda, ez ebalatzen minik hartu igarri eutsanean,

—Hauxe da handia, nahi aina barre egiteko astirik bez —esanda, jarraitu eban bere bidetik, arin-arina.

Jagi zan atso gerri lodia, jantzi eban hobeto oinetik ia urtenean eukan bere abarketa bakarra, esku hautsez beteak igortzi zituan mokor ondoan, eta hartu eban lehen erorian abiadea, marmar bere artean jardunaz:

—Zeri barre egin behar ete deutso gero berorrek, zantar zikin horrek? Brix izango zara zu beti be, herriko haize zoro gangarra. Horraitiok o...

Itzasaldera heldu zanean ahaztu jakozan berehala jardunbehar danak. Han egozan ordurako ia herrian ziran gizadi guztiak. Hemen herriko abade nagusia eta ondo jantzitako gizon bizardun baltzeran zabalote bat, betaurre luze-luzetik, txandaka¹¹, uretaruntz begira, eta inguruan gizon eta emakume asko, mihinagaz baino be begiakaz gehiago itaunketan; harontzatxoago, txalopajaube batzuk eta arrantzale zaharrak deadarka, deizalea¹² azkarran bazan edo ez bazan, goizalderako ekatxa ezagutu bazeitekean edo ez bazeitekean, alperrikako eztabaideagaz suak harturik; eta beste aldean emakume aldra handia negarrez, euren gona barre-nakaz malko saminak igortzika. Aldra horretan sartu ziran Tramana eta Brix, bata txilioka eta arrantzaka bestea.

¹⁰ Leiar: kristal, beira.

¹¹ [*Sainsdaka* esango leukie Arranondotarrak].

¹² [Goizaldean, egualdia ikusita gero, arrantzaleai deituteko ardurea daukana].

Bildurgarrikoa egoan Kantauriko itsasoa. Ur-lainozko estalki handi bat jarri jakon gainalde guztian, beren itxura gaiztoko haserrea ezkutau nahirik legez; betaurrerik onenakaz be, uralde-
ra begira egozanak ia ez eben ezer ikusten; agiri zan itsaso apurra berde-baltzeran irakindua egoan, eta irakinaren dardareak azal guztian atara eutsazan apar zuriak igerian ebiltzan itsas hartz gizon-jantzaileak zirudien. Han barruan, lainoak eta bisutsak estaldurik eukazan ur-gazi zabaletan, gauza harrigarriren batzuk gertetan ziran, бага eta olatuen orroak zinoenez.

Uste honetan egozan behintzat Arranondoko gizataldeak eta, beste holango eretietan legez, Jaungoikoaren errukiari eskari apal bat egiteko asmo zuzena hartu eben danak. Hasi zan eliz ezkilarik handiena, durundirik lodi eta ilunenekoa, astiro-astiro, noizean behin daungada bat joten, eta hasi ziran ikastetxeko mutiltxoak kalean zehar, makila baten gainean oihal zati baltza haizera-tuaz, euren erakustzailea aurretik ebela, aingeruen gisako dei zoli bigunakaz Garbitokiko¹³ arimentzat eskean eta itsasoagaz burruka gogorrean ebiltzan gurasoentzat zeruetako Aitari arren egiten¹⁴.

Zelango arrena! Gauza samurragorik ez dau inok egundo ikusi. Umeak gurasoen bitarteko, errubageak inoiz gaiztakerian jausi diranen alde, indarrrik ez daukienak indardunai lagundu nahian, aingerutxoak gizonakaitik eskatuten, negarrez gehienak, negarra ezarkorra¹⁵ da-ta, batak bere arrebea eta besteak bere ama negarrez ikusi dituelako! Itsaserrietako umeen arrena, euren txapel-txoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten daben *Aitagurea*, Jaunaren agintaulkira zuzen-zuzen doala uste dot nik, eta eskari horrek, askotan, euren gaitasunak eta indarrak baino

¹³ [Garbitokia: el Purgatorio].

¹⁴ [Bizkaiko itsaserri bateko ohiturea da umeak kalean zehar arrenez eta arimentzat eskean ibiltea].

¹⁵ Ezarkor: eranskor, itsaskor.

gehiago erakarten dituala etxaldera Kantauria itsasoko arrantza-le gizagaixoak.

Gure mutiltxuok elizatean amaitu eben eskea, eta han egoan gizaldreagaz batera sartu ziran eliz barruan.

Ederra da Arranondoko elizea. Kanpotik begiratu ezkerro, edozeinek daki godotarren egikerarik onenetakoa dala; barrutik zer egikeratakoa dan ezin ondo igarri lekio¹⁶. Txurrigeraren¹⁷ egunetako bost edo sei elizmahai edo altara daukaz, zabalak eta galantak, nagusiaren eskumaldetik Done Pedrorena, ezkerretik kurutzean josirik dagoan Jesusena.

Abadeak, Jesusen elizmahai aurrera urtenda, hasi ziran *Miserere* deritxan Dabid Igarlearen arrena esaten¹⁸, eta herri guztia egon zan, ordu erdiren batean, gauza danak ahal daikezan Jesus onaren aurrean ahuspez, eskaririk beroenagaz, itsasotar guztiak osasunez etxeratu eizala eskatuten.

Eskaririk beroenagaz esan dot, bada danok dakigu eskari batetik bestera ezbardintasun handia egoten dana: batzuk guztiz hotzak izaten dira, beste batzuk epelak; baina beroak be badira, eta nire iritxiz, itsasoaren erdian eta itsasoaren ertzetan egiten diranak bero eta bihotzekoenak. Arrisku handiak emoten deutso bihotzari astindurik handiena, eta bihotza astindua dagoanean gure ahoak gauzarik benetako, egoki eta zintzoenak esaten ditu. Eta noiz ez dabil gizona arrisku handietan itsasoaren erdian? Noiz ez dagoz itsasertzetako emakumeak guraso bat edo seme maitea galtzeko zorian?

Arranondokoak elizatik urten ebenean, kaisaldean gelditu ziranak hasi jakoezan albistaritzan: nasara sartu zala potin bat, gehienak agiri zirala haizebeko aldetik, estu, baina oso urrian;

¹⁶ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: leikeo.

¹⁷ José de Churriqueraren (Madril, 1665-1725) arkitektura estiloa. Gehie-gizko apaingarriak eta estetika sakatua dira estilo horren ezaugarri nagusiak.

¹⁸ [Arrantzaleak estu dabiltzan orduan, euskal itsaserri guztietan egiten jako arren Jaungoikoari edo bere doneren bati].

batzuk Getariara, Donostiara edo Pasaira sartu beharko ebela, ahal baeben. Hori zan zinoena.

Eta egia zan. Baetozan txalopak, baetozan bata bestearen atzetik. Eta bakotzak bereak ezagututean, ur-txakurrak nagusiarren aurrean baino urduriago, “hemen datoz Paulo-eta! Hemen datoz Jose-eta!” ziharduen gizon eta emakumeak; eta umetxoak barriz, euren gurasoak nasa ondoan agertuten ziranean, urte batean ikusi ez balitue legez, “aita!” deituten eutsien, indar guztiakaz, “aitaa!”. Arrantzale errukarriak, danak bustita, zurbilduta, nekata, ahulduta, etenda, adorerik bage, goseak eta egarriak amaitu beharrean, gizonaren itxurarik ez ekarren; baina lurrean oinak ipinita laster ondo erakusten eben gizontasuna, euren umeak besoetan hartu eta malko lodiakaz arpegi biguna bustiten eutsienean.

Ilundu arterainoko guztian, eta ilunduta gero be bai, arrantzaleen estualdia baizen beste auturik ez zan ibili Arranondon, bat ez bada beste txalopa danak etxeratu ziran baina.

Sardinzarren potina zan agertu ez zan bakarra.

II ZERESANAK

Errekarte eta mendi-hegal zoko katean dindilizka dagoan herri koskor bat da gure Arranondo. Uretan daukaz oinak; aldats handiak hiri edo kaleetan; kale batetik bestera, zeharretarako harri-maila pendiz urteakaz leunduak; etxeak bata besteen gainean, atzeko aldea lurpean sarturik eta aurrekoen teilatutik arpegia erakusten; inok usteko ez leukean aina gizadi etxe bakotxean, berrogeta hamarretik gora beti, umeak gehienak; eta leiho-zulo danetan atorrak eta gonak, alkondarak eta prakak, itsasgizonen jaka urdinak eta oheko zapi zuriak esegita.

Barregarri egoten dala herri hau, dinoe alboerrietakoak, leihoetan hainbeste zapi euki ohi ditualako; baina Arranondoko emakume garbizaleak ezin izaten dabe beste legortokirik bilatu. Ez dago inguru guztian alperreko lurrik. Uri honen burualdetik, ondo landuriko soro, baratza eta sagastitxu batzuk agertuten dira, eurak erne, sortu eta hasi daroen guztia herriaren ahora eskinika balegoz legez; behealdetik, mueta guztiko txalopaz beterikako ibaia igaro ezkeru, aurreko beste mendiaren ondoan estu dagozan ontzitegiak edo itsasoak bere goraldietan besoak zabaldueteko behar daben hondartzea. Beste lekurik ez dago.

Herri honetako kale bedar¹⁹, oker eta aldastxuetan itsasgizonen gozategi edo ardangelak non dagozan berehalaxe igarri leike,

¹⁹ [Estu].

ostro berderik ikusi ez arren: nahikoa da zaratarik handiena non dagoan entzuten geratutea.

Alderdi guztietako sagardantegi eta ardantegiak, danak izaten dira bardin samarrak, itsaserrietan, behintzat. Sagardantegia bada, kale-harian bertan edo harri-maila bat igonda idoroten dan kortea edo tresna zaharrak gordeteko gelatxu bat, behean lurra, goian amarauna eta egur biren gainean upel batzuk erreskadan dituala: sagardaoa ona izan dedila eta non jarririk egon ez arren ez da izaten ardurarik. Ardantegia bada, mahai luze-luze bat, mahaia beste luze diran aulki bi alboetan, zaragi bat edo bi bazter baten eta lurrezko pitxar, morko eta leiarrezko edanontzi batzuk, hormearen kontra josita dagoan arasa zahar batean. Ez da gehiago behar izaten.

Holango etxe zuloetan sartuta egoten dira arrantzaleak nekaldi gogor asko igarota gero, ukalondoak zamau bageko mahai koi-petsuaren gainean dituela, tabako-bedar garratz merkeena erreaz, ketan eta deadarrez beti. Holantxe egozan Arranondokoak, esan dogun ekatxaren atzaparretatik urtenda laster.

Eta gauza jakina; gau hatako autu eta jardunak, beste esan-behar guztiak ahazturik, Sardinzar eta bere lagunen gainean ziran ardantegietan, sukaldeetan ziran legez.

Gure arrantzaleak, arpegi baltzeko gizonak, esku gogor eta hizketa zakarrekoak izan arren, guztiz bihotz samurrekoak dira; erantzuera gaizto bat edo ukabilkada bat edonori eta errez dakie emoten, baina baita sakelean darabilen ondo igortzitako txanpon bakarra edo eskuetan daukien azkenengo ogi-zatia be; edozeinegaz eta edozergaitik haserratuko dira behingoan, baina, ordu estu eta larrietan, bihotz guztiagaz eta edozeini laguntasuna emoten be badakie.

—Txo²⁰, Mangoliño —esaten eutsan, mahai ertz batetik bes-

²⁰ [Txotxo: gazteagoai edo bardin samarrai dei egiteko era bat, Arranondon guztiz asko esaten dana].

tera, garerdiko²¹ gizon lodikote batek bere lagun bati—, nun ikusi dozue zuek Sardinzarren txalopea?

—Guk inun bez, azkenean behintzat; goizean geure atzetik urten dau kalara²², baina, tretzak²³ botaten gagozan bitartean haizeko aldetik joan ete dan dinoe. Esnepelenak ikusi ei dau azkenengo... Ezta, Lapikotxu?

—Nik ez dot ezer ikusi —erantzun eban Lapikotxuk²⁴, Esnepelen txalopakoak—. Ipargoitik etorren haizeak lehenengo brastadea arpegian emon deuskunean, “ala mutilak” deadar egin dau atzekoak²⁵ eta hasi gara; baina ez dogu ezertarako astirik izan. Itsaso guztia itxi dau berehala eta hor etorri gara gu, oker, Jaungoikoak daki zelan. Tretzak itsasoan gelditu jakuz. Hara hor gure aurtengo irabaziak. Biziagaz etorri gareanean pozik, eta Antigua-ko Amari eskerrak.

—Bai, bizia da lehenengoa —jarraitu eban lehenengo berbertan hasi zanak—. Gu hemen gagoz, estu ibilita bada be; baina Sardinzarrek zer egin dauen ez dakigu. Getaria edo Donostia hartu ez badau, joan zan ha.

—Zumaian be sartu zeitekean —zinoan, oraindino ahorik zabaldu ez eban gazte batek.

Eta Mangoliñok ostera:

—Zumaian? Ez zara txarra be²⁶, Mielga. Ezagun dozu askotan izan ez zareana bertan. Ona da, holango ekatxagaz, Zumaia-ko sarrerea.

²¹ Garerdiko: persona heldua, sasoirik onenean dagoana.

²² [Kalak esaten deutse arraina joteko edo hartzeko antxinetatik aukeraturik daukiezan tokiai. Itsasotik begiratuta legorreetan ikusten diran mendi gailurrak izaten dira holango tokien erakusle, eta mendien izenak daroez gehienetan: Arno, Ogoño, Udala eta honetarikoa].

²³ Tretza: bisigua eta papardoa harrapetako erabilten zan tresnea.

²⁴ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: Lapikotxu.

²⁵ [Atzekoa: txalopako agintari, buru edo patroia].

²⁶ [Ez zara txarra be. Esakera guztiz ohitua. Erdaldunen *¡qué fresco eres!* ainakoa da].

—Honezkero ba, inun sartu balitz, albisteak etorri behar eban. Hareik e, ondo ibiltekotan, ordu bietarako hiruretarako jo behar eben legorra.

—Edo ez. Zokora joan badira...

Ahoan pipa motza ebala eta hamabost egunean kendu bageko okotz-bizarretatik behera adurra eriola egoan aguratxo batek, tunda²⁷ zaharra txapelean gordeaz, jo eban Mangoliño ukalondonan, eta esatera joian gogamena kendu eutsan ahotik.

—Zokora? Uum... —murruskada bat eginaz.

—Zegaitik ez ba?

—Zegaitik, zegaitik... Haretxegaitik.

Begiratu eutsien danak aguratxoari, zerbait gehiago esango ebalakoan, pipeari tenga-tenga hobeto biztuten eta ke batzuk botaten egoan bitartean; baina berak gura aina pipea biztu jakonean, dzangada bat ardao edanda gelditu zan agurea ezer esateko asmo barik.

—Txanogorri, horixe da ganorea —esan eutsan Mangoliñok. Eta ikusi ebanean ezeri jaramonik egin bage, barriro ia amatau jakon pipeari tenga hasten zala, Mielgari itandu eutsan:

—Ze gizadi darabil Sardinzarrek txalopan?

—Gizadi ona, gazteri indartsua: Ardauzuri, Gatzbako, Moldakatz, Artobero, Kaiua, bere seme Anjel... ez naz danakaz gogoratuten; baina hemeretzi lagun, geuk legez.

—Anjel be bai! Herrian dagoan mutilik zintzoena!

—Guztizkoa: argia, saiatua, gizartekoa, eta erramulari ona.

—Bai aita be, garai batean. Guk u²⁸, Lekuitokoakaz estropadea egin genduanean, orain hogeta hamalau urte, harek erramulari ataraten eutsan grakadea ez zan bertanbeherakoa —esan eban Txanogorrik, bigarrenean pipea biztuta gero.

²⁷ Tunda: metxero sokaduna.

²⁸ [Arranondon eta beste Bizkaiko herri batzuetan hitz baten azkenengo ahots edegiak barriro esaten dira, hitzaren oihartzunak legez: *guk u, nik i, harek e*, eta holan].

Era honetako jardunean egon ziran arrantzaleak luzaro, euren lagunakaz zer gertau ete zan kezka betetik eta Antiguako Amari arren eginaz lotara joan ziran artean.

Holangoxe autua egoan Arranondoko sukalde bazterretan. Batez be Sardinzarren etxean zan emakumeen bilera eta esanbehar handia. Hamar lagunentzat aina zan ezkaratzean, baegozan berrogei: goikoak, behekoak, auzokoak, ahaideak, ezagunak, ikusgura eta jakinahikoak, Sardinzarren emazte errukarria txeratu nahian; gizategian ez dakit zenbat eta suatetik gizategira bitarteko iragotegi edo bidestuan iluntasunaren erdian, isilikako ipuinak alkarri esaten, neskatilatxu bi, Mañasi ona, oraintsu ezagutu dogun Txanogorri zaharraren alaba lirain maratz garbi ederra, eta bere betiko adiskide Josepa.

Negarrez egoan Mañasi.

—Isilik egon zaite —zirautsan lagunak, isilik egoan baina, esakerea holan dalako—. Isilik egon zaite. Inok ikusten bazaitu be...

—Eta zer deust inok ikusi arren? Ez al da negar egitekoa hemeretzi gizon eder galdutea?

—Bai, hori bai; baina bategaitik negar egiten dozula usteko dabe. Hala ez al daki inok zuk Anjelegaz zerbait badozula?

—Zelan gero, neuk be ez nekian-ta? Zeuk dakizuz nire barruko gauza guztiak, eta zuri ezer esan ez deutsudanean...

—Anjelek bez?

—Anjelek? Harek inok baino gitxiago. Bizi izan balitz i... Jesus eta Antiguako Ama Maria! Bizi daiteala, bizi daiteala!

—Tira isilik, biziko da-ta! Zer esatera zinoiazan²⁹?

—Bizi izan balitz, edo bizi bada, egundo be ez neutsala edo ez deutsadala ezer igarri eragingo.

—Ez e? Eta noiztikoa dozu zeure zer hori?

—Ez dakit nik noiztikoa. Auzoan bizi izan da beti eta, beti ikusi dot gurasoentzako hain ona eta zintzoa dala-ta; langilea, eli-

²⁹ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: zeioazan.

zarakoa, jasakoa eta ederra be bai eta... Ederra ez da ba, Josepa?

—Halan dinoe herriko neskatila danak. Eta, zer gehiago?

—Gehiago ezer bez. Ikusten nebanean poz hartu.

—Eta ikusiko ez ete dozun uste izan dozunean negar egin. Ez deutsu berak egundo ezer esan?

—Guk alkarregaz berbeta gitxi egin dogu, eta holango gauzarik, behin bez. Anjeli ez jako oraindino gogoratu, gurasoak zaharrek daukazala-ta, euren laguntasunerako inor etxera eroan behar dabenik; eta, gainera, gogoratuten jakonean, horretarako nigana etorriko danik ez dot uste. Txalopa-jabeak dituzu-ta... Guk barriz potintxu bat baino besterik ez daukagu.

—Orduantxe bai egingo zendukela negar zolia, ostera be.

—Bai zera. Orain behinipehin lehenengo, Jaungoikoak etxera ekarri daizala: horixe nahi dot, ez dot besterik behar.

—Ez e? Arimenak³⁰ ez dau oraindino jo eta elizako ateak ez dira itxi: goazen elizara eta Jaunari eskari on bana egin deiogun.

—Horretantxe egon naz honara etorri nazan artean be. Apaitarako gogo handirik ez dot gaur euki. Goazen.

Etxeko andreari agur ilun bat eginda, joan ziran elizara neskatila biak.

Jaunaren aurrean orio-argitxu bat egoan biztuta, Done Pedroren elizmahai gainean argizari bi erreten, ilunetan beste elizalde guztia. Orio-argitxuaren errainuak Jaunaren egotoki apala erakusten eban; argizari biak, Done Pedroren eskuetan egozan urrez apainduriko giltzak bakarrik. Donearen irudia ez zan agiri, tailuntzaren barruan egoan-ta.

“O Aita San Pedro neurea! —hasi zan esaten Mañasi, bere artean— urrezko giltzak erakusten zakustaz, zeru eta lurrean Jaunak emondako eskubidea daukazula esan gura bazeunsta legez.

³⁰ [Arimena: eliza batzuetan, gabaz, ateak itxi baino lehenago, arimakaitik arren egiteko jotzen daben kanpai-soinua].

Erakutsi egiguzu gaur eskubide hori ez dala arimen onerako bakarrik, ezpada gorputzaren osasunerako be bai. Arrantzalea zinan zu be, eta errukitu zaite gure arrantzaleakaz: edegi eikeozuez³¹, Jauna, nunbaiteko atea”. Eta gero, Ostia Donea gordeta egoan tokira begira, jarraitu eban: “O neure Jaungoiko handia! Txarto egiten ete dot gizon batzuen bizitzeagaitik hain artega ego-tea? Gaiztakeria ete dot hau? O Jauna! Parkatu egidazu, eta egin bedi zure gurari santua”.

Barru eta kanpoko iluntasunean egon ziran gure gazte biak elizan, isil-isilik, zirkinik egin bage, hil-ohean gaineko samintasunaren irudiak egoten diran antzera, elizaintzaileak, arimena jo eta gerotxoago, atea itxi zituan artean.

Elizpean, Mañasik belarrondora esan eutsan Josepari:

—Ez gero inori ezer esan.

—Esatea be —erantzun eban Josepak—. Ez al dogu alkar ezagututen?

Egia zinoan: ondo ezagututen eben biak alkar, ume-umetatik ziran maite, eta bata besteagaitik edozer egingo eukien. Josepak ezer esango eban bildurrik ez egoan: lagun ona eta isila zan bera, dongatasun bagea, besteak baino azpildura eta ausardi gehitxua-go eukazan baina.

Agurrak esanda bakotxa bere etxeruntz hasita gero, bihurtu zan Mañasi, eta:

—Josepa! —deitu eutsan lagunari, eta beragana joan jakon, itanduaz:

—Zeinenak ziran Done Pedroren elizmahai aurrean egozan argi biak?

—Bata Anjelen amak ipini dau —erantzun eban Josepak.

—Eta bestea?

—Bestea neuk.

—Zeuk?

³¹ Kontestuaren arabera, esan leike, *eikiezuz* ekarri beharko leukela.

—Bai. Zer bada? Sardinzarren txalopan zeuk bakarrik daukazula zer galdu uste al dozu?

—Zein dabil bada bertan?

—Artobero.

—Ondo isilik euki dozu.

—Bai zeuk be. Bardin gagoz —esanda, hasi zan barrero etxe alderantz, irribarrez.

Mañasik bere lekutik:

—Entzuizu: etorriko dira?

Eta Josepak, ibiltari itxi barik:

—Bai, neure bihotzak dinost-eta.

III

OHARTXU BAT ETA ALBISTE ONAK

Ezizen gehiegi ipinten dodala uste badau irakurleak, jakin daiala lehenengotik, Arranondon ez dagoala ezizenik ez daukan etxadi bat bakarra.

Handiak eta txikiak, aberatsak eta landerrak, guztiak daukie eurentxua.

Jatorriz herritarrak diran etxadiak, ezizen hori antxinetatik daroe, eta etxadiko danak ezizen bategaz ezagutuak izaten dira. Aitari *Talotxu* esaten badeutsie, semea *Talotxuren semea* da, andrea *Talotxuren andrea*, alabea *Talotxuren alabea*: gehiago beharrik ez dago. Inoiz bateo-harrian abadeak ipiniriko izena ondo esaten bajako norbaiti, gurasoen ezizena izango da izengoitia. Talotxuren semeari ezarritako izena Joane bada, *Joane Talotxu* esango jako.

Kanpoko herrietatik Arranondora datorren etxadiak han dauka bere izengaiztoa hogeta lau ordu barru, eta ez dau gehiago beragandik kenduko. Zeinek ipini deutso? Inok ez dau hori garbiro jakiten. Edo mutiko batek etorbarriaren semeari ikastetxean, edo arrantzale batek senarrari elizpean, edo emakume batek emazteari enparantzan. Zergaitik? Edozer gauzagaitik. Edo lodi eder guria, edo argal mehe zatarra dalako, apaindua edo praka

zaharduna, azkarra edo baratza, argitsua edo argibagea, holango edo halango irabazbidekoa, horko edo hango baserri edo uritik etorritakoa. Mutiltxoari deitu badeutsie lehenengo *Prakazar*, etxadiko buruari *Prakazarren aita* esango jako; andreari esan badeutsie *Moñoker*, *Moñokerren senarra*. Lehenengo ezizena ezarri jakonak emoten deutso gero etxadi guztiari.

Arranondokoen belarriak hain dagoz honetara eginak eze, batzuk, euren benetako izena zelan dan be ez dakie; norbait ezagutu dot bere aitarena gogoratu ezinik; aitaitarena gitxik jakiten dau.

Badakit albistari-zabaltzailea ibili dala inoiz eskutitz bat zeinentzakoa zan ezin argitaraturik. *Sr. D. Julian Iragorri* eukan estalkian, eta Julian Iragorri zein zan ez ekian inok. Atso-agure guztiai itandu jakoen, eta atso-agureak ez zala, esan eben, herri-tarra izango. Azkenean, apaiz nagusiari eskerrak, agertu zan eskutitzaren jabea. Zein izango eta, *Saguzarra* deituten jakon gizontxu bat zan.

—Horixe be bada ipuina —esan ei eban orduan Artoberok—, Saguzarrari *Don Julian* asmau ei deutsie.

Ez dedila, bada, inor miraritu izen gaizto asko ipinten ditudalako: izen gaizto guztiak, Arranondon, egiatzko bakarrak dira.

Eta honenbestegaz, goazen etenda itxi dogun neure zeregina-ren haria orapildutera.

Sardinzarren txalopakoak Getarian sartu zirean, eta ondo zainduta egozan, guztiz ondo.

Ikusi ez dauenak ez daki zelan hartu ohi dituen, edozein herritan, euskal lurrean bada herri hori, itsasoagaz guda ezbardin ikaragarrian ibilita gero legorrera datozen arrantzale anaiak.

Legorretik ia hondatuan ikusi diran gizonok eurenez badatoz herri batera, han idoroten ditue legorrekoak, bakotxak bere etxera arrantzale nekatuok eroan nahian, batak salda beroa, besteak Santandertik ekarritako *kaña*³² gorria, honek jaka lodi bat, harek

³² Kaña: kaina-edari, ron.

ohe zuri garbia eta urliak su eder-galanta eskiniatz, danak etxean daukien guztia emon guran, daukiena baino gehiago nahi leukie-la, anai behartsuak guztia emoteko.

Sarrera txarra badago herrira eta nunbaiteko arrantzaleak sartu ezinda badabiltz, legorrekook, izugarrizko azartasunik handienagaz, heriotzaren atzamarretatik gizon batzuen bizitza kendu eta irabazteko asmo leinargitsuagaz indartuta, urteten deustie txalopetan itsasbidera; euren buruak galtzeko zoritxarrean doazala igarri edo gogoratu barik, sartuten dira itsas barrura, etxeak ainako бага zuri sendoen artetik, ekinaren ekinez, bideak edegiaz; eta arriskurik handienen artean artegatasun bage, hasten dira, gogor eta zintzo, zelan amaituko dan inok ezin esan daikean lanbide zuzen, goragarri eta txalogarritzkoan.

Herritik begira dagozanak orduan euki ohi daroen larri eta estutasuna ez da esatekoa, eta nire lumeak ezin daike ondo esan. Asko egoten dira oso urduriturik eta itsasokoari zinuka; danak, era batzuetan, ahoa zabalik, arnasarik hartu ezinda, hari albainu³³ etengarri batetik esegita balegoz legez (gaztelarren antzera esateko), herriko gizonik sendoenak noiz itoko ete jakoezan bildurez eta ikaraz; eta eurak, bitartean, adiskideai edo ezezagun batzuei laguntasuna emoten dabiltzan arrantzale umantkorrak, lagundu-nahi gori horretan erre eta kiskaltzen, lagundu-gura horregaz danak itsuturik, agertuten dira olatu guztiai euskaldun ausarditsuen arpegia emonaz, urpean orain eta haizean gero, uraga edo erramuak eskuetatik itxi barik, begiak ernai eta besoak irme dituela, legorrekoen zinuai jaramonik egin bage, euren asmoagaz ondo urten edo Kantauriko hondarretan hondatu artean “aurrera mutilak!”, alkarri deizka, “aurrera mutilak, Jaungoikoren izenean!”.

Izan da Euskal Herriko arrantzale bat, zumaiatarra, Jose Maria Zubia eritxona, baina *Mari*-ren izenagaz ezagutua. Arran-

³³ Albainu: hari-zuntza, harizpi.

tzale horri, beste askotan ondo urtenda, orain esan dodan legezko gertaldi baten Donostian ito zalako, bere jazkera eta izakeraren irudi bat egin eutsien uri eder hatako gizon agintariak, eta irudi hori han dago Donostiako kai gainean³⁴ *Mari*-ren gomutagarritzat. Baina Jose Maria Zubiari ezer kendu barik esan geinke, bere gisako beste umant asko dirala Euskal Herrian, gure itsaserrietan gizonik aina umant dirala.

Getarian ez dago behin bere sarrera txarrik. Aita Done Antonen menpean beti izaten da bare, eta han egoten dira sarri Kantauriko txalopak eta ontzi hazitxoagoak be bai, itsasoari bere amorru eta haserreak joan arte guztian, etxe barruan balegoz legez.

Goizeko ordu bietarako Ankaluze ibiltaria Arranondon zan, Sardinzarren etxean ate joka, gizonak Getarian sartu zirala eta kezka barik egoteko esanaz.

Aitatu beharrik be ez dago zelango pozagaz jakin zan albiste hau Arranondon.

Lasterbideetatik, oinez, nekatutxua eta lokatzaz betea heldu zan Ankaluze, horretarako jaioriko gizon azkarra; baina ondo berotu eben, su handi baten aurrean jaten eta edaten emonda. Hiru librako besigua, lauко ogiaren erdia eta pitxar bat ardao berehalaxe irunsi eta txopilau ei zituan, jardunari itxi barik.

Ilunabarrerako sartu ei zan Getarian txalopa hori.

—Ez dabe dohekabetasun edo kalterik izan? Ez dau inok minik hartu? —itanduten eutsan oraindino ikaraz egoan Sardinzarren emazteak.

—Ez andrea, ez. Zaparrada gogorren batzuk hartu omen dituzte, txalopako tretza, otzara, jaki eta soinekoren batzuk *gal-dure* bai; baino gizonak nahikoa tente etorri *dia*.

—Anjel be bai?

—Zein da Anjel hori *geo*?

³⁴ [Orain Zumaian bere badago *Mari*-ren beste irudi bat].

—Neure semea ba.

—*Ezaltzea* ba zu Sardinzarren emaztea?

—Bai, baina semea be badaukat hantxe, txalopan. Mutil eder bat da, eta ona mutila.

—Nik ez dakit ezer, baino danak egon behar dute osasunez. Alkateak esan dit *nei*: “Ankaluze, jungo *altzea* Arranondoaino txalopa hemen dagoala eta bildur gabe egoteko *esatea*?”. Eta “bai”, esan diot, “bai jauna”; eta esan eta egin, perloi³⁵ bi jan ditut eta hasi naiz bidean Burnietatik gora eta Askizutikan zehar. Zumaiako hondartzan egon behar izan det luzarotxo ibaia *pasatzeko* (igarotzeko) batelaren zai, baino, hala eta guzti ere, ordu bi t’erdi baino lehenago Iziar gainean nintzan.

Eten bageko jardunean euki eben Ankaluze, berbotsera inguratu ziran auzoetako emakumeak, mahaitik jagi zan artean. Han zan Mañasi be.

Eguna argitu ebanerako bazter guztietan zabaldu zan albiste ona. Josepari Mañasik eroan eutsan. Pozaren pozagaz leher egin behar eban gaixoak, guztiz artega eta birbizturik egoan, ezin zan inun gelditu, ezin hartu eban ezertarako astirik, eta, orduak baino lehenago Josepari bere logelan sartu jakon, oraindino bere lagun hau lotan egoala.

—Josepa, Josepa, Getarian dagoz —esan eutsan.

—Zeintzuk? —itandu eban besteak, ondo iratzartu barik.

—Eurak.

—A! Ahaztu jatan niri. Lotan negoan-ta... Berandura arte ez dot begirik itxi-eta...

Barre algara gozo bategaz erantzun eutsan Mañasik. Eta berehala jarraitu eban:

—Jagi zaitte laster, alperriori, esanbehar asko daukaguz-ta.

Eta barriri, Josepari ezertarako astirik emon barik, bazirautsan:

³⁵ Perloi: arraingorri, kukutz, kolo; *Triglidae* familiako arrainei emoten jaken izena.

- Entzuizu: zelan da Artoberoren ele hori?
- Lotsatu egiten naz esaten be, lotsatu neuk dakitalako be.
- Ez zara bada zu lotsakorra.
- Ez, baina holango gauzak direanean a... Zeuk zegaitik esan ez deustazu zeurea?
- Nik esan neutsun dana bart, eta gainera nire hori ez da neure barruko zer bat baino besterik.
- Eta zeure barruko zerori zegaitik agertu ez atzo artean? Eta atzo be, estu-estu izan ez bazina ez zenduan zuk txit bat egingo.
- Zelan ba, neuk be ez nekian zer zan-ta. Tira, esaizu zeure hori.
- Lotsatu egiten naz baina.
- Orduan estalduizu arpegia, baina esan.
- Hara ba, lehenagoko baten, nasatik gora nentorrela, besigu bat emon eustan Artoberok.
- Besterik ez?
- Eta gero, haren etxerako ona nintzala eta, neuk gura baneu, esan eustan.
- Eta zeuk?
- Nik ez neutsan ezer erantzun.
- Baina Done Pedrori argia ipini bai. Ez dago gehiago?
- Gehiago ezer bez.
- Ia, ia, jagi eta jantzi arin, eta goazen elizara eskerrak emoten, gero jardungo dogu gehiago eta.

IV GARIZUMAKO EGUNETAN

Orain artean esan dodan guztia oraindik ez antxina eta neguaren erdian gertaurikoa da.

Arrantzaleen bizitzea beti izaten da neketsua, baina neguan inoiz baino neketsuagoa. Neguan izaten da besigutea; neguan, legortarrak epel-epeletan lo dagozan bitartean, potin-handirik astunenak kalara ezin eroanik eta kalatik ezin ekarririk ibiltea; neguan, suesta³⁶ baino beste aterperik ez daukiela, edur-maluta galantak eta txingorradarik gogorrenak gorputzaren gainean hartzea; neguan jan gitxi eta lan asko egiteko ereti luzea; neguan arrantzale errukarrien negua.

Baina negua ia igaro zan, azkenetan ebilen ia, eta udabarri gozoak bere arpegi garbi ederra erakutsi gura eban. Luzatu zan eguna, urdindu zan zerualdea; eguzkia, geroago eta goizago, epeltasun bizigarri bategaz agertuten zan; Arranondo gaineko sagastiak eta Done Klararen zelaitxoak lorez jantzirik egozan; Errenteriako baserritarrak euren lur ondo narotua³⁷ gari berdez beterik pozarren ikusten zituen; Asterrika eta Gorozikako bide ondoetan txor-txor ebiltzan zozo-birigarroak, sasirik sasi; Kortetako soloe-

³⁶ Suesta: arrantzaleek euria danean, burua tapetako erabilten daberen txapela moduko estalgia.

³⁷ Narotu: ugaritu, ugari egin.

tan kardantxulo eta txindorrak, txepetxak eta txirriskiloak txio-txioka; Zaldupe inguruan eta Kurutzemendiko harizti eta gaztairadietan eskilasoak eta amilotxak, ostrorik ostro eta adarrak adar, guztiz biziro eta alai egiten zituen euren hegaldi errez eta ondo neurtuak; ibaiko urak, uiolaldietako³⁸ lohikeria guztiak bazterre-ra kendurik, garbi-garbi erakusten ebien kolko barrua, euren hondo edo ohe gaineko tresna zahar, arrain galdu eta erretilu zati guztiak banan-banan agertuteraino; besigutan erabilitako potin-handirik gehienak, atunetara baino lehen azpiak ondo garbitu eta pike-koipetsu edo karena barria emoteko legorrera jasota eukiezan; eta nasa ondoan, azkenez, zirauna legezko sare-txalopa edo traineruak, mehe-meheak eurak, lirain, leun eta guztiz polito eginak (meheegiak eta politegiak ei dira oraingoak), azpitik baltzez eta karel³⁹ hondoan edo gainertzean lerro urdin, zuri edo gorritz apaindurik, antxobatarako prestatuak egozan.

Garizumako egunak zirean, antxobatarako eta txarteletarako egunak⁴⁰.

Antxoba talde ugaria ur gainean ikusita, itsasora begira dabiltzanak “gorria!, gorria!”⁴¹ deituten dabenean, Arranondoko sare-txalopok arraina dagoan tokira eroaten dabenean abiadea eta aparra benetan izaten da begiragarritzkoa.

Urrinetik ezagututen da nun dagoan arrain hori. Izurdeen erasoaldiakaz izututen danean, batu-baturik eta azal-azalean geldituten da antxobea, gainalde guztia itsas hegazti zuriz beteten jako, izurdeak azpitik gora eta kaioak goitik behera, dzist eta dzaust, sartuten dira arrain piloaren erdian, jan ahalak jaten eta irunsi ahalak iruntsiten; eta sare-txalopok agertuten dira alderdi

³⁸ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: uioldi.

³⁹ Karel: itsasontzietan, albo baktaxaren goikaldea edo goiko ertza.

⁴⁰ Garizumaldian kristinauek herriko abadeagana joan behar izaten eben dotrinea haren aurrean esaten. Abadeak egindako itaunei ondo erantzun ezkeru, txartela emoten eutsen.

⁴¹ Gorria: gorri ikusten dan arrain-moltsoa.

guztietatik ahal daben ginoan biziro, euren sareakaz arrain dana inguratuteko asmoan. Txaloparen bat bakarra, hurrerago egon dalako, besteak baino lehenago helduten bada antxobea batu dan tokira, botaten deutso txalopa horrek, azkar, jira guztian bere sarea gorriari, eta, ez dago zeresanik, txalopa horrena da irabazi guztia: bi helduten badira batera, biak alkar hartu ohi dabe gehienetan eta irabazia bientzat izaten da; hiru edo lau alkarren hurre⁴² samarrean badoaz, hiru edo laurentzat be bai, batzuetan; baina beste batzuetan barriz, txalopea hurrean zala-ta, bidea eragozten aurrean jarri dala eta ez dala-ta, Jaungoikoak daki arrantzaleak euren artean erabili ohi daben haserrea, errierte, iskanbilea eta deadar garratza!; eta noizean behin alkarri arraina hartzen galarazotea, harrika edo hagaka norbaiti burua haustea be gertau ohi da.

Hau gauza okerra da, ezin geinke ukatu, baina zegaitik izaten dan errez ulertu daikegu. Inoiz, arrain asko dan urtean, antxobea, bokarta edo sardinatxoa, soloetarako, satsa legez be salduten da, oso merke; baina beste askotan, urri dabilenean, arrain handiagoen janarizat amoetarako edo tretza-lakioetarako behar danean, diru handiak egiten ditu eta, diru preminan dagoanak, zerbait irabazteagaitik, astakeria handiak dakiz egiten.

Arranondon, ohitura zaharra da, norbaiten txalopeak bokarte asko hartu badau, legorretik betaurreagaz gertaldi on hori ikusi daben deizaleak txalopa-jabearen etxean jakin eragitea; eta orduan izaten dira eskupekotxoak, batez be arrainak diru asko egingo daben ustea bada; eta baita txalopak herrira etorrita gero, arrain otzaretan zidar urtua legez erionga⁴³ saletxera daroenean antxobea, deizaleak eskatu badau, lehengo eskupekoagaz gainera otzarakadatxu bat edo sudurzapia bete edo, zerbait gehiago emotea be. Hamaika arrain eder jandakoa da Arranondoko deizalea!

⁴² Hurre: hur.

⁴³ Erionga: dariola, tantaka.

Antxobea atara ondorean berehala, kenduten deutsiez txalopari ondoan gelditu jakon ur zikin guztiak, horretarako diran zurontzi edo baldeakaz; garbitzen dabe lanbasakaz guztiz ederto; ezkata zuri dizdizariz beterikako sare luze bustia, arrantzale bakotxak samearen jiran hiru edo lau ingurukada hartuta, eroaten dabe, errenkada bakan irrigarrian, hondartzan edo zubian esegitera; oso edo erdi legortuten danean sare hori, badaroe ostera txalopa barrura; ipinten dabe atzealdean ondo piloturik, eta prest dagoz barrero, behar bada egunean bertan itsasora beste urtenaldi bat edo bi egiteko.

Gure arrantzaleok gorrira baizen azkar ez dira joaten txartelatara, elizako ezkilatxoak dilin-dilin luzarokoan dei egin arren. Baina ez da gura ez dabelako eta kristinauen ikasbidea ez dakielako bez. Elizkoiak dira eta nahikoa ondo jakin ohi daroe kristinauen ikasbidea, autortuten dabe ona dala ikasbide hori urtean behin itandutea, dana ahaztu ez dakioen; zerbait ikasten jarduten dabena be badakit; baina nagitasun apurtxo bategaitik edo, euren jakituri laburra inoren aurrean erakusteko lotseagaitik edo, beste holango zioen bategaitik, dana dala, txartelaren bila elizgelara joateko euren gorputza astundu egiten jakoe.

Halan be ia arranondotar guztiak joaten dira txartelatara, asaba zaharren ekandu on horri jarraituaz, euskaldun garbi guztiak egin behar daben legez; eta joaten ez diran bakartxoak, edo guztiak dira motzak eta adin ilunekoak, edo gaiztakeriaren bat egin dabe oraintsu eta gaiztakeria eginda laster ez dabe gura apaiz nagusiaren arpegia ikusi.

Artoberok, ez zan bera hain argia eta gauzak ikasten erreztasun handikoa be baina, jatorri onekoa eta guraso begiratuen semea zan, eta baekizan kristinauak nahitanahiez jakin behar dituan gauza danak, zerbait gehiagogaz. Itsasoraterik ez zan goiz batean bajoian, bere lagun batzuen atzetik, atoian legez, elizara, eta ia atean zanean, hara nun Josepak berak urtetan dauen elizatik.

Begiratu eutsien gazteok alkarri, eta Josepak, beste agurrik barik,

—Txartela nahi dozu? —itandu eutsan Artoberori.

—Bai, baina zeuk?

—Nik badaukat bestea. Aitarentzat dala-ta zeuretzako asmoan eskatu dot hori..., harako besiguaren ordainez.

Gehiago ezer esan barik jarraitu eban Josepak bere bidean, eta mutilak, papertxoak bere atzamar lodietan ebala, eta bere barruko poza ezin gorderik,

—Josepa —deitu eutsan— nik badakit honek zer esan gura dauen. Baietz, e?

Ez eban erantzuerarik izan, baina Artoberok, txartela txapel-hegalean gordeta, “ziur-ziur nago, baietz esan gura dau”, zirautsan bere buruari.

Handik laster etorri zan Asterik Handiena, Aste Santua, eta beragaz batean baru-saroak, eliz jai samurrak..., eta apostolu, Beronika eta fariseo⁴⁴ jazteko egunak.

Aste Donerako joran⁴⁵ handia izaten da beti Arranondoko herri sinistetsuan. Benetan ikusgarriak, beste uri txikietan egiten ez diran legezkoak izaten dira orduko eliz jaiak; baina batez be Eguen eta Bariaku Donetan elizatik urten eta kalean zehar egiten dan joan-etorri edo jirabira itzala, guztiz da entzute handikoa, eta inguru-herrietako gizaldra asko jai soinekoakaz jantzirik eta bi-deak betean joaten dira Arranondora jirabira edo joan-etorri hori ikusteko asmoetan.

Eguen Doneko arratsaldean urteten dabe elizatik Jesusen Nekaldi samineko gomutagarri askok, eta euren artean hamairu arrantzalek, bat Jesus bera eta beste hamabiak Jesusen lehenengo ikasleak balira legez. Horrezaz gainera, Bariaku Donean agertuten dira emakume batzuk Jerusalengo alabak dirala-ta; lau edo zortzi gizon Erromako gudarien antzera jantzirik; beste bat, herrian

⁴⁴ [Erromatar gudarien jazkerea daroenai fariseoak [esaten deutsie Arranondon].

⁴⁵ Joran: gogo bizia.

danik onena ahal bada, Jesusen gisara kurutze astun bat sorbal-dan daroala; beste bat zirineo laguntzaria legez kurutzeari eutsika eta ez dakit nik zenbat holango Kristoren eroankizuneko gogoragarri biziak.

Gutziz egoki jantzi eta apainduak ibiltzen dira gaurko ikasle, gudari, Beronika, zirineo eta osterantzekoak, horretarako norbaitek jasa eta itxura onean eginiko soinekoak daukiez orain eta; baina ez nik dinodan urtean. Orduan Jesusen ikasleak alkondara eta gona zuri almidoi eta burdina beroagaz gogortu eta leunduak jazten zituen soinean! Buruan barriz oraingo Elizartzain edo Obispoak eliz jaietan erabili ohi daben antzeko txapela erooten eben, paper zuriagaz egina!, oihal-estu edo zinta gorriakaz apainduri-koa Eguen Donean, eta oihaltxu baltzagaz Bariakuan...

Hau irakurtean, barre egin daike nire irakurleren batek, baina ez eban Arranondon inok barrerik egiten. Eztarririk oneneko apostoluak, euskerazko liburu bat eskuan ebala,

*Jesukristori kendu ezkeru
Pekatuakin bizitza,
Baldin ez badot negar egiten
Harrizkoa dot bihotza*

erestu edo kantaten ebanean, beste apostoluak eta herritar danak, arima-arimatik eta bihotzeko berotasuna arpegian igarten jakoela, erantzuten eutsien:

*Baldin ez badot negar egiten
Harrizkoa dot bihotza.*

Eder eta egokitasun bila dabiltzanen begiak itxura oneko gauzea bilatu barik nahigabez egoten dira; baina Jaungoikozkoa idoro nahi dabenak, kanpoko edertasunagaitik ez dau izaten hainbeste ardura, ez ederzalea ez dalako, ez bada orduan edertasunari begira ez dagoalako baizen.

Arranondokoen iritxiz kalean jirea oso ederto egin zan nik dinodan urtean.

Josepa eta Mañasik bakarrik euki eben zeresan apurtxo bat.

Artobero apostoluzat eta Anjel erromatar gudaritzakotzat ibili ziran, eta Josepak esan eutsan Mañasiri:

—Ikusi dozu gure Artobero? Ez da ondo jantzita joan. Neu izan banintz bera jazteko, alkondarea hobeto leundurik eroango eban eta gonak ez hain harro.

Mañasik barriz Josepari:

—Eta Anjel? Halango mutila, kedarragaz arpegia baltziturik-eta... Hori ez dago ondo.

V ATSEDEN ORDUAK

Agorraren erdian gagoz. Arranondotarrak, bi edo hiru hilabetean erbestetik atunetan ibilita, irabazi politagaz etorri dira etxaldera⁴⁶, eta euren itsasoko nekeak oso ahazturik, zoro-zoro dabiltz gehienak, herriko jaiak daukien alaitasun esnagarriagaz azkortuta⁴⁷.

Jaiak edonun dira jai, baina inun ez legez arrantzaleen artean.

Baserritarrak, euren herriko Donearen eguna datorrenerako, ondo gertaurik egoten dira beti. Etxean txalen bat hil ez badabe, jai aurreko egunean okela zati ederrak eroaten ditue harategitik etxera; zaragitxuren bat edo edarrakada⁴⁸ ardaoa ardantegitik, eta gozotegian be izaten dira gozagarri batzuen eske; bada ez dago gure artean urdail betekada bageko herri jai onik. Egun hori heldutakoan, meza nagusia entzunda laster, inguruetako ahaide, adiskide eta bazkarraldoakaz⁴⁹ mahaian jarten diranean, eragin mutilak jan-edanari. Lehenengo ogi zukua, nahi aina; hurrengo

⁴⁶ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: etxe aldera.

⁴⁷ Azkortu: adoretu, bizkortu.

⁴⁸ Edarra: hamar azunbreko neurria.

⁴⁹ [Bazkarraldoa: erderaz, el convidado a comer]. Bazkaltiarra.

lapiko biak, artoa erdi urdai, odoleste, lukainka eta haragi barruan dituela; gero okelea piper handiakaz, ardaotan ondo bus-tita, ito arte; eta esne-arroz gozotua gainean, ahotik atzamarra sartu ezkeru ikututerraino. “Ekin, mutilak —esan ohi daroe—, egunari berea emon behar jako-ta”.

Hori izaten da, gehienetan, herriko Donearen eguneko base-
rri-bazkari luzea, guztizko luzea. Askotan, jardun eta jan, jan eta
jardun, aspertu barik, hamabietatik hirurak edo laurak artean
mahaian egoten dira. Holangoxe bazkarietarako izaten da bako-
txak bere lagun edo ondo nahi jakoen ezagunai deitutea: “etorri
gero San Juanetan, edo San Pedroetan, edo Andre Marietan gure-
ra, bazkari on bat emongo deusugu-ta”.

Arrantzaleak baserritarrak baino estutxoago bizi izan ohi dira
eta ez dabe hain ugari gauzea etxera eroaten bada, diru-aldi dabe-
nean be, ogi zorrak kitutu eta praka-jaka mengel⁵⁰ batzuk egin
ezkeru, ez jakoe gauza handirik ziskoetan⁵¹ geldituten. Ez, ez
dabe diru askorik izaten egundo; baina bai daukien apurra gogoz
eta laster erein eta zabaldu! Baina bai jaieguna gozatu inok ez
bestean! Horixe bai!

Ezin izaten dabe beti. Jaiegun asko igaro behar izaten ditue
itsasoan arrisku handiko zereginen artean, goizean goizago meza-
txoa entzunda, ogi zati bat janda, ur dzangada bi edan eta beste
barik; eta legorrear diranean (eta legorrear izaten dira beti herri-
ko jai nagusirako), orduan izaten da euren eguna.

Arranondotarrak, mendi gainean, herrira begira daukie,
herriaren zaintzailea da-ta, Ama Mariaren irudi eder bat, baseliza
polit-politean ondo gordeta. Guztiz da maitegarria eta oso dabe
maite arrantzaleak: bera da euren artizarra, euren itzaropen, argi
eta poza, euren bihotzeko Ama Kutuna. Ama horren jaia da Arra-
nondoko egunik handiena, eta egun horretarako, lurbirearen

⁵⁰ Mengel: txankil, ahul, argal.

⁵¹ Zisko: boltsiko, sakel.

azkenengo mugarrietatik bada be, eta nahiz zerbait irabazteko ereti bat galdu, arranonotar guztiak inguratuten dira euren herrian.

Ikustekoa egoten da orduantxe Arranondo. Hiri edo kaleak garbi, etxeak zuri, suburuak⁵² ketan, gizon eta emakumeak dituen soinekorik onenak jantzita; erbestetarren batzuk baselizaruntz, Antiguako Andre Mariari eskeintzeko argizariak eskuetan daroezala; Mendaroko edo Ispasterko opil-goza saltzaileak enparantzan, elizondoan edo gizategirik gehien dabilen hirietan jarrita, balotzara⁵³ zabalak aurrean dituela; eta herriko neskato-mutikoak, adurra darioela eta otzaretako gozoak begiakaz jaten, euren hortz eta haginaren zindotasuna erakusteko txanpon zaharren baten jabe ez badira.

Hamar-hamarretan, kanpaiak dilin-dolon atsegintsuan eta zotz-hegalariak, goietara igonda, tipi-tapaka hasten diranean, urteten dabe abade guztiak baselizaruntz urre-zidarrezko jantzi-rik ederrenakaz apainduta, *Ave maris stela* gozoro erestuten; abadeen aurretik, errenkada bikotx nahikoa bardinean jarten dira arrantzaleak; abadeen hurrengo, herriko buru edo alkatea eta beste udaletxeko gizonak; eta azkenez, ibil-neurririk bigunenak joaz, uriko soinularien aldea edo *Armonía de Arranondo*, mutiko batek gora jasoten dauen sedazko oiha zuriak erderaz dinoanez, bada erdere Aitorren hizkuntza garbia baino polit eta handikiagotzat daukie Euskal Herrian bizi diran sedazko oihaizaleak.

Baselizara abadeak heldu orduko, ez da txikia baina barru eta landa ondo bete egoten da guztia, eta udaletxeko gizonak euren aulkiraino sartutakoan, berehalaxe hasten da mezea. Eta ez gero bertanbeherakoa. Andre Maria egunerako ia hilabetean ibiltzen dira meza barriren bat ikasten Arranondoko ereslari guztiak, erbestetarren aurrean zerbait badirala erakusteko gurariagaz

⁵² Suburu: tximinia, kevide, kezulo.

⁵³ Balotzara: otzara estalkiduna.

alkarganaturik, eta egia esateko, ondo erakusten dabe urtero. Hitzaldi edo sermoia barriz onenetakoa izaten da, bada egun horretarako inguruetan danik hitz leun eta garbieneko abadea bilatu ohi daroe. Izerditan eta lurrunetan egoten dira elizeak hartu ahal dituan gizaldrak eta gehiago, zutinik, begi eta belarriak esna dituela, mezeari begira eta erestokikoen deadarrak eta irakastegi-koaren esanak gogoz entzuten.

—Mutilak —esaten dabe, piperra baino gorriago eta buruko ule guztiak tente dituela elizatik urtetea—, haxe da eztarria, ez tul bat be ez dau egin.

Ez da izaten arranondotarrak zeinegaitik dinoen itandu beharrik, danak eukiten dabe gogoan gauza bat: erbestetik erakarri dan sermoegilea.

—Ez dauka jakituria makala, hareik gauza guztiak buruan gordeteko.

—Eta ez tul bat bez, gizona, ez tul bat be ez dau egin.

Hau izaten da gauzarik onena Arranondoko hizlaria izateko: ez tulik ez egin behar.

Baserritarrak ostera, danari irixten deutsie ondo, baina batez be, eresi edo kantuari.

—Haze soinu ederrak jo dituen! —izaten da euren lehenengo esanbearra.

Elizkizuna amaitu ondorean, gazteak aldasbeheran akitika⁵⁴, toki guztietan ohi daben legez; emakumeak buruko oihal baltzak tolostuten; gizonak taketa⁵⁵ baino gogorragoko atzamarren artean zigarro bat eginaz; eta guztiak ikusi daben eliz jaiaren gaineko jardunean, jasten dira arranondotarrak euren etxeetara. Etxean beti geldituten da norbait meza nagusitara barik, etxeko andrea gehienetan, sukaldeko topina⁵⁶ lapikoari begira, eta, elizatik

⁵⁴ Akitika: saltuka, jauzika.

⁵⁵ Taket: hesola; hesiak egiteko edo gurdian ipinteko egur-zati luze eta lodia.

⁵⁶ Topin: lapiko, eltze.

datozanok zamau zuria mahai gainean zabaldurik, ogi handi bat hegal batean, ardao bonbil eta ur txangila⁵⁷ ogiaren ondoan edo lurrean eta burdinazko lauhortzekoak eta koilarak mahai-jira danean ipinita bilatuten ditue. Jarri eta jan baino besterik ez dabe, bada, izaten. Batek ebagiten dau ogia, beste batek ardaoa emon, eta ogi errotadak⁵⁸ aidean eta edanontzia eskutik eskura ibilten dira. Inok ez dau auzoko jatunen nazkatasunik eukiten, bada eskutur mahukeagaz ezpanak igortzi ezker, garbi doa gauzea.

Eta holantxe, janaz eta edanaz, algaraz eta barrez, eta antxinetako ipuinen batzuk alkarri gogoratu eraginaz, joaten jakoez Arranondoko arrantzaleai atsedeneko ordu zorionekoak, baserri-tarrai eurenetan joaten jakoezan legez.

Baina, lehen be esan dot-eta, batzuetatik besteetara beti dago bardineztasun handia. Itsaserrikoak, gitxiago janda be, gehiago jan dabela esan leike, eurak agertuten daben pozari begiratu ezker: euren mihina, holango jaietan batez be, baserritarrena baino azkarragoa da-ta..., lotsagaldukotxuagoa, zoliagoak euren beso eta hankak, garbiagoa euren begiradea, handiagoa euren emon nahia, sakonagoa euren barruko poza: koipea ataraten deutsie jaiegunari, eurak dinoen legez esateko. Baserritarrak patxada gehiagokoak dira jaten, edaten eta hizketan; ez dira hain lotsabageak, ez dirudie hain argiak, ez dirudie hain emonkorrak, askotan argiagoak eta emonkorragoak izanda be. Baina danak alkar ondo hartzen dakie eta adiskidetasun onean igaroten ditue alkarregaz ordu luzeak.

Joan be luze joaten dira gazteentzat, bada, gazteak mahaian baino kaleko soinu eta olgeta edo jolasetan gehiago euki daroe euren gogo. Jolasak arpegi bi badaukaz gitxienez: gaztearentzat, gozo, bigun, maitegarrizko, dizdirazi, beti kinuka eta deiezka jagokona; zahararentzat, epel, motel, ganora eta erakarde bage-

⁵⁷ Txanbil: potiz, pegar, jarro.

⁵⁸ [Gaztelarren ruedos].

koa; gazteari jolasaren atzetik joaten jakoz irudimena, burua eta bihotza; zaharrak ez deutsie jaramonik egiten; jolasa baino ardao ona gurago dabe; lagun artean egoteagaitik askotan dakie jolasaren deadar zoro barregarriari entzungor egiten; gazteak, bero eta sutu, jolasaren atzetik ohi dabiltz; zaharrak, haren badaezpada-ko kinuari lepoa emon edo erakutsi ohi deutsie gehienetan.

Luze iritxi eutsan Mañasik be hamabietatik eta hiru t'erdietako bitarteari Arranondoko Andre Mariaren jaiegunean. Ez zan Mañasi buru arina, ez zan ibilkaria; maratza zan, ganoraduna, zentzun handikoa; baina gaztea, eta gazteak, landako jolas haizearen durundia belarrira jatorkonean, barruko urduritasunen bat edo arimako irakite bizi gozoren bat izaten dau eta ezin daiteke orduan geldirik egon.

Bazkarraldoak zituen etxean, eta hareiri begira astiune hazi-txoa galdu eban, eta gero, etxetik urten baino lehenago, ontziak jaso gura, ezkaratza txukundu nahi; uleai ikututxu bat emon, eskuak ondo garbitu eta jantzi barria ipini behar, eta honetan eta horretan luzatu egin jakon. Bere zereginetan ebilen artean, esku bustiak amantalpean gordeta edo erratza bazter batean itxirik, hamarren bat bider atara eban leihotik burua. Behin tanbolina beheko kalean alboradea joten egoala, beste behin kanpaiak bezperetara deiez ziharduela; gero, aurreko etxean erbestekoa baebe-la norbait; ostera, kalean zehar joiala urlia, betekada ederra egin ondorean..., dapa beti leihora, eta auzora begiradatxu bat beti, eta beti gogamen bat bere buruan: “ez dau oraindaino Anjelek etxetik urten”. Eta zer eutsan gero berari Anjelegaitik? Ezer bere ez, baina..., horixe dago ba.

Soineko barria jantzita gero, paparrean sedazko idunzapi edo *pañuelo* urdin polit bat orratzagaz katigau nahirik ebilela, etorri jakon deadarrez Josepa laguna.

—Zetan zagoz, emakumea? Gaur bezperetara barik eta...

—Ez dakizu ba mahaikideak daukaguzana?

—Bai, baina danerako hartu leike astia. Ez dozu txarra galdu. Gaur kantau dan lango *Manificat*-ik... Gure Gaiarrek egin

ditu garrasiak! Ene! —papparreko orratzari begiraka—. Noiztik eta hona?

—Nasa ondoko enparantzan *Tutulu mundin* alboan dagoan saltzaile ezkel bati erosi deutsat.

—Ondo polita da berau. Zenbatean erosi dozu?

—Erreal bian.

—Orduan hau be asko gehiago ez da izango —esan eban Josepak eskua, Mañasiri, begien aurrean ipinita.

—Eraztuna! Nori erosi deutsazu?

—Nik ez dot erosi.

—Zeinek ba?

—Artoberok.

—Aitaren, semearen...

—Ja jai... Tira, tira, goazen arin, honezkero estropadea hasiko zan-ta.

Lagun biak urten eben etxetik nasaruntz. Kalean zehar joiazala,

—Agur, gure kaleko neskatila gazte ederra! —deitu eutsan Tramanak Mañasiri.

—Eskerrik asko Prantziska —erantzun eban harek, gorri-gorri eginda.

—Eta neu, Prantziska, neu? —itandu eban Josepak, olgetan.

—Zu be bai, baina geurea da lehenengoa, *lumero uno!*

—Ez eiozu jaramonik egin —zirautsan lagunak Josepari—: holangoxea dozu hori beti.

—Egia baino ez dau esan: ikustekoa zagoz gero zu oraintxe, Mañasiri.

—Isilik egongo zara, gangarrori?

Holango autuetan joan ziran nasaruntz lagun biak.

VI ATSEDEN ORDUAK ORAINDINO

Barrero dinot benetan eder eta maitegarria zala Mañasi.

Ule baltz ugari eta ondo orraztua eukan, bekoki zabal leuna, azal zuri garbia; begiak bigun, garbi eta argitsuak, aho txiki guztiz polito itxia, eta gorputz lerdin-bihurkor ez argal eta ez mintsua. Horrezaz gainera gure neskatila hau herriko ikastetxean zerbait ikasia zan, arima argidun eta bihotz samur sentikorraren jaubea, oso mendu⁵⁹ oneko emakumea, mazala⁶⁰ berez, apal, zintzo, esaneko, isil, baketsu eta ona; hitz batean esateko, jauregi-
ren baten jaioa zirudian eta ez arrantzale txiroaren alabea.

Josepa txiki eta loditxoagoa zan, baltzerana, pitin bat bizi-
txoa, zerbait berekorra, erriertarako ausardi gehiagokoa; noizean behin, arrain-saltzaileakaz, deadar ozpindu batzuk egiten ekizana; Mañasi legez, mutilen aurrean lotsatia, baina emakumeen artean prakadunagoa.

Nasa aldera lagun biak heldu ziranean, euren buruak sartze-
ko tokitxu bat ezin bilatu izan eben.

Itsasoa goi-goian egoan, eguzki beroa ur-bizi kizkurtuaren
gainean diz-dizka, ibai zabalaren ertz bietan gizate soka lodi trin-

⁵⁹ Mendu: izakera.

⁶⁰ Mazal: nasai, atsegin.

koa, zubi zahar eta barria gizon eta emakumez beterik, txalopetan mutil-koskorrak ehundaka, pleiteru⁶¹ zahar batean tanbolina eta *Armonía de Arranondo*, bakotxa beren txandan, soinuka; ibaiaren erdi inguruan sare-txalopa bi, itsas aingirea langoxeak; eta euren barruan, alkondara zuri garbien papar leuna erakutsiaz, Arranondoko mutil gazte bikainenak, erramuak eskuetan zituela, estropadea hasteko laster emongo jakoen aginduaren zain.

Ez dot esan gura estropadeak edo gure arrantzaleen indar-neurketeak zelangoak diran; batetik, nire irakurle guztiak ondo dakielako, eta bestetik nik egingo neukean baino mila bider hobeto besteren batek zehaztu ditualako. Gainera, zelanbaitekoa eta laburra izan zan egun hatako indar-neurketea, ardura eta irabazi gitxikoa: herriak zaragi bat ardao emongo eutsela-ta, ekandu zaharrak ez zirala galdu behar-eta, azkenengo egin zan hotsandiko itsas deman beste euskal uri batekoen azpian gelditu arren oraindino ende oneko gizon azkarrak Arranondon baegozala erakusteagaitik, gazteak euren artean gertau eben badaezpadako estropadatxoa.

Beste herri batekoakaz barriro dematuten ziranean, orduan izango ziran ipuinak!, zinoenez.

Mañasik itandu be ez eban egin zeinek irabazi eban estropadea. Ez ahaidetik ez adiskiderik ez eukan bertako txalopetan eta. Batera eta bestera begira ibili zan sare-txalopen jirabireak iraun eban arte guztian, zerbait edo norbait begiakaz idoro gura izan baleu legez. Eta gura ebana ez eban bilatu.

—Goazen hemetik enparantzara —esan eutsan Josepari, andreteria eta gizataldea sakabanatuten hasi baino lehentxoago. Eta enparantzara joan ziran biak.

Enparantzea emakume eta gizaseme gaztez berehala bete zan; tanbolina aurretik ebela, etorri ziran estropadako mutilak, batek besteari eskuak emon eta aurrekorako sokaturik; makilka zaba-

⁶¹ Pleiteru: merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko itsasontzia.

lune handi bat egin eban herrizainak, eta hasi zan aureskoa. Eta hasi ordurako,

—Hemen be ez gagoz ba ondo —esan eban Mañasik ostera.

—Zergaitik baina?

—Ez dozu ikusten zein dan aureskularia?

—Bai, neure zera.

—Ba zeure Artoberok zure eske bialduko ditu lagunak, zu atara ezkerro ni ataratea be izan leike, eta ni ez nago gaur horretarako.

—Zeuk gura dozuna egingo dogu. Neuk be, herri guztiko begiradak neure gainean ditudala, enparantzan tente egoteko gogorik ez daukat, santu bat banintz lez, eta goazen nahi dozun tokira. Baina, Mañasi, iluntxu zakustaz zeu gaur: zerbait badarabilzu zuk hor barruan. Anjel inundik agiri ez dalako ete da guztia?

—Ez ba.

—Ez ba neuri?

Izan be mirarituteko gauzea zan Anjel lango mutil gazte sasoi-koa arratsalde hatan inondik ez agertutea. Goizean ikusi eben, meza nagusitan, ederto jantzita, prestua eta jasakoa mutila; meza nagusitik urten eta kalean behera etorrela ondo begira egon jakozan begi baltz eder bi; baina arratsaldean ez eban inok begiz jo. Nun eta nogaz ete ebilen? Badakit neuk eta esango dot, isilean euki behar dan ipuina ez dan ezkerro. Markinaldeko ahaide batzuk bazkaldu eben Anjelen etxean; ahaideokaz egon zan, bateltxu baten, estropadea ikusten, herritik urrintxu, estropadakoak herri-runtz birau behar eben tokian; eta gero ahaideoi poz pixka bat emoteagaitik, han erabilen bere ontzitzua бага indartsuen gainean gora eta behera, barrukoen bildurrezko “ai!” eta “oi!”-ak entzunda nahi beste barre eta destaina eginaz. Ez eukan orduantxe asko gogoan bere gomuteagaz eta bera ikusten ez ebalako enparantzaldean ilunduta egoala norbait!

Eta inori otuten bajako ez dala sinistutekoa Anjelek herriko jaietan bere burua ez erakustea, jakin daiala horrek, itsaserrietan

be ez dirala gizon guztiak haizedun, txakilo⁶² eta buru arinekoak, eta badagozala zentzuna eta burua tentunean daukiezan gizonak be; bada ezin leiteke, ahoa betean, zuzen eta egiaz beti esan: “holango herritakoak zoroak dira edo beste hatakoak zentzundunak”. Danetarikoak dira edonun. Anjel, itsaserritarra izan arren, mutil burutsua zan, gazte-zaharra, gurasoen mendean pozik egoana, lotsabagekeria zer zan ez ekian mutila, aingeruak langoxe ona, balea baizen indartsua, erramulari errimea. Ez ekian jolasetik iges egiten, baina tuntunean edo tanbolinean ez eban jakiten bere hankakaz zer egin, eta gurago izaten eban erramuetan edo pelotan jokatu, eta aurrekoetan baino gizontasuna erakusteko beste edozer jolasetan ibili. Ez eukan enparantzan bapere zeregirik eta zerikusirik, eta ez zan joan enparantzara: ondo ebilen, ebilen tokian.

Baina Arranondoko enparantzeak zerikusia baeukan eta baebiltzan bertan zeregindunak. Hango gizadia, hango emakumetea, hango akitika egin beharra, hango berbotsa, hango joan-etorri eta gorabeherea, hango hankeai eta besoai eragitea zer zan! Hurrinetik begiratu ezkerro, enparantzako bilereak moltso zabal bat zirudian, legorreko manjuba⁶³ gorri bat, izurde eta guzti; eta, inguru guztian tente begira egozan atso, agure eta neskatila gatzbakoak egiten eben uztai handia, saretzat hartu eikean. Hurretik begiratu ezkerro, ez zan ikusten sarerik, baina gure arimen arerio baltz okerrak ikusgatx eta ezkutuko sare sendoren bat ete eukan otuten jakon Arranondoko abade nagusiari.

Baderitxat neuri be: inun izatekotan, hantxe egongo zan gaizkin kin plagearen sarea.

Mañasi eta Josepa, sareaz kanpotik horra eta hona ibiltzen asperturik egozanean, jo eban *Abemaritakoak*, eta gure neskatik

⁶² Txakilo: txaldan, ganorabako, barregarri.

⁶³ Manjuba: izurdeek ateraten daben arrain piloia. Bokarta edo sardina izaten zan. Manjuban: Izurdeen atzetik arrantzan joan, izurdeak ekarten daben arrain-moltsoaren atzetik ibili.

lok, Ama Mariari arren eginaz, hasi eben etxerako bidea. Enparantzan gelditu ziranak ez eben arrenik egin, lehenagoko euskaldunak egin erioen antzera.

Alkarri agur esan baino lehenago,

—Urtengo dozu gero suak ikustera? —itandu eutsan Josepak lagunari.

—Ez nik —esan eban Mañasik—, gurean, badakizu, ez dabe nahi izaten gabetan etxetik urtetea; eta gainera, nahikoa su eta gar daukat neuk barruan.

Ilun, sotil eta atsekabez betea sartu zan etxean Mañasi. Zegaitik? Berak be ez eukean esango erraz zegaitik. Aurreragoko gabean amesetan joan zan ohera: bigaramonean jai handi alaigarria zala-ta, hau eta hori eta bestea ikusiko zituala-ta, nunbaitetik poztasun handiren batzuk euki eikezala-ta. Zer, nundik eta zelan gauza garbirik ez jakon gogoratu; baina zana zalangoa, arimako asete onen bat izango zan, bere ustez; bihotzaren betekada gozoa. Eta jai egun guztia igarota gero, bihotza gosean eroian etxera, inoiz baizen gose handiagoan...

Asko guran urten eta hutsean bihurtu. Nori ez jako holango gauzaren bat gertau, bere bizian?

VII

LEHENGO BIDETIK

Herritxoetako jaialdiak hirukotxak izaten dira. Horregaitik, bigarren egunean be bazirauen Arranondoko jaiak; baina lehenengoan baino askozaz motelago eta hotzago. Elizan ez zan gauza barri handirik izan; erbesteko ezagun, adiskide eta odolekorik gehienak alde egin eben euren herrietara; herritar mutil asko, aurreguneko jan-edan gehitxoagaitik eta lo gitxitxo egin ebelako, guztiz zurbildurik egozan; emakumeak ez hain ederto eta apain jantzita; gizonik langileenak hasi ziran euren zereginetan. Gazteak eta edarizaletxuak egozan oindino irme hiru egunak amaitu artean.

Goizeko hamarrak aldean urten eben *salina-salinak* egiten. Alkondara eta praka zuri eta gerriko eta txapel gorriakaz, tanbolina aurretik ebela hamasei mutil ziran; eta euren erdian, gona zaharrakaz barregarriro jantzitako eta arpegia kedarrez baltzituriko gizon bi, lepoan zaragi bana eukiezala, ahuspezturik eroiezan. Eritxoen tokietan gelditurik, artajorran baebiltzan legez, artajorrako atxurtxuakaz, tuntunak egiten eban neurrian, aztertuten eben kalea, eta azkenean, atxur-kirtenakaz, dzartada galantak emoten eutsiezan erdiko zaragidunai... zaragi gainean. Ez dago esan beharrik haizez puzturik egozala zaragiok. Gizonen atzetik ebiltzan mutiko neskatoak baziharduen, bitartean, antxinatxuko eta zentzunbageko eresi hau erestuten:

*Salinetatik etorriko da
Gure eskola maixua,
Ai salina, salina, salina,
Ai salina gaixua!*

Holantxe ibili ziran kalerik kale eguardi arte guztitan. Arratsaldean antzarrari burua kentzea egin eben ibaian; eta gero aurrezko barregarri bat agure zoro eta ganorabageko atsoen artean.

Hirugarren egunean jai itxurarik ez eukan herriak: pelota jokoa izan zan jolasketarik ikusgarriena. Tuntunera ia ez zan inor joan.

Igaro ziran, bada, Arranondoko jaiak. Entzute handia ekarri eben euren aurretik, gizate guztiaren jaun eta jabe izan balira lez etorri ziran kanpai-hots zindo eta kalerik kaleko soinuen zarata bizigarriakaz arimetarainoko sarrakioa⁶⁴ eta bizitasuna sartzen ebela; baina laugarren egunerako inok ez eutsen jaramonik egiten, eta kanpai, tuntun eta beste soinu bage, isil-isilik, lotsatuta legez joan ziran barriro bere bideetan zehar. Ona da jolasa, jolas ona danean, gizonari arnasea eta atsedean bat emoteko; baina betiko, behin be ez da ona. Betiko jolasak betiko lanak baino gehiago nekatuten dau edozein, eta gehiago lanetik bizi behar dauena bada edozein hori. Eta arranondotarrak, guztizko jolas zaleak izanda be, lanetik bizi behar dabenak dira gizagaixoak eta ezin izaten dabe jaso luzaroan jolasaren astuntasuna.

Hasi ziran, bada, lehengo bidetik. Eta zein zabala dan itsasotako bidea, eta zein estu, larri eta keixu ibiltzen diran bide horretan arrantzaleak! Egunak ekatxerako dagozan garaietan, goibel eta ilun bilatu ohi daroe sarri zerua, hodei baltzez jantzia, hodeien artean ezkutaunik dagozan tximista erregarriz betea, eta urgainea barriz bizi, ibilkor, erabilkor, indartsu eta itotzailea; egualdia one-

⁶⁴ Sarrakio: bildur handia.

rako dagoanean, eder eta izartsu idoroten dabe goialdea, gabaz⁶⁵; eguzkiaren errainu sutsuakaz itsasgain dana ikusgarriro zidarturik egunaz; baina beti da handi eta bildurgarria itsasoa, beti aurkituten dau gizonak argal, ziztrin, huts eta ezereza bere burua itsasoko zabaltasun ahulgarriaren altzoan.

Baina arrantzaleak badakie, han, itsasoaren barruan dagoala euren eta etxeke guztien janaria, eta jan beharrak saiatu eragiten deutse ikusi barik sinistuko ez litzatekean ausardi, neke eta arriskuagaz. Deituten deutesie goizean goiz, gaberditik laster; jagiten dira berehalako baten; jazten ditue zirezko soinak, euria bada; ipinten dabe besapean otzaratxu bat, arraina hartzeko tresnakaz eta jaki apurren bategaz, eta badoaz euren kaletara..., eta kalan, euri-truxu zaparradetan beratuten, haize hotzetan gogortuten edo eguzki berotan kiskaltzen luzaroko orduetan egonda gero, etxera datozanean badatoz, zerbait dakarrenean badakarre: bada ez da gauza ziurra beti atzera etortea eta arraina ekartea gitxiago.

Jaiak igaro eta lehenengo itsasora joan ziran egunean, baetozan arranondotarrok etxeruntz, arratsalde erdi inguruan. Garbi-garbi egoan zerua; urdin-urdin, bare-bare eta baketsu ur-zelai galant-ederra. Marboilaren azkenengo harian, zeru eta itsasoa alkaturik egozan tokian, oihal zuri batzuk agertu zirean, hemen, han eta haruntzago guztiz polito banakaturik; danak bardinak izan arren, batzuk handi eta besteak txiki zirudien; hegoak zabaldurik, geldi-geldi, patxada onean legorreruntz igeri etozan hegazti aldra begiragarrikotzat hartu eikezan; geroago, askozaz geroago, txalopen baltzuneak hego zurien azpian ikusten zirean, azkartxuago etozala; gehiago hurreratueran, edozeinek ezagutu eikean alkarren atzetik txalopak ekarren abiadea eta aparra, etxerago eta arinago, bakotzak bere atzean bitsezko hari zuri luze bihurri bat itxiaz; eta azkenean, noizbaiten be, txalopetako gizonen arpegi baltzeran legentsuak ezagutu zirean banan-banan eta garbiro.

⁶⁵ Gabaz: gauaz.

Beste inok baino lehenago eta hobeto ezagutu zituen gizonok eta txalopok Arranondoko mutil zoztorrak. Han ebiltzan ikastetxera barik, askotxu (bada ez da izaten gauza gozo eta gogozkoa jolas-egunaren ondorean ikastetxean sartuta orduak igarotea), batzuk izkiratan, hatx-zuloetako osintxoetan besoak sartuta:

izkira izkirea
dame la bizarra

deituaz; beste batzuk urertzean, txipli-txapla, olatuakaz jolas-tuten, hanketatik gora zelanbait jatoriko praka zahar barrenak bustiaz; bat edo beste, urak gora igoeran egindako zakar-haritik zehar, lau oinean, narras, itsasoak ekarririko pitxien bila; gehienak hondarrean etzinda, hondar gorria gainera boteaz soineko bustia etxera baino lehenago legortu nahian; ia danak orpozik eta muskilea⁶⁶ erioela.

Txalopak urrinean agertu orduko eztabaidan hasi ziran mutiltxuok.

—Lehenengo datorrena Mozkorrendorena da.

—Ez da.

—Bai da... Neuk ez dot ezagututen?

—Non gero?

—Nagusian⁶⁷ dakarren izarrean.

—Guzurra: horrek ez dauka izarrik, txaplata bat dauka horrek; Pipertsurena da hori.

—Ez da Pipertsurena. Arina be bada-ta...

—Arina? Zuena baino gehiago.

—Gurea baino? Ez da... Nahi dozu kalatik hona zeinek ari-nago egin? Lehenagokoan be atzean itxi eban gero.

—Guzurra. Gurerik ez da egundo zuenaren atzetik etorri, batera urten ezkeru. Gutarrak zuentarrak baino gehiago dira edozetan.

—Edozetan?

⁶⁶ Muskil: moko.

⁶⁷ [Nagusia: haize-oihal edo belarik handiena].

—Bai. Urten gura badozu harrika, gura badozu auskan (burruka), gura badozu gartzan⁶⁸.

—Goazen pelotara.

—Goazen. Zer egingo dogu?

—Txakur txiki bat..., daukagunean emotekotan. Baina egon pixka baten, gurerik agiri ete dan aitari otzarea eroan behar deustat-eta⁶⁹.

Honetan egozala, sartu zan eginahalean hondarrera mutikotxu ulegorri arpegi zuridun bat, paper eta liburuentzako zorrotxua lepotik behera ebalá, urrinetik deadarka, besteen gainera jausi behar eban zigorkadeaz aurrez pozturik, eta suretik behera etorkon erionari zurrustada batean goruntz eraginaz, lehenengo bere aurrean bilatu ebanari esan eutsan:

—Txo, emongo deustue maisuak. Eskolara bez zeuek.

—Ostikoaz popan (atzean) jotén bazaitut u... —erantzun eutsan besteak—, lehenago be koasta (sudurra) hausita daukazu gero.

Euren esanbehar eta eginbehar guztiok itxita, inguratu eben ikastetxetik etorren hori itsasondoan ebiltzan mutikotxo danak, bada jakin gura eukien ikastetxean zer igaro ete zan.

—Zer esan dau, zer esan dau Bizardok? —itandu eutsien— Izenik hartu dau?

—Bai, izenak hartu ditu, eta esan dau eze bihar dantzan egin beharko dozuela.

—Ni ez naz joango, lehenagokoan be irizilagaz⁷⁰ zanbroak⁷¹ atara eustazan-ta —esan eban pelotarako gertau ziranetatik batek.

⁶⁸ [Gartzan: a las chapas, erderaz].

⁶⁹ [Ohiturea da, Arranonon, itsasotik nekatuta datozen gurasoai euren seme edo alaba hazitsuenak nasatik etxeraino otzarea eroatea].

⁷⁰ Idizil: zigor, latigo.

⁷¹ Zanbro: narruan gertatzen dan urratua edo baltzunea.

—Ni bez —besteak— moskaranak⁷² euki nituanean, ia eskua zatitu eustan-ta.

Baina beste gauza bat geratuten jakoen barruan. Baekien lehenengo bidetik hasi behar zala eta amaren aurretik joan beharko ebela ikastetxeko ateraino, bada gurasoak, lehenengo susmau, gero itandu eta gero jakin egingo eben euren semeak non ibili ziran, eta hurrengo egunean, esan dana, zapladak hartuaz joan beharko...

Hau gogoratu jakonean, lehenengokoak esan eban:

—Gure amari ezer esaten deutsan txotxin oskil barritxuari zaputzak atarako deutsadaz.

—Eta nik —besteak— maisuak (irakasleak) ikuturik egiten badeust, bere bizarrak atara.

—Ez be⁷³ —erantzun eutsan ulegorridun mutikotxoak, beste zurrustadatxu bat eginaz.

⁷² Moskaran: intxaurren azal berdeak atzamarretan ixten dauen lohia.

⁷³ [Ez be: erdaldunen *¡como no!* baino asko gehiago esan gura dau, eta itsaserri baten ohituten dan esakerea da].

VIII

ARRAIN-SALTZAILEAK

Arraina polito ekarren-ta, potinak herrira sartu ziraneko, han egozan nasa gainean emakumeak.

Euren egitekoa da, Arranondon behintzat, arraina txalopetik atara, garbitu eta gazitutea, txikia bada (sardina eta antxobea). Handia danean (besigu, legatz edo atuna, batez be) saltokira eroatea dabe asko, bada txalopa guztiak dakarren arraina batera saltzen jakoe mandazainai.

Emakumeai jagoke, gainera, erdalerrietara bialtzeko lantegiak erosi daroen arraina oriotan erre eta upeltxuetan tolostutea.

Eta, azkenez, euren egitekoa da, herrian eta inguruetan jateko behar dana, kalerik kale saltzea.

Hiru eratako saltzaileak ezagutzen ditut: txalopa-jaubeen emazteak, emakume isil eta onak gehienetan; potintxoak dakarren arrain txikia, erre edo egosi barik luzaroan euki ezin dan arraina, herrian bertan kalerik kale saldu ohi daroenak; eta besteai erosita auzoetako herrietara ahal dan arrain mueta guztia eroaten dabenak: astodunak deritxoe azkenengooi, astoakaz doazalako herririk herri.

Astodunak ziran Tramana eta Brix, edo, hobeto esateko, astojaubeak, bada herrietara alogerekoak bialdu ohi zituen; langileak biak eta bihotz onekoak, baina ezagutu ziranetik bata bestearen arerioak edo arerio legez bizi ziranak, eztena baino mihin zoli eta

zorrotzagokoak, ahora jatorkeen zatarkeria edozeini esan behar eutsienak, alkar ikusi orduko beti erriertan ziharduenak, atzamararako beti prest egozanak. Eurak ziran emakume agirakari guztien buru eta nagusi; agiraka egitea zan euren poza; nasan batuten zireanen artean gogorrenak eta gaiztoenak izatea euren harrotasuna. Orain bat eta gero bestea esan arren ez eutsen ardurara; guzurretan inok hartuagaitik ez ziran lotsatuten, bada deadar handiena egiten ebanak edo atzamarririk sendoenak eukazanak irabazi ohi eban auzia. Eta deadar, garrasi eta txilioak egiten, horretantxe ziran ba eurak mutilak..., edo emakumeak! Hutsa behar izaten eben haserratzeko, eta haserre egozanean, entzutekoak izaten ziran euren destainazko esanak..., edo ez entzutekoak, ikusgarria euren gorputz, buru eta eskuen eragin aukerazkoa.

Aitatu dodan egun honetan be, ezerez bategaitik hasi ziran, eta Jaungoikoak daki zelan amaitu eben haserraldia, eztarriak itxi eta zeresanak eta indarrak amaitu jakoezanean.

Otzarakada bat atunegaz etorrela, nasa gainean egozan emakumeen artetik igarotean, bultzada bat emon eutsan otzara horregaz Brixek Tramanari, uste bage edo nahita, hori ez dakigu, bada era bietara gertau zeitekean. Tramanak, burua bihurturik, ikusi eban bere arerioa eta hasi jakon:

—Nor da berau, hainbeste leku behar dauena? Erregina dala-koan birau natxako eta Brix sorgina baino ez da.

Tramanaren esan garratza entzun orduko, itxi eban Brixek lurrean bere otzarea, ipini zituan esku biak gerrian, eta inguruetakoai begira, buruari eraginaz, esan eban:

—Hara, hara oin be zelan hasten dan kaskamotz, zikin, hordiori.

Eta arerioari ausarditsu arpegia emonda, jarraitu eban:

—Entzuizu, Traman zabala, atso popandia, zein sorgintzutan⁷⁴ ikusi nozu neu? Zeu izango zinan sorgintzuan zu, baina horditurik, eta ez zenduan ezagutuko zeugaz ebiltzanak be zuk.

⁷⁴ Sorgintzu: akelarre.

—Hordituta neu? Zegaz gero hordituta? Zeuri atzo amantalpetik kalean jausi jatzun bonbilekoagaz?

—Eee? Zeeer? Neuri bonbila jausi jatala atzo kalean? Guzurrea dinozu, saskil, zantar, txarri, urde, zorritsu, lotsabageorrek.

—Min emoten deutsu egiak, min? Alperrik ukatuko dozu ba, Marikontzek be ikusi zinduzan⁷⁵-ta.

—Marikontze ezkailu, txatxala, ezkel, petralari eta zuri, biורי, arpegiko narrua kenduko deutsuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue baina.

—Zeeuek? Ja jaii! Ez zaitte ahaztu gero, buruan zorririk ez badaukazu, neuk lehenago bartzak (ligarrak)⁷⁶ hausi neutsuzalako dala.

—Zeuk bartzak kendu neuri? Ez dago toki txarrean. Nire buruan ez dago bartzik. Burua garbi daukat nik, Tramana: zuk, zital zikin horrek, egundo zeure bizian euki ez dozun bestean garbi.

—Zegaz garbituta? Txanton Kaiuanetik zeroian⁷⁷ pattarra-gaz? Hobeto egingo zenduan begietako makarrok⁷⁸ be garbitu bazenduz.

—Txantonenetik pattarra baneroian, ondo neroian; neuretik, ez zuk lez inoren lepotik...

—Ja jaii! Lehen ez dozu ba esan ez zeroiala⁷⁹?

—Lehen, eta orain, eta beti, neurea egia, neurea...

—Uutik, mielga⁸⁰ ustel gosekila! (goseak hila). Zoaz nire aurretik, bestela...

⁷⁵ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: zenduzan.

⁷⁶ Bartz eta ligar: bazpi; zorrien arrautzak.

⁷⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: zeroiazun.

⁷⁸ Makar: betazal ertzetan pilotzen dan jario lodi lehortua.

⁷⁹ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: eroiazula.

⁸⁰ Mielga: *Squalus sp.* familiako arrain mueta bat; nahiko handia eta arrekolorekoa, bizkar-hegal baxotxaren aurreko ertzetan ezten pozoidunak daukaz. Estimazino gitxiko arraina.

—Bestela zer? Neu joango naz, nahi dodanean, zu lango emakume baldar, koipetsu, zetakaz⁸¹ beteriko bat neure aurrean ez ikusteagaitik...

Ez zan honenbestegaz amaitu Brix eta Tramanaren arteko ekinaldia: aldendu ziran alkarregandik, jardunean; baina bilatu eben barriro alkar bi, hiru eta lau biderrerraino, eta han izan ziran hangoak azkenerako, batak besteari oratu eutsienez.

Askok usteko dau zatarkeria gehiegi ipinten ditudala hemen: izan leiteke; baina Brixek eta Tramanak esandakoen laurenik ez dot ipini; eta halan be, herritar gizonak euren txalopetako arazo eta zereginetan, ezeri jaramonik egin baga jarraitu eben. Betikoa zan-ta! Beste batzuk izan baziran baina, Tramana eta Brix... Ba!

Saldu ziran arrainak. Astodunak erosi zituen zatitxu batzuk; mandazainak gehitxoago; lantegietarako gelditu ziran enparauak. Maneau zituen bakotxak bereak, astodunok ipini zituen eurenak asto bakotxean otzara binaka, eta arre azkar, arre, asko ibili behar eben-ta.

Arranondoko astodunak entzute handikoak dira. Astorik bizkorrenak baizen bizkor, oinez beti ordu luzeetako bidean, nahiz uda eta nahiz negu, gehienetan gabaz, inoren bildurrik bage, hain laster Arrateko, Iziarko, Gardotzako edo Antiguako Amari arrenez, hain laster alkarregaz agiriketan eta batak besteari zitalkeriak esaten; herrien sarreran alai eta pozkor, eresi zahar eta barri ederto esanakaz lotan dagozanak esnatuterraino, gabaz bada; eta eguna argitu ezkeru “arrain ederrak eta merke!” luze, zoli eta garbi deadar eginaz, belarririk sor eta gorrenari entzun eragin artean; zortzi, hamar, hamasei asto aurretik dituela, han doaz Arranondoko arraindunak goierri aldeko urietara, itsasertzetako azkartasuna, oihua, zarraparradea eta gatz ale lodia guztietan zabalduaz.

⁸¹ Zetaka: orban, lohi, zikin.

Hamaika bider Markina eta Durangon, edo Elgoibar, Eibar, Ermua, Plazenzia, Bergara, Mondragoi eta Oñatin entzun ditue Arranondoko astodunen esakera latzak eta baita euren kanta edo eresi ezitsu eta ederrak be; hamaika bider herritik kanpora joiazala, entzun deutset nik, arrantzaleak lotarako dagozan orduan, iluntzeko haize bigunak Arranondoraino ekarren holango eresi-oihartzuna:

*Itsasoak urak handi,
Ez dau hondorik agiri:
Pasako nintzateke handik
Maitea ikusteagaitik*

Inoiz, eresi hau aitu ondorean, lantegiko ate ondoan, besoak lotuta, barrura sartzeko deiaren zain egoan eibartarren batek, txantxetan esan badeutso astodunari:

—Baina maiterik badaukazu gero zeuk, maiterik? —laster asko entzungo eban arrain-saltzailearen era honetako erantzueraz zorrotza:

—Hemen daukagu geure mustur baltz, eta maiterik daukagun dino berak. Bai bost, zu baino morrosko hobeak eta maitegarriagoak.

IX GURE GAZTEAK

Ez daukadaz ahaztuta Anjel eta Mañasi. Bai zera ahaztuta! Euren ipuinak esateagatik hartu badot eskuartean darabildan arloa.

Hara hemen euren barri batzuk.

Itsasoraterik izan ez zan goiz baten, Anjelek txibi-korainak egiten ziharduala, bere ama Tomasa Handiak, etxeko arazoetan ebilen bitartean, bera (ama) zaharra zala-ta, lan asko egina, nekatua eta osasunean biguna be bai eta, ona izango litzatekeala etxera andre gazte bat ekartea esan eutsan...

Anjel irribarrez gelditu jakon, ezer erantzun barik.

Eta ama horrek jarraitu eban ostera:

—Zure bihotzeko atean ez dau oindino inok deitu, eta horregaitik ez dozu zeuk be inori oles edo jeupada bat esateko asmorik hartu izan. Baina zerbait egiteko garaian zagoz, eta begiz jota daukat nik gureztat ondo datorren neskatilatxu bat.

Anjelek, korainera makurturik eukan burua jasota, begirada bategaz “zein da?”, itandu eutsan bere amari.

Eta honek, semeak zer itandu gura eban igarri orduko,

—Antoni Errota da —esan eban—, Mari Errotaren alaba ba-karra.

Barriro makurtu eban Anjelek burua, korainera, eta amak, okerkera begira jagokon baina, ezin eutsan semeari ezagutu zelan hartu eban albistea.

Eta jarraitu eban, berak aukeratutako emakume hori zein egokia zan hobeto erakustearren:

—Berebizikoa dozu Antoni hori, guztiz langilea, makur bakotxagaz bat eta erdi egiten dakiana eta aberatsa gainera. Ia ba, Antoniren amak berrehun dukat ekarri zituan Artolatik, urretan, orduan oin baino urre gehiago egoan egon be eta; aitak barriz atuntzu⁸² onak izan ditu eta bere potin-handi biakaz gura dauen aina diru irabazi dau urte batzuetan. Etxebizitzea be ez daukie makala horreik. Egingo neuke herri guztian beste lauk hobea euki ezetz. Hango erropa zuria, hango arasa ederrak, hango jarleku barriak eta hango burdinazko lo-mahaietan daukiezan ohe garbitxukunak ikustekoak dira, txotxo. Ez dau ez, Antonik, ezkonsari makala eroango ezkontzen danean... Zer dinostazu zeuk, neure semea?

—Nik oindino ezer bez, ama. Horreik gauzok ardurazkoak eta ondo gogartetu beharrekoak dira. Behin ezkontzen da bat betiko.

—Halantxe da, ondo erantzun dozu, gogartetuizu gura dozun beste, eta gero zeuk erantzungo deuskuzu.

Horretan gelditu zan autua.

Anjelek, bada, ez eban erantzun ez baietzik ez ezetzik, gauzea gero ikustekotan gelditu zan; baina bere amak aitari eta Antoniri zerbait aitatu izan behar eban, gerora jakin zanez. Sardinzarrek, ardantegian, bere semea laster eta ondo ezkonduko zala esan ei eban: Antonik, lagun artean, herriko mutilik ederrenak bera gura ebala.

Esanok heldu ziran Mañasiren belarrietara, eta orduantxe ezagutu eban gaixoak bere barruan Anjelenganako euki eban zera ez zala maitetasuna baino besterik.

Nahigabe sakona hartu eban albiste horregaz Mañasitxuk, samin gogorra sartu jakon bere bihotzaren erdira; baina bere

⁸² [Atuntzua: Arranondoko esakeran, atunetarako garaia].

bihotz horren erdian gordeko eban bere nahigabearen ozpin-behaztun⁸³ guztia.

Arima handiko neskatilea zan Mañasi, bada arima handikoak ez dira aberatsen artean edo asko ikasitakoen artean bakarrik aurkituten. Mañasi ez zan aberatsa, asko ikasia bez. Bere aberatasuna ohe bat edo bi, hamabiren bat izara eta beste horrenbeste burko-azal, sukalde-tresnenezako arasea, soineko edo jantzientzako kutxatxoa eta gaztaina-makilakaz baserrian egindako lau edo sei eserleku izango ziran: bere jakituria, herriko ikastetxean ikasi eban apurra, edo beren guraso eta herriko abadeen ahotik harturikoa, euskerazko eliz liburu batzuetan ikasitakoagaz gainera.

Baina berez etorkon garbia eta zuzena izatea, berez jaiorikoa eban gauza guztiak argi eta ondo zirean legez ikustea, Anjelganako maitetasuna berez sortu jakon antzera.

Bai zoritxarrean. Igarri barik erne eta hasi jakon maitetasun hori, baina mingostasuna barruan ondo ezagutu barik ez jakon joango, inok kanpotik ez eutsan igarriko baina. Jaungoikoak daki han barruan zer igaroko jakon Mañasiri eta zenbat iruntsi behar-ko eban gure neskatila honek; baina azalean, arpegian, esakera edo ibilkeretan, ez eutsan egundo inori ezer aituten emongo. Ez eutsan inok hileta⁸⁴, inkes⁸⁵ edo zotirik entzungo.

Inoiz baizen goiztarrago, elizarakoago, baztertuago egin zan, eta jolasetara ez eban bere bururik agertu gura. Amesai ate guztiak itxi, lurreko poz guztiai agur egin, gazterik zahar itxurak hartu, eta Jaungoikoak emoniko kurutze astuna ondo eroanaz bizi gura eban. Zein mingarria izan ohi dan holango gazteen bizitzea! Zein nahigabezkoa zan Mañasirena! Jaiio; bihotz bero eta ederraren jaubea izan; umetasuneko egun lausotsuen ondorean maiteta-

⁸³ Behaztun: gibelmin, urberde.

⁸⁴ Hileta: aiene, kexa, deitore.

⁸⁵ Inkesa: aiene, kexa, intziri.

sunaren argi pozgarria norbere barruan idoro; argi hori geroago eta ederrago hasten ikusi; berari begira, urte askoan, gozotasunez zorutzen bizi; bera gura izan, zuhurrak urrea baino hobeto, goseak janaria baino gehiago; norberetzakotzat euki argi hori, azkene-rako; gurarizko ames eztsuetan egunero beragaz ibili... eta, usterik gitxien danean, goizetik gabera, argi hori beste batena dala eta beste bategana daroela entzun; hau da, ezti guztiak mingostasun bihurtu, barre alai danak malkotu, itxaropen bigunak galdu beti-ko, argia amatau eta eguna gautu. A! Holango nahigaberik izan ez dauenak ez daki nahigabea zer dan!

Mañasik ez eban inoiz ikasi gauzen azterren edo sustrairik ataraten, eta ez ekian, ez zan errez be eta, zelan jausi zan bera maitetasunaren lakio artean; baina ikasi eban maitetuten, bai ondo, bai gehiegi, eta zer egiten eban ondo ez ekiala, han egoan beti etxe-zokoan arima barruko mina gogoramenez ikutu eta ikutu, aztertu eta aztertu, eta, azken aldera, beti negar eta negar.

Mañasiri bere bizikera barria ezagutu eutsanean Josepak esan eutsan:

—Nik, neuk dakit zegaitik, ez deusut ezer aitatu; baina nor-baitek esan deuszu zuri Anjelegaitik zer dinoen.

—Bai eta halantxe da.

—Eta?

—Eta ondo deritxadala. Egundokoa da Anjelentzat Antoni.

—Halan izango da..., edo izan leiteke; baina oraintxe zaitut nik zu inoiz baino gehiago erruki.

Egia zinoan Josepak. Inok ikusten ez dauen barruko kurutzea mila bider astunagoa eta agirian darabilguna baino eta barruan erabilen berea Mañasik, inok ikusi ez eion bildur.

X ATERPEAN

Etorri zan barriro negu baltza, eta beragaz batera agertu ziran iparraldeko haize hotz eta meheak gizadi zahar ahulduai hazurretarainoko ikarea sartuaz; Kurutzemendik laino-txapela jantzi eban; Arno eta Oiz sendoai buruak zuritu jakoezan edurrez; Kantauriko ur ugariak berde ilunez jantzirik egozan; бага indartsuak harkaitz gogorrekaz burruka bizian ebiltzan egunero; kaio zuriak, ehundaka, jira eta bira nekusazan⁸⁶ goizetik gabera Arranondoko ibai gainean; eta potorrak⁸⁷, milaka eta milaka, sare lodi handi baten irudira, itsasate edo barra ondoan, uretan jarrita ikusten ziran noizean behin.

Besigutarako eretirik onenean egozan arranondotarrak.

Anjelek ez eban oindino erabagi senartu behar eban edo ez, eta ezer erabagiko eban itxurarik be ez egoan. Itsasorako arloetan zereginduta ebilen beti, itsasoan bizi zan goizeko orduetatik ia gabekoetaraino, itsasotik kanpora Anjelek ezegaz zerikusirik ez eukala esan zeitekean.

⁸⁶ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: nekusan.

⁸⁷ Potorro: ubarro.

Behin baten, masteak⁸⁸ oina zapaldu eutsala-ta, minez etorri zan itsasotik etxera eta etxean gelditu beharra izan eban sendatu arte, luzarotxo, itsasora barik. Baina ez zan alperrierian egon, hori ez. Arranondon, itsasorako ez danari, legorrean emoten jako lana, danentzako egon ohi da-ta. Legorrean irabazten dabe aloger laurena edo aloger erdia (soldata laurena eta soldata erdia esan ohi daroe) itsasorako indar gitxi daukien mutil-koskorrak, gizon zahar lanean lehenago amaituak eta erdi gaixorik dabiltzanak; batzuk lanbasakaz⁸⁹ txalopak urez garbituten, beste batzuk arrantzaleen upeltxoak iturriko urez beteten, edo tretzetarako basoan urkulak⁹⁰ bilatuten, edo amoak⁹¹ arrain handien janariz beteten, edo holango zeregin danetan behar bada.

Anjelek, oineko minak iraun eutsan arte guztian, beste indargalduko gizon eta indar-gurako umeakaz batera, euren etxe azpiko upalategian egiten eban lana.

Langile danak lurrean zabal-zabal jarri eta, lau aldeetatik bardinak diran otzaratxo zapalak hankartean harturik, antxoba, sardin edo lantzoiz zatia amoen ipini eta erreskada zuzenean otzarretan tolostu, edo aurreragoko egunean itsasotik ekarririko mokoloiak⁹² askatu, harildu⁹³ eta urkuletan sartzen ebezan, euskal erresi batzuk esaten zituen bitartean.

Inoiz behin, gazteak eresian aspertuta gero, gizon zaharrak, antxinetako ipuinen bat edo euren gazte-egunetako gertaerak esan eroiezan. Baegozan batzuk, azkar eta sendo izan ziranean, kala-potinak baino hazitxoagoetan, Espainia guztiko urertza ikusi ebenak, eta baita ontzi handien barruan, urrinetako itsasoetan

⁸⁸ [Mastea: haize-oihal edo belak jasoteko habea].

⁸⁹ [Lanbasa: oihal zahar zatiakaz egindako moltsoa, egur baten buruan ultzez josita].

⁹⁰ [Urkulea: erderaz horquilla].

⁹¹ [Amoa: anzuelo gaztelarrez].

⁹² [Mokoloia: tretzako soka eta amoen nahastea edo korapiloa].

⁹³ Harildu: ardatzean edo haril bat eginez haria bildu.

zehar, Ameriketako ugarteetaraino heldu ziranak be; eta holangoai harrotasunaren haizeak ikututxuren bat egiten eutsenean, entzutekoa izaten zan euren arteko eztabaidea.

Ez miraritu, irakurlea, Arranondoko arrantzaleak, noizean behin, harrotasunaren ikuturen bat izaten ebela jakiteagaitik.

Harrotasuna edonun bizi da, edozein tokitan egiten dau bere habia kutuna, edozetatik hartu ohi dau bere burua apaindu eta handi egiteko erakaia⁹⁴: jatorri onekoa edo odol garbikoa dalako, jakintsuagoa dalako, adimen hobekoa, aberatsagoa, ederragoa edo indartsuagoa dalako. Gauzea da zerbaitetan besteak baino norbera gehiago dala ames egitea, besteai goitik behera begiratu-tea.

Eta inok ez dau uste izaten zerbaitetan besteak baino gehiago ez danik.

Harrotasunak izen asko daukaz, erderazko hizkuntzetan batez be; baina beti da bat jazkera ezbardin askogaz jantzi arren.

Isilik egon ohi da gehienean, bera ez balitz legez agertu gura izaten dau batzuetan, baina edonok ezagututen dau behingoan eta edozer eratan.

Mila bider ikusi dot harrotasuna gizonen etxeetan, gizonen begirunean, jantzian, hizketan, ibileran...

Oihal barri ederrakaz euren gorputza apaindurik daroenen bihotzean legez bizi da txapel zahar koipez eta ezkata edo eskamaz betetakoaren azpian eta soineko baldar arabakinduakaz⁹⁵ estaldurik.

Erbesteko zalpurdi⁹⁶ aberatsa Arranondoko kalean zehar arradaka⁹⁷ eta hautsak jasoaz doanean, zalpurdikoak, nasako gizate arlotea ikusirik, erruki urruingarriagaz begiratuten deutsie,

⁹⁴ Erakai: errazoi, zergaiti.

⁹⁵ Adabakindu: adabakinak ipini.

⁹⁶ [Zalpurdia: coche gaztelarez].

⁹⁷ Arradaka: astrapaladaka, zarataka.

eta nasakoak barriz ahoa betean dinoe zalpurdikoakaitik: “Holango txankamehe bi ukabilkada bategaz amaitu leitekez. Ez dira horreik askorako igerian, erramuetan edo arrainak hartzen. Txibiari laster jaten emongo leuskioe horreik”...

Gizon baktxak bere harrotasuna dau, etxadi eta herri baktxak berea. *Ni* esaten da ahal dan guztian, ni ezin danean *geu*, Arranondo ezin danean *Bizkaia*.

Peru eta Mikolen arteko eztabaidea (upalategian egozan agurtxo bi ziran Peru eta Mikol) zeinek ur eta lur gehiago ikusi eben izaten zan, biak be gehien ikusi ebenak ez ziran baina.

—Zu nun izan zara gero? —itanduten eutsan, dinodan egunean, lehenengoak bigarrenari.

—Ni? —zinoan besteak—. Baionan be bai, *Saanderren* (Santanderren) be bai, inoiz *Kijonen* (Gijonen) be bai.

—Baiona, Saander, Kijon! Haze.... Horreik herriok edozein umek be ikusi ditu... Koruña nun dagoan be ez dakizu zuk.

—Jakin ez ostera? Koruña Kijon baino harutzago dago.

—Inoiz egon zara bertan?

—Ez.

—Ni bai.

—Baina ni harutzago be izan naz.

—Nun gero?

—*Lisburun* (Lisboan).

—Bai eta ni *Kadizen*, *Tankarren* (Tanjerren) eta *Zeruetan* (Zeutan), moruak dagozan lekuan gero.

Moruen izena entzun ordurako, mutiltxo guztiak ernaitu zituen belarriak, eta eztabaidako haria urraturik, hasi ziran itaunketan:

—Moruak Kadizen dagoz?

—Ez, Kadizen gatza: gatzetara joaten ginan Joxantonioren⁹⁸ ontzian. Hamaika joan-etorri egindako ontzia geure *San Pedro* zaharra! Maiteago genduan ha...

⁹⁸ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: Joxantonion ontzian.

—Moruak nun dagoz ba?

—Tankarren eta Zeruetan.

—Zeuk ikusi dozuz, Peru?

—Bai, ehun bider be.

—Zelangoak dira ba?

—Geu langoxe gizonak.

—Gu langoak? Baltzak ez dira ba?

—Baltzak edo baltzeranak. Sorki bat erabilten dabe buruan eta jantzi zahar, luze, zikin bat soinean.

—Moruak baltzak dira —esan eban honetan hamalau urte inguruko mutiltxo batek—, neuk ikusi neban bat behin, Saanderko *llamean* (Alamedan esan gura eban, erderazko izenagaz). Arpegia eta paparra eta eskuak eta dana bal-baltzak eukazan, ezpanak durdo-durdo⁹⁹, haginak zuri-zuri eta kizkur-kizkur ulea.

—Horreik e, ez dira moruak —esan eban Mikolek.

—Zer dira ba?

—*Aprikañuak* (afrikatarrak) dira horreik.

—Aprika ez da ba moruen lurra?

Mikol itaunera honeri zer erantzun ez ekiala gelditu zan. Ez zan gitxiagotarako be. Itsasoan hazi, itsasoan indartu eta itsasoan indargetua zan. Baekizan zenbat ordu behar ziran Arranondotik Kadizera edo Kadiztik Bilbora, baekizan ze haize ziran haizerik onenak joan-etorri edo osterea arin egiteko; Barzelonatik hasi eta Donostiaraino egozan urertzeko herri guztien sarrerak zelangoak ziran ondo ekian, nun egozan tirainik¹⁰⁰ gogorrenak eta hondar-mahairik handienak be bai; baekian noiz eta ze haizegaz ipini mastetan holango edo holango haize-oihala; itsasgizon azkarra izan zan, hitz baten esateko; baina ez eban inoiz liburu bat eskue-tan hartu, ez eban irakurten ikasi eta ez zituan egundo ondo jakin erresuma edo dierrien mugak. Nun zein agintari zan ez ekian, nun

⁹⁹ Durdo: more, ubel.

¹⁰⁰ Tirain: itsasoko ur-laster handia.

zein enda edo arrazakoak bizi zirean bez. Mikolek eta haren gisako beste itsasgizonak iluntasun eta nahaste handia euki erorien buruan holango gauzen gainean. Ameriketara izan ziranentzat, Amerika guztia Habana edo Berakruz edo ikusi eben herria zan: Espainia ingurutik urten ez ebenentzat, Espainia eta Portugal, Franzia eta Ingalaterra, hor harunzko aldean egozan herri batzuk. Horreik gauzok ontzi-gidari edo ontzi-buruak ikasi behar zituanak zirean.

Halanda guztiz be ez eban gura Mikolek bere jakineza mutikoen aurrean agertu, eta ezentzun edo entzungor eginda beste gauza batera birau eban autua.

—Hamaika arrisku erabili doguz itsasoan! —jarraitu eban—. Hirurogeta hamazazpi urte izango ditut datorren Abenduaren seian, eta hortxe, uretan igaro ditut guztiak. Hamasei urte neukazanean sartu ninduen¹⁰¹ *San Pedron*. Ordurako hiru edo lau lagunegaz neurtu neban neure besoen indarra, ukabilka, eta txopapeko txakurra baino txakurragoa nintzan. *San Pedron* egin nituan, Kadizera osteran, zazpi urte; gero *Santa Kurutzen* beste hiru, eta ezkondu ezkeretik hementxe ibili naz beti.

—Beraz gaiztoa zinan zu gaztetan? —itandu eutsan Anjelek.

—Gaiztoa, gaiztoa esateko bez; harro samarra eta lotsagabexoa, neure buruari gehiegi neritxona, betondoren bat baltzitu eta euren tokitik hagin batzuk ataratea baino beste kalterik ez deusat inori erakarri.

—Eta ez dozu behin be tirabirarik egin¹⁰²?

—Ontzi handietan ez, estualdi asko eroan arren: txalopetan bi bider; baina Jaungoikoari eta Antiguako Amari eskerrak, beti urten dot onean. Ez dot nik egundo itsasora urten, Antiguako Amaren baselizatxoa ikusten dan tokian, txapela kenduta *Agur* edo *Salbea* esan barik. Egia da, danok egiten genduan gauzea

¹⁰¹ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: nituen.

¹⁰² Tirabira egin: ontzia itzuli, azpikoz gora ipini.

zan, lehenago, geure gurasoak halantxe erakutsi euskuelako, eta, gainera, guztiok ekandu zaharren gordezaleak ginalako. Gaur u..., gaur ez dakit. Inoiz somau ditut nik gazte batzuk, atzekoak *Salbe* deitu arren, txapela erantzi barik eta berbetan. Eta gero, larri dabiltzanean, Andre Mariaren laguntasuna gura.

—Antiguako Amari laguntasun asko zor ei deutsie ba arranon-dotarrak.

—Asko, guztiz asko; mila bider atara ditu berak estutasun handietatik arrantzaleak, honeik zelan ez ekiela. Nik badakit gertaera polit bat, neure aitaitari entzuna. Egia bada, guzurra bada, ez dakit; baina nik egitzat daukat.

—Esaiguzu ba, Mikol; tira, esaiguzu —deadar egin eutsien mutikoak.

—Hor doa ba. Behin, beste askotan legez, arranon-dotarrak urten ei eben itsasora guztizko egualdi garbi onagaz; baina arratsalderako zero guztia goibeldu ei eban, eta haizea, truxua eta euri zaparradea hasi ei ziran Jaungoikoak lagun. Txalopak ez ei ziran agiri, eta holango eretietan ohi dan antzera, herriko gizon eta emakume danak, oso artega eta arduratsu bajoiazan, batzuk eliza nagusira, beste batzuk talai-etxera eta Antiguako baselizara norbait edo beste. Eta hemen hasten da gauzearen harrigarritasuna. Antiguako Ama garbi eta ona ez ei egoan bere tokian! Zurturik urten ei eben hara joan ziran emakumeak elizainari itaunketan, eta elizainak, konkorturik eta bildurrez, esan ei eutsen, goizean, argi-ontzia ipini ebanean, han egoala beti baizen eder eta gozoa, eta ez ekiala gehiagoko barririk; itandu ei eutsien abade-artzainari eta harek be ez ekiala berak ezer. Zabaldu ei zan aida baten herri guztian albistea eta han joan ei ziran herritar danak, zahar eta gazte, Antiguako inguru eta bazterrak aztertutera.

Alperrik: Antiguako Ama ez egoan Arranon-don: edo norbaitek ostu eban edo berak iges. Baina zeinek ostu, lehenago be ostutera joan jakozan lapurrak zirkinik ezin eginda gelditu baziran elizmahai ondoan? Gainera zetarako eben lapurrak Andre Mariaren irudia, asteguneko soinekoakaz baegoan orduan? Eta zegaitik iges

berak, arranondotarrak hainbeste maite baeben? Gauza iluna zan, guztiz iluna, eta inok ezin eikean¹⁰³ esan zelan gertaurikoa...

Antiguara igoniko gizadiak menditik behera jatsi ziranerako, ba ei etozan txalopak, parra-parra, patxada onean, ekatxik ez dagoan egunetan etorten diran gisara. Batek bakarrik egin ei eban tirabira, urrinean; baina bertako gizonak Ama Mariaren irudiari mung¹⁰⁴ eta arrenetan hasita laster, uretan egozalakoan, zelan ez ekie-la, Arranondoko hondartzan arkitu ei eben euren burua, inongo min barik. Norbaitek aidean ekarri zitualakoa edo esaten ei eben.

—Mila añaniñua! Baina zelan?

—Egon apur baten, ez dot amaitu-eta. Euren izugarrizko gertae-rea esaten ziharduela, Antiguako elizaina hemen ei dator arin-arin-ga, arnaseztuka eta deadarrez: “agertu da, agertu da Andre Maria!”.

“Nondik? Zelan?”

“Ez dakit, baina bere tokian dago”.

Igoten ei dabe barriro, joranean, Antiguara, herritar guztiak, eta benetan, han ei egoan Ama maitea. Baina, haxe da izatekoa! Soineko guztia bustirik eta barrenak hondarrez beteta ei eukazan!

—Mila eta mila aingeruak! Horixe bai dala gauza miragarria! Orduan Antiguako Ama arranondotarrak olatuen artetik ataraten ibiliko zan.

—Halan da ustea. Beste ereti gaizto askotan be ibili ei da urertzean, eta sarri bilatu ei deutsiez soineko barrenak bustirik eta hondartuta.

Mikolen esana nahi ainan arakatu eta ahotan erabili ebenean, bere tirabirak zelangoak izan ziran esan eiala eskatu eutsien entzuleak.

—Nireak ez daukie zeresan handirik: entzungarriagoak dira Kitolisenak eta horrek esan daiazala bereak —agertu eban Mikolek.

—Tira ba, orain Kitolisen txandea da eta Kitolisek hitz egin deigula.

¹⁰³ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: eikien.

¹⁰⁴ Muinka: mosuka.

XI

KITOLIS

Gizon txiki polit makur bat zan hau, bere sorbaldetan larogeta bi urte handi jasoten zituan gizona. Hiru edo lau uletxu zuri-baltz eukazan burusoil zetakaz betean, zutin-zutinik; askozaz gehiago eta zuri kizkur-kirikolauak garondoa, bildots edo arku-me baten irudira; bepuru luze beteen azpian begi urdin nabar bigun-bigunak; arpegi baltzeran guztiz zimurtua; oihal lodi zakar arabakinduagaz eginiko jaka zaharra soinean; praka urdin sngle batzuei eusteko gerriko tendeltxu¹⁰⁵ bat mokor gainean, ontzi-soka lodi sendoaren antzera bihurtua; eta olezko zapata, oin-zorro edo trauskoak oin azpian.

Jaiegunetan hobeto jazten zan, elizarako. Urdai-zatiagaz, kruseiluko orioagaz edo izurdearen sainagaz noizean behin bigundu ohi zirean narruzko oinetakoak, alkondara zuri garbia, zaharra bazan be, eta txintxonezko¹⁰⁶ jaka-prakak: horixe zan jaiegunetako jantzia.

Itsasorako gauza ez zala gelditu zan ezkerotik, egunero entzuten eban meztatxu bat, egunero izaten zan iluntzeko errosario-

¹⁰⁵ Tendeltxu: latz.

¹⁰⁶ Txintxon: oihal latza edo takarra.

an; gaixoren bati Jauna eroan behar jakonean, han joango zan Kitolis, argi bategaz; Jaunaren aurretik elizjiran ibili behar zanean, han urtengo eban Jaun estalkiaren makila bat jasoten; elizkizun guztietan, han egongo zan Kitolis alkate-aulkidaren atzean, belauniko.

Herritar danak gura eutsien: hain zan bera zintzoa, apala, baketsua eta mendu onekoa.

—Ni ez naz izan, Peru eta Mikol legez, ur handiko arraina—hasi zan esaten beren aterpeko lagunai—. Toleta¹⁰⁷ baino handiago ez nintzala, bederatzi urte neukazanean, eroan ninduan¹⁰⁸ lehenengo, neure aitak mazira: neguko izotzak gogortu eustazan hazurrak, orekan; udako eguzki beroak baltzitu eustan azala; besigu eta atun tatoakaz¹⁰⁹ hazi eta loditu ninduen; ni be, Mikol len antzera, itsasoan bizi izan naz legorretan baizen gehiago; baina ontzi handietan ez naz egundo ibili eta Kantauriko uretatik ez dot urten, nahitanahiezean edo arribadaren baten izan ezik. Halan be nahikoa neke igaro dot itsas horretan.

Hiru aldiz egin dot tirabira. Lehenegoa, Arno atzean, besigutan gengoazala; bigarrenan, haortxe (hara hortxe) herriko sarreran; eta bietan berehalaxe hartu ginduezan¹¹⁰ herritar lagunak. Baina hirugarrengoa!, itzala eta ikaragarritzkoa izan zan hirugarren hori. Hain zuzen, ibaian zehar kanporuntz ginoiazanean, uragea edo erramua zala eta ez zala, beste txalopa batekoakaz haserratu ginan; deadarka, zarataka eta harrokeriazko berbak alkarri esanaz urten genduan ur-zelaira, eta inori ez jakon gogoratu Antiguako Amari beti esaten jakon *Agur* edo *Salbea* esatea.

Gabon aurrettoa zan. Bagagoz, bagagoz ilunabarrean, potin txiki baten lau laguntxu, berdeletan, Orioko aurrean. Bakarrik

¹⁰⁷ [Toleta: karelean edo txalopertz gainean erramuari eusteko ipinten dan ziria].

¹⁰⁸ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: nituan.

¹⁰⁹ Tato: zati.

¹¹⁰ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: genduezan.

gelditu ginanean a, berandu be bazala eta hotz be baegoala-ta, arrain pixka bat be bageukala-ta... hasi ginan etxeruntz. Terraltxoa egoan, legorretik datorren haizea. Jaso genduan trinketa¹¹¹, eta bagentozan kezka barik, atzekoak eskuak besapean berotuten zituan bitartean, eskota¹¹² tosta¹¹³ bati lotuta genkarrela..., eta, halako baten, brast, joten gaitu haize bunbada gogor batek, eta saust danok itsasora, txalopa barruko arrain, otzara, soka eta tresna guztiakaz batera eta nahastean. Halan be urten genduan ur azpitik, hor batak eta hemen besteak, danok hotzak ikaraz; inguratu ginan, igerian, popaz gora egoan txalopara, eta itandu geuntsan alkarrri: “gizonak, zer izan da hau?”. Baina inok erantzun beharrik ez egoan, guztiok genkian-ta. Ardurabagekeriatxu bat, ustekida¹¹⁴ gehiegia. Zeini baina otuko jakon halangorik, itsasoa bare-bare baegoan?

Egundo halango negargarririk inok ez dau ikusi. Gure hurrean ez zan inor, eta hantxe egon beharko genduan ur gainean, goizera arte. Goizera arte! Eta oraindino, gehienez be, ez ziran seirak izango! Hotzak eta bildurrak dardaraka geunkazan, eta hamabi, hamahiru edo hamalau orduan egon behar halantxe! Eta, gainera, goizean inor etorriko jakun ez jakin! “Ia, mutilak —esan euskun atzekoak, gu pitin bat azkortuteagaitik—, eskini deiogun Antiguako Amari, danok orpozik eta erramuak lepoan ditugula bere elizatxora joatea, hemendik onean urteten badogu, eta hasi gaitean orain errosarioa esaten”... Ipin neban neuk Ikomes (Nikomedes) neure hamabi urteko seme ederra, kila gainean ahuspez eta hasi ginan arrenetan... Jaungoikoak badaki guk zenbat arren egin genduan. *Errosarioaz* ostean, zeruko done guztiai *Aitagurea* eta *Agur Maria* eta mila bihotzeko eskari luze eta labur egin geuntsezan, alde batera eta bestera geure gorputz minberatua

¹¹¹ Trinket: aurreko bela, bela nagusia.

¹¹² Eskot: beleak atzeko mandatik atzetako daukan txikota.

¹¹³ Tosta: txalupetako jesarlekua.

¹¹⁴ Ustekida: uste ona, konfiantza.

biratuteko hutsunetxu batzuk hartuaz... Honetan gengoza, hamarrak aldean, haizeak ekarren indarrean eta txalopearen zabunetan igarri genduan itsasoak irakin behar ebala eta gure hurrean ebilela heriotzea. Ilun egoan; belarrietara etorkun haizearen txistuari destainazkoa neritxon; Getariako eta Zumaiako itsasargiak agiri ziran lurrean, eta niri, hilen argiak iruditu jatazan. Geu gengoza hilten osasun guztiagaz! “Ze ordu ete da?” —itan-du euskun Matxin zaharrak, heriotzondoko soinuagaz!—. “Hamarretatik hamaiketara” —esan geuntsan. Eta berak, oraindino belarrietan daukadan esateko erarik ilunenagaz: “Zein luzea dan gaba! —jarraitu eban—, zein luzea! Nik ezin neike irauin, laster amaitu behar dot, eta zuek ikusten badozue gurekorik”... Ez eban gehiagoko esateko astirik izan, bada olatuaren bultzada batek kendu euskun albotik. Horraitino ekarri genduan atzera eta esondu¹¹⁵ geuntsan oratu eiola gogor karelari; baina ezertarako ez eukan adorerik eta ahotik bitsa eriola, “damu dot Jauna, damu dot Jauna” esanaz, han joan zan hondora... Itsasoa geroago eta handiagoko etorren, olatuak geroago eta indartsuagoak, geroago eta mekotuagoak gengoza gu. Neke gitxiagoko egoera bat bilatu nahian, hain laster ipinten genduan gorputzaren astuntasuna esku baten gainean, hain laster bestearnean, orain igoten genduan kila gainera, orain karelara jatsi, gainean ezin egonda... Gau luzea zala esan eban Matxinek. Bai ondo luzea! Eta zer ete da betikotasuna, saminetan egon ezkerro? Neure semetxoa, neure Ikomestxu, hotzikara handiak hartu eban, eta negar-muxinga, inkesaka eta zotinez, “aita”, bai “aita” hasi jatan deiezka eta deiezka... Haxe zan errukigarritasuna! Aitak ezin ezer egin bere seme kutunaren alde, bihotzeko negar gorria baino besterik; aitak ezin goiza eta laguntasuna erakarri, bere bizitzea emonda be... Etsi genduan, ez ginan luzarorako. Jo genduzan beste bagea batek burutik behera, kendu euskun txalopea esku artetik, eta aldebanatu ginan hirurok

¹¹⁵ Esondu: aholkua emon, aholkatu.

barriri. Urpetik azalera urten nebanean, hasi nintzan igerian semearen bila. Ez neukan neuk orduantxe indar askorik eta harrokeria handirik bez! Idoro neban semea, eta txaloparaino eroan be bai, eta esan neutsan txalopeari gogotik eutsi eiola; baina alperrik. “Ezin, aita —zinoan— ezin!”. Hartu neban orduan neure bularraren ondora, potinaren eta neure gorputzaren bitartean ipini neban, eta bere soinari eta potinari ahaleginakaz helduten gelditu nintzan... Isilik gengoan danok, bildurgarrizko isiltasunean. “Ikomestxu —deitu neutsan handik apur batera—, Ikomestxu, ondo zagoz?”. Ez eustan ezer erantzun. Zelan ba, hilda egoan-ta!

Negar-malko lodia erion Kitolisi bere harrigarritzko jazoerea maila honetaraino heldu jakonean, eta entzuten egozanak be ez eben urrinean negarra.

—Nik ez dakit ze ordu inguru izango zan —jarraitu eban— beste olatu batek txalopea eta semea besartetik kendu eustazanean, ez dakit zelan oratu neutsan ostera be txalopeari, ez dakit zelan egon nintzan goizeko zazpi t’erdietan Cetariako potin batek hartu genduzan arteraino. Azkenerako, sena eta konorta galdu jakuzan, taket batzuk ginan atzekoa eta ni, zoraturik gengoan, zer egiten genduan ez genkiala eutsiten geuntsan txalopeari, lapeak hatxari baino gogorrago, atzamarretatik odola erigula¹¹⁶... Gaixorik egon nintzan gero ia hilabetean, eta sendatu nintzanerako..., itsasora barriri. Baina ez gehiago *Agur* edo *Salbea* esan barik.

Isilaldi bat egin ondorean, Kitolisi bihotzeko nahigabea kentzearren, hasi ziran aterpeko gazteak eresian, eta ez ziran gehiago isildu euren lan guztia amaitu arte.

¹¹⁶ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: erigula.

XII

BEDAR TXARRAK

Kitolis, Mikol, Peru eta beste lagunak egozan aterpetik hurretxoan, nasa gainean zutinik, ondo jantziriko bost gizon egozan, alkarregaz autuan, eguzki epela hartuaz batera.

Iskilos edo armaduna zan bat, kontrabandoa galerazoteko Arranondon egozan beste armadunen burutzakoa, eta erdalerrikoa bera, zeresanik be ez dago-ta; bizardun baserritarra beste bat (Indianoa esaten eutsien), Ameriketan aberastua, ez erderarik eta ez euskerarik ez ekian mutilzaharra, zerren ahaztu egin jakon bata eta bestea ez eban ikasi, baina bere buruari asko eritxon harro handia, siniskorra eta sinisgaiztokoa, beren esakera nahastau, mordoilo eta gatzbakoak gauzarik adiutu eta zapalgarrienak legez astiro esaten zituana; Arranondoko dendetan oihalak saltzera, lantzean behin, Bilbotik etorten zan gazte polit, guri, buruarintxua beste bat; itsasoetan luzaro ibiliriko Ontzi-agintari azkor, zintzo eta bizia beste bat, kondaira honen hasieran itsas aurrean ezagutu genduana; eta bostgarrena, besigu, atun, sardina eta enparauak maneaten zituen Lantegiko nagusia, erdalduna hau be.

Arranondon lanik gitxien eukienak legez, hor eta hemen alkar bilatu ohi eben eta alkarregaz egoten zirean sarri, Oihal-saltzailea ez besteak, eta hau be bai hareikaz, Arranondon zanean.

Cure Itsasgizona bekoki baltz samarrekoa zan, hitz latzekoa batzuetan, bihotzean eukan guztia erraz kanpora botaten ekian

gizona, edozeini egia handiak esaten eutsazana, behar zanean; baina oso arima leinargi eta onekoa. Haserrezalea izan ez arren, Euskal Herriari edo Elizeari ikuturen bat inok egin ezkerro, haserretik urrinean ez zan ibilten.

Lelo, zio edo gai horregaitik, hau da, Elizeari eta Euskal Herriari bakean ezin itxi eutsielako, itsasgizonak askoetan emon eutsen min beragaz batuten zirean erbestetar edo erbesturiko batzuei; baina halanda guztiz be ez eben beragandik iges egiten, maite ebelako, edo dirutsua, Arranondon guztiz ondo ikusia eta eskubide handikoa zalako.

Bost gizonok erderaz ziharduen, baina nik euskaldunentzat egiten dot neure lantxo hau eta euskeraz ipiniko dot beren jardun guztia.

—Nik ez dakit —zinoan Ezpatadunak, zeinen aurrean egoan ahazturik nunbait— ze deabruzko eresiak esaten dituen hor barruko astook euren txakur-hizkuntza horretan.

Itsasgizonak, arpegia behingoan ilundurik:

—Ez zeunkan hona etorri baino lehenago euskerea ikastea baizen: dana ulertuko zenduan orduan ederto. Nik, erbestetan ibili izan nazanean, euren hizketan hitz egin deutset erbestetarrai, erdizka eta motel bada be. Ez jat egundo gogoratu eurak euskeraz hitz egin behar deustela neuri.

Iskilosdunak: —Baina, gizona, zer dinoztazu? Gogoratuizu, alde batetik, zuen euskera hori, erdi hizkera ezkel zatar bat dala, eta beste aldetik espainiar guztiok gaztelarrez ikastera nahitahiztuak gagozala. Gaztelarrez bakarrik hitz egin behar da Espainian eta beste hizkera danak osoro eta betiko kendu.

Itsasgizonak, berotuten hasita: —Ez dinozu ondo, zalduna. Euskerea antxinetako hizkera-guraso, eder, mamintsu eta sakona da, atzeritar jakitun askok dakien legez, zuek jakin ez arren. Eta gainera, zeinek esan deutsu zuri nahitanahiez ikasi behar dogula guk Gaztelako hizkuntzea? Ez dinot gura dabenak ikasi ez daie-la, ikasia beti dator ondo eta; ez dinot gaztelar agintariakaz Euskal Herriko gauzen gainean zerbait erabagi behar daben euskal-

dun nagusiak ez dabela ikasi beharko; baina euskaldun guztiok? Zeinek nahitanahiez hitz eragingo deusku gura ez dogun eran? Zer dala-ta? Zeinek dauka Espainian gu horretara ipinteko eskubidea? Ez gara gu izan geurekorrak eta askatuak, geure gurariz eta geuk ipiniriko zerzelada batzukaz, Espainiaren laguntzat, ez mendekotzat, jarri ginan artean? Nok dauka gu makurtuteko eskubidea, dinot ostera be? Indarrak? Indarra dozue eskubideen iturburua? Bada orduan ondo egin eban Napoleonek Espainia menderatutera etorri zanean. Baina itxi deiegun alde batera euskaldunen geurekortasun eta askatasunari. Zegaitik kendu behar jako gizon, etxadi edo herri bati beren endako itxurea, beren aberastasuna, inoren on barik? Zegaitik kendu behar jaku guri geurea? Ez da nahikoa norbere lurrean daukagun ondasuna ez eza gututea; ez da nahikoa, alperreri eta nagitasunagaitik hizkuntzarik zaharren eta maitegarriena ez ikastea, arrotzak ikasi ohi dabenez; ez da nahikoa bazterturik eukitea, entzun bere ez gura izatea; hil eta lurperatu egin behar da gainera? Ez dozuez zeuk bandera-oihal eta burdina zaharrak gordeten gertaera on batzuen gomutagarri legez, edo zeuen asabenak diralako beste barik? Bada zegaitik itxi ez guri zeuen eta geure asabeen hizkuntz ederra mendi tartean gordeten?

Iskilosdunak: —Ez zaite haserratu, gizona; baina jakin eikezu euskereak ez dauela zuk uste dozun aina edertasun.

Itsasgizonak: —Zuk zelan dakizu euskerarik ikasi ez badozu?

Oihal-saltzaileak: —Neuk be ez dot ikasi, Bilbotarra izan arren, gurasoak ez eusten erakutsi-eta; baina ez dot damurik be. Euskal Herritik kanpora euskerea ez da ezertarako, eta Euskal Herrian bertan edozeinek daki gaur gaztelarrez.

Itsasgizonak: —Zuk euskerea ez jakinagaitik damurik ez izatea, mirarituteko ipuina ez da. Zuek, bilbotarrok, antxina galdu zenduen asabeen hizkera biguna eta antxinatik zagoze erdaldundurik; eta gainera, zuretzat, salerosketarako ona ez dan gauzea ez da inoiz be ona izango. (Zeuk saltzeko gauzea balitz, ederrenetako dala be laster esango zenduke zuk). Baina jakin eikezu, lehe-

nengo, saltzaileentzat onak ez diran gauzarik asko badagoala lurrean, eta bigarren, geure euskerea ez daukagula saltzeko. Euskal Herrian barriz edozeinek hitz egiten badeutsu erderaz, hainbat gaiztoago: neu dendaria banintz, ikasi beharko zendukie euskeraz, oihalak eta enparauak eskinika zatozentxuok.

Indianoak, kukurruku egitera doan oilarrak legez burua jasota, sudur azpiko bizarrak kizkurtuaz, guztiz astiro eta benetsu:

—Neuk esan neike inok baino hobeto, lur asko ikusi ditut-eta: euskereak ez dau ogia irabazteko balio. (Yo puedo *disir* mejor que nadie, porque *ha visto muchos* tierras: *bascuentze* no vale para ganar pan).

—Zelan irabazi dozu ba zuk geldotzarorrek? Erderaz jardun ederren batzuk eginda? Ezagun dozu.

—Nik neure ogia lan gogorrean eta ondo irabazita daukat.

—Ez dinot ezetz, baina lanean egiteko ez dot uste euskereak kalterik egingo eutsunik, eta erdereak indar handirik emongo eutsunik bez.

Baserritar bizardun edo Indianoari zer erantzunik ez jakon otu, Ezpatadunak eta Oihal-saltzaileak ez eben ezer esan gura Itsasgizona haserratu ez zedin, eta guztiak isilik gelditu zirean apur baten. Bitartean aterpekoak baziharduen eginahaletan Berrio-Otxoaren bizitzea erestuten, eta Lantegiko nagusiak gure Itsasgizonari itandu eutsan:

—Jakin leike zer dinoen hor barrukook?

—Bai, gizona, bai: lehen *Hamar Aginduak* erestu ditue, hitz neurtuetan; orain, Berrio-Otxoaren bizitzea.

—Zein zan Berrio-Otxoa hori?

—Abade eginda laster prailetegian sartu zan elorriotar gizon done bat. Apezpiko edo Abade-artzain izatera heldu zan gero, eta Jesusen sinistea zabalduten ebilela, Tonkinen kendu eutsien burua, ezpategaz.

Lantegiko nagusiak: —Ba, ba; abadeen gauzak.

Baserritar bizardunak: —Horixe bera, hemen ez dago besterik.

Ezpatadunak eta Oihal-saltzaileak: —Egia da.

Itsasgizonak: —Ez dakit abadeenak diran edo ez aterpekook erestuten dituen hitz neurtuak. Hemen, euskeraz, edonok eta edozer gauzen gainean daki hitz neurketan, buruz eta errez; guztiz egoki ez bada be, erestuteko erara behintzat: nahiz Elizako erakutsien gainean, nahiz herrian izan dan gertaera bategaitik, nahiz erramuetea, idiketean, aizkoraketea edo pelota jolasa galdu edo irabazi dalako. Eta edozelan be abadeak egindako hitz neurtuak erestuteari hobeto deritxat erdalerritik erakarten dituen hitz zikin nazkagarriak deadarka jarduteari baino. Ez deritxazue?

Indianoak: —Bai, baina ez dabe gauza danak abadeak erakutsitakoak bakarrik izan behar.

Itsasgizonak: —Eresiakaitik badinozu, lehen be esan dot eta bigarrenean dinot edozeinek atereak izan ohi dirala: arrantzale bat da nahikoa, beragaz ezkontzeko egoan neskatilea beste bategaz ezkondu bajako, hitz neurtu batzuk neskatila horren kontra berehalako baten egiteko.

Indianoak, Itsasgizonaren esanari jaramonik egin bage: —Jakituriak iturburu on asko daukaz.

Itsasgizonak: —Estu-estuan ezetz esango neuskizu. Orain, ikasbide asko dagozala esan nahi badozu, hori egia da. Baina, abadeen etsai zarean ezker, erantzuidazu: zeinek daki eurak baino gehiago Arranondo lango herritxuetan? Nok erakutsiko deusku zerurako bidea eurak ez bada?

Indianoak: —Niri ez deuste egundo ezer erakutsi.

Itsasgizonak: —Sinistuten dot: zuri ez deustu inok ezer erakutsi, eta gainera zeuk be ez dozu egundo ezer ikasteko burubiderik hartu. Halan zara zarean langoa.

—Txarra, ezta? Kanpoetan zerbait ikasi dogun guztiok gara txarrak zuentzat.

—Hori ez, txotxo, hori ez. Kanpoetan ikasiak ezagutzen ditut hamaika, ondo Jaungoikozkoak eta euskerazaleak. Zu ibili zarean lurrean, Ameriketean bertan, badira Begoñako Amari elizki ederrak egiten deusiezan euskaldunak, eta euren jaioterriko mintzo-

erea guztiz maite dabilenak. Ez gitxi gero, asko baino. Bizibehar-
rrak eroan zituan urrinetara, baina euskaldun bizi dira eta euren
bihotza Euskal Herrian daukie.

Ezpatadunak: —Baina egia esan gura badeuskuzu, gu be zuk
gaiztotzat gaukazuz.

—Nik ez deutsuet zeuenetik ezer kendu gura, eta horregaitik
esango dot zerbaiterako onak izango zariela. Batori, legezkoa dana
(edo legezkotzat daukazuena, bada Euskal Herrian egiten dozen
hori ez da legezkoa) legeak dinoana hornidu barik inok ezer ekarri
ez daian, herrien mugarri eta itsas inguruak zaintzeko; besteori
diru piloak hortik edo hemendik laster irabazteko; besteori, hor
nunbaiten eginiko oihal mengelak ingeles oihal sendotzat emote-
ko; beste hau, herriko arrainik merkeena oriotan zerbait erre eta
erbestean diru handiagaitik saltzeko. Horretarako onak zarie, bai-
na ez Eliza Donearentzat eta Euskal Herriarentzako. Sinisterik ez
daukien gizonak, hizketa, ekandu eta erakuste gaiztoak erakarri
ohi ditue herrietara; eta zuek, gizon argi jakintsuok, ez daukazue
siniste onaren izpirik. Beste aldetik barriz, gure hizkuntza, ohitu-
ra eta izateko erearen arerio diranak, geure areriotzat daukaguz,
eta zuek ezin entzun dozue gure hizkuntzea, gure ohiturak eta iza-
kerea ezin dozuez ikusi: horregaitik begiratuten deusuegu gure
arerioari lez. Erbestetik ekarririko haziagaz hemen ernetako
bedar txarrak zarie zuek.

—Danok?

—Zuek bai, zuetarikoak ez, Jaunari eskerrak.

Era honetako esate gogorak bere ahotik entzun arren, Itsas-
gizon zaharraren lau entzuleak koipekeria handian eta irribarrez
egozan. Irribarrez kanpotik, barruan zer erabilen ez dakigu bai-
na.

—Zure gauzak —zirautsien¹¹⁷ zigarro bana eskiniaz.

¹¹⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: ziraetsien.

Hurren egoanari bat hartuta hobeto lotuten egoan bitartean, arrast¹¹⁸ iziotuaz joan jakon Indianoa, eta Itsasgizonari esan eutsan belarrondora, euskeraz:

—Zu abadeakaz abadetuta zagoz.

Eta besteak Indianoari:

—Eta zu abereakaz aberetuta.

Itsasgizonaren zirikadea ez eban Indianoak ulertu. Aberea zer zan ez ekian. Animalia esango eukean berak eta...

¹¹⁸ [Arrasta: fósforo, cerilla, Arranondon].

XIII

ALKARREN AURREAN

Ura, gatza eta ezkata edo eskamea darioela ibiltzen dira Arranon don txalopa-jaubeen emazteak, euren alabak eta alogereko emakumeak, besigutarako behar dan arrain txikia upalategietara eroan eta gazituten. Baina berez garbi dana edozetan ohi da garbi, eta gure Mañasi, arratsalde baten, trauskoak oinetan eta belakizko (haize-oihalezko) gonea jantzi arren, holango zereginetatik, ondo orrazturiko ulea buru-zapi polit bategaz loturik, ezkatak ondo astindurik, eta iturriko uretan erabili zituan eskuak oihasorkiagaz legortuten joian etxeruntz, ahal zaneraino txukun eta beste edozein baino garbiago.

Hain zuzen, beren aterpetik urten eta, orduantxe joian Anjel be kale batetik besterako mailetan gora, errenka-errenka, eta uste-uste barik jo eben alkar gazte biak.

Mañasiri, arpegiko azal zuria berehalakoan gorritu eta, barruko zarrada handi bategaz, taupadaka jarri jakon bere bihotza; zer esan ez ekiala eta erdi moteldurik gelditu zan emakumetxo. Anjelek, horma ondoko egur latzari helduta igoten joiala, albokera ikusi eban auzoko neskatilea.

—Zer dozu, Anjel? —itandu eutsan honek, zelanbait arnasea hartu ebanean.

—Gauza handirik ez, baina hementxe nago iragoko egunetan, ezertarako ez nazala. Lehenagoko baten (bariakua zala uste dot),

txalopan, masta nagusia erazten genbiltzala, eskuetatik iges egin da, ezkerreko behatzak zapaldu eustazan.

Mañasik, zentzun guztiak ezpanetan ipinita:

—Baina hausi-aterarik ez dozu izango?

—Ez ba, zapaldua bakarrik. Halan esan eban osagileak.

—Eta zegaz ipini deusue?

—Linaziagaz¹¹⁹ edo ez dakit neuk be.

—Orio eta ardaoagaz nahastean?

—Baietz uste dot.

—Orioa eta ardaoa guztiz onak ei dira holango zaurietarako.

—Halan esaten dabe, baina neuk ez daukat hoberik. Handitu egiten jat ibileran.

—Ez ibili.

—Eta etxean egon, alperrerrian?

—Etxean be izaten dira arazoak.

—Atzo eta harainegun egin nituan neukazanak: esku-zurda¹²⁰ eta txibi-korain¹²¹ batzuk, behar diranerako. Orain ez daukat gehiago berunik eta loro¹²² eta tantzarik¹²³ bez.

—Geure aitak daukaz, eta emongo deusudaz gura badozu.

—Ez, ez, eskerrik asko. Badaukat zeregina tretzakaz.

—Zuk u, danari itxita, Arranobatekoagana joan behar zenuke, Anjel.

—Zer edo zer egin beharko dot, hobeto ez banoa.

Anjelek, nekatu egiten zan-ta, geldi-geldi igoten zituan harrizko maila zaharrak, bidean bilatu eban lagunari zeharkera begiratuaz; besteak, etxerako gogorik ez eukan edo, oraindik Anjelek baino astiroago igoten zituan. Hasieran eukan bildurra

¹¹⁹ Linazi: lino-hazi.

¹²⁰ [Esku-zurdea: arrain txikiak hartzeko zurdakaz egiten dan soka mehe eta luzea].

¹²¹ [Txibi-koraina: txibitarako behar dan berun eta orratz okertuakaz eginiko tresnatxu polita].

¹²² [Loroa: zurda eta amoaren bitartean ipinten dan alanbre mehea].

¹²³ [Tantzea: pitazko hari zuria].

bota ebanean, geroago eta errezagot egiten eban hitz, Erriberatik goragoko kalera lasterregi igotea ez eban gura, ondo egoan Anjelegaz jardunean, eta hau dala eta hori dala, horkoa eta hemengoa, urlia eta sandia, esan eta esan, txutxu eta putxu, ahal eban guztia luzatu eragiten eutsan mutilagaz eukan gatzbageko autuari. Eta gatzbagekoa izanagaitik autua, edo berakatza, edo porrua, edo kipulea, baeban zerbait, bada mutilak geroago eta geldiago igoten zituan mailak, eta azkenerako, Mañasiri aurrez aurre begira, atsenden handiak egiten ebazan maila bakotxean.

Arpegiko gorritasuna joan jakonean, zurbiltxoak gelditu zan neskatilea; begi-bitarte ilun lausotua eukan, baina begirada bat bai bigunagoa! Anjelek ez eban halango begiradarik ikusi, eta pozik ikusten eban orduantxe.

Zeresan handirik ez eukien euren artean, baina etxera joan behar handirik bez, itxuraz behintzat, eta gora eta behera ebiltzainai “agur” edo “arratsalde on” eginaz, baziharduen euren amai-bageko jardunean.

Honetan, lehen goruntz joiala ikusi eben Tramana baetorren ostera beheruntz, eta eskuak gerrian zituala, autudun biai apur baten begira gelditurik,

—Gazteaaak —esan eutsen irribarrez— luzea dozue haria zeuek. Ezin eten e, ezin eten?

Eta Mañasi, lo gozotik esnatuten dan bat legez, barriro gorri-gorri eginda, begi handi-zabalakaz begira jarri jakonean,

—Ez lotsatu, neskatiletxua —jarraitu eban Tramanak—, ez lotsatu, garaian zagoz-ta. Aukerakoak zarie zuek bata bestearentzako.

Harriturik gelditu zan Mañasi bere barruko amesak ikusi eta agertu eutsiezalakoan. Anjel, inoiz baino gehiago eta hobeto neskatileari begira.

—Entzun dozu zer esan dauen? —itandu eutsan honek Mañasiri.

—Edozer gauza horrek —erantzun eban besteak— lotsabage handia da-ta.

—Bai, lotsabagea da.

Eta hauxe da ipuina. Tramanaren esana lotsabagekeria zan, baina gure gazteok ez eben txartzat hartu. Barrez hasi ziran arrain-saltzaileak esan zituan hitzen gaineko autuan.

—Ez bagenki lez —zinoan Mañasik— Anjel ez dagoala Txanogorriren alabearentzat.

—Zegaitik ez?

—Zagoz isilik: gauza askogaitik ez. Herri guztiak ez daki Antoni Errotagaz ezkontuten zareana?

—Herrietan, emakumeen mihinean batez be, barritsukeria handiak ibiltzen dira. Neuk dinotsut eta sinistuidazu, Mañasi: niri oindino inogaz ezkontzerik ez jat gogoratu.

—Ee? Egia dinostazu, Anjel?

—Egi-egia.

—Zelan, bada, egoten zara Antonigaz?

—Asko-askotan ez naz egon. Zeugaz be banago.

—Baina nigaz beste era batean.

—Zuk zer dakizu?

Hau entzutean, Mañasiri begi biak malkoz bete jakozan, eta Anjeleri bat-batera bereak argitu. Baina gehiago hitzik egiteko asti bage, neskatileak, txalopetako otzarakaz mutiltxoak behetik gora etozela ikusi zituanean,

—Ene! Txalopak etorri dira, eta aparria egiteko oraindik, ama errekan da-ta —esan eban eta hasi zan arin-aringa etxeruntz, Anjeleri agur egin barik. Honek be ez eutsan agurrik egin, baina bere artean esan bai:

—Zelan otu ez jako lehenago aparria egin barik eukala?

Zer dinostazu, irakurlea? Amesetan egongo zala gau hatan Mañasi? Jakina ba.

Baina amesak ames izaten dira beti, itxurazkoak izan arren.

XIV NAHIGABEAK

Sarri dakie gurasoak etxeko seme-alaben zorigaiztoa egiten: batzuk umeai zuzenbidea erakusten ardura bagekotxuak izan ohi diralako; beste batzuk ikasgarri okerrak emoten deutsiezalako, euren aurrean edozer gauza esan edo eginaz; honeek norbere umearen hutsegite eta grina txarrak ikusten ez dituelako, beste bate-narenak ikusteko begi zabalak euki arren; hareek behar dan orduan astinaldixu batzuk emoten ez deutsiezalako¹²⁴, haserre barik eta euren onean dirala erakutsiaz; eta, gehienak, seme-alabak bizibide barria hartu beharrean edo ezkongei dagozanean, umeen zorionari baino euren (gurasoen) uste eta gogoari gehiago eta hobeto begiratu ohi deutsielako.

Alperrik da esatea osoro eta gehiago ezinean maitetuten dituela euren umeak. Hori danok dakigu, baina, nire ustez, maitetasun guztien azpian, sustrai barruan, bihotz-maminean, bako-txak norbere ondonahia, norbere buruaren maitetasuna idoroten dau besteenganakoagaz nahastean, eta gurasoak be bai euren.

Horregaitik, seme-alabak ezkontzeko egunetara helduten diran eretian, gurasoak ez dira euren guraria ukatu gura, euren

¹²⁴ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: deutsezielako.

gogo betekoa ez dana ez dabe nahi etxean, nahiz eta izan semeen gurarikoa, ona, adiutua, elizkoia, eta langile maratza etxera ekarri gura dan mutil edo neskatilea. Eta guraso askori gogoa beteteko, dirua eta ondasuna izaten dira gauzarik onenak. Euren iritxiz, etxejauntzakoak etxejauntzakoakaz ezkondu behar dira beti, maizterrakaz maizterretakoak.

Egia da, semeen gainean, Jaungoikoak eta Izakiak emoniko aginpidea daukiela gurasoak, eurai jagokela esonde eta erakusmen zuzenak emotea; baina ez dabe ahaztu behar euren aginpide eta esanetan Jaunaren legeari eta seme-alaben onari begiratu beharrean dagozala. Zaharrago diran aldetik argi gehiago euki daroe, eta erakutsi daiela euren gogamena: baina ez beti jarraitu eragin, seme-alabak errukarri izateko zori eta aginean ipiniaz.

Anjelen aita eta ama beste askorenak legezkoak zirean. Gure mutil honek, bere barruan zerbait erabili arren, ez eutsan inori ezer esan, eta Arranobaten oina sendatuten egoan bitartean, Sardinzarrek eta emazteak, emazteak batez be, euren mutila lotsatia zala eta egundo berez ez zala aurreratuko gogamendurik, Antoniaren gurasoakaz egon eta arautu eben gazteen ezkontzea. Gehiagoko bage gauzea eginda egoala uste izanik, atunetara baino lehen, Donibanetarako, ezkonduko zireala zabaldu eben herri guztian, eta etxebizitza barrirako beharkiren batzuk egin eiezala agindu be bai, isil-isilik.

Antoni pozez zoratzen egoan. Ez zan bera inoganako maitetasunak urtuko eban emakumea, Anjelegaz legez beste edozeineguz ezkonduko zitzatekean, hau baino gehitxoago izan ezkerro besteren bat; baina, Arranondon, mutilik eder eta aberatsentzat egoan Anjel, neskatila guztiak gauzarik onena zala zinoen, eta horregaitik egoan hain pozik Antoni, gauzarik onena beretzat zalako. Herriko adiskide guztiak ondamuz begiratuko eutsien berari: horixe zan Antoniaren gogamen bakarra.

Entzun daigun orain, Anjelek, Elgoibartik etorri zanean, amagaz euki eban hizketartea. Aita itsasoan zan.

Amak: —Astia emon deutsugu, seme, eta honezkero zerbait erabagiko zenduan.

Anjelek: —Zer erabagi, ama, zeren gainen?

Amak: —Hori dinostazu? Ezkontzearen gainean ba.

Anjelek: —Aa!

Amak: —Guk u, zeuri bideak edegiteagaitik, Antoniren gurasoakaz hitz egin dogu, Antoni bera be prest dago, eta ez daukazue abadeagana joatea besterik. Hara ama on batek zelango lanak egiten deutzazan seme onari.

Anjelek: —Baina, ama, nik ezer erantzun ez badot!

Amak: —Eta ez zenduke erantzun be egingo. Lau hilabete bada gauza honen gainean hitz egin neutsula, eta mutik ez deutzazu esan, eta nik i... Beti ezkongei egon behar al dozu?

Anjelek: —Ez naz oraindino zaharra.

Amak: —Baina ni bai, eta gure etxean neke asko dago emakume bakarrarentzat.

Anjelek: —Hartu bei ogipeko neskame on bat.

Amak: —Etxekoa dozu neskamerik onena, txotxo.

Anjelek: —Ez gara ondo bizi, ama? Bizi gaitez an holantxe, oraindino.

Amak: —Eta zegaitik ez dozu ezkondu gura Antonigaz?

Anjelek: —Egia esateko, ez jat bihotzera sartu neskatila hori; harrotxoa dala uste dot, apaindurizalea, lerdenegia.

Amak: —Eta zer esango dabe gugaitik Antoniren gurasoak?

Anjelek ez eutsan itaune¹²⁵ honi ezer erantzun. Baekian amarena berea zala errua, baina ez eutsan arpegira bota gura.

Aita itsasotik heldu zanean, iluntxo bilatu zituan ama-semak, eta bere itaunai “bai” edo “ez” besterik erantzuten ez eutsiela. Igarri eban nundik etorriko zan iluntasunaren hasieraa, baina euren ahotik entzutearren,

—Zer izan dozue? —itandu eban.

¹²⁵ Itaune: itaun, galdera.

Amak: —Zer izango da? Gure seme honi harrotxoia irudituten ei jako Antoni Errota, lerdenezia, apaindurizalea. Lerdena izatea hobea da korkoxa izatea baino, eta apainduten bada barriz, bere-agaz apainduten da: berak dauka harek apaingarriak erosteko eta gehiagorako.

Sardinzarrek semeagan ipini zituan bere begiak, harek zerbait esango ebalakoan. Anjel suaren garrari begira egoan, isilik.

Baeukan mutilak zer gogamendu. Alde batetik bere buruak zirautsan txarra zala gogokoa ez zan emakume bategaz ezkontutea; beste aldetik ez eutsan bere amari nahigaberik emon gura; haxe zan bene-benetako estualdia.

Sardinzarrek barriz, gauza guztien gainetik etxeko bakea eta semearen ona gura eban. Egia, bera ibili zan, hainbeste bider, ardantegiko lagunai eta txalopa barrukoai esaten, Antoni Errotagaz ezkontzen jakola semea, ezkontza hori gauza handia zalakotan; baina ez zala ezkontzen esateko be laster jarriko zan, halan behar izan ezkeru.

Inok ahorik ez ebalu edegiten ikusita gero:

—Ia ba —esan eban— guk u, Anjel, egin doguna zeure onagaitik egin dogu; baina zeu zara ezkondu behar dozuna eta zeuk gura ez badozu...

Amak, negarrez: —Haxe da ordaina! Beragaitik buruhausten jo hona eta jo horra ibilita, haxe da ordaina!

Amaren ganorabagekeria eta bidebageko esateak min handia emoten eutsien Anjeleri. Ez ekian zer esan, ez ekian estualdi hatan nundik urten. Begiak itxi eta ezkonduko zala esateko be baegoan. Azkenean, egonaldi bat eginda,

—Ona da —itandu eban— norberak nahi ez dauela ezkontutea?

Aitak: —Ez, txotxo, hori ez. Zeuk gura ez badozu, lehen be esan dot-eta...

Anjelek: —Nik badakit esker asko zor deutesdala neure gurasoai eta eskerbagea ez nazala uste dot: euron mendeko nago, eta eurok agindu eta gogo barik ezkontutea ona dala esan ezkeru, ezkondu be bardin egingo nintzateke; baina ez da hori neure gura-

ria gaur behintzat, eta nire iritxia da luzapena emotea Antoniren gurasoai. Holan ez dira eurok inogaz txarto geldituko eta nik arnasea eukiko dot.

Aitak: —Ondo esan dozu, seme, ederto. Goazen orain errosariora¹²⁶ eta *¡biba la pas!* Andrea, ipini eikeguzu gaur apari on bat.

Amak ez eban gehiago ezer esan. Gizon biak joan ziran elizara. Handik urteteen, gure mutil honi, aparitara joiala, “Anjel” deitu utsan kale baztertxuan eliz zapia tolostuten egoan emakume gazte batek.

—*Hola*, Antoni —erantzun eban mutilak.

—Zer barri? Noiz etorri zara?

—Gaur arratsaldean.

—Ondo?

—Bai, sendatu naz.

—Elizate ikusi zaitut eta itanduteagatik urten deusut bidera.

—Eskerrik asko.

—Eta? Ezer esan deusue etxean?

—Bai.

—Zer deritxazu?

—Oraindino ez dogula holangorik behar.

—Ee! Zegaitik? Donibanetarako ez? Noiz ba?

—Ez dakit noiz.

—Ez dakizula noiz?

—Ez.

—Gitxi gorabehera bez, gizona?

—Gitxi gorabehera bez.

—Zoratuta al zagoz? Zuk ez daukazu ezkontzeko gogorik.

—Oraindino ez.

—Oraindino ez? Neuk be ez ba... Nahi banau zu baino hobek badaukadaz edonoiz eta edonun.

¹²⁶ [Ilunabarrean elizan esaten dan errosariora gizadi handia joaten da Arranon].

—Eukizuz ba, emakumea. Zeinek esaten deutsu ezetz?

Honenbestegaz aldendu zirean neska-mutilak bata bestea-gandik: azkar neskatilea, bat-batera esnatu jakozan kirioak emoten eutsien bizitasunagaz, haserre eta muker, etxe bazterrean negar egitera, herriko mutilik ederrena beretzat ez egoalako; baina kalearen erdian kezka bagekoaren antzera agertzeko ustean, berak itxi ebalako mutila esateko asmoagaz: Anjel, astiroago, amaren bildurrez, baina pozik, gurasoak ipini eutsien lokarria hain laster urratu ebalako. Ez eban uste berak halango gertaldirik ordubete lehentxuago. Beharbada gurasoai aurre hartzea ez zan ondo egina izango, baina zer egingo eban ba, gauzea eskuartera etorri jakon ezkeror?

XV

USTEBAGEKO JAZOERAK

Antonik baino negar mingotsagoak egin zituan Mañasitxuk. Ez ekian honek zer igaro zan Anjelen etxean, hau etorri eta hurrengo goizean goiz, bera, Mañasi, Bilborako zalpurdian sartu zanean. Entzun eban lehenago, Anjel Elgoibarren egoan artean, hau eta Antoni laster ezkontzen zireala. Ezin sinisturik, alde askotan itandu eban egia ete zan albistea, eta alde guztietan aho batek zirautesien baietz eta baietz: gauza ziurra zala. Antoni eta Anjelen gurasoak eurak ziran barri ona toki guztietan zabalduten ebanak. Artoberok zinoanez, Sardinzarrek be txalopako guztien aurrean autortu eban.

Lehenagaz gainera asko argaldu zan Mañasi: bere buruan erabilzan gogamen tamalakaz eta bihotz barruko nahigabe sako-
nen indarrez, oso uldua gelditu zan gaixoa. “Zetarako —gogoratu-
tuten jakon—, zetarako esan eustan Anjelek niri Erriberako mai-
letan esan eustana? Neure lepotik barre egitearren? Ai orduan
bilatu ez baneu! Ez eban jakingo gaur dakian beste. Ai, txatxala
burubagea ni! Negarrez ez nintzan ba hasi, Antonigaz ez eukala
ezer entzun neutsanean? Dana igarri eustan orduantxe. Hainbes-
te urtean ondo isilik eukitako gauzea! Orain Antoniri esango deu-
tso eta laster jakingo da Arranondo guztian. Zer lotsaria! Zer
barreak egingo dituen orain nire lepotik! Ez, ez nau ni hemen

gehiago inok kaleetan ikusiko, Bilbora joango naz neskame, han-txe ezkutauko dot neure burua eta ez naz gehiago Arranondora etorriko. Eta nik, zoroonek, zer poza hartu neban bere bihotza katigau barik egoala jakiteaz! Ez zirudian guzurtia ba, baina...”

Lortu eban zelanbait gurasoen baimena eta bajoian Bilbora. Amak eta Josepak lagundu eutsien zalpurdiraino. Zalpurdi barrura sartu baizen lehentxuago, Josepak belarrondora esan eutsan:

—Atzo etorri zan bera, ezta?

—Bai.

—Ikusi dozu?

—Bai, besteagaz. Bart, kalearen ertzean egozan biak, aurrez aurre. Jaungoikoak adu oneko eta zorioneko egin daizala.

Ez eben gehiago hitzik egin. Bularraren kontra Mañasi estutu, malco gori handi batzuk igortzi, barri onak eta laster bialtze-ko sei edo zortzi aldiz esan, zalpurdia bidearen jira batean estaldu zan artean egon, bidezkoari sudur oihalak agurka, eta negar ondoko arnasestuagaz banatu zirean euren etxetara Josepa eta Mañasiren ama.

—Hori burubidea hartu dau —zinoan honek—, hori burubidea hartu dau neure alabeak, irabazi egingo dauela-ta! Jaungoikoak daki zein etxetan izango dan, zelan begiratuko deutsien eta zenbat negar egin beharko dauen. Jesus, Jesus! Nahiago neban baimenik emon ez baneutsa. Eskerrak bera pozik doanari.

Pozik! Ez ekian asko bidezkoak eroiazan nahigabe eta zotinak.

Bilbora heldu zanean, arranondotar ezagun bat eukan harek Atxuriko gelunean zain, eta beragaz batean, beti herri handietan ohiturik dagoan emakume baten antzera, geluneko gizon eta emakume narrasen deadar, eskeintze eta morroikintzeari jaramon barik, kaleetan zehar joan zan aurretiaz bilatuta eukan etxera.

Handik jakin erazo eutsen amari eta Josepari guztizko toki onean egoala eta ez beragatik kezkatan egoteko.

Halaxe zan. Berezko argia eban Mañasik gauza danak errez ikasteko, oso apala eta begiratu zan, lehenengo egunetik hasi zan

berari jagokozan eginkizun, arlo edo arazo guztiak ahal ebanik ondoen egiten, eta beren nagusi eta etxeoandreak ikusi ebenean neskatilea hain azkar, zintzo eta gogotsua, hain leun, garbi eta itxura ederrekoa, ez zirudiala neskametarako jaioa zinoen, eta begi biak emongo euskioezan pozik.

Nagusiok guztiz zirean elizkoiak, eta egunero, goizean goiz jagita, mezatara joaten itxiten eutsien, zortzian behin autortuten zan, euskaldun abade on baten oinetan; hamabostetik hamabostera, jai-arratsaldeetan, urten ohi eban edo elizara edo itsasaldera, beste biderik ez eban ikasi gura-eta. Benetan egoan ondo, eta neskame izatekotan, ez eukean egundo etxe hatatik beste batera urtengo.

Arratsalde baten, zaldi-mandoen indarrez burdin haritik ebilen burdian, Ondartzetatik Bilbora etorrela (oraindik tximist-indarrik ez egoan horretarako, Bilbon), Arranondoko gizon bizardun bat bilatu eban burdi barruan: Indianoa.

Norbere lurretik kanpoan bilatu ezkerro, nahiz eta herrian agurrik egin ez, arpegi ona ipinten jako herritar bati, eta halan, Mañasik eta Indianoak, guztizko harrera ona egin eutsien alkarri, eta biak, bata itaunga eta erantzuten bestea, Arranondoko gauzen gaineko jardun luze batean hasi zirean. Mañasi zan itaunle, berak nahi eban haritik eroaten eban jarduna, eta hain buru eta bihotz arlotu¹²⁷ zirean euren autuan eze, ezeri be jaramon barik, ez bide inguruko burdin lantegi ketsuai, ez Ibaizabalgo ontzitegi ugariai, ez gora eta behera oso astiro eroiezan gabarra astun beteai, ez edonun agiri ziran gizadi zamatzaileai, ez burdi barrukoen barre-garrizko esanai, ez Bilboko sarreran egozan jauregi barri ederto apainduai; ezeri begiratu barik, ezer ikusi barik, uste baino lehenago heldu zirean zalpurdia geldituten zan kaleraino Indianoa eta Mañasi.

¹²⁷ Arlotu: autuari buru-belarri lotu.

—Nun bizi zara? —itandu eban gizakumeak zalpurditik jatsi ziranean berehala.

—Hementxe bertan, aurreko etxe honetantxe.

—Nahigabe dot.

—Zegaitik?

—Zeuri apur baten *acompañatea* gura nebalako.

—Eskerrik asko. Ez jatort ondo zu lango lagunik kalean. Ze esango leukie? Banoa.

—Zagoz pixka bat. *Dos de Mayoko korridak* ikustera etorri naz ni, eta alkarregaz joan behar dogu biharkora. Neuk hartuko deutsut *billetea*, Mazantini da *primer espada*, guztizko *toriadore abila*.

—Jesus, Mari eta Jose! Ezta... Eskerrik asko. Ez naz zezenza-lea. Agur, ez daukat astirik egoteko-eta. Arranondon gurekorik ikusten badozu, gorantziak.

Bideko laguna ahoa bete haginegaz itxita, sartu zan etxera Mañasi.

Indianoa egon zan, etxe hari begira, ordu laurenean bai, bere artean esanaz: “arrano-arranoa, horixe da neskatila ederra dagoana Mañasi”.

Handik egun batzuetara, nagusientzako joiazan eskutitzen tartean, Mañasirentzat heldu zan beste bat. “Niretzat ete da”, esan eta, bi edo hiru aldiz begiratu eutsan estalkira. Ahots edo letra handi oker batzukaz *Maria Iñasi Irazabal, Estupa, lumero 6, Bilbao*, zinoan estalkiak. Edegi eban jaubeak eskutitza, eta hara hemen zer eukan barruan:

Arranondotik 18...ko maiatzaren 7an.

Irazabalgo Mañasitxuri.

Mañasitxu neurea: antxinatik begiratuten neutsun ondo, luzaroan zaukadaz neure bihotzean sartuta, aspaldietan nerabilen zeugaz egoteko gogo; baina zugaz hitz egiterik ez dot izan joan dan jaiegunera arte. Orduan be ez neutsun esan neuk gura nebana, eta oraintxe eskutitz honen bitartez dinotsut.

Ezkongei nago eta ezkontzeko usteen nabil, neugaz pozik biziko dan lagun baten bila. Beste askoren artean zeu aukeraturuten zaitut: zeu izango zara niretzako lagunik onena. Ez da halan, Mañasi?

Ia berrogei mila ogerleko daukadaz, *Bankoan* ondo gorde-ta: ni hiltzen nazanean, zeureak izango dira danak, eta bitartean, eurak emoten dabenagaz biziko gara biok ederto. Erantzun eidazu baietz eta zeruan sartuko dozu, eskuak munga jago-tzun¹²⁸

Egurbideko Joxe Antonio.

Harriturik gelditu zan Mañasi eskutitz hau irakurtean. Ez jakon inoiz berari halango gauzarik otuko, ezta, ezta... Bere bila Egurbideko Jose Antonio, bizardun baserritarra, Indianoa! Ezin zeitekean sinistu. Handiki bila ez zan ba ibili? Jakin izan baleu aurreragoko domekan!

Mañasik jakin ez arren antxinatxutik begiratuten eutsan begi onakaz Egurbidekoak. Egia da, handiki etxetako alaba bateri baino gehiagori hitz egindakoa zan gure mutilzaharra, eurakandik ezezko biribilak harturikoa be bai: baina beti euki eban bihotz bazterrean tokitxu bat Mañasirentzat, eta handikirik izan ezean... Ezkutuko uste hori eukan Arranondon; baina Bilbon ikusi ebanean hain polito jantzia eta ederra, hurretik ezagutu ebanean bere hizketearen soinua, egokitasun barriak idoro eutsazan neskatileari, etxe handiko alabarik onena baino hobea iruditu jakon bera, eta horregaitik berehalako eskabidea, besteren bategaz lotu ez zedin Mañasi.

Orain ikusi daigun neskatileak Indianoari emon eutsan erantzuerrea:

¹²⁸ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: dagotzun. Eskuak mosuka dagotzun Eguberdiko Jose Antonio zeruan sartuko dozu.

Bilbon...

Egurbideko Jose Antoniori.

Neure jauna: Eskerrik asko, baina ez zaitut behar. Berrogeta hamar urte inguru eukiko dozuz honezkero: zaharra zara niretzat. Kristinau hotza eta euskaldun badaezpadakoa zarean entzutea dot: hortik be ez ginateke ondo etorriko.

Gordeizuz, bada, zeure diruok beste batentzat, eta parkatu egiozu bere gordinkeria

Irazabalgo Mañasiri.

Ondo egin eban honek holan erantzutea? Nik neure aldetik ez dot ezer esan gura. Holango gauzetan bihotza izan ohi da agintari, eta bihotzak bere legeak eta bere egitadeak daukaz. Dakidana da erregeri be Egurbidekoari legez erantzungo eutsala orduan Mañasik. Bere erregea Anjel zan: ez eban besteren beharrik.

XVI

ALDERDI ARGALETIK

Min handia emon eutsan Indianoari Mañasiren erantzuereak.

“Asko da gero —zirautsan bere artean gizon horrek, Mañasiren eskutitza hartu ebanetik laster— asko da *famili* behartsuko neskame *pobre* batek nire aberastasunari ez begiratutea... Zaharra nazala ni! Horixe da gizonari arpegira emoteko *arrazoia*! Inoiz behin *akordau* jataz neuri be neure urteak: ikusi ditut, nahigabez, ispiluaren aurrean nagoala, bekokiko zimur eta arpegiko bizar batzuen zuritasunean; baina holango gauzarik ez jako inori esan behar... *¡Sin educación!* Neuk erakutsiko deusat hari... Nik ez dot gura zahartasunaren gomutarik. Zetarako da *edadeak* bere atzetik dakarzan eritasun, gaixo eta heriotzeagaz gogoratuten egotea? Berez be badatoz bai holango *pentsamentu* gaiztoak, gehiegi, eta nahikoa garraztasun emoten dabe... Holango *kontuak* ahaztu egin behar dira zerbait ondo bizi izateko, eta horregaitik ez jat *gustetan* gaixoakana eta *entierroetara* joatea. *Gustoko pertsonak* ez leukie joan behar egundo... Beste gauza bat da *erromeri* eta *bodetan* ibiltea! Eta noiz *zelebrauko* ote dodaz neure *bodak*? Egiegia neure buruari esateko, ez naz gaztea, ez; baina ezkondu ten dira zaharragoak hamaika... Kristinau hotza nazala, gainera, eta badaezpadako euskalduna! *¡Ñusentea!* Zer dauka horrek zerikusi ezkondu teko edo ezkongai egoteko? Hau ezin leike Arranondon

esan, baina ez dira bizi asko *munduan* ondo ederto, Jaungoiko barik? Zetarako dogu gero Jaungoikoa? Eta zer gauzea euskaldun izatea! Zer *kostumbreak* eurenak! Artoa jan, sokila¹²⁹ jo eta inok ez dakian *lenguajejan* hitz egin, Ameriketan ikusi ditudan *salba-jeak* legez, gitxi gorabehera. Horixe da hemengo baserritarren *bizimodua*: horixe izango zan neurea, mendi tartetik urten ez baneu. Eta *bizimodu* hori maitetu! ¡*Parese mentira!* Abadeak daukie *kulpea*, abadeak. Eurak dabiltz beti hemengo *abueloen uso-kostumbreak konserbau* behar dirala deiezka; eurak ei dinoe ez nazala ona elizara sartzen ez nazalako. Ezagun da bai argizari jaleok ni lez *estranjerian* ibili ez dirana. Nik aina lur ikusi balebe, jakingo leukie *ilustrazioia* daukien gizonak ez dirala joaten elizetara... *Lastimea* da Mañasi lango neskatila bat abadeen esanera egon beharra, *lastima* handia. Kenduko deutsadaz nik elizkeriok nire eskuetan jausten bada. Eta jausiko da. Zegaitik ez? Maitetasunaren eztena, bihotzaren erdian, geroago eta biziago daukat, zirika-zirika, eta egin behar dot zerbait. Mañasiren bihotzak gaztelu sendoa dirudi, baina badakit nun dagoan gazteluaren alderdi *flakoa*, badakit, eta alderdi horretatik sartuko naz gazteluan. Bai, Jaungoikoak gura badau, Jaungoikorik ez dago baina”.

Esan eta egin. Inoiz ez eta egun hatan, Indianoa, egualdi txarri arpegi ona ipini ohi deutsienen gisa, barrez-barrez, Txanogorriren etxera joan zan ilunabartxoan.

Txanogorrik muskilea eriola ezagutu eban Joxantonio; Txanogorriren emazteak hamaika bider erosi eutsan hiru errealeko egur-txorrea enparantzaz; baina gero, Egurbideko mutil hori, kanpoetan ibilita, Arranondora barrero agertueran, handikiakaz batu ohi zan beti; eta D. Jose Antonio esaten eutsan herri guztiak.

Txanogorrik eta emazteak gure jantzi apaineko baserritar zalduna, urrezko katedun gizona, etxean ikusi ebenean, ez ekien beragaz zer egin.

¹²⁹ Sokil: mokil, zokor.

Emakumea, zarrapastaka, esarlekurik onenaren bila ebilela:
—Baina, Jauna, zer dakar gure etxe zaharrera berori lango gizon batek? —itandu eutsan Txanogorrik.

Indianoak: —Niri ez zuk jaunik esan. Zuk niri seme esan behar deustazu.

Tx. eta E. konkortuta: —Zer dino, Jauna? Seme? Zelan izan leiteke hori?

I.: —Zelan? Era batera bakarrik. Ez jatzue gogoratuten?

Tx. eta E. alkarrri begira: —Ez... Edo bai... Baina... Hori...

I.: —Ezin leiteke? Ez zeunskide¹³⁰ emongo Mañasi emazteztat?

Tx. eta E.: —Baina badaki berorrek zer esaten daben? Ondo ulertu dau eskabidea? Gu langoakaz berorren burua bat egitea...

I.: —Zeuek gura badozue behintzat...

Tx. eta E.: —Guk bai, Jauna, guk bai pozik.

I.: —Bada Mañasiri esan eikeozue.

Tx. eta E.: —Bai Jauna, eta berorrek be, esan beio.

I.: —Nik esan deusat.

Tx. eta E.: —Eta?

I.: —Ez nauela gura erantzun deust.

Tx.: —Zoro arraioa!

I. : —Zein?

Tx. : —Neure alabea, Jauna, neure alabea. Ez dakie gazteak ogia irabazteko zenbat izerdi bota behar dan. Berorregaz ezkontzen bada, ogia izango dau.

I.: —Nigaz ezkontzen bada, *señora* izango da Mañasi. Ia berrogei mila ogerleko daukadaz nik.

Tx. eta E.: —Ee?

I.: —Ia berrogei mila ogerleko.

Tx.: —Jeseus!

E.: —Ezin kontau ahala diru!

¹³⁰ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: euskidazue.

Tx.: —Ez bei bildurrik euki, Jauna. Nire alabea berorregaz ezkonduko da, berorrek gura badau.

I.: —Nik gura dot ba.

Tx. eta E.: —Guk be bai, eta ezkonduko da.

I.: —Zuen eskuetan geldituten da nire eskabidea.

Indianoak oso alai urten eban Txanogorrietik, bere artean esanaz: “neurea da, diruak edegiten ez daben aterik ez dago-ta”.

Txanogorri eta emaztea, barriz, txotxindurik egozan. Aberatsak izango zirean, guztizko aberatsak. Nahi aina jango eben, nahi aina edan, gura aina lo egin, eta lanik baperez. Ez zan izango gehiago gaberdian jagiterik, ez zan izango besigutara edo atunetara joan beharrik: besigu eta atunik onenak etxera ekarriko eutsiezan aurre-rantzean. Atuna eta besigua? Baita okela zati ederrak, ardao zahar ona eta tabakorik indartsuena be. Haxe zan erea! Neguan jakagona bigun lodi berogarriak jantziko zituen; udan, aukerako oihal mehe zuritsu argi eta garbiak; egunero entzungo zituen meztxu bat edo bi, iluntzean joango ziran, biak alkarregaz, Antiguako Ama maiteari eskerrak emotera, hain zahartzaro ona jadetsi eutselako.

Euren lehenengo zoroaldian, albiste entzungarria herri guztiari esateko gogoia etorri jakoen: baina gero, gauza guztiak orapilotu artean isilik eukitea hobeto izango zala-ta, egun batzuetan isilik eukitea erabagi eben. Deitu eutsien Josepari, eskolaua legez, eskutiztxo bat egitera, eta atean sartu orduko hasi jakozan senar-emazteak:

—Josepa, zuk be gaur geugaz batean poztu behar dozu.

J.: —Zer dala-ta?

Tx. eta E.: —Mañasiri eskutitz bat egin behar deutzazu barri on bat emonaz.

J.: —Baina zer da bera?

Tx. eta E.: —Guk be ezin sinisturik gagozan albiste zoriontsu bat.

J.: —Esaidazue ba ia zer dan.

E.: —Hara. Ezagututen dozu Egurbideko Indianoa, D. Jose Antonio?

J.: —Harako agure motroilo ganorabakoa?

E., arpegia zerbait ilundurik: —Emakumea, ez da oraindino hain agurea eta gitxiago barriz motroiloa.

Tx.: —Eta ganorea, Josepa, ganorea dirua da.

J.: —Ganorea dirua? Noiztik hona?

Tx.: —Antxinatik eta beti... eta horrek dirutza handia dauka; gure etxeak hartu ezin ahala bai.

Zorrozeria bizian zerbait erantzuteko gogoia etorri jakon Josepari, baina bere lagunaren gurasoak zer ete erabilen jakingureak atzeratu eutsan mihinaren ertzean eukan esakerea.

—Tira —jarraitu eban— argiratu eiazue ipuin hori, eta Indianoaren diruakaz nundik daukazuen zerikusia.

Txanogorrik, barruko eztitasuna ezin gordeta, irribarrez, lurrezko pipa motza atzazkal lodiakaz beteaz:

—Eizu kontu D. Jose Antonioren diruak neureak direala.

Mañasiren ama, beso biak bular azpian kurutzetuta, begira jagokon Josepari, honek ze arpegikera ipinten eban ikusteagaitik.

J.: —Ezin dot ulertu hori zelan izan leitekean.

Tx.: —Geure alabea D. Jose Antoniogaz ezkondata! Berbera etorri jaku, hementxe egon da, berak esan deusku Mañasi nahi leukeala emaztetzat.

J.: —Baina Mañasik ez dau nahiko senartzat Egurbideko agurea.

Tx. eta E., batera, haserrezko arpegia ipiniaz: —Zegaitik ez?

J.: —Burutsua eta ona eta bihotz handikoa dalako Mañasi, eta bihotz, buru eta Jaungoiko bageko gizon bategaz ezingo litzatekealako ondo bizi.

Tx., haserre handiagoan: —Eta zeinek esan deusku zeuri buru eta Jaungoiko bagea eta bihotz gogorreko gizona dala D. Jose Antonio? Inoren ona ezin ikusi dauen doilorren batek, satorraren antzera edonori azpiak janaz bizi dan oskil, salatzaile, guzurtiren batek. Ez leuskit neuri arpegiz arpegi esango.

E.: —Eta, Josepa, zer da burutsua izatea, zer? Etxera jator-kun ondasuna leihotik bera jaurtitea? Zu lango ezkailu burubakoa izango litzateke Mañasi be, ezkondu gurako ez baleu...

J.: —Ez zaitezte haserratu, baina ez dau gurako ba... Ez da nahikoa nik esatea, berak erantzungo dau.

Tx.: —Ba, ezezkorik erantzuten badau, ez dau gurean gehiago hankazurrik sartuko.

E.: —Hori ez horraitino.

J.: —Paperik eta lumarik badaukazue?

E.: —Hara hor: beheko andreak emon deuskuz.

J.: —Ia ba, egin deiogun eskabidea.

E.: —Baina dana ipiniko deutzazu gero.

J.: —Dana.

E.: —Ez dedila burubakoa izan.

J.: —Bai.

Tx.:—*Señora* izango dala.

J.: —Bai, bai.

E.: —Gure zahartzeari begiratu deiola.

J.: —Baita.

Tx.: —Ondamutsuen¹³¹ esanari ez jaramonik egiteko.

J.: —Baita.

E.: —Zoriona etorriko jakula.

J.: —Dana, zuek dinozuen guztia... eta zerbait gehiago.

¹³¹ [Ondamutsua: envidioso].

XVII

JARDUN-ETXEAK

Emakumeak, biziko badira, jarduna nahitanahiezkoa dabe.

Horregaitik bilatu ohi ditugu beti autuan, edozein aldetan eta edozer akiakulagaz.

Iturrian, buruko edarrearen zabunak ezin zaindurik eta sudur aurretik behera eta bekokian zehar, ituxuraren irudira, ur-tanta lodiak jatorkoezala; erosketako enparantzan, etxerako behar diran elikaturak erosita gero, otzara zamatua, besoak eten arte-raino, ezin jasorik dindilizka daukiela; nasa gainean, euren umeai bularra emonaz, edo kalearen erdian zabal-zabal, bidezko guztiai bide-haritik ibiltea galerazoten dagozala; errekan, elizpean, etxaurrean¹³², leihoetan; goizean, arratsaldean edo gabaz, asti apur bat daukien tarte danetan; bik edo lauk, isilik edo deadarka, deadarka sarri, hitz egin behar dabe edozetara eta edonun, noiz-nahi eta edozergaitik.

Norbait inora joan bada, beste norbait herrira etorri bada, urlia herriko gizona edo emakumea erbestean ikusi badabe, galanta badago, gaixorik badabil, eztul txarra badauka, alborengo-a badau; auzoan jaiotzea, ezkontzea edo heriotzea gertau dalako, jaiobarria aitaren edo amaren itxurakoa dalako, horko edo

¹³² 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: etxaurrean.

hango neskatileak ezkonsari ona daroalako, gorpuari holango edo halango hil-jantzia ipini deutsielako; goiko eta beheko bizilagunakaitik, txalopa-jaubeagaitik, erakusleakaitik, osagileagaitik, udal-letzeko agintariakaitik; txankamehe, txotxapaindu, buztanikara, diruzale, handinahiko, koipelustre, ekin beti eta eragin mingain zorrotzari. Jakingo leukie barri edo albiste bat lurpean gordeta egongo balitz be, eta huskeria izan daroe nahikoa luzaroko jardun gogotsuetan egoteko.

Horretarako, gizonak euren batzartokiak daukiezan irudira, emakumeak be baditue euren jardun-etxe jakinak.

Lehenago, oraindik ez antxina, udako jai-arratsalde eta neguko eguzki orduetan, etxeko atarian egin ohi zituen bileratxoak, lauziri-laumarikoak¹³³ hogeta hamaikan jokatuaz edo batak beste orraztuten eben bitartean, zerren bitarte horretan be ezin dira isilik egon Arranondoko emakumeak..., beste lekuetako guztien antzera. Gaur ez dira hainbeste ikusten atarietan, baina ezin itxi daroe gabeko jardun-etxe aukeratua, batez be neguan. Zelan ba, sukalde batean danak inguratu ezker, beste guztietan egurra eta argia aurreratuten badira?

Eta esan daigun euren goraldirako. Aurreratute horretan Euskal Herriko emakumerik gehienak mutilak dira, eta horregaitik, gizonak, irabazi aldietan, ardantegi edo sagardantegian behar baino erreztxoago txanpona emoten daben bitartean, emakumeak askotan ohi dabiltz buruhausten, txanponari nondik iraun eragingo edo txakur txiki bat gehiago zelan irabazi edo atarako. Baina gauzeari iraun eragiten edo diruari ondo begiratuten Arranondoko emakume zintzoari eroango deutsanik ez da inun jai. Hori bai, eralgi eta zabalduko dabe hitza ugari, imilaunga edo iminaka¹³⁴; baina ez dirurik. Dirurik ez eralgi, batu ahal bada. Esan-gura handiakaz joaten dira batzarretara, baina beti doaz eskulan, arazo eta irabazbideren bategaz.

¹³³ Lauziri-laumariko: antxinako diru-txanponak, balio gitxikoak.

¹³⁴ Imilaun eta imina: zelemín, lakari.

Ez daroe gaur nire ume-urte gozoetako ardatz, goru eta matazuzkirik¹³⁵; ez dira orain Arranondoko ezkaratz-sukaldeak sapio¹³⁶, mulo¹³⁷ eta amukoen¹³⁸ hautsagaz lohituten; ez da inun ikusten ez matazarik, ez ardazketarik eta ez harilketarik, eta ez da entzuten be niri hainbeste ames eragiten eusten lamina eta sorginen ipuin itzal bildurgarrizkorik. Horreik gauzok, sainez¹³⁹ beteriko kruseilu baltz koipetsuaren egumetako ekanduak, joan ziran betiko, beste ohitura gomutagarri asko joan diran taiuan. Gaurko egunean andrazkoak batzarretan daroen zeregina, sarea edo galterdia izan ohi da, edo gona, praka eta atorra zaharren arabakintzea¹⁴⁰.

Kruseiluaren egunak antxina joan ziran, baina oraindino, gure andrazkook, sukalde bakotxean argi motel bat euki daroe danentzat, merkeena. Ez da gehiagoren beharrik sarea edo kalterdia egiteko, mutikoaren atorreari aitaren zaharrenagaz idun, eskutur, mahuka barriak ipinteko; senarrarenari arratadarik handienak josi eta paparrean soin-ale¹⁴¹ bat edo bi ezarteko, eta neskatorentzat, amaren goneari aloz¹⁴² batzuk hartu eta gerria zerbait estutuaz, gona polit bat egiteko. Ez dala ona izango? Tramanaren alabak ez eben hoberik eukiko jaio ziranetik hamabost urterainokoa.

Batzarrean batu ondorean errosarioa esatea da lehenengo egin daroen lana. Lan luzea: nik ez dakit norainoko *Aitagure* eta *Abe Mari*-en erreskadea esaten daben azkenean, bideetan eta itsasoetan dabiltzanakaitik, gaisoakaitik, hiltzorian dagoza-

¹³⁵ Matazuzki: hariltoki, astalkai, matazura.

¹³⁶ Sapio: goldearen sokea.

¹³⁷ Mulo: iztupa, amukoa; iruteko gaia, goruan jarten dana.

¹³⁸ Amuko: linorik onena.

¹³⁹ [Saina: izurdearen orioa].

¹⁴⁰ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: arabakintea.

¹⁴¹ [Soin-ale: botón].

¹⁴² Alos: azpildura, tolesdura.

nakaitik, etxean hil diranakaitik, ahaide eta esagunakaitik, Garbitokiko arimakaitik eta neke preminetan dagozan beste askogaitik.

Danak aspertu barik jarduten dabe lan luze done horretan; Tramanak eta Brixek be bai, bada, zeresanik be ez dago, holango bilaldiak egozan tokian, Tramana eta Brix izaten ziran nagusi edo etxeakoandre, biak etxe banatan. Ez ziran zorro bateko urunak.

Eta inok ez eukean esango, Tramanori arrenetan egoanean, nasako Tramana bera zanik; hain samur itxuran egiten eban arrena, goi-goitiko deadar mehe eta erdi negarrezkoan, katuaren auheneko miauaren irudira, baina gero, errosarioa esandakoan, bihurtuten zan bere betiko senera; goi-goitik behe-beheraino erasten eban, ez dakit nik zelan, bere hitza, eta loditu, sendotu eta garraztuten jakon berehalako batean. *Errekisto* biko *organua* eukan eztarrian, bere lagunak zinoenez.

Arrenak amaitu ondorean hasten ziran lagun hurkoai narrua kentzeak, eta orduan erakusten zituan bere grina gaiztoak gure atso zabal honek.

Berau joaten zan etxean, gau baten, herriko gauza guztiak goikoaz behera eta azpikoaz gora erabilita gero, nor edo nork itandu eban:

—Zer egin zan Mari Errotaren ezkontzeagaz?

—Ez dakigu. Galdu egingo zan edo... Isilik dagoz behintzat Sardinzarrenekook.

—Ondo bero ebiltzan ba eraldi batean. Beste zerbait egongo da hor. Mari Errotak esan ei dau...

—Mari Errotak edozer gauza. Gurasoak bai, Anjelen gurasoak ibili ziran berorik; baina semea guztiz hotza ei da holango gauze-tarako.

—Hotza, e, hotza? Antonigaz izango da ze, neuk ikusi dot inoiz besteren bategaz ondo gogozkoa.

—Zeinegaz?

—Mañasigaz.

Honetan, bilaldira besteak baino beranduago heldu zan atso-txu batek, albisterik onenaren jaubea bailitzan, bere burua jaso eta eskuari eraginaz,

—Mañasii! —esan eban—. Ai enetxoak! Mañasik orain gora begiratuko dau. Ezer ez dakizue?

—Ez.

—Bada ezer ez izatea izan leike, baina niri gauza bat otu jat.

—Zer dala baina?

—Atzo iluntzean Egurbideko zimarroia Txanogorrinera joaten ikusi neban.

—Indianoa?

—Bai, eta berak urtenda laster, Txanogorriren andrea, poz itxura handian, Joseparen bila ebilen, Mañasiri eskutitz bat egin behar eutsiela-ta. Hortik hartu neban atzo susmoa, eta gaur, Txanogorriri barri onak daukazan itandu deusadanean, baietz erantzun deust, guztiz onak. Ez dot astirik izan gehiago jakiteko, baina...

—Aita eta semea eta... Apetaldia da! Ikustekoa izango litzateke.

—Ikustekoa, esatekoa eta entzutekoa. Egundo holangorik!

—Horixe da azartona!¹⁴³

—Azartona zergaitik?

—Ia ba, miloi bat ba ei dauka zimarroi horrek eta...

—Miloi bat! Ahuntzaren gaberdiko eztula da!

—Eta miloiagaitik zimarroia edo izurde ustela hartu behar da senartzat?

—Ja jai! Izurdea ostera? Benetan, haren lepo lodi baltzak izurdearen antz pixkat badauka. Baina oraindino itxurazko gizona jagotzu¹⁴⁴.

—Itxurea bai eta kemenik ez. Horreik, Ameriketako izandakook, osasuna galduta etorten dira. Suldarrez beteta ei dauka gorputz

¹⁴³ [Azartona: fortuna].

¹⁴⁴ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: dagotzu.

guztia, eta gainera gibelego gatxa eta kuntzurrunetakoa be ba ei daukaz. Ez dabil ba beti Zestoako eta Zaldibarko urak edaten?

—Bai, eta horregaitik itxi eben Azeritxuneko Petrak eta Biri-garroneko Mikailak, ez dirurik nahi ez ebelako.

—Ezkontzeko gogoaren bizarra dauka agureak.

—Eta lausotasuna handia, hari alabea emon gura deutsienak. Aingerua lango neskatilea judioak baino okerragoko gizonari!

—Hori da bildotsa otsoaren ahoan ipintea beste.

—Ixo, ixo, ez dakigu gauza ziurrik eta!

Baina ez zirean isildu. Bai zera! Ezin eben. Hain zan albiste hori jakingurearen esnagarria eze, entzun ebenetik eta bigirea¹⁴⁵ amaitu arteraino, bera izan zan gau hatako jardungei bakarria. Erruki barik astindu zituen Indianoa eta Mañasiren gurasoak; ezin gehiagoan mutildu, bilostu eta barregarritu zituen hirurak.

—Ikustekoa egongo da —zirautsien— Txanogorri belaueta-rainoko lebiteagaz! Eta emaztea sedazko parpailadun soineko luze-luzea jantzirik? Tramanak jasoko eutsan atzetik, kaleko hautsetan lohitu ez dakion¹⁴⁶. Ja jai! *¡Amona mona se quera!* Indianoa barriz itzain ibili ei zan Ameriketean, eta handik etorri ezkerro be, zaldun jantzia euki arren, itzaina baizen besterik ez zan. Baina harroa handia, bizturiko zorri guztien senera. Ez ei ekian behartsuari arpegirik emoten, eta aurreragoko egun batean, Tramanaren agurrari “muu” erantzun ei eutsan... Ez eukan Mañasik lan makala hizketan hari erakusten. Eta *Aitearen* egiten gainera, ez ekian-ta.

Besteak baino zentzun gehiagokoa edo bihotz hobekoa zan andrazko batek,

—Gazteak —deitu eban azkenean— larregia be larregi da eta itxi deiogun gauza horri bakean, egia dan edo ez jakin arte bada be. Honek Tramanonek nahastuko leuke...

—Ee? Nik orain? Nik ekarri al dot albistea?

¹⁴⁵ [Tertulia].

¹⁴⁶ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: ez jakion.

—Ez, baina zeuk zirikatu dozu gehienbat eta zeuk esan dozuz esatekorik handienak.

—Ondo egin dot, eta albiste horrek egiak urteten badau, hobeak entzungo ditue, arpegiaren aurrean esanda.

—Baina beti izan behar dozu?

—Bai, beti, Tramana txarra dalako, zeuek be ez zara¹⁴⁷ onak baina. Ez, zeuek bez. Tramanak hemen txarria hiltzen dauenean, zeuek egoten zarie txarriari hanketatik eutsika, eta zeuek jaten dozuez gibel-odolosteak.

—Ba danok egiten dogu txarto, zerren ez genduke lagun hurkoa hainbestean iraindu behar.

—Iraindu ez? Zuzitu, banatu, birrindu eta itsasora jaurtiko nituke nik hirurok; batzuk, euren neurritik urten gura daben zoroko, itsu, asto, ganbelu¹⁴⁸ dongeak diralako, eta bestea, lehen be esan dot eta, panparroi, judio, ustel, izurde, zorribiztua. Ez dinot nik guzurrik: niri egin eustan erantzuea, bardin-bardin neuk dinodan langoa zan: “muu!”, holantxe.

Bigirako guztiak Indianoaren lepotik barrez eztanda egiten jagi zirean. Inor ez zan haserratu, Tramana bera bez, itxurak egin arren; inok ez eutsan ezer erantzun, “zugaz ezin leike” baino besterik.

Eta bazan norbait, jardun-etxeko atetik urtetea, Tramanari barrero itanduten eutsana:

—Zelan, zelan esan eutsun?

—Muuuu! —egiten eban osterara be harek, lagunak algaraka eukazan bitartean.

Hain zuzen, orduantxe joian Indianoa gizonen batzartokitik etxera, eta urrinetik ezagutu ebanean murruskadaduna, bazirautsan bere artean: “niri espiritista batek esandakoa egia bada, gu

¹⁴⁷ Kontestuaren arabera, esan leike, *ez zarie* ekarri beharko leukela.

¹⁴⁸ Ganbelu: kankailu.

izate batetik bestera bihurtu ahal bageintez¹⁴⁹, Tramana behia, idia, edo zezena izango zan emakume baino lehenago”.

¹⁴⁹ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: bakeikez.

XVIII HATXETAN

Mendien hegalean eta itsasoaren ondoan Arranondotik L...raino dagoan hiru orduko bidea, nik ikusi ditudanetik ederretako bidea bada.

Bide horren alde batetik ikusten da, orain aldasbehera dato- rren solo gariz betea, gero sagastitxo bat, laster baserri eder bat, behingoan iratza zabal berdea, gaztainadi handia hurrengo, harizti tantaittua ondorean, errekon- do sakon bat noizean behin, sagasti handiak oster- a, soro landuak barr- iro, eta bidearen bihurri batean, usterik gitxien dan orduan, burualde guztia arrano goitarrez inguraturik daukan ikaragarriko hatx handi baltz sendo eta harro zeruruntz jaso- a.

Beste aldetik Kantauriko itsas bardinbagea agiri da bere beti- ko edertasunez apaindurik, hain laster urdin, bare eta baketsu urertzean txipli-txapla jolasean dagoala eta Bilboruntz edo Donos- tiaruntz, Franz- iara edo Santander aldera doazan ontziak eta Eus- kal Herriko arrantzaleen potintxoak bere mokorren gainean mai- tero darabilzala; hain laster gaizto, haserre eta bildurgarria, bitsez betea eta irakina, bere gainaldeko gauza guztiak hondatu nahirik eta legorreko hatx irme gogorrakaz burruka indartsu bizi eta amorratuan orroaka.

Bide horren itsasaldetik dagozan hatx zati handiak, batzuk, txukuntasun bageak, akatsez beteak eta zulotsuak, beratuten dago-

zan artalakatz lodiak dirudie; beste batzuk, leun-leunak, odoldi berde bigunez jantzirik dagozanak, bedar-txondorren itxurea daukie, urrinetik begiratu ezkerro. Hatz asko dira bertan sustraia daukienak, baina gehiago goitik behera jausirikoak, eta zelan inok ez dituan alkarren gainean tolostu, itsasoaren barezko egunetan, zulo, tarte, hutsune eta inguruetatik sartzen jakoe ura polito-polito, eta honi bai eta horri ez, alderdi batetik bai eta bestetik ez, azpiak eta alboak miazkau nahian edo betiko igortzi bigunaren indarrez hondartu eta ezerezera erakarri bailirean ibiltzen jakoe, ziliboka eta bairatsu¹⁵⁰; baina itsasoaren haserre orduetan, ur azpian ezkutaurrek edo alderdi guztietatik bitsa darioela egoten dira arkaitz danak, esnetan egosten dagozan arto zati lodien antzera.

Hatx tarte horreitara jaurti ohi ditu itsasoak, bere amorruan ezpanetara jatorkon bitsagaz nahastauta, ibaiak legorretik eroaten deutzazan egur, mailasto¹⁵¹, abere hil eta zakar guztiak; txalopetatik jausten direan edo бага ausarditsuak ataraten dituan balde, tosta, panel¹⁵², tolet, estropu¹⁵³, lanbas, kako eta treotzarak¹⁵⁴; han bertan sortuten dira lapak eta mutxiloiak, marraskulo, lanperna eta itsas triku edo morkotsak, eta bertan daukie gainera euren bizitzea izkira, hamarratz, olagarro eta beste janari mueta gozo askok. Horregaitik joaten dira hatxetara Arranondoko emakume eta mutikoak egur bila; itsasorako gauza ez diran aguratxoak, kainabereagaz hatxarrain batzuk atara nahian edo lapa, marraskulo eta lanperna eske; eta inoiz behin, herriko jauntxoak be bai, erbesteko txankamehe batzuekaz nahastean, etxetik kanpora eta arrantzaleen itxurak eginaz, ordu alai batzuk igaroteko usteetan.

¹⁵⁰ Ziliboka eta bairatsu: iruzur eta iruzurgile.

¹⁵¹ Mailasto: arto-kanila.

¹⁵² Panel: txalupetako behea egiteko erabilten dan ohola.

¹⁵³ Estropu: arrauna toletari lotzeko erabilten dan sokazko eraztun modukoa.

¹⁵⁴ Treotzara: tretza-otar, krial.

Mañasiri bigarrenko eskabidea egin jakonetik laster, haraxe joan ziran goizean goiz, egun guztia bertan emon behar ebela-ta, beste askoren artean, geure ezagun batzuk: Iskilosdunen nagusia, Indianoa, Lantegiko jaubea eta Ontzi-agintari zaharra.

Hau eben guztien buru.

—Ia mutilak —hasi zan esaten heldu ziranerako— ekin danok lanean. Hemen ez dago ostaturik eta itsasoari kenduten deusaguna jan behar dogu gaur. Oraintxe ikusiko da bizi izaten atara ahal daikegun. Zu, Jose Antonio, esku-zurdea hartuta, zoaz harako han dagoan hatx lerdnaren gainera, ia arrain batzuk ekarten dozuzan. Zu, Fernandez, beste alde honetara, eta ez zaite etorri lupina bi barik. Hortxe egon behar dabe, eta badakizu guztiz ederrak dirana. Batek egurrak batu eta sua egin daijala, eta besteok gura dozuen tokietara joan zaiteze. Ni, ura behean dagoan bitartean, lanpernatara noa.

Oinetakoak kendu eta praka barrenak gora jaso zituanean, ezkerreko galtzarpean zorrotzoa eta eskumako eskuan burdina luze bat harturik, hasi zan lasterka, hatxetik hatxera, lagunetatik aldunduten. Baekian itsasgizon horrek nun egozan lanperna zulo-rik onenak, baina ez eban gura beste inok jakiterik, hurrengorako be. Ezkutuan euki gura zituan berak idorotako lanperna gozoen sorlekuak, umeak txori habiea inori esan barik ezkutuan euki ohi daren antzera.

“Harrapauko haut” bere artean esanda jarraitu gura izan eutsan Lantegi-jaubeak, baina alperrik: bidean eukazan labantasan, traba, hutsune eta min hartzeko arriskuak ikusi zituanean, hatx batetik bestera joateko bi edo hiru aldiz jirabira neketsuak lau hanketan emonda gero, erderazko *¡moño!* batzuk esanaz, bertanbehera gelditu zan, lan errezagoko batean: lapak eta mangolinoak¹⁵⁵ batzen. Hareik ez ziran gizona ibilteko tokiak.

¹⁵⁵ Mangolino: magurio; itsas marraskilo mueta bat.

Bitartean, mutil zoztor bat sua egiten itxita, sakabanatu zirean besteok hara eta hona, jorarik handienagaz, bada gehienak ez eben egundo arrantzarik egin, eta euren adiutu eta zintzotasunez arrainak hartzeari gauza handia eritxoen.

Zentzun guztiak euren arloan ipinita, urazal biziaren zimurretan batera eta bestera, gora eta behera ebilen artalakatzari begira, edo ur garbi barru maminean agiri ziran arraintxoan igeri politak ikusten, luzaroan egon ziran batzuk, ezer hartu ezinik. Zenbat emongo ete eukien arrain handienetako bat euren eskuetara erakartegaitik! Bada hantxe be, beste edozein tokitan lez, harrotasuntxoak eukien gizonak, eta bakotzak izan gura eban erri-meena.

“Helduko baleutso jakiari harako buruhandiak! —zirautsan berarengo gure Indianoak itsaskabra bateri begiak boteaz—. Ez dabil ba urrinean! Et... et... Zer nahigabea! Apapuan¹⁵⁶, jausi eginean, ia-ian zanean, bira eta iges itsaskabreak... Baina baetorren, baetorren barriro... Oraintxe, oraintxe... gora! Bai, gora!, baina hutsa, eta jakia galduta. Jaki barria ipini behar, eta ipinten egoan bitartean, harutzagoko lagunak karraspio¹⁵⁷ handia eskue-tan! Añaniñuena!”.

Holantxe joan jakoezan orduak, zerbait hartuko eben itxaropenez beterik, eta arraintxuren bat eskuartean ikusi ezkerro, pozarren, Napoleonek gudarik handiena irabazi ebanean baino poza-go.

Goiz berandutxoan agertu zan Ontzi-agintaria, inok ez ekian ezkutuko bere hatx-zuloetatik; zorroa bete lanpernagaz; jeupadaka eta esku-zinuka deitu eutsen lagun guztiak; sartu zituan lanpernok ur gesalagaz ordurako su gainean egoan topina baltzean, eta hasi zan lagunok ekarren arrantzea zelangoa zan ikusten... Madari madariena! Lupinarik ez etorren. Pantxoak ekazan batek; beste

¹⁵⁶ Apapuan: estu eta larri, ozta-ozta.

¹⁵⁷ Karraspio: *Symphodus* familiako arrainei emoten jaken izena.

batek itsaskabrea, durdo bi eta hiru karraspio; Indianoak, txangila eta mustoa¹⁵⁸. A, ze janaria, hainbeste gizon handirentzat! Lapak eta mangolinoak egozan ugari, eta besterik ezean, lehengo arlotearena esan beharko:

*Lapas y mangoliños,
Txanton Erreka,
Ondo gozoak dira
Sutan erreta*

—Erre, erre —esan eban Agintariak—, erre jatekoak diran gauzok. *Galsuaran* baserritik ardao eta ogia dakarrezan bitartean. Txangila eta mustoa gorde daizala Jose Antoniok etxeko ka-tuarentzat.

Galsuarandik ogia eta ardaoa baino zerbait gehiago ekarri eutsien: lapiko handi bat bete baba baltz, urdaiazpiko eta lukainkaz ondo gozaturikoak.

Zerbait behar zan egun bateko arrantzaleon urdailak beteko baziran. Goseturik egozan gehienak, ia guztiak gogo handikoak, Lantegi-jaubea bakarrik jankartxoak.

Honek zinoanez, astakeria handi bat egin eben hatxetara egun guztirako joateaz. Eguzki-galdatan arpegia erre jakon berrari eta burua berotu, txirristadaka eskuak eta praka-belaunak urraturik eukazan, kerizpean jarrileku on bat ezin eban idoro, baba baltzak ezin zituan iruntsi, arrainak txarto erreta egozan, hitz batean esateko, dana zan beretzat gogorra eta latza, eta etxeko kerizpe ona, jarrileku egokiak eta jaki gozo guranahikoak ixte-ari, zorakeria handi bat eritxon. Halan ezin zeitekean gizonik bizi.

Indianoa eban zerbait bere alde, baina beste lagunak, sendokoteagoak eta ohituagoak, patxada onean ziharduen aurrean eukien danetik jaten, eta Lantegiko jaube argal, makal, bigun, zigagaixoari, marmarrean toki on bat bilatu ezinik ebilen bitarte-

¹⁵⁸ Musto: jateko ez dan hatxarteko arrain txiki eta baltza.

an, barre egiten eutsien, barre algaraka, eta adarra jo gainera galanto.

Baina guztien artean zirrikariena Ontzi-agintaria jagokon.

—Ohituko zinateke, itsasotik bizi behar bazendu¹⁵⁹ —zirrautsan—. Hau behingoa da, bildur bageko arloa, geure gurariz egiten dogun jolasa. Ondo alaitsu etorri gara, nahikoa lo eginda gero; eta gainera, ostaturik ez dagoala esan deutsuet, baina ostalari ona bilatu dogu *Galsuaranen*. Baina gure herriko arrantzaleak, zuri sardinea eta besigua saltzen deutsuenak, gogo asko barik, lo gitxiago eginda, egunero, eguzki beroagoaren azpian kiskaltzen, ia janari bage, tosta gainean jarririk eta lepoa nun ipini ez daukiela igaro behar izaten ditue ordu aspergarriak, erramuari tenga eta tenga. Ikasizu —begiari kinu eraginaz—, arraina zenbatean erosi behar dan jakiteko.

—Jolaserako gogo handia daukazu, zeuk, baina erruki gitxi. Ekatzuz lanperna batzuk, horretzek dagoz onenak eta.

—Errukariari erruki, ez zuri —eskua bete lanperna emonaz—. Ez nik errukirik zuri eta beste honako izerdi koipetan dagoan honi (Indianoagaitik), mukertxo dakust berau baina. Zuek ainako bizibide onik ez daroa inok Arranondon. Goizean zortzirak aldean jagi, buruko uleak eta arpegiko bizarrak orraztu, eta egunaren orduak ezin emonik gero: horixe da zuen bizibidea.

—Geure lehengo lanari eskerrak.

—Lehen egingo zenduen ze, gaur behintzat ikusi da zenbat daikezuen. Batorrek lapa eta mangolino batzuk ekarri dozuz, besteorrek txangila eta mustoa, eta hemen zagoze biok ahuldurik eta ezer gehiagorako ez zariela.

Iskilosdunak: —Jose Antoniok arrantzan badaki, itsasoan ez bada, legorrean. Nik entzun dodanez, arrain ederren bat katigau ei jako bere..., diruan.

Azkenengo hitz hau isil-isilik esan eban, Indianoak ez entzuteagaitik.

¹⁵⁹ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: bazunduke.

Itsasgizonak: —Bai ete? Neuk be zer edo zer entzun dot, baina ez dot sinistuten. Barriri be lehenagokoa izango da: usain egingo deutsie arrainak amoari, eta gero iges.

Iskilosdunak: —Baina mazia jaurtiten badau?

Itsasgizonak: —Mazia honek jaurti? Erakutsi bai, baina emon?

Indianoak: —Zegaitik ez? Zetarako ditut ba neure diruok? Ez nozue zuek ondo ezagutzen.

Danak: —Bien, Jose Antonio, ederto dinozu!

Itsasgizonak: —Benetan, ez zazauz¹⁶⁰ gaur inok.

Indianoak: —Nik i, behar danean, mazia botaten badakit.

Itsasgizonak: —Beraz, badarabilzu zerbait.

Indianoak, irribarrez: —Bai, zerbait bai.

Itsasgizonak: —Mañasigaz?

Indianoak: —Mañasigaz.

Itsasgizonak: —Bazkari onen bat emongo deuskuzu orduan.

Indianoak: —Bai, gaurkoa baino hobea.

Iskilosdunak, edanontzi bat eskuan hartuta: —Jaunak, edan daigun ezkongeiaren osasunerako!

Lantegi-jaubeak, albokoari, belarrira: —*Tabaco!* Gaur danoen artean egin dogun astakeria baino, honek bakarrik handiagoa egin behar dau.

Barrea eta esangurea ezpanetan gelditu jakoen guztiai maki-ladun gizon bat akitika eta izerditan eurekana etorrela ikusi ebe-nean.

—Pedro herrizaina da —esan eben—. Zer ete dakar?

Berehalaxe jakin zan zer ekarren. Alkateak bialdu eban Bilboko diputaugei bat herriratu zala eta Jaun guztiak udaletxera joateko esatera.

Guztiak: —Zein da bera?

Herrizainak: —Ez dakit.

¹⁶⁰ Ez zaitu ezagutzen (inork zu).

Lantegi-jaubeak: —Dana dalakoa, goizago dabil. Oraindino lau egun ez da Sagastak agintea itxi dauela-ta...

Itsasgizonak: —Dana dalakoa, agur Arranondoko alkartasuna eta agur gure arteko bakea!

XIX

MAZIA¹⁶¹

Gau hatan bertan, ukabil sendoa lotuta Indianoaren etxe atean danbada batzuk emonaz, *Ave Mai Puixima!* deituten eban gizon arrantzale batek.

Atea edegi ebenean, barrutik etorren argiagaz ezagutu genduan deizalea zein zan: Mañasiren aita, Txanogorri.

Zer ete eroian berak Indianoaren etxera?

Aurraldeko beste etxe batean zelataka egoan atsotxoak ez ekian, gura izan arren; baina neuk dakit eta esango deutsuet, irakurleak.

—Hara, Jauna —esan eban Txanogorrik Indianoagana heldu zanean—, lotsatu be egiten naz, baina laguntasuntxo bat eskatutera nator. Egia da, berori gure Mañasitxugaz ezkontzen danean, legatzetara-eta joan beharrik ez dot izango; baina, edolabere, itsasotarra nazalako itsasoari guztiz ezingo deutsadala itxita, horretarako potintxo barri baten beharrea nago, herri aurrean eta hatxondoetan ibilteko baizen ez bada be. Lehengoa zaharra daukat, zaharra eta sorra¹⁶², askotan arabakindua, sutarako baino gehia-

¹⁶¹ [Mazia: toki batean botaten dan arrain-janaria, *masidsa* esan ohi daroe arranondotarrak].

¹⁶² [Sorra: baratza, pesada].

go ia ez dana, eta barria neuk egiteko ez daukat nahikoa dirurik. Irabazi txikia izan dogu aurten, Jauna, eta jan beharra, jantzi beharra eta etxesaria emon beharra edozein urtetan legez... Bero-
rrek mila bat errealegaz jantziko banindu, nik potin barria euki-
ko neuke. Txanpon arotzanean ikusi dot gaur bat, ondo polita.

Indianoa, bekokia zimur-zimur eginda, ezpanetako bizarrari
tenga gelditu jakon, begira-begira.

—Zeuk ez daukazu dirurik bape? —itandu eutsan gero
arrantzaleari.

—Bape, bape bai, baina neskatileak ezkondu behar badau
esku hutsean ezingo dogu etxetik bialdu, eta ordurako zertxobait
gorde nahi genduke.

—Gizona, zeuk dirua eukita beste bategana diru eske joatea,
ez da itxurazko ibilerea.

—Baina, Jauna, esan deusat ba, ez daukagu txalopea eroste-
ko aina, ez daukagu nahikoa. Tira, estu-estuan honezkero Maña-
sik be zer edo zer aurreratuko eban-ta, berak daukanagaz... Bero-
rregaz ezkondu behar izan ezik...

Indianoak, mila erreal emotea baino ahoko haginak ataratea
gurago eban; baina, ezkontzarako bidea okertuko ete jakon bil-
durak ikutu eutsanean, jarrita egoan tokitik aida batean jagi,
inguruko gelatxo batean sartu eta atara zituan nunbaitetik diru-
paper batzuk.

—Nire hizketea esate bat baino besterik ez da izan —esan
eutsan Txanogorriri, paperok bere eskuetan ipiniaz—, baina hara
hemen nire *borondate* onaren *pruebea*.

—Zer da hau, Jauna?

—Dirua, mila errealak. Honek paper batonek ehun *peseta*
balio ditu, honek beste ehun, eta honek *sinkuenta*, berrogeta
hamar.

—Ehun eta ehun... berrehun... eta berrogeta hamar... be-
rrehun eta berrogeta hamar dira honeik.

—Bai.

—Mila erreal ez dau esan ba?

—Bai, berrehun eta berrogeta hamar pezeta mila erreal dituzu.

—A! Bai. Ehun lauko... —buruari hatz eginaz—, ehun lauko laurehun... Beste ehun lauko beste laurehun... Hara non diran zortzirehun... Eta berrogeta hamar... Zortzirehun eta berrogeta hamar.

—Baina berrogeta hamarreko hau berrehunekoa dozu.

—Berrogeta hamarrekoa bada zelan izan leike berrehuneko?

—Berrogeta hamarrek pezetak diralako.

—A! Bai, pezetak... Baina... Hara, jauna, nahastau egiten naz ni, baina ondo egongo da. Irakurten be ez euskuen erakutsi-eta... Mañasik bai, harek ederto daki, *eskolau* handia da.

—Neuk be badakit horrenbeste eta gehiago. Kanpoetan asko ikasten da.

—Bai, Jauna, bai; geu gara ezer ikasi ez dogunak, itsasoko gauzea ez bada. Eskerrik asko, Jauna —diru-paperak txapel koi-petsuaren hegalean, pipa motz zaharraren ondoan gordeaz—, eskerrik asko eta agindu. Esan deust niri andreak berorrek ez eus-tala ezer ukatuko.

—Ezin ukatu neizu.

—Halan esan deust berak; nire andrea be argia da, Jauna.

—Bai, argia izan behar, Mañasiren ama da-ta. Baina ez dau *berak* ezer *abisau*?

—Zeinek?

—Mañasik.

—Oraindino ez, Jauna.

—Ba *eskribidu* eiozue bihar barrero, eta esan neuk emon deusuedazala mila erreal potina erosteko.

—Eta potina da gero bera, nik begiz jota daukadana. Ez da herrian beste bat politagorik egongo. Matxin Koipek beretzat gura ei dau.

—*Alegretan* naz potin hori *gustokoa* dalako. Baina *eskribidu* gero.

—Bai, Jauna, bai, Jauna, horixe bai!

Gure arrantzaleak, pozarren, bere etxeruntz urten ebanean, Indianoak, ezker-eskuma lehen baino gogorrago ezpanetako bizarri tenga:

—Arraio, arraioa —zirautsan—, mila erreal, mila erreal handi atara deustaz dirua zer dan be ez dakian agure zikin horrek! Mazia bota behar bazan bota dogu mazia ugari, ondo ugari gero! Baina ez da ezer galduko: laster izango da neurea Mañasi, eta potina be bai.

Txanogorri eta emaztea, honeen asmoak ondo urten ebelako, diru-paperetako santuai luzaro begira egonda gero, zorionezko ames gozoak eginaz sartu ziran ohera, eta hurrengo goizean goiz, Josepak baino hobeto ekiala-ta, herriko irakasle edo maisuaren bitartez, egundoko eskutitz larria bialdu eutsien Mañasiri. Indargetuta egozala senar-emazteak, oso indargetuta, inondik ez egoala ezeren irabazirik, zorpean sartuta egon beharko ebela, eta laster gaixotegi edo ospitalera joateko bideak egin beharko zirala... Don Jose Antoniori baietza emon ezik. Hau zala gizona, hau. Ondraua, emonkorra, bihotz handikoa, bardinbagea. Mila erreal emon eutsezala berak txalopa barri bat erosteko! Baina, danak betiko hondatu ez zeitezan¹⁶³, ondo erantzun behar jakola, eta ondo erantzuteko, arren! Jaungoikoagaitik, Antiguako Amagaitik, guraso zahar errukarriakaitik!

Gehiegitxoia zan, guk badakigu, gurasoak Mañasiri esaten eutsiena; baina norbere gogoaren alde zerbait jadetsi nahi danean, edozeinek daki gehiegi esaten. Ezagutzen ditut nik hamaika euren gogoa eta iritxia indartu gura dituenean, esan ahalak esaten behin be aspertu ezin diranak, guzur eta abar. Gogoa bada neurri, ez da erraz neurria beteten.

Txanogorrik berberak bota eban, elizpeko eskutitz-ontzian, Mañasirentzat eginiko eskutitza, eta berehala, pozkor, irribarrez eta urduri Txanponen ontzitegira joan eta, ordu erdi baino lehenago, egin zan begiz jotako txalopatxoaren jaube.

¹⁶³ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: zaitezen.

Ez egoan oraindino hain indargetua gure agurea. Edozeinek hartuko eban gizon gordin, zail, sendotzat, txalopea, narras, uretara eroaten egin zituan indarrak ikustean, eta gero, ibaian jirabiraka, hain laster arraunean, hain laster haize-oihaltxoaz jasoaz, potin horren azkartasunak erakusten ibili zanean.

Lan horretan ebilen bitartean, itsasoraterik ez zan izan-eta, arrantzale asko jagokozan begira, eta danak ekien eta guztiak zinoen nundik etorkon aguratxoari honek ezin gorderik erabilen poza eta gozotasuna: Idianoagandik, Indianoak berak esan ebanez.

Beste arrantzaleen artean, hantxe nasa gainean egoan Anjel be, besoak tolostuta, adiskideen jardunak entzuten, eta hantxe jakin eban, gauza ziurra legez laster ezkontzen zala Indianoagaz Txanogorriren alabea. Zergaitik ez ekiala keriz¹⁶⁴ handi bat sartu jakon mutilari bihotzaren erdiraino. Halango gauzarik! Zer joakon berari Mañasi ezkonduagaz? Ezer bez, baina gogoratu eban bat-batera neskatila horregaz Erriberatik Kale Nagusirako mailetan behin euki eban jarduna, etorri jakon begien aurrean egun hatako Mañasiren begirada gozoa, gomutau zituan haren orduko malkoak, esangura handiko malko lodi garbiak, eta gero-ago eta samin handiagoa jarten jakon bihotz barruan. Egundo ez eta orduantxe ikusten eban Mañasi lango emakumerik ez egoala ez herrian eta ez erbestean: hain zan txukuna bera, hain itxurazkoa, hain langilea, hain... Eta beharbada, Anjelek bere eskuetan euki eban Mañasiren bihotza. Garai onean otuten jakozan holango gogamenak, garai onean! Ura joanda gero malatua¹⁶⁵.

Gure mutilau, eguardi aurretxoan, bere lagunak nasa gainean itxita, itsas aurrera joan zan, bakar-bakarrik, bere arimako saminak astindutera.

Aurreragoko egunean hain bare gelditu zan itsasoa guztiz egoan harro, bere zabaltasun danean kizkur, bizi eta apartsu; hai-

¹⁶⁴ Keriza: kezka, egonezin, goibeltasun.

¹⁶⁵ Ura joanda gero, malatua: alperrik izan. Ura joan eta gero, presa egin.

zea, neguko egunik txarrenetakoaren antzera, gogor, zematzaile eta soinulari; hodei moltso lodiak, baltzak gehienak eta itxura itzalekoak, inoizkorik azkarren joiazan Franzia alderontz, norbait atzetik jarraika balebe legez; Gipuzkoako mendi eta harkaitzak laino eta bisuts azpian estaldurik egozan; Matxixako entzutetsua- ren mustur zorrotza itsasoak irunsi eballa esan zeitekean, bada ez zan inondik agiri; ur-maila sendo galantak eten bageko errenka- dan etozan herri aurrera, Arranondori berezi gaizto bat ipini nahian legez; eta kaio zuri lumatsuak, hegoak zabal-zabalik, zerutik etorriko kurutzeak bailirean, hor jausiko hemen geldituko ebiltzan baiezean, ekatxaren orroari jaramon barik.

Anjel, eserleku batean urrinera begira jarrita, bere barrualdea zeharo ikusteko asmoetan gelditu zan.

Begiak urrinera begira dagozala askozaz hobeto ikusten da batzuetan norbere barrua.

Jakin behar eban, noizbaiten, zelango arpegia eukan beretzat etorkizunak, noizbaiten arakatu behar eban bere bihotza, goga- mendu behar zituan noiz edo noiz arimako gogo eta iritxiak. Ez eban horretarako behin be astirik hartu, gauza danak berenez, euren bidetik, nahi eban erara etorriko jakozalakoan.

Gogamenetan hasi zaneko ai!, ezagutu eban ederto Anjelek Mañasi zala, ordura arte ondo igarri barik, beretzat aspaldietan aukeratuta eukan emakume egokia. Bai, garbi egoan, horixe izan zan bere iritxia, horixe bere gogoa, neskatileagaz hitz egin eban ezkerro behinipehin. Horretxegaitik nahigabetu eban bere ama maitea, horretxegaitik emon eutsan Antoniri bidebageko atzera- pena. Bere gogo hau ez eban inoiz ondo jakin, baina orain, aspal- dietan jakiniko gauzea zirudian. Zetarako izan eban burua hain argi egozan gauzak lehenago ez ikusteko? Zetarako mingaina behar zan orduan Mañasiri zerbait ez esateko?

Anjelek, gogamenokaz, zauri sakona egiten eban bere biho- tzaren erdian, eta halanda guztiz be luzaroan egon zan jarrileku- tik jagi barik, bihotzeko zauriari gehiago eta gehiago ikutuka. Baina zenbat eta ikutu gehiago hainbat eta min handiagoa har-

tzen eban gizagaixoak, eta azkenerako, minaren minez, itxi eutsazan argiari begiak, eta astakeria handiak etorkozan burura.

Min danean itxi ohi dira begiak eta orduan astakeriarik handienak egin.

Mutil horren esakeran, ekatxak itsasoaren erdian hartu daroan txalopa baten irudira egoan bera: ekatxak urten baino lehen, edozein tokitara joateko eskubidea baucan; orain ez, orain ahal zan portura sartu beharko, nahitanahiezean, arribadan. “Neure erruz nago ni galduta —zinoan—, baina, dana dala, neu saminez nagan ezkeru, emongo neuskio nik orain samintasun bat Mañasiri be... Eta nire susmoak egiak badira, hari min emoteko egiterik handiena, bera baino neu lehenago ezkondukea izango litzateke, Antonigaz... Eta gero Bilbora joan, bera, Mañasi, ikustera, herri-tarra legez... Egingo ete dot bero-beroan?”

Eguerdiko hamabi t´erdietan, bestetan baino berandutxoago, sukaldeko mahaitxoaren ondoan bazkaitara jarri zanean,

—Ama —esan eban— Indianoa ezkontzen dala entzun dot.

Amak: —Halan dinoe, seme... Eta zeu, noiz ezkonduko zara zeu?

Anjelek: —Ni be noiz edo noiz ezkondu beharko.

Amak: —Ez dakit ba nik, haserratuta daukazu zeure ezkon-gei hori eta...

Anjelek: —Haserratuta badago, adiskidetu leike.

Amak: —Lanbide hori pozik hartuko neuke neure gain.

Anjelek: —Hartu bei ba.

Amak: —Benetan dinozu?

Anjelek: —Benetan.

Amak: —Jesus, Maria eta Jose eta Aita San Antonio bedein-katua! Behin edo behin, behin edo behin! Gaur bertatik hasiko naz lanean, baina, Anjel, zeuk be koipekeria batzuk esan beharko deutzazuz Antoniri.

Aitak: —Bai, amak amon ipinten dauen jakiagaz bakarrik ez da jausiko: mazia beharko da hor, mazia.

Anjelek: —Maziori be emongo jako.

XX

GEROAGO ETA TXARRAGO

Mazia emongo ebalá esan arren, ezin eban Anjelek inondik inora Antonirentzat mazirik emon; ezin eutsan, nahita be, neskatila honi oparitxo bat eskini, ezin eutsan eregutxo¹⁶⁶ bat opa, ezin eutsan eztiro hitz egin.

Atsekabetua ebilen mutila beti neskatilearen igesi, eta bizitzeak irauten eutsan artean zorigaiztokoa izan behar ebalakoan. India-noaren dirutik agertu ei jakon zorigatxa. “Urreak indar handiak ditu —zinoan sarri beretzat—, baina okerrerako gehienetan. Urrerik ez balitz ez legoke lurtean hainbeste gauza oker, hainbeste zapokeria, hainbeste grina gaizto. Urrerik ez balitz ez legoke hainbeste lagun-saltzaile, hainbeste handinahiko, hainbeste lapur. Urrea izan ez balitz, gizonak askozaz onagoak, zuzenagoak, eta apalagoak izango zirean. Urrea gehituten danean gehitu ohi da gizonen harrokeria, itsasoa gora datorrenean ibaiko ura gehituten dan legez. Ez dago geuri atuntzuko irabazitxoak dakarguzanean begiratutea baino. Andre Marietako egunak eta ezer ez dan Garizumakoak ez dira hemen bardinak izaten... Urre madarikatua, bihotz samurren gogortzailea, adimen argien itsumena! Bai, urreak itsutu ditu nire ama eta Mañasi be. Hau, itsutua dagoalako, gan-

¹⁶⁶ [Eregua: mimo].

belu bategaz ezkonduko da, eta nire amak, neu hainbeste maite izan eta, emakume harro, buruarin, geldo, epel bat emon gura deust emaztetzat... Urre asko barik bizi leiteke ondo. Biziko nintzan ni Mañasigaz. Nik lana egingo neban gogotik, eta berak etxea txukundu, hatarakoa da-ta. Ze garbi eukiko eban harek gure etxea! Jateko eta jazteko lain irabaziko neban nik, eta berak jatekoa ipini eta jantziak zaindu. Ze gozoa izango zan harek egosiriko lapikotxoa! Jateko eta jazteko aina eukiko gendukeala uste dot, eta zer gehiago behar dau gizonak? A! Bai, etxeko poza, etxeko bakea, harrera ona, maitetasuna; horrek emoten deutso osasuna gizonari, horrek lanerako arnasa barria, eta nik ezin neike hori Antonigaz izan”.

Anjel holango buruhausteakaz ebilen bitartean, Mañasi, Arranondotik bialdu eutsiezan albisteak irakurrita, negarrez egoan Bilbon.

Haze albisteak gurasoenak eta Joseparenak! Honenak batez be. “Isilaldi handia izan da —esaten eutsan Josepak—, guzur asko ibili dira emakumeen ahoetan, danok uste izan dogu galduta egoala, baina egia da oraingoan, ziur-ziur dakit: Anjel laster ezkonzen da Antonigaz”.

Gurasoen estutasuna, bai, txarra zan; baina nasaitu zeitekean zelanbait Mañasik berak aurreratuta eukazan diru apurtxoakaz. Bestearentzat ez egoan inungo osabiderik.

Mañasiren negarra egiazkoa zan, barru-barrutik berez etorkona, eta nagusien aurrean erakutsi nahi ez arren, arpegiko iluntasun eta begi ederren gorriunean ezagutu eutsien berehala.

—Zer darabilzu, emakumea, hain muker eta tamal egoteko? —itandu eutsan etxekoandreak.

—Ezer ez, andrea.

—Bai zerbait. Lagunakaz haserratu al zara?

—Ez, andrea.

—Gaixorik al zagoz?

—Ez, andrea.

—Nahigaberen bat emon al deutsugu?

—Ez, andrea, esatea be!

—Ia ba, zer edo zer esan behar... Barri txarrak hartu al dozuz zeure etxetik?

—Bai, andrea, ez dira hain onak be.

—Zer dinotsue ba?

—Ezer ez, andrea.

—Ezer ez? Ezer ezgaitik zagoz holangoa? Esaidazu niri zer daukazun. Badakizu hemen ondo begiratzen deutsuguna, eta guk zerbait egin badaikegu¹⁶⁷...

Neskatileak, bere etxeoandreairen bihotz eta gurari ona ikustean, ezer erantzun barik, negarrari emon eutsan barriri.

—Jakin behar dot nik, Mañasi —jarraitu eban harek— zure etxetik zer dinotsuen. Erakarri eidazuz gaur goizean hartu dozu-zan eskutitz biak, isileko gauza astunen bat ez badaukazu.

—Ez neuke nik, andrea, berorregaz isileko gauzarik euki gura, berori nigaz gurasoa langoa da-ta, baina... lotsatu egiten naz.

—Gauza lotsagarrietan nahastaurik al zagoz?

—Ene bada-ta, Jaungoikoaren izenean! Ez, andrea.

—Emoidazuz, bada, zeure eskutitz biok.

Emon eutsazan, eta etxeoandrea irakurten egoan bitartean, gure neskatila apal bildurkorra, epaia emon behar dauenaren aurrean dagoan gaizkile baten taiuan, ikaraz jagokon begira.

—Emakumea —esan eban epaizaleak bere arloa amaitueran, eskutitz biak estalkietan sartuaz— hemen ez daukazu hainbestearaino nahigabetuteko gauzarik. Zure gurasoak zaharrak badira eta irabazi gitxian badabiltz, emongo jakoe zerbait, eta...

—Ez deust, andrea, hainbeste ardu horrek emoten. Guraso-entzat dira neuk aurreratutako guztiak, eta eurok izango dira nahikoa nire aita-amak daukiezan premina laburrai arpegi emoteko. Beste alde batetik dator nire samina.

¹⁶⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: deikegu.

—Hemen dinoen D. Jose Antoniogandik?
 —Bai, andrea.
 —Zein da bera?
 —Indiano bat.
 —Zugaz ezkondu nahi al dau?
 —Bai, andrea.
 —Eta zuk ez zenduke gura?
 —Ez, andrea.
 —Zaharra dalako?
 —Ez da hain zaharra.
 —Diru gitxi daukalako?
 —Berrogei mila ogerleko ba ei daukaz.
 —Elizemakumea izan gura dozulako?
 —Ez, andrea.
 —Beste Anjel horregaz zerbait izan dozulako?
 —Nik ez dot ezer euki Anjelegaz.
 —Ez zarie alkarren adiskideak izan?
 —Adiskideak?
 —Bai. Ez deutsu berak ezkontzarako hitzik emon?
 —Ez, andrea, hori ez.
 —Eta ez da mutil hori Antonigaz ezkonduen Josepak dinoa-
 nez?

—Itxurak halan dira.

—Bada orduan, neskatilea, Anjelek egundo ezkonduetako hitzik emon ez badeutsu, eta gainera besteATEGAZ ezkontzeko aurreratua badabil; Indianoak osterA zeu gura bazaitu, aberatsa bada eta zeure gurasoak begietatik zehar sartu gura badeutsue, zetan zagoz eta zeri daukazu zer negar egin? Niri ez jatort ondo, gure etxearen kaltean izango da; baina maite zaitudalako eta zeuretzat ona dalako, gurasoak dinotsuena bera esango deutsut, Indianoagaz ezkondu zaitzezala. Ez dozu holango beta onik egunero izango. Asko gelditzen dira ezkongei euren aukera eta gogobeteakoaren zain luzaroan egonda gero. Ez ibili irudimenetan eta eztabaidetan: begiak itxi eta aurrera. Begiak zabal-zabal eginda

gizonai ondo begiratzen hasten bazara, ez zara inoren emazte izango: senargei batzuk zaharkoteak dituzu, beste batzuk gazteegiak; batzuk txepetx burudunak, beste batzuk bekoki baltzegikoak; batzuk zatarrak, beste batzuk emakume itxurakoak. Danak daukie akatsen bat: edo handiak dira edo txikiak, edo arloteak, edo jokalariak... beti dabe zerbait. Amesetan ikusitako gizonak ez dira lurrean bizi, edo ez dira behintzat etorten gure bila... (Jesus! Gure Pakok entzungo baleust... Niri gura ainakoa etorri jatan, Mañasi, egia da; baina hori noizean behingoa baino ez da izaten). Goazen aurrera. Gaur Indianoari gura izan ez arren, hemendik urtebetera maite kutuna legez euki zeinke¹⁶⁸. Hara hor alboko Maria Mendata, goizero elizara zalpaldi ederrean joaten dan andre apaina; jostun bat zan hori eta nahiezean lez ibili zan luzaro Zubiaur zaharragaz ezkontzeko, baina ondo pozik eta maitero bizi da gaur bere gizon zintzoagaz. Hara hor Josefa Olite, Bidebarrietako alar-gun aberatsa: horrek be, Barrenkaleko zigarro-saltzailea zanean, ez ei eban gura senartzat Eguren indianoa; baina ez dau orain damu bere gurasoen esondeari jarraitua. Gogobetekoaren zain egon balira, nork daki zer izango zirean zahartzara horreik emakume biok? Eta gaur osterata etxe handi ondasuntsuan jaiorikoak dirudie. Zeuk be, Mañasi, ez neuskizu esan behar baina, beste edozeinek lango egokitasunak daukazuz zeure herrian andre handi eta ona izateko.

—Isilik egon bei, Jaungoikoagaitik! Berorren esanakaz, nengoan baino gehiago lotsatuten nau.

—Baina ez deritxazu hain txarto handikia izateari.

—Ez nau, berorrek uste daben aina, aberats izateak harrotuten. Ez dagoz ondasunetan gozotasun guztiak, berorrek ondo daki; eta gainera, ni aberats jaio ez nazanean, Jaungoikoak aberats gura ez nauen agiri argia da.

¹⁶⁸ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: zeinkezu.

—Zer? Gaurko aberats guztiak beti aberats izan dirala uste al dozu? Ez gaurkoak, eta ez atzokoak. Aberastasun guztien iturburuak behartsu eta urriak izan dira beti. Ez deustazu entzun orain-txe esan dodana? Jaungoikoak emon eta kentzen ditu gure ondasunak Berak gura dauenean. Jaiotzan emon ez eutsuna orain emon nahi badeutsu, horixe da, nire ustez, orain aberats gura zaituan agiria. Eta beste aldetik, begiratu eikezu, Mañasi, alaba bakarra zareala, eta zeure gurasoen azken onari begiratu beharrean zagozala.

—Ez dakit, andrea, zelan erantzun; baina darabilgun autua hasi daneko, gauza bat esateko gogoia daukat.

—Zer da bera?

—Nigaz zertu nahi dauen Indianoa ez dala Jaungoikoak gizona, eta behar dan legezko euskalduna bez.

—A! Nik ez nekian hori. Horrek atzeratuten bazaitu, bide horretatik jatortzun hoztasunari txalogarria deritxat; baina hortxe bertan ikusi zeinke¹⁶⁹ Jaungoikoak zure eskuetan ipinten dauen lanbide on bat: zeuk ondu zeinke Indianoa, zeuk egin zeinke elizkoi eta herrizalea. Emakume batek oso asko daike maite dauen gizonagaz, bada ezkondu behar daben aurrean guztiak dira arkumetxoa baizen bigun eta otzanak. Ez dozu, Mañasi, gizon bat zeure herriarentzat eta arima bat Jaungoikoarentzat irabazi nahi?

—Eta ezin bada?

—Ezin bada, itxi. Itxiteko astia izango dozu. Hasi zaitte behinipehin zeure arloan. Esaiozu gizon horri ondu dedila, eta ikusiko dozula gero zer egin. Gelditu bedi honetan gure autua, eta legortuizuz zeure malkook, ez daukazu zeri negarrik egin-eta.

Amaitu zan jarduna, baina ez Mañasiren hiletea. Etxekoandreak, gogo eta usterik onenetakoagaz, neskatilea poztu eta zorion bidean ipinten ahalegin guztiak egin arren, eta Mañasik arpegia alai erakusten arreta handiak ipinita be, ezin eban honek egiazko alaitasunik agertu.

¹⁶⁹ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: zeinkezu.

Arranondotik urten ebanean, arimako itxaropenak, antxinetatik hainbeste txera palagutan eukazan itxaropen eztsuak, hiltzeko zorian eroan zituan Billbora; baina ez ziran oso hil oraindino, eta bizirik egozan bitartean, azken agur latza emon baino lehena-go, inoiz baizen hobeto maitatzen zituan, inoiz baizen hobeto losindu eta elikatu, eta bere gurari beroaren bitartez, irudimenean sorturiko gorabehera handien bidez, askotan sinistu eban emon eikioela Jaungoikoak bizitza eta osasun sendoa. Ai! Orain ez egoan holangorik. Hil jakozan osoro eta betiko itxaropen guztiak, eta itxaropenak hiltzen diranean arimea baltzez jantzirik gelditu ohi da! Horregaitik agiri jakon Mañasiri arpegiko irribarreak ezin ondo estaldu eutsan barruko nahigabea; horregaitik ikusten jakon, bekoki goibelaren azpian eta begi-bitarte bigun gaixoaren zehar, arima saminduaren progua¹⁷⁰ eta bihotz errukarriaren hiltzantzia¹⁷¹.

Ez eukan gogorik, baina bere etxekoandreari ez minik emotearren, eta honen betiko esanak jarraituaz, erantzun eutsen gurasoai ez eiela gaixotegi edo txiroetxera joateko bildurrik euki eta Don Jose Antoniori esateko izan zedila ona eta elizkoia, eta ikusiko zala gero zer egin behar zan. Oraindik ez egoala lasterka ibili beharrik.

“Edolabere —usten eban Mañasik— hau ez da esonde on bat emotea baino, ez deusatz nik hitzik emoten, ez dot neure burua lotuten eta hortik ez jat okerrik etorriko”.

Baina erantzuera horixe izan zan nahikoa bere gurasoak eta Indianoa, gauza guztiak eginak egozalakoan, pozez zoratzen jarteko.

Handik laugarren eguneko arratsaldean, gure neskatilea, nagusien agindu batzuk eginda kaletik etxera sartu zanerako, eskutitz bat eta sedazko paper bigunetan baturiko gordairutxo bat emon eutsiezan Arranondoko emakume batek ekarri zituala-ta.

¹⁷⁰ [Duelo].

¹⁷¹ [Luto].

Eskutitzean zirautsien gurasoak “D. Jose Antonio lurbirako gizonik onena zala eta bere ontasunaren agergarri ona joakola Mañasiri eskutitzagaz batera emongo eutsien gordairu barruan. Halan-go gizonik ez ebalá egundo inon bilatuko, eta luzapenetan ibili barik, neskametzeari betiko itxi eta hainbat lasterren erabagi behar ebalá gauzeak”.

Lehenengoan ez eban Mañasik kutxatxoa edegi be gura izan: nazkatu egiten eban Egurbidekoaren opariak, eta, zan lakoa zala, hurrengo goizean jaubeari bihurtzekotan ipini eban ohe gainean. Baina gero, bere arloetan ebilela, gordairu barruan egoana zer zan ikusi eta jakin-nahiak, ziri hortik eta ziri hemetik, irabazi eutsan bihotza; otu jakon, gainera, etxeoandreari esan barik ezingo ebalá bihurtu Indianoaren oparia, eta ikustea eta etxeoandreari erakustea erabagi eban.

Sartu zan gelara, kendu eutsazan gordairuari lokarriak, edegi eban, eta agertu jakon, bere habian gordeta dagoan sube biribilduaren antzera, sedazko oihal eder gainean dizdizka, urregorri eta harri argitsuz eginiko eraztun apain bat. Jesus! Zelango gauzak asmau dituan arerioak emakumeen arimak zirikatuteko! Sarrakio handi bat egin jakon barru guztian Mañasiri, eta eraztuna ondo ikusteko asti barik kutxatxoa estaldu eta etxeoandregana joan zan.

—Hara, andrea, zer biraldu deusten.

—Zeintzuk? Zeinek?

—Neugaz zertu gura leukean gizon horrek.

—Ederra da! Baina zelan gehiagoko barik?

—Hara hemen eskutitza be.

—Azkar dabiltz —esan eban etxeoandreak paperari begirada bat emon orduko—. Arin nahi ditue gauzok.

—Arinegi, andrea. Nik bihar atzera bihurtuko dot eraztuna.

—Ez, gordeizu. Ibili gaitean astiro eta patxada onean: erabagi hobea emongo dogu. Bihar edo etzi erantzungo jakoe. Lehenengo behintzat jakin daiala gizon horrek ez dala nahikoa zugaz ona izatea, Jaungoikoagaz be izan beharrean gagozala.

Mañasik, bere zereginen erdian, ezin izan eban ahaztu Arra-
nondoko Indianoaren oparia. Oinetako barri batzuk jantzi behar
dituan ume baten senera egon zan gau guztian opari horren
gomuteagaz. Begiratu barik ikusten eban ederto, bere begien
aurrean euki eban, ezin kendurik, eratzunaren argitasun deigarri
biguna, eta etxeke lagun guztiak ezagutu eben, gau hatan, inoiz
baino artega arduratsuago egoala neskatilea ohera joateko ordua-
ren zain.

Ordu hori heldu zanean, bere gelako atea ondo itxi, eta lehe-
nengo egin eban lanbidea izan zan, gordairua barrero edegi, eraz-
tuna astiroago ikusi eta ezkerreko bigarren esku-hatzean ipintea.
“Ez da makala eraztuna! —zinoan, argiaren ondoan eskua ipini-
ta—. Artoberok Josepari emonikoa baino zerbait hobea bada.
Neure etxekeandreak daukazanak langoa ia, edo ia barik Jaun-
goikoak daki zenbat dirutan erosi dauen hau Jose Antoniok. Eta
ondo egoki jatort berau, egia esateko. Eskuak be, dan baino asko-
zaz politagoa dirudi. Ikusiko baleust oraintxe neure eskuan Jose-
pak! Anjelek ikusiko baleust!”.

Gau hatan handiki ames asko egin ei zituan Mañasik, eta
esnatu zanean inoiz baino bekoki ilunagoa jarri ei jakon.

Hasiko ete zan biguntzen Indianoaganako gure neskatilearen
bihotza? Ez jakin, urreak indar handiak ditu-ta.

XXI

LAZKA-MATAZAK¹⁷²

Gutzizkoak sortu zirean Espainiako legegile eta Euskal Herriko gauzen jagola, Arranondo eta inguruko herrien izenean, urlia edo sandiak, Patxik edo Peruk Madridera joan behar ebala-ta.

Ez zan halango bizitasun, haserre eta nahasterik Arranondo baketsuan ikusi, harako bere seme sendoak beste euskal uri eder batekoakaz euki eben indar-neurtze, itsas dema edo arraunketa estua igaro zan ezkerero.

Ordukoa..., bai, ordukoa be handia izan zan. Zehaztu deio-gun hemen irakurleari, gure arloaren haria pitin batean etenda bada be, zehazgarria da-ta.

Indar-neurtze horretan, gure arranondotarrok, hain entzute handikoak izanda; euren burua, erramuatarako, inor ez legezko-tzat eukita; irabazia eskuan eukielakoan zoro-zoro luzaroan egonda; galdu egin eben arraunketarik ospetsuena, galdu euren entzute handia, galdu hain nekez irabazitako dirua! Honek emoten eutsen negargurea eta sabeleko mina Arranondoko emakumeai, dirua galtzeak. Entzutea gauza ona zan, baina entzute hori erakarriko eben barrero, hurrengoan zerbait hobeto gertau ezkerero. Horren sinismenik ez zan egundo Arranondon galdu. Baina, eta dirua! Euren umetxo maiteen ogi eta soinekoa zan dirua, zelan

¹⁷² Lazka-mataza: nahaspila, anabasa, nahas-mahas.

erakarri etxera, beste halango erarik gizaldi batean ez zan izango-eta?

Mirari bat igaro zan orduan: Tramana eta Brixek alkar hartzea, biak iritxi batekoak izatea. Biak ibili ziran iji eta aja joranean, erramuetea baino lehenago, herriko mutil erramularien alde handiegiak esaten: hau zirala, eta hori zirala; honenbeste edo harenbesteko bitartean errez egingo zituela uretan egin behar ziran bideak; ur gaineko gauzetan hareei bakean itxi behar jakoela; halango morroskorik, halango bularrik, halango besorik; jango leukiena, edango leukiena, jasoko leukiena; behar zan orduan eukiko eben ausardia, herrira erakarriko eben dirutzea, egin behar jakoen harrerea... Nik dakit zenbat ipuin, ames eta gehiegizkeria? Biak ibili ziran gero batera, erramuetea galdu zanean, gertau zan harrigarritasuna sinistu ezinda, buruak makurturik, barruak jaten, inoiz baino erreago eta zitalago, euren behaztun mingotsak norbaiti arpegira jaurti nahian eta zeini jaurti ezin jakinda.

Onak egozan eurak orduan inoren destainak entzuteko eta erbestekoen adar-joteak bakean eroateko! Eta hain zuzen orduantxe alboerrietako emakumeak gizonezkoak baino gehiago, antxinetako erdi haserreak gogoraturik, orduantxe ei ebiltzan arranondotarren lepotik barre handiak eginaz. Arranondo betiko lurpean sartu zala eta ez zala bertan zer janik gelditu, ei zinoen gainera, pozez beterik.

—Bai —esan eban Tramanak holango albisteak entzutean—, gure herrira lehenengo datorren Musturzuloko edo Lekuitoko atso ezkelak eroango ditu bereak eta bi.

Esan eta egin. Musturzulotik sardina batzukaz lehenengo agertu zan emakumetxoari herrira sartu baino be lehenago, erruduna edo errubagea zan jakin barik, hasi jakon Tramana deadarka:

—Entzuizu, Mari lotsagabe, zelan zatoz zeu Arranondora, gugaitik esan dozuezanak esanda gero? Sardinok zeinek erosiko deutzuzala-ta, hemen dirurik ez badago? Narru biko arpegia dau-

kazue zuek, ijito, motzaile, pizti, zantar, zikinok, narru biko arpegia. Baina neuk kenduko deutsut batori...

Honetan ziharduala, urten eban Brixek arin-aringa, ez dakit nondik, txalopai emoten jakoen brea-koipetan sarturiko lanbas bat ekarrela, eta buztana zapaldu deutsien katuak egiten dituan lango garrasiakaz, deitu eutsan adiskideari:

—Eutsiozu, Tramana, eutsi gogotik. Ez deutsagu narrurik kendu behar. Hirugarrena ipini behar jako, narru baltza.

Bai laster ulertu eta azkar lagundu besteak. Ondo iruditu jakon Tramanari Brixen egitekoa, txarra zalako, eta Musturzulo-koari ezertarako astirik emon bage, hartu eutsazan eskuak behingoan atzealdera, eta *Aitaren*, *semearen* esan orduko, afrikatarren itxurako arpegia ipini eutsien gaixoari...

Eta barre egiten eben gero gaizkile biak, sardin-saltzailea txistuak boteaz eta arpegia garbitu ezinik ebilen bitartean.

Hurrengo egunean barriz agertu zan Arranondora Lekuitoko andre zahar bat, eta honi, zaharra zalako, edo besteari eginikoa nahikoatzat hartu ebelako, iminerdi baba zuri eta urdai zati bat emon eutsien, ikaraz egoan andretxoari hitz gozo-garratzetan esanaz:

—Hara, aditzen emon eikezu Lekuitoan, badaukagula oraindik zer jan apur bat, gure Jaungoikoa bizi dala-ta; baina zuen herriko Jaungoikoa, Urlia zaldun aberats zintzoa hil jatzuelako, geuk, Arranondoko arloteak bialtzen dogula janari hori Lekuitoko behartsu guztienzat. Gehiago behar dozuenean etorri eske.

Arranondoren lepotik egindako barreari holango destaina eta iraintasun mingarriakaz erantzun arren; lotsagalduak (egia esan behar da), mihin txarrekoak (edonun dago bat edo beste), eta gaizto itxura handikoak izan arren, ez ziran barrutik gaiztoak Tramana eta Brix. (Arranondon ez dago bihotz gaiztokorik, arranondotarra bada). Ondo erakutsi eben barru onekoak zirala, handik laster, herritar erramulariak garaitu zituan txalopako agintari gizagaixoa ito zanean. Bihotz guztiagaz emon eben arranondotar danak euren oparitxoia gizon horren etxerako, eta Tramana eta

Brix ibili ziran eskean aterik ate, negarrez, bene-benetako negarraz. Ordurako dana ahaztu jakoen.

Txarra da, irakurlea, anai herrien arteko haserrea, laster ahaztutekoa izanda be, eta ondo egingo leuke ahal dauenak holango haserre bidea sustrai eta hasieratik kentzea, gure anaitasuna egunean baino egunean gehiago zindotu dedin; baina askozaz txarra goa da uri barruan bertan, norbait alkatetzarako edo legegiletzarako hautatu behar dabenean, erkideak eurak sortu daroena.

Itsas dematik jaiorikoa baino mila aldiz okerragoa izan zan, Patxi zala eta Peru zala, Arranondon sortutako atrakala eta nahaste galgarria. Ez Patxi eta ez Peru ez zituan urian inok eza gutzen, jauntxoren batek izan ezik; baina herritar bakoitzak beren etxean, beren txalopan edo ardantegi bazterrean zerbait entzunda beste barik, goizetik gabera gelditu ziran gizon eta emakume guztiak Patxiren edo Peruren alde.

Baina zelan gero! Arranondotar guztiak esnatu jakoezan barrero beti lotan egon behar eukien grina gaiztoak, herritar guztiak urratu zituen euren arteko anaitasunik zintzoenak, aspaldieta-ko adiskideak alkarregaz haserratu zirean, beti-betiko lagun zahar-
rak bata besteagaz areriotu, gizon askoren bihotzak gorrotoz bete eta emakume gehientsuen mingain zoliak puzoni zitala erioela jarri. Dana egoan orduan azpikoaz gora. Alperrenak ebiltzan langileen, hautari¹⁷³ bila; ezitsuenak garratzen, bigunenak gogorren, bildurtienak ausarditsuen, onenak gaiztoen; baketsuenak esetsi¹⁷⁴ bizian, isilenak oihuka, oilo irudikoak azeri eginda, arku-
me antzekoak otso bihurturik. Alderdi guztietan egoan alkarganako esamesana, ezinikusia, gaizkinahia, irria, zinua, zapokeria, atximurra eta atzamarkadea.

Eta zuzen irudiko gizadiak holan baebiltzan beren artean, zer egingo eben erriertarako, dongakeriarako eta burrukarako beti

¹⁷³ [Hautaria: elector].

¹⁷⁴ Esetsi: eraso.

prest egozan emakumeak? Zer egingo eben Tramana eta Brixek? Ez eukien erea makala ahora jatorkoezan guztiak esateko. Eta ez eben era on hori galduko, ez horixe!

Alkarren barri ezer lehenago jakin barik, biak aurkitu zirean Patxiren aldekoak, eta euren bizitza guztian bigarrenez, bata bestearen aurrean ez egon beharrak nahigabe apur bat emon eutsen lehenengoan baina, zeini ekina nahikoa baegoan-ta, laster ahaztu eben nahigabea, Peruren aldeko guztiari zorrotz ekiteko. Ikasi eta gomutau zituen horretarako, erneune eta sustraitik, arerio guztien bizitzak, atara eutsiezan euren zapi zikinak eguzkitara, eta hasi ziran, guzur eta abar, astinaldirik lotsagarritzkoenak. Ez dau inok lurrian, emakumeen ahotik, hareik egin zituen lango jardun gordinik egundo entzun.

Hazelangoak zirean areriook! Puaaa!! Lantegiko nagusi okerra, Egurbideko baserritar kalabazaz betea, Arranonon zer behar zan ez ekien erbesteko etxejauberen batzuk eta Matxin Koipe, Mari Errotaren senar ganorabakoa. “Neuk ezagutu neban bada-ta —deadar egiten eban Tramanak kalearen erdian— Arranondora berakatzak eta pipergorria saltzen zauriz eta zornaz beteriko mando zaharragaz etorri zanean. Praken atzeko aldeak txaplataz beteak ekarri zituan horrek eta amilearen¹⁷⁵ ukalondoak be bai. Orain begiratzea baino ez daukazue: lantegi barri handia egin dau eta ia herri guztiaren jaubea da. Zeinen lepotik? Geuretik, geuretik, geu astoak garealako... Danok ezagutu dozue bestea, muskilea eriola, enparantzan, gaztaina ustel batzuk eta urez beteriko esnea ezin saldurik. Zapaburuak idoro neutsazan nik, behin baino gehiagotan, harek saldutako esnari. Eta hor daukazue orain, egun batetik bestera eta inok zelan ez dakigula aberasturik, *pavoriala* baino harroago eta herri guztiari agindu nahian. Haze jatorrizko zalduna bera! Haze jakintsua! Gizon argia izango litzateke... ezpaneak kruseilu bat baleuka... Etxejaubeena barriz jakina

¹⁷⁵ [Amilea: chaqueta].

daukagu: danak dira onak etxesaria hartzeko, baina estutasun batean ez eurakana txanpon baten eskean joan. Euren etxeetan erreteila bat eragiten be ez dakie. Gurean behintzat beti gagoz ituxuratan eta etxeko katilu-terrinak ez ditut nahikoa euria dan bakotxean... Matxin Koipe ostera nok ez daki handikien morroi, zuriko, azpijantzaile, doilor, guzurti handi bat dala?...”

Nik ezin neikez hemen ipini, erdizka baizen, harein esakera zantarrak. Eta gauzarik okerrena zan, zentzuneko gizonak eurak Tramanaren esate gaiztoak ontzat emotea, arerioen kontrakoak ziralako. Ai, Jaungoiko maitea! Zenbat kalte datorren, arimentzat, holango gertaldietatik! Gauza txar asko asmau ditu gaizkinak gure arimak galtzeko, baina legegile barri bat herriak eginbeharra baino txarragorik ez dakit asmau ete daben be.

Zoratuta egozan azkenerrako arranondotar guztiak eta zorakeria handiak egiten zituen. Patxi eta Peru: ez egoan eurentzat beste gauzarik lurbira danean. Batzuentzat, Patxi zeruko aingerua zan eta deabru gaizkina Peru; besteentzat, Peru zan zerutarra eta infernukoa bestea. Nor zeinen aldera ebilen, alkarri ipinten eutsien betozkoan ikusten jakoen garbiro eta oraindino garbiroago (nok esango leuke?, baina egia da) oinetakoetan! Abarketa zurien gainean ipini eben batzuk izkiratuta, “bizi bedi Patxi!” eta besteak, “bizi bedi Peru!”. Arranondoko abarketariak nahi aina diru irabazi eban egun hareitan.

Baina jausi behar eban egurrak. Hainbeste haize eta zorakerien atzetik, hainbeste bena, goibeltasun eta trumoiren ondorean etorri behar eban ekatxak eta ekatxa etorri zan, baltza, zematzailea, ikaragarritzkoa. Legegiletzarakoa hautatu behar zan egunean, goizeko zortzirak baino lehen hasi zan, txartela gora eta txartela behera, gizonen arteko eztabaidea, Perurenak eta Patxirenak sartu ziran bakotxa bere aldekoai laguntzera eta arerioakaz burrukara, eta honi eutsi eta horri bultza, bata estaldu eta bestea jaurti, aurrekoari emon eta albokoa gorde, hau jo eta bestea zapaldu, ukabilka, makilka eta arraioka, han izan ziran hangoak elizaurreko enparantzaxoan. Bederatzi t´erdiak aldean ikustekoa egoan

gure Indianoa, burutsik, alkondarearen¹⁷⁶ iduna urraturik, jantzia basazturik, surretako odola bizarretatik behera eriola eta Tramaren ule zikin batzuk eskuetan zituala, Tramana eta Brix herrizainak, tatarrez, katigutegira eroiezan bitartean.

Itxi deiogun ekatxa zelan amaitu zan esateari; geldi bedi alde batera zenbat kaskarreko, zenbat sudur-hauste, zenbat dubako hagin-aterate izan zan hainbatutea; ez daigun esan Peruk edo Patxik zeinek txartel gehiago izan eban be. Ardura gitxi deusku guri nahiz lehenengoak nahiz bigarrenak garaitu, bada biak ziran nabar samarrak, biak euren buruaren handitasunagaitik ebiltzanak, Euskal Herri maitea ahotan hartuta.

Goazen gu geure lagun batzuk nahaste horretan zer egin eban jakitera, guri gehien jagokun lanbidea hori dan ezkerero.

Mañasiren aita guztizko larritasunetan ibili zan txartela nori emon ez ekiala. Lehenengo egunetan Indianoari agindu eutsan bere alde emongo ebala, baina gero txalopakoak jagi jakozan gora-goraka, ardantegiko lagunak ia ito eban, edozeinek esaten eutsan, kalean, saldutako gizona zala, herriaren arerioak potin baten diruagaz erosi ebela, goiko eta beheko Patxitarrak ez eutsien baketan ixten inun be, eta azkenean, ondo heldutako ikoa baino bigunago egoan gizona, edo hobeto esateko, lakioan jausiriko txoritxo legez egoan, eta ez ekian zetara jo edo lakiotik zelan urten.

Andreak sendatuten eban sarri, etxean, gizon horren indargetasuna.

—Ai, makala! —esaten eutsan— zuri zer deutsu lagun jar-dunagaitik? Zuk egizu zeurea eta ez egiezu¹⁷⁷ besteai jaramonik egin.

—Bai, eta inori arpegirik ezin emonda gelditu norbere herrian?

¹⁷⁶ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: alkondarean.

¹⁷⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: eiozue.

—Eta hainbeste lagundu deuskun gizonari emondako hitza jan?

—Nik ez nekian orduan Peru zein zan: txarra dala dinoe, eta gainera Patxik nasa barriak egingo dituala, beharra be badago-ta.

—Guzurra da hori, Kurutzemendi baino guzur handiagoa. Patxi dozu gizonik gaiztoena, judio protestante baten jatorrikoa ei data: neuri esan deust Ana Balentiñak, eta Ana Balentiñak badaki. Peru ostera oso eskubide handikoa dozu nasa barriak egiteko eta edozetarako: Madrilgo agintari guztien adiskidea eta erregeren mahaian jaten dauen gizona ei jatzu hori: Ana Balentiñak esan deust.

Atsedeen pixka bat eginda gero, isiltxoago eta bigunago jarraitu eban:

—Baina, gizona, eukizu zentzun apur bat. Zuk dinozuna halan izanda be, zelan nahi zenduke gure alabearen ezkontzea galdutea? Arranondon izan dan ezkontzarik onena?

—Emakumea, ez eidazu burutik eragin. Nik ez dot nahi Mañasiren ezkontzea galduterik, eta D. Jose Antoniok maite badau, ez da horregaitik galduko. Buru oneko gizona da, eta neuk esango deusat...

—Ez deusazu ezer esango, ez dozu etxetik urtengo.

—Gaur ez, baina bihar itsasotik natorrenean...

—Ezta bihar be, ezta egundo be.

Holango autua egunerokoa zan Txanogorriren etxean Espainiako legegile edo auzi-erabagitzailleok hautatu behar ziran aurretxoan, baina ez zan azartu Indianoari gauza horren gainean ezer esaten.

Azkenengo egunean, haren ona eukiteagaitik eta andrearen esanak jarraitzearren, etsi-etsi eginda Peruren alde txartela emotera joiala, enparantzako burrukea eta iskanbilea ikusi ebanean, armin eta keixu, bihurtu zan etxera gure gizontxoan, eta estutasunak emoten dauen ausardiagaz, atean sartu orduko hasi jakon emazteari:

—Nik ezin neike ez bataren eta ez bestearen alde gaur txartelik emon. Gaur ez, beste baten ez dinot baina, gaur ez! Alperrik esango deustazuz esanahalak, gaur neureagaz urten behar dot.

—Baina zelango gizon epela zara zu? Oraintxe urten dozu etxetik abiadan...

—Bai, baina ez burrukarako asmoan, eta burruka barik ezin leiteke inor udaletxera sartu. Ni Lekuitora noa gabera arte. Eske badatoz, preminazko zeregin bategaz joan nazala.

—Eta zer esango dau D. Jose Antoniok?

—Min dauela. Ederrak emon deutsiez enparantzan. Ostikopean erabili ei dabe, eta odola dariola ikusi dot.

—Jesus! Jesus! Hauxe da itsumena. Ez dago herrian bururik?

—Gaur ez dot uste. Gaur burua daukien guztiak erbestera joango dira, eta ni be bai.

—Baina...

—Ez dago bainarik. Erabagita daukat. Agur.

Atean urten orduko bere atzetik eban Sardinzar laguna.

—Jeup, adiskide! Nora zoaz?

—Lekuitora.

—Neu be bai, hemen gauza onik ez dago-ta. Txartela emon dozu?

—Ezta emongo be. Ezin leike, inogaz haserratu barik.

—Nik geure alde emotea gura neban, baina ondo egiten dozu. Hontxe emon dot nik neurea, eta Matxin Koipegaz haserratu egin behar izan dot. Gizon harroa! Berak gura dauena egin behar genduala Anjelek eta nik eta gure txalopetakoak. Ez dago toki txarrean!

—Anjelek nahiko eban ba.

—Anjelek? Horrek inok baino gitxiago. Egundo ez dot gure mutila hain bero ikusi holango gauzetan. Antoniri be ez deutso jaramonik egin. Ah! Eta badakizu zer esan eustan bart gabean zugaitik? Indianoak zu estutzen bazaitu geuk emon beharko geuntsuzala mila erreal, horrenbeste alderdi bageunkala-ta.

—Ez da txarto esana. Eskerrik asko.

Arratsaldean, azken orduan, geroago eta estuago hautari bila ebiltzanak Txanogorriren eske joan ziranean:

—Ederra egin dau! —esan eben— Mazia jan eta iges!

XXII

OTSOAREN BELARRIAK

Nok daki etorkizunaren barri? Zeinek igarri leikez bere barruan gorderik dagozan herri eta gizadien gorabeherak? Zelan neurtu gauza huts batetik etorri leitekean ona edo kaltea? Nondik otuko jakon Anjelen amari, hilabete lehenago, Antoni eta Anjelen arteko ezkontzea galduko zala barriro?

Bada galdu zan. Patxi eta Peru jaso edo jatsi beharragaitik gurasoak haserratu ziran lehenengo, eta eurak egin eben lanik handiena gazteak hotzitu eitezan be, Anjelek bere aldetik ez eban asko behar baina.

Sardinzarren ustez, Koipetarrak antxinatik zirean eriste handiegikoak, beti euki ohi eben burua besteak baino gehiagokotzat, eta hareikaz ondo egon nahi ebanak, morroi edo mendeko izan beharko ei eben, nahiz eta euren etxean bizi ez. Emazteak oster, diruzaletxoak zan baina, ez eban gura bere seme kutuna inoren morroi zaintzan ikusterik: ez zan horretarako hazia. Etxe bietako nagusi gazte maite bat ez izatekotan, senartu zedin be ez eban gura. Zaharrak baino askozaz hobeto zainduko ei eban Anjelek etxe bietako ondasun iskia¹⁷⁸.

¹⁷⁸ Iski: apur, pitin.

Mari Errotak barriz, bere aldetik, ondo izateko ez ebela eurak inoren laguntasunik behar esaten ei eutsan alabeari; ez ibilteko lagun bila, gura ainako ezkongeiak etxera etorriko jakoezala-ta. Jokatuko ei eban harek, eta baita Matxiñek be, eurenean Sardin-zarren etxean baino urre zahar gehiago idoro baietz.

Ez zan, halan be, Antoni amaren sinistekoa, eta amari entzun-gor egiteko asmoak ebiltzan lehenengoan. Urre zaharra eukiko eben, baina berak gura ainako mutilik ez etorkon Antoniri. Erbesteko oihal-saltzaile guzurti batek zerbait esan eutsan behin, jai-arratsalde batean (ai ze poza izan eban orduan!), baina oihal-saltzailea ez zan gehiago Arranondora agertu. Hainbesteren atzetik ibili zan India-noa be, ez zan gomutau beragaz, Antonigaz. Hitz egin eutsien muti-lak ez ziran bere duin, badaezpadako arlote batzuk ziran danak. Anjel ainakorik ez egoan. Anjelen zale ziran herriko neskatila guz-tiak, Anjelen adiskidea zalako lagun danak ondamuz begiratuten eutsien berari, Antoniri; Anjel behar eban Antonik nahitanahiez, erkideen barregarri gelditu ez zeitean¹⁷⁹ be. Horregaitik, gurasoen haserreakaz gazteak zerikusirik ez eukiela-ta, egin ahalak egin zituan neskatileak arrantzale gazte horren bihotza irabazteko, bai-na dana alperrik. Alperrik jantzi zan inoiz baizen hobeto, alperrik orraztu zan egundo baizen apainago, alperrik egin eutsazan negar-muxingak eta guzurrezko zotinak: hain hotza, motza, motela eta gogoezekoa aurkituten eban Anjel hori eze, aspertu zan noizbaiten neskatilea, kirio guztiak jagi jakozan guztiz bizi- eta haserre itxu-ra handiakaz itxi eban mutila, agurrik esan barik.

“Hauxe izan leiteke onena —apetau jakon oraindino—. Ni langorik ez dau bilatuko, eta etorri leiteke neure bila, arpegi ainutsuagaz¹⁸⁰ ikusten nauenean. Lehenago be etorri jatan”.

Baina arpegi ainutsuagaz ez eban ezer irabazi. Anjelek ez eutsan gehiago hitzik esan, ez eutsan jaramonik egin eta bertanbe-hera amaitu zan gure neska-mutilen adiskidetasuna.

¹⁷⁹ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: zaitean.

¹⁸⁰ [Ainutsua: nuboso, nublado].

Eta zer egin eban Indianoak?

Ez eben mutilzahar hau Txanogorrinekoak eralditxo batean ikusi, eta bildurrez egozan lehenengo alkar ikustean zer gertauko ete jakoen, baina oso abegi ona egin eutsien batak besteari.

Indianoa bera joan zan Txanogorrinera.

Gure arrantzale gizagaixoa, gaiztakeria bat egin dauen mutikoaren antzera, gogamen bategaz ebilen beti, eta D. Jose Antonio ikusi ebanean, trumoi eta tximistakaz joialakoan, jarteko astirik emon baino lehen hasi jakon esaten:

—Hara, Jauna, nik berorri bai, bai, pozik hatan be; baina horixe dago ba, lagunakaz be ondo euki behar da-ta horixe dago ba!

Txanogorriren esakerea ez zan erraz ulertutekoa, baina ulertu eutsan Indianoak, eta estutasunerik atara eban gizona.

—Ez nator horretara. Hori joan zan.

“Hori joan zan! Ez nator horretara!”. Hitz gozoagorik ez eban egundo inok entzun. Haxe zan poza! Haxe zan alde batera kezkarrik astunenak kentzea! Zeru ilunaren azpian ostilika edo ostarku ederra ikusten eban Txanogorrik.

—Zer dakar ba, jauna? —itandu eben senar-emazteak, pozezko arpegi alaiakaz.

—Zer ekarriko dot? Zetan garan edo jakitera nator.

—Ba, jauna, gu lehengoan, lehengoan beti. Harek ez dau ezer erantzun, baina lotsaz egongo da. Geuk esaten dogunean ha...

—Ba orduan hainbat lasterren. *Desagradeziduen* herri honetan ezin leiteke *persona formalik* bizi, eta nik berehala ezkondu eta kanpora joan behar dot, hile batzuetarako bada be.

—Ondo egingo dau, bai jauna, badauka zegaz be eta. Hasi gaitezan paperak egiten eta gertu gareanean erakarriko dogu neskatilea. Berorrek gura dabenean joango gara abade nagusiagana.

—Zetara?

—Paperak egitera.

—Ez, enetxoak. Horretara luze joango jaku. Niri esan deustenez, norbera ibili dan toki guztietako *dokumentoak* eskatzen ei

ditu abadeak, eta nire *dokumentoak* etorri orduko sei hilabete joango litzakez, hurrean.

—Ez da, jauna, hainbestearino luzatuko. Gizon handia lez, ibili dan toki guztietan ezagutuko eben berori abadeak eta...

—Ni lanean bizi izan naz, eta ez abadeakaz *pasieta*n.

—Dana dala, jauna, paperak behar dira behintzat.

—Abadeenak ez dira *prezisokoak*.

—Zeinenak ba?

—Alkate eta juezanak, *errekisto zibilekoak*.

—Zer esan dau? *Errekisto*... Jesus, Maria eta Jose! Hori gauza txarren bat da.

—Zuek ezer ez dakizue, eta nik osteras asko ikusi eta asko ikasi dot.

—Halan izango da, baina, edozetara be, abadeak ikusi behar-ko ditu gero paper danak. Eurak dakiez ondoen holango gauzak. Gu ezkondu ginanean, antxinatxu da baina, bikario jaunak egin euskuzan guri behar izan ziran jirabira guztiak.

—Ez da nahitanahiezkoa abadeari gure paperak erakustea. Abade barik be *konpondu* geinkez, geuk gura izan ezkeru.

—Zelan baina? —senar-emazteak ahoa zabalik geldituta.

—Guztiz erraz. Abadeari jaramonik egin ezta. Geuk ezkondu behar dogu eta ez harek. Ni ibili nazan tokietan asko ezkontzen dira elizara barik.

—Elizara barik! Eta hori gura leuke berorrek? Hobeto da garai onean jakin dogun. Sasiezkontzea gura leuke? Sasiko dala uste al dau geure Mañasi? Ez horixe, eta ez daukagu sasiezkontzetako, Espainiako erregeagaz izanda be.

Txanogorrik azkenengo hitzak bero-bero eginda esan zituan. Ez zan jakituna gure arrantzalea, baina bai bihotz zindoaren jau-bea; epeltxoan zan, baina siniste onekoa, Jaunaren bildurrean hazia, Elizaren lege eta asaben ohitura zaharren alde bere bizitzea emongo eukean gizona. Horregaitik, berehala berotu jakon bere odol garbia, behingoan argitu jakon burua, aida batean bihurtu jakon bihotza gogo batetik bestera.

Maite dogun gauza bati min emon ezkeru, gizonik epelenak azartu ohi dira; agirian dagoan egia begirik lausoenekoak ikusi ohi dabe, eta Txanogorriren siniste maiteai min handia emon eutsen Indianoak eta agirian gelditu zan honen sinisteza, malmuzkeria eta Elizeari egin gura eutsan iraintasun okerra.

Arrantzalearen emazte nahigabetuak, bere ordurainoko errua eta Indianoaren gaiztakeria ezagutzean, dana lotsaturik eta garrazkeria handiren batzuk ez esatearren, gizonakandik alde egin eban. Agintzailea zan etxean, baina kanpokoen aurrean ez eban gehiegi sartu gura, eta gehiegi sartuko zan, hasi ezkeru. Berak baino neurri hobean senarrak esango eutsazan behar ziran egiak Indiano dongeari.

—Gizona —jarraitu eban zaldun jantziriko baserritarrak— elizara ez doazan guztiak ez dira sasikoak.

—Nahikoa sasiko, Ama Eliza eta Aita Jaungoiko bagekoak dira-ta.

—A gizagaxoa! Holango aita-amen semea izanda beteko jatzu zuri patrikarea.

—Eta zure lege barriak ondo beteaz zer irabazten dot?

—Neure aitagarreba izango zara.

—Bai urte batzuetan baina gero?

—Itxiozu gerokoari.

—Bai gerokoak neu itxiko banindu.

—Bizi zaite ondo ahal dozun artean.

—Beti gura neuke Jaungoikoagaz ondo bizi.

—Ze Jaungoiko eta... Ez zaite txotxina izan.

—Oraintxe naz inoiz baino gitxiago.

—Txanogorri, gogoratuizu ez jatzula ondo etorriko nigaz haserratutea.

—Ezta Jaungoikoagaz haserratutea be.

—Ba, ba! Zuekaz ezin leiteke inor *entendidu*. Neu *en persona* joango naz Bilbora.

—Zetara? Gure Mañasigaz ulertuko zaralakoan? Alperrik, geure odolekoa da-ta. Ez daukagu arimarik saltzeko. D. Jose

Antonio, egizu kontu gure Mañasigaz eta gugaz ez daukazula zerikusirik gaurtik aurrera.

—Ez daukadala zerikusirik? *Esto es demasiaro*. Eta nik *pres-tau* neutsuzan mila errealak?

—Uste dot laster bihurtuko deutsadazala euren jaubeari.

—Eta Mañasiri emoniko *anilloa*?

—Hori be bihurtuko jatzu. Ez dogu inoren gauzarik behar.

Trumoi soinuaren antzeko deadar lodi garratzakaz eta bere ahotik tximista goriak jaurtiaz urten eban Indianoak Txanogorri-netik.

—*¡Qué intolerancia!* —zinoan eskilaretan behera— *¡insivilisaos!*, *¡astokillos!* Hemen ez dago gauza onik abade guztiai lepoa kendu eta eliza guztiak itxi artean. Neuk ahal baneu...

Bitartean, gure senar-emazteok, alkarri begira jarrita, bata bestearen nahigabea gozatu nahirik gelditu zirean. Euren ames-jauregi gozoa goi-goitik behe-beheraino etorri jakoen, baina ez zan ardura, zerua ez zan jausiko-eta. Ez zirean aberatsak izango, ez zituen beti gura ainako jaki eta jantziak eukiko, noizean behin estutasuntxoren batzuk igarotea be izan zeitekean; baina ordura artean be bizi zirean-ta, aurrerantzean be, lan pixka bat egin ezkeru, biziko zirean behintzat. Antiguako Amari eskerrak emon beharrean egozan, otsoari belarriak agertu eragin eutsazalako. Indianoak judioa edo holangoa izan behar eban. Jesus, Jesus mila bider! Toki onean geldituko zan euren alabatxoa haren eskuetan!

XXIII

EZKONBARRIAK

Handik egun batzuetara, Bilboko kaleetan zehar ebiltzan alkarregaz, dendaurretan begira, on itxurako gizon motz, gazte, sendokote, arpegi zabal bat eta bere ideko emakume argi, garbi, azkor, baltzerantxu bat, zituen jantzirik onenakaz biak, aterpetxu edo guardasol bana eskuetan ebela. Ezagun zan, urrinetik be, herri txikiren bateko ezkonbarriak zireala.

Atean-atean geldituten zirean begira, bada ate danetan dago Bilbon dendea, salerosketea eta zerikusia. Hemen, danetariko oihal barriak harro-harro; hor, atorra zuri eta alkondara leunak tente-tente; orain narru bigunezko oin-zorro edo zapatak goitik beherako errenkadetan argi-argi; jarleku, mahai, ohe eta ispiluak hurrengo, etxea betean; ardao zahar eta edari mueta edo eringo guztiak harutzatxoago, piper, tomate, lukainka eta urdaiazpikoen ondoan tolostuta; gozotegirik ederrenak gero, gozozko gizon, aingeru, etxe eta eliza eta guzti; eta beste aldean osteraz zidarrezko ontzi tresnarik ikusgarrienak ugari, urrezko orduari edo erlojuak ehundaka eta kate apain dizdizariak milaka. Hareetxek zirean dendak, hareetxek! Zenbat diru ete egoan Bilbon!

Korreo kalean *Au monde elegant* izeneko denda eder baten aurrean bibolina joten egoan guzur-gizontxo bati barrez-barrez begira egozala, bilatu zituan Mañasik gure emakume eta gizona.

—*Aitaren, semearen!* —esan eban, kurutzea eginaz—, Josepa! Artobero! Nondik eta hona?

—Hementxe, Bilbo ikusten.

—Neugana etorri barik?

—Zeugana ginoiazan oraintxe.

—Noiz etorri zarie?

—Bart arratsean.

—Ezkonduta al zagoze?

—Bai, atzo ezkondu ginan.

—Eta neuri jakin eragin bez?

—Zetako? Bagenkian Arranondora etorriko ez zinala-ta.

—Ez deust inok be ezeren albisterik jakin eragiten.

—Geuk dakarguz zuretzat Arranondoko albiste guztiak, onak hatan be.

—Onak?

—Ezin hobeak. Atzo gure ezteguetan —jarraitu eban Josepak— gure lagun guztiak han ziran, zu izan ezik, zeu, lagunik handiena eta onena. Zu han ez zengozalako¹⁸¹ hutsune handia neukan barruan nik... Eta besteren batek be bai.

—Zeinek gero?

—Anjelek.

—Anjelek!

—Bai, geure ezteguetan zan Anjel be, eta uste dot zu han izango zinalakoan etorri zala gehien bat. Lehenago jakin izan banau!

Honetan egozala txinel edo herrizain batek dendaurrean ez geldirik egoteko esan eutsen hiru arranondotarroi, gizadien ibile-rea galerazoten ebela-ta; baina Josepak eta Mañasik ez eutsien jaramonik egin. Ez dakit entzun ete eutsien be, handik urrinean egozan-ta. Ez eukien orduan belarririk ezer entzuteko, ez bururik ezer ulertuteko, ez bihotzik ezer gura izateko, Arranondoko gau-

¹⁸¹ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: zengozalako.

zak izan ezik. Artoberok bakarrik esan eban Arenal aldera eskua luzatuaz:

—Goazen haorrutz (hara horrutz) hemen ez gagoz ondo eta.

—Zer dinostazu? —itandu eban Mañasi.

—Zeuk entzuten dozuna. Anjelek zeugaz ezkondu gura dau, eta laster egingo deutsu eskabidea, edo, hobeto esateko, oraintxe egiten deutsut neuk, bere izenean.

—Emakumea! Ez eidazu irrik egin zeu zorioneko zareanean.

—Mañasi, noiz egin deutsut nik zuri barre? Noiz esan deutsut guzurrik? Egia, ni zorioneko naz, gizon langile on bat hartu dot-eta; baina zeu be bidean zagoz zeuk gura zenduanak gura zaituta. Haren aginduz edo esanez beren gurasoak emon deusiez zue-nai Indianoarentzat behar zituen mila errealak.

—Neuk be baneukan horrenbeste... Anjelen aginduz! Esker-rak emotekoa da... Eta zer esan deutsu?

—Osterabe? Gozoa al da albistea? Zeugaz ezkondu gura leu-keala, horra, horixe.

—Noiz, nun eta zelan esan deutsu? Dana jakin gura dot.

—Atzo, zalpurdi ondoan, eta bihotzetik ezpanetara jatorko-zan hitz egiazkoakaz. Zeugatik, bai, zeu ikusteko gogo handia neukan-ta; baina beragaitik batez be etorri gara gu Bilboraino, bada bestelan ez ginan gu Durangotik honuntz igaroko. Bera egon jatan atzo, azken orduan, Bilbora eta Bilbora eta Bilbora etorteko jardunaz zuri esan deutsudana esateko. Pozik zagoz orain?

—Josepa, hau poz gehiegia dala uste dot niretzat. Ezin sinis-tu daiket. Zelan izan leiteke hori Anjelek eta nik alkarregaz behin bakarrik hitz egin badogu?

—Jaungoikoaren gauzak, Mañasi.

—Eta nondik edo zegaitik eten da Antonigazkoa?

—Patxi eta Perugaitik. Batak eta besteak diputau edo horre-tariko agintari izan behar ebala-ta, herri guztia nahastau dabe: jakingo zenduan.

—Bai, zerbaiten entzutea badot.

Artobero, ordura arte ia hitzik egin ez eban Artobero isila, Arranondoko haserrean oiharzuna balitz lez, sartu zan autuan:

—Patxiren aldeko guztiak zentzubakoak dira, Mañasi. Ez dago Peru lango gizonik, ona, herrikoa, jakintsua, emoilea da Peru. Bestea barriz edozer gauza, badakizu zer dan edozer gauza? Horixe da ba. Perutarrak gara gu, eta Anjel be bai.

—Ondo da —erantzun eban Mañasik baina bere haritik eroan nahi eban autua, eta Artoberok edegi eban bideari jarraitu barik—. Eta eraztuna? —itandu eutsan Mañasik¹⁸².

—Ai! Barre handiak egin doguz eraztun horregaz. Zuk Arranondora bialdu zenduanerako, herri guztiak jakin eban baserriar mutilzaharrari emoniko kalabaza barrien albistea, eta emakume ikusmin asko izan ginan zuenean eraztun hori ikusten. Ikusi orduko berehalaxe esan eban Azeritxuneko Petrak: “Ene! Neuk euki nebana berbera da. Neuk lehenengo eta Birigarroneko Mikailak hurrengo. Ja jai! Etixerik etxe erabilteko erosia izango da”. Gero barriz, otu jako Tramanari bere eskuetan euki behar dauela, sartu dau bere behatz lodian, *señora* balitz legezko itxura eta zinoak egiten ibili jatzu eta, azkenean, ezin inondik inora behatzetik atara. Zure aitaren estutasunak, Tramanaren arraioak, gure algarak zelangoak ziran! Tramanari atzamarra ebagi behar geuntsela-ta ibili ginan, olgetan.

—Baina emongo eutsien eraztuna jaubeari?

—Bai, emakumea, bai, eta oraindik askoren eskuetan ibili behar dabela deritxat.

—Ederra zan ba! Egunero ipinten neban eskuan, guztiz ondo etordan¹⁸³, eta egi-egia esaten deutsuet, eraztunagana zaletu egin nintzala uste dot.

—Bana Indianoagana ez zinan zaletu.

¹⁸² Idazleak *Mañasiri* ipini dau, baina testuinguruagaitik esan leike *Mañasik* ekarri beharko leukela.

¹⁸³ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: jatordan.

—Ez, hori ez. Alperrik gure etxeoandreak egin ditu egin ahalak eta esan deustaz esateko guztiak, nire bihotzean ezin izan da sartu Egurbideko gizon hori.

—Jakina ba. Bestea zeunkan bihotzean eta...

—Baina, Josepa, benetakoa ete da Anjelen eskabidea? Zer deritxazu?

—Barrero be lehengora? Ez deustut ba esan bihotzetik ezpanetara jatorkozan hitzakaz esan eustala?

—Eta zuk zelan dakizu?

—Ikusiagaz. Horreik gauzok arpegian ikusten dira. Ondo sinisgaiztokoa zagoz zeu.

—Ia ba, Antonigaz be bi aldiz ibili da-ta.

—Baina ez gogoz. Berak autortu dau.

—Berak autortu! Ai, Josepa! Ondo esan dozu lehen: Jaungoikoaren gauzak dira honeik. Jaungoikoak entzun deustaz nik Begoñako Amaren bitartez egin deustadazan arrenak. Sinisgaiztokoa nagola dinozu, baina ez dot nik egundo sinistea galdu. Ziur-ziur zenkiala¹⁷⁷ eta Antonigaz ezkontzen zala esaten zeunstanean be, nik baneukan neure arima barruan ez dakit nondik norako sinistea eta itxaropena. Gauza miragarriagorik nahi dozu?

Nik ez dakit noiz artean egongo ziran autuan gure ezagunok, beti lelo bati eraginaz, non egozan be ahaztuta, bertanbehera sartu zan haize indartsu eta euri zaparradeak higitu ez balitu. Hai-zeak zabundu zituan gogotik Ondartza edo Arenaleko zugatzen adarrak, jaso zituan lurretik hodeien itxurako hautsak, itsutu ebazan joan-etorrian ebiltzan gizadiak, kendu ebazan buruetatik ondo sartu bariko gizon txapelak; eta haizearen atzetik etorri zan truxuak sartu eragin eutsen zalapartaka behe-barruetara kafe aurretan jarrita egozan gizon guztiai.

—Jesus! Hauxe da egualdia! —esan eban Mañasik, Done Nikolas ondoko aterpera akitika heldu zanean—. Arratsalderako onduko dau, Artobero?

¹⁷⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: zenkizula.

—Baietz uste dot —erantzun eban honek.

—Nahi neuke behintzat. Zuei laguntzeko baimena eskatutera noa ni. Arratsaldean Begoñara joan behar genduke, eta holango egualdi txarragaz...

—Egualdi txarra? Lurraldean ez dago egualdi txarrik, aterpeak dagoz-ta. Itsasoan dira egualdi txarrak, eta jum! gaurkoak gogor joko dabela uste dot.

XXIV

HONDAMENA

Bigaramon goizeko seirak aldean, aspaldietan euki eban baino lo gozoago bat eginda Mañasi ohetik jagi zanean, Bilboko albistari-saltzaileak baebiltzan batera eta bestera arineketan, kale ertz guztietatik eztarri erreakaz indarrez deiezka... *¡ciero bilbainooo, con la catástrofe del Cantábrico!*

E? Zer gertau ete zan itsasaldean? Zer? Sarritan ohi dana.

Bilboko uri barruan gizadien autuak eten, Arenaleko habeak zabundu, gizonen txapelak buruetatik eroan, esku-aterpeak azpikoaz gainera ipini, zabalik egozan ateai danbadak emon, leiar edo kristalak zatitu eta kezulo edo tximiniren batzuk kalera jaurti ebazan ekatzak, itsasoaren erdian erakutsi zituan askozaz hobeto bere ahal izate eta gogortasun guztiak eta bertan galdu hainbeste gizon eder, mendean harturiko itsas langilerik gehienak.

Errukarriak Kantauriko arrantzale maitegorri zintzoak! Osasun handi eta egualdi girorik onenagaz urten eben, goizean goiz, euren etxeetatik; itsas barruan ikusi eben eguzki garbiaren jaiotza pozzgarria; itxaropenez beterik jaso zituen txalopetako oihaal zuriak, bakearen eskaleak balira legez eta haizeak euren bidean lagundu eioen; jan beharrak eta irabazi nahiak emoten daben gogoagaz erabili ebezan erramuak zoli eta biziro; eta ezeren peku eta bildur barik, alaitsu eta pozkor, heldu ziran arraintokira, etxadietako janaria han egoalakoan.

Ai! Ez eben janaririk aurkitu: galdumendi, azken orduko eta ikaragarritzko heriotzea idoro eben gizagaixoak.

Jagi zan, nondik eta zelan ez dakit, han nonbaiten ezkutaurik bere orduaren zain egoan erruki bageko itsaski amorratua; zabaldu zituan, izpi baten, beren hego azkar, luze eta sendoak; iges egiteko astirik emon bage, hartu ebazan txalopak inguru guztietatik, sare handi batek arrainak hartu ohi dituan eran; erabili ebazan lehenengo tatarrez, urruingarri, dardaraka, bultzadarik gaizto gogorrenagaz; hausi, ataldu eta birrindu eutsezan gero arraun, masta eta haize-oihalak, paperez eta zotzez eginikoak bailirean; intxaur oskol huts batzuk baizen errez, itxulastu zituan laster gizon irmez beteriko arrain-potinak; eta sartu zituan, azkenean, ahal zituan guztiak hainbeste hil-ohere daukazan itsasoaren kolko barruan.

Arrantzale batzuk, oraindino, igeri egin eben zerbait itsas irakin esnetuaren gainean; berezko bizigureak emoten eutsen azkortsunagaz jazartu ziran gogotik truxu eta bisuts, haize eta baga indartsuen kontra; ibili ziran eten arteraino urazalean gora eta behera, itsasoak hatxetara jaurti ohi dituan habe zakarren irudira; eskatu eben arren! Jaungoikoaren izenean!, lagundu eioela norbaitzuk estualdi eta hiltzori harrigarritzko hatan, baina alpe-rrik! Arrantzaleen alarau mingarria ekatxaren hil-soinu garratzean galdu zan betiko!

Ezin eutsien inok laguntasunik emon. Lehenengo unetik hondatu bageko potin bakanak, tximista gorria baizen arin joiazan ekatxaren aurrean ekatxak gura eban tokira, nahitannahiezko saustada, gorabehera eta joate bildurgarrikoan, heriotzearen txistu, arnasestua eta deadarra aldamenean eroiezala; eta ezin eben ezer egin ur gainean igeri eta oihuaz egozaten alde.

Potinetakoak eurak joiazan laguntasun beharrean; eurak arrenez Aita Jaungoiko eta Antiguako Amari; eurak karel baten gainean, oker, larri eta noiz hondatuko, ahal eben ginoan igesik, arerioa hurrean daroen gudari garaituak joaten diran antzera...

Gehienez be sokaren bat jaurti eikioen¹⁸⁵ eta jaurtiten eutsien ai zelango gurari eta bihotz onagaz! Euren bidean bilatzen zituen lagunai, baina txalopearen abiadea kendu? Nahi eukien tokira eroan? Gura eben lekuan gelditu? Ekatzari arpegia emon? Zeinek? Zelan? Nondik? Nongo indarrakaz? Ezin zeitekean gauzea zan.

O! Eta azkenengo txalopea, lur azpian sartzan dan suburdi keitsuaren gisara, ur-laino tartean ostendu jakoenean zer zan amaigabeko ur-zelai hatan gelditu ziranen atsekabea! Zelangoa euren bakartade eta argaltasuna itsaseremu hedetsuaren erdian! Hodei baltz lodiak eukiezan goialdetik, eta hodeiai ezin eutsi; zingo handiko ur-gazi haserrea behean, eta ur horren azalean ezin gehiago iraun! Ito egin behar nahitanahiez! Orduantxe amaitu zan arrantzaleen pentzuda¹⁸⁶ ona, orduantxe hartu eben azkenengo etsipen negargarria... Bakotxak beren etxekoai bihotzeko agurra eta Zeruko Aitari arimako eskari bana egin eutsien, iges egin eban adoreak euren besoetatik, etorri jakoen begietara betibetiko loa..., eta hondatu ziran, bata bestearen ondoren, ur azpiko hil-ohe sakonean.

Ez ziran lehenengoak eta ez ziran azkenengoak izango. Han egozan, nonbaiten, lehenago antxinatxu joandako lagunok, hazur hutsetan, hondar barruan estaldurik: han egozan sartu barriok, hondar gainean etzinda, eta batzuk burua behean ipini orduko bajoiazan besteak goitik behera, isil-isilik, *como corpo morto cade*, hildakoak beti daroen isiltasunagaz.

Inoiz ez ainakoa zan egun hatako hondamendi eta galdumena. Ondarrabiatik hasi eta Santurzerainoko euskal itsaserri guztiak eukien zeri negar egin handia, baina batez be Bermeotarrak, Elantxobe, Lekuito, Arranondo eta Muturzulokoak. O! Nok esan leike itsaserrietakoen samintasuna euren ezbehar gaiztoa jakite-

¹⁸⁵ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: eikien.

¹⁸⁶ [Pentzuda: esperanza].

an? Honek bere aita ona galdu eban, harek bere anai langilea, urliak bere senar maitea. Guraso asko gelditu ziran seme barik, emakume asko alargun, gazte asko umezurtz, zer janik ezta...

Behingo baten zabaldu zan Bilboko uri danean barri txar hori. Herri guztiak beste zeresanik ez eukan. Eskutik eskura ebiltzan paper albistariak lagunterien albiste gosea asetu ezinik. Irakurle guztiak egozan harriturik eta albiste bakotxaren ondorean zeresan barri bat otuten jakoen.

Danak zirautsen sarritsuuegi hondatzen zirala Euskal Herriko itsasgizonak, ausarditsuuegiak ziralako eta urrinegi joaten ziralako; neurriren batzuk hartu beharrean egozala agintariak; honenbeste zabalera eta harenbeste luzerako potinak eragin behar jakoezala, eta ez dakit nik zenbat beste holango ipuin.

Baina horreik gauzok geroago erabagitekoak zirean. Aurrengo behintzat diru mordoakada bat batu beharko zan zelanbait, gosearen ate ondoan jarrita gelditu ziran gizagaixoentzat. Edonungo behartsuak laguntzen ekien bilbotarrak hainbat gehiagoko lagundu behar eutsiela euskaldunak, zinoen zaldun batzuk, eta berbertatik eroan behar ebala bakotxak bere oparia paper albistarietara; beste batzuk, eurak ondo jolastu barik eta txanpon bakotxari koipea kendu barik ezer emoten ez ekienak, danen artean batzarra egin behar zala esaten eben, dirua zelan batu eta zer jaialdi egin ondo erabagiteko. Berehala otu jakon norbaiti ez zala jairik txarrena izango zaldunak eurak kalerik kale eskean urtetea, zaldiz, burdiz eta oinez, asaben egunetako jantziakaz, gertaldi zaharrak gomutauaz, ipuin liburuetako gizonen irudira. Aintzakotzat emoten eben gehienak kaleetako ibilerea: urlia izango zan Lekobide eta sandia Lartaun, bata Don Pedro erregea eta bestea Don Juan bere anaia, hau Marte eta hori Erkules, horrako gizona Kijote eta harako mutila Santxo... Santxo! Kijote! Ja jai! Alagalakoak ziran horretarako horkoa eta hemengoa. Barregurea etorkoen gogoratuta beste barik, eta barrez egozan zalduntxo batzuk, barrez negarrak legortzeko asmoetan ebiltzala!

Ez zituan hain laster ulertu Mañasik kalekoen autuak. Inoiz baino beranduago jagi zan egun hatan, ez eban mezarara joateko astirik hartu, eta etxaldeko arlo-zereginetan ebilen egundo baino azkarrago eta pozago, barru alai gozoak emoten eutsan maraztasunagaz. Leihotik Arenalera begira egonda, bazala nunbaiteko ezbeharren bat etxeko lagunak esan eutsanean, “Somorrostro aldekoa zerbait”, erantzun eban gure neskatileak, “jakingo dogu lanak egindakoa”; baina, geroago, zer edo zer itsasaldekoa zala esan jakonean, gauza guztiak bertan behera itxita urten eban leihora inguruetako neskame guztiak zer zan galdezka.

Poza eta nahigabea ezin leitekez alkarregaz bizi. Geu pozik bagagoz, nahiz onak eta lagun hurkoaren edo geidearen maitaleak izan, leku gitxi euki ohi dau gure bihotzean inoren nahigabeak, zenbat eta pozago, hainbat eta gitxiago. Egizaleak bagara esan daigun egia: geu pozkor bagabiltz, ez da inoren nahigabea gure mingainetik barrura sartzen, gehientsuetan.

Mailak eta neurriak daukaguz honetarako. Inor hori ezezaguna edo urrinekoa bada, bere nahigabeetan inor ez balitz legez begiratuten deusagu, eta orduan mingainak berak be zeresanik ez dauka. Inor hori hurrekoa eta ezaguna bada, orduan mingainak zeresan batzuk badaukaz, itxuregaitik bada be. Inor hori geutarra edo ingurukoa bada, orduan mingainak gauza bigunak esaten ditu, arpegiak ilun samar ipinten dira, begiak malkoren bat bota ohi dabe eta zerbait egin daroagu geutarren alde. Baina inor geu bagara, geurea edo geure odolekoena bada nahigabea, orduan nahigabe hori bihotz guztiaren jaube egiten da, bene-benetako malko-hari mingotsak isurtzen ditugu, eta ez bakarrik ez dauka lekurik besteen pozak gure barruan, ez bada ze mingostasun barriak emoten deuskuz.

Holango zerbait igaro jakon Mañasiri. Pozik ebilen, oso pozik, eta gertaera gaiztoa Somorrostrokoa zala uste izan eban artean ez eutsan gauzeari gora handirik emon, bada toki horretan ez eukan inor ezagunik eta ezezagunak beti dira urrinekoak; baina jakin ebanean itsaserrikoa zala ezbeharra, artega, nabarmen, kiriotsu,

zalapartaka eta itsumustuan jatsi zan kalera albistari baten bila... Hartu eban bere eskuetan albistaria, begiratu eutsan, arnasa batean, goitik barreneraino; baina dardaraz egoan, lausoak eukazan begiak eta ezin eban ezer ikusi. *¡Horrible hecatombe!* ipinten eban paperak letra handi baltzakaz. *¡Horrible hecatombe!* *¡Más de cien ahogados!* Ai ene bada! Ai ene! Nongoak ete ziran gizon itoak? Bermeokoak berrogetak, Elantxobekoak hamalau edo hamabost, Lekuitokoak ez ekien zenbat... Ez al etorren Arranondoko barri-rik?

A! Bai, han egoan bazter baten Arranondoko herri nagusi edo alkateak bialduriko albiste mingarria eta Sardinzarren txalopako guztiak hondatu zirala zinoan! Danak ito zirala, danak, eta han-txe zan Anjel!

Bekokian mailu bategaz jota legez jausi zan lurrera Mañasi, albiste hori irakurri ebanean. Jaso eben auzoan egozan emakume eta gizon batzuk, zein zan galdezka, eta bere etxeko atezainak erantzun eutsen:

—Arrantzale baten alabea da. Gaixoa! Aita edo itoko jakon.

XXV

ELIZKARIAK EDO ELIZ ARRENAK

Bere konortera etorri zaneke jagi eta jantzi zan Mañasi, eta etxeoandra errukitsu eta nagusi onaren esanai jaramon barik, buruko uleak bekokian behera zituala, anpolaiak baino begi gorriagoakaz, zoro baten irudira, zotinga eta negarrez, Arranon-dorako zalpurdia hartu eta urten eban, Bilbotik orduan urteten zan lez, Atxurin gora, Miraflorestik zehar, zubi barriruntz.

Zalpuri hatan joiazan beste bidezkoak baekien nunbait zetatik etorren neskatilearen nahigabea, bada baziharduen euren artean, isiltxu, baina hitz bakar bat ez eutsien esaten Mañasiri. Ondo egi-ten eben: atsekabearen lagunik onena errukizko isiltasuna da.

Ez eban gura be Mañasik inogaz elean jardun: nahikoa zeresan eta zerentzun baeukan bere barruan.

Ez eutsan inori arpegirik emon be. Zalpuri leihotik begira joian solo, zelai, mendi eta herriak ikusiaz.

Egualdi ederra egoan. Larrain zabaletan ekusazan¹⁸⁷ aguraxoak, azmantarrak¹⁸⁸ ipinten edo abarka zaharrai txopitea¹⁸⁹ josten; lur langintzan nekazariak, idi buztartuakaz aidaka; solo ertzean jarrita, edo errekastorearen ondoan ahuspez, ume zoztorrak,

¹⁸⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: ekuzan.

¹⁸⁸ Azmantal: abarkekaz erabilten ziran polainak.

¹⁸⁹ Zopita: abarken adabakina.

lora sortatxoak eginaz; ordeka erdian behi gorriak bedarra jaten mana edo patxadarik handienagaz; mendi-hegaletan artzainak euren artaldetxoai begira, eta mendi goi gainean zaldi eta behor askatuak irrintzika... Dana egoan bakean, dana Mañasiren arimea izan ezik, eta besteen bakeak berak min barria emoten eutsan neskatileari. Idiak atzetik eroien golde hortza bihotzaren erdian sartzen jakon burdinea zala esango eukean...

Zornotza aldeko baserritarrak ez eutsien garrauzi handirik emoten arrantzaleen hondamenari, edo ez eben oraindik ezer jakingo... Ez, ez eben jakingo; baina jakindakoan be, orduantxe ziharduen legez jardungo eben lanean... Beharrak eragin. Itsasaldeko hondamena gorabehera, gauza guztiak euren bidean joango ziran. Besteen nahigabeak min emon arren bakoetak geure arretak izan daroaguz...

Han ikusten eban Mañasik, aurreratxoago, Anbotoko hatxa, gogorra, legorra, harrizko bihotzduna, gizonen gauzakaitik ardurarik ez eutsana... Eta holantxe egongo ziran ajolagabe urrialdeko gizadiak, ez euren zereginetan bakarrik, baita euren jolasetan be. Egunerokoa da norbaitzuk negarrez dagozanean beste asko barrez egotea...

Han agiri zan, gainera, Urkiolako baselizea. Baseliza horretan, Done Antonio miragilearen bitartez, hainbat euskaldunen zauriak sendatu zirean, hainbat saminak ezti bihurtu... Egingo eukeon Doneari bederatziurren beroa Mañasik, honen gurariko mirari barri baten ordez... Bai, eta ez Done Antoniori bakarrik, baita Antiguako Amari, Iziarikoari eta Begoñakori be...

Durango aldean baekien nunbait albiste dongea, zerren herri hatako gizadi onak izu eta baltz egozan, aldratxoetan, inoiz ez legezko jardun bizi arduratsuan...

Arrangiz gainean negarrez ikusi eben gure zalpurdikook bideostatuko andrakumetxo bat, ostatu horretan sarri gelditu ohi zan astodun baten semeak ito zirala-ta...

Markinan barriz guztizko kerizpe eta iluntasun handia idoro eben; bada markinarrak arranondotarren lagun handiak ei dira beti.

Zenbat eta itsasotik hurrerago, hainbat eta atsekabe handia-
goa ikusten zan, baina ez Arranondon langoa. Ai! Han berberta-
koa zan nahigabea, oso egiazkoa, bene-benetan sakona.

Mañasi Arranondon sartu zanean, uri maite honek hilerri
handi bat zirudian. Haizearen izpirik ez zan inondik sortuten;
itsasoa, bere egikereagaz damaturik legez, bare eta baketsu agiri
zan; ontzitegiak langile barik ikusten zirean; potinak alkarren
ondoan tolostuta; dendak itxita; gizonak, jankar eta nakar, soine-
ko baltzak jantzirik; emakumeak, indarga eta zurbil, buruko
oihalak jazten elizarako; bihotz guztiak egozan minbereak, ahoak
isil-isilik, begiak malkoa erioela...

Itandu be ez eutsan inok egin, Mañasiri, herri aldera zetara
joan zan: ez egoan itandu beharrik.

Inok ez eutsan hondamenaren gehiagoko zerzeladarik esan
be. Zetarako?

Gure neskatilea ikusteaz batera negar egin eben gurasoak,
negar ahaideak, negar adiskideak, negar ezagunak. Negarra bera
da nahikoa esale.

Danak joiazan elizara, itoen onerako elizkariak orduantxe
hasten ziran-ta...

Eliza guztia ateetaraino beteta gero, udaletxeko agintariak
euren betiko aulki luzean jarri ziranean, elizgizonak, bigun, ilun,
astiro eta samur, *Regem cui omnia vivunt*, erestu eben, *Regem cui
omnia vivunt, venite adoremus*, eta arranondotar guztiak, elizma-
hai aurrean belaunikoturik, otzan, apal eta makur, zigorkada
mingarria hartuta egon arren, Jaungoikoaren neurribageko handi-
tasun¹⁹⁰, gauza guztien gaineko eskubide¹⁹¹, itsasoetako aginta-
ritza¹⁹² eta etorkirik oneneko jaubetasuna¹⁹³ autortuten eben.

¹⁹⁰ [Quoniam Deus magnus Dominus... (Salmo XCIV, 3)]

¹⁹¹ [Quia in mnau ejus sunt omnes fines terrae (Ibid, 4)]

¹⁹² [Quoniam ipsius est mare. (Ibid, 5)]

¹⁹³ [Quia ipse est Dominus Deus noster. (Ibid, 7)]

Abadeen esana osoro ulertu ez arren, danak egozan, arima-arimatik, harein esanagaz batean, danak gurari eta eskari bardi-nekoak, danak zirautsien bihotz barruan Jaungoikoari, errukitu zaitte, Jauna, gure gaixotasunagaz; sendatu gaizuz, bada hazurre-taraino gagoz ikaraz¹⁹⁴. *Requiem aeternam dona eis Domine, et lux perpetua luceat eis*, zinoen gerotxoago abadeak, eta eliz barruko guztiak zinoen bihotzean horixe bera: bai, emoeiezu, Jauna, ito diran guztiak, beti-betiko nekerik eza, atsedena, atsegina, zure argia eta arpegi ederra ikustea.

Honetan egoan gure Mañasitxu, ahuspez behera, arminez gai-xoa, larritasunik baltzenagaz, urtu beharrean, harako baten, begi malkotuakaz elizmahaira begira egoala, ikusi ebanean aurrez aurre, herri agintarien ondoko aulkian gizon bat, gizon bakarra, bada beretzat ez egoan beste gizonik inor: “Anjel... Jesus! Jesus maitea! Jesus ona! —esan eban berarengo, begiak igortziaz—. Zeruko agermena da? Irudimen hutsa? Ames barria? Geundurik ete daukadaz begiak? Lausoturik ete nago? Ez, ez, ez da irudi-mena, ez nago lausoturik, egia dakust, Anjel da! O! Antiguako Ama kutuna, Aita San Antonio errukitsua, zelan erantzun neki-zue?”.

Baina ez al zan hondatu Sardinzarren potina? Nondik etorren bada Anjel elizan egotea?

Gero jakin eban Mañasik jazoera miragarritzko hau.

Ekatxa, igarri barik, arrantzaleen gainean sartu zanean, lehenengo joteagaz batera ipini eban azpikoaz gora Sardinzarren txalopea, eta barruko gizonak, urazalean ahaleginak egiten oso mekotuta gero, ito egin ziran, Anjel eta Sardinzar izan ezik besteak. Sardinzar, semeak atara ei eban bizirik.

Seme horrek orduan egin ebana ez ei dau egungo inok egin. Ez egoan arrantzaleai entzutea baino. Lehenago be zerbaitekotzat

¹⁹⁴ [Miserere mei Domine quoniam infirmus sum, sana me Domine quoniam corturbata sum ossa mea. (Salmo VI, 3)]

baeukien Anjel bere herrian, baina une hatatik aurrerantzean, haren egikerea zabaldu zan ezkerotik gehiago, beste inor ez legez-kotzat daukie.

Elea zirudian. Gure mutil hori, bere burua, zelan ez ekiela, itsasoan idoro ebanetik nahikoa laster, aita zaharra beragaz eroiala, heldu ei zan zeharretaruntz, ekatxaren igesik joian potin bateraino, guztiz unaturik, eta potin barruan sartu be bai, Jaunari esker-rak emonaz; baina ikusi ebanean aitak ez eutsala sokeari ondo eutsi eta itsas gainean gelditzen zala bagen¹⁹⁵ jolaserako eta arrai-nen janaritzat, gehiagoko barik, lagunen esanai belarriak itxi, oratu gura eutsien adiskideak tostapera jaurti eta murgildu ei zan barriro gurasoaren eske Kantauri haserratuaren erdian.

Gehiegizkoa iruditu jakoen Anjelen lagunai haren egitadea. “Jakin berak —zinoen— potinaren abiadea ezin geinkeala gelditu, jakin inungo laguntasunik ez daukiela, eta halan be uretara. Horixe da norbere bizia ez maite izatea”.

Txalopakoen begietatik behingoan ezkutau ei ziran aita-semeak, eta orduan hasi ei zan bien arteko eztabaidarik ezinigarriena¹⁹⁶.

—Astakeria handi bat egin dozu Anjel —ei zirautsan aitak.

—Alperrik da orain ezer esatea —semeak.

—Itxi eidazu, seme; joan zakidaz hemendik norabait, indarra daukazun artean.

—Ez holangorik.

—Biok galduko gara.

—Ez, aita, ez bildurtu. Jarri neure bizkarrean neuk jasoko dot-eta.

—Zeure bizkarrean! Zeu hondatuteko!

—Ni hondatu? Ezta... ezta... Egundo baino sendoagoa nago. Eroango neuke nik orain lepoan geure etxea be. Eta zetako dot sendotasuna berori heriotzatik atarateko ez bada?

¹⁹⁵ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: bagaen.

¹⁹⁶ Ezinigarriena: ez sinigarriena.

—Sendoa bazara, sendotasuna nun emon badaukazu. Ez nozu zurituko... Iges egidazu, Anjel, maite zaitut-eta.

—Egia dinodala, aita. Nik gaur daukadan indarra! Ez dau ikusten emoten dodan besakada zolia? Aufa! Hauxe da gaztetasuna! Hauxe da sasoia! Tira, aita, ipini eskuak neure samatik, sorbalden gainean ezarri ondo, eta betor haizea, betor erausia, betoz olatuak.

—Antiguako Ama¹⁹⁷ lagundu dakigula.

—Bai, aita; beragan daukat neure itxaropena, ondo daki berak, sarri esan deusat-eta.

Ordu bi osoan ibili zan gure gazte umantkorra bere gurasoagaz zamaturik, itsaso haserratuaren erdian, bakartaderik itzalenean, izatekorik trebe, zail, zoli, eta zimelen, ausardi eta gaitasunik handienean; atuna baino azkarrago, izurdea baino gogorrago, balea baino adoretuago; hona eta horra, gora eta behera, azpira eta azalera; ekin eta otoitz, arren eta igeri, saiatu eta esetsi; bagen erditik bideak edegiaz, ekatxari betondo baltza ipiniaz, gesala galanto iruntsiaz, ahotik birikak boteaz; neketik indarrak atara guran, ur barruan must egin beharrean, ur gainean arnasarik hartu ezinda; heriotzeagaz burruka, bernadaka, besadaka, ukabilka; noiz etengo, noiz lehertuko, noiz amaituko, noiz hondatuko; baina irme beti, burua gora ebala, laguntasunik etorren ikusi guran, ur gehiago ahoan sartu ez dakion¹⁹⁸, aita gizagaixoak etsi ez eian... Harako baten, ia albetan¹⁹⁹ egoala, Jaungoikoak hala nahita, numbaitetik agertu zan txalopa batek aita-semeok bizirik hartu zituan artean.

O! Zer ikusteko goitandia²⁰⁰ Sardinzarrek eta semeak Kantauriko itsasoan euki eroena! Zer eredu, zer adibide jakingarria,

¹⁹⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: Antiguako Amak lagundu dakigula.

¹⁹⁸ 1906ko Florentino Elosuren edizioan: ez jakion.

¹⁹⁹ Albetan: atzenetan, hil aginean.

²⁰⁰ Goitandi: ikuskizun eredugarria.

Anjelek, gurasoari zor jakon maitetasuna erakusteko, egun horretan erakutsi ebana! Zein handia, zein neurribage ona eta txalogarria zan mutil hau!

Eta halan be, ezer egin ez baleu lez ebilen Arranondoko hiri edo kaleetan...

Kantauriko umant²⁰¹ apalak! Huskeria baten euki daroazue²⁰², batzuetan, zuen harrotasuntxoia, eta egitadarik handienak ez dituzue aintzakotzat hartzen. Inok ez ditu itsas barruetako zuen lanbide garratzak eta ibilbide leinargiak ikusten ondo, eta gitxik goratuten zaitue behar dozuen ainan; baina Jaungoikoak dakus zeru goietatik eta berak goratuko zaitue egunen baten. Berak dauka zuentzat gordeta azkensari ederra, ez erramuetan, igerian edo arraina jot²⁰³ dakizuelako, ez bada eroapen handiko eta bihotz oneko kristinau zintzo eta egiazkoak zarielako bizen.

Jaungoikoagaz batera jaso nahi zindukedaz²⁰⁴ nik neure alde-tik, eta hara hemen horretarako gehienbat egin dodan *Kresala*.

Kresala zuek jasoteko, zuek ezagutuagoak, errukituagoak eta maitetuagoak izan zaitezen sortutako liburutxoia da.

²⁰¹ [Héroès].

²⁰² 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: daroezu.

²⁰³ [Arraina jo, arraina hartu lez da].

²⁰⁴ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: zeunsket.

XXVI

ESKERTSU

Ederrak dira gure euskal mendiak.

Ederrak eta sendoak eta iraunkorrak.

Zaharrak izan arren gazteak dirudie.

Beti dagoz bere-berean, beti era batekoak Jaungoikoak dakien gizaldietan.

Gure aitonak ostera jaioko balira, ez litukie euren ondorengo asko ezagutuko beste iritxikoak bihurturik eta beste itxurakoak dagozalako; baina mendiak bai: mendiak ez dira aldakor, lehen-go-lehengoak dagoz, beti batean.

Izakera bat legez jazkera bat daukie: berdea udabarritik udazkeneraino, lainuzkoa edo edur zuriz egina neguko egun batzuetan. Beste soinekorik ez dabe jantzi egundo.

Bai, ederrak eta maitegarriak dira.

Mendian dagoz haizerik osasuntsuenak, mendian usainik gozoeneko loratxoak, hantxe iturbururik garbienak, bertan ezti-suen erestu daroen txoriak.

Maite ditu eguzkiak gure mendiok, eta sortaldetik jagiten danean, eurentzat izaten da bere lehenengo argi errainuaren txera epela, eta ilunabarrean, beterrri guztiak, ondamutsuen antzera, ainutsu gelditzen diran orduan, mendi tontorrentzat izan ohi da eguzkiaren azken agur biguna.

O! Neuk be maite ditut gure euskal mendiak, ez bakarrik ederrak, iraunkorrak eta geureak izatearren, baita gehiago, askozaz gehiago, kurutzearen harroinak diralako.

Begiratuizu goialdera, irakurlea. Hara hor Gorbea, hara hor Aloña, hara hor Aitzgorri, hara hor Ernio, mendirik handienak baino besterik ez esateko; danetan dakutsuz kurutzeak, besoak zabalik.

Euskaldunak jaso ditue euren sinistearen agergarritzat.

Baina ez dakutsuz kurutzeak bakarrik. Ama Mariaren orube eta jauregitxoak ikusiko dozuz, gainera, Guadalupen, Arantzazun, Arraten, Iziarren, Antiguan, Begoñan, alderdi guztietan. Ia herri danak jaso deustie eurena Ama Mariari.

Arranondok ibaiaren alderdi batetik dauka bere Kurutzemendi, behartsuen bizitzea legez aldats handikoa, gatxa eta latza, eta mendi barrenetik hasi eta gailurreraino, gaztaina, pago eta haritz tartean, agiri dira kurutze astunak, gizonak zerura bidean eroan behar dituanen irudikoak. Gain-gainean dago kurutzean josiriko Jesus Jaungoikoaren baselizea, zuri-zuri.

Ibaiaren beste aldetik ikusten da, Kurutzemendi baino asko txu beherago, Antiguako Amaren orubea, malkoen legorlekua, nahigabeen gozategia, Arranondoko oneraspen²⁰⁵ handi, sakon, egiazkoaren barri dakian jauregi maite-maitea.

Bada, Euskal Herriko uri guztiak oneraspen handikoak izan arren, Arranondo da, ez inor haserratu, oneraspenik gehienekoa. Nun-nahi eta edonoiz erakutsi dau.

Orain dala bosten bat urte gure Begoñako Amari urre eta harri argitsuzko aroa buruan ipinteko jairik ospatsuenak egin jakozanean, han joan ziran, itsasoz eta legorrez, hankazurra jaso ahal izan eben arranondotar arrantzaleak, eta liburuetan dabiltz eurak orduan Ama Mariari egindako maitetasunaren agermen beroak.

²⁰⁵ [Oneraspen: devoción].

Igaro dan urtean, Erromako Aita Doneak halan gura ebalako, Maria Garbiaren elizetara Euskal Herriak egin dituan joan-eto-rrietan, han izan dira beti gure arrantzaleok aurrenengo: Iziarren, Arraten, Arantzazun, Begoñan, edonun.

Eliz jaialdiak dagozan toki guztietan agertuko dira beti arranon-dotarrak beste herrietakoak baino errezago, ugariago, pozago eta gogotsuago.

Baina batez be 1904ko agorraren 22an urten eben eurenetik.

Erabagita egoan, inguru guztietako eliztikoak, euren abadeakaz batera, egun horretan Antiguara joatea eta Antiguako Ama Garbia berbera baselizatik uriko enparantzara erakartea. Horregaitik, aurretiaz ebiltzan herritar guztiak, gazte eta zahar, emakume eta gizon, morroi eta zaldun, abade eta arrantzale, dendari eta jostun, joranik sutsuenagaz herria eta elizak inoiz baizen hobeto apaindu nahirik.

Lortu eben egundokorik ondoen uri dana edertutea. Bere maitea ikusteko jazten dan maitea legez, ezteguetarako txukundurik dagoan gazte baten antzera, erreginari ondoetorria emoteko apaintzen dan uri baten irudira, ikusgarri hornidurik egoan Arranondo agorraren 22an. Bazter danak ispilua baino garbiagoak eukazan, hiri edo kale-hariak usain gozozko bedarrez estalduta, zatar itxurako horma zaharrak ohe-estalki ederrakaz gordeta; etxe-leiho guztiak oihal zuri eta urdinez, loraz eta landaraz jantzirik; ibaiko potinak eta eliz gainen jirak mueta guztietako banderakaz apaindurik. Herri sarreran, elizondoan, Antiguako kalean eta pelotalekuko ertz baten mako²⁰⁶ guztiz politak egozan, batzuk, zugatz-adar eta ostro berdeakaz oso itxuran eginak, bestek, sardin-sare, itsas haga eta txalopa-masteakaz egoki taiutuak.

Pelotalekuaren erdi-erdian ipini eben meza nagusirako eliz-mahaia, eta haren gainean, argiz beteta, estalpe zuri aberats bat

²⁰⁶ [Mako: erdaldunen arco].

goitik ebala, Maria Donearen urrezturiko jarlekua. Ez zan elizbarruan auzo-herrietatik etozan gizadientzat aina toki, elizea bi aldiz handiagoa izan balitz be.

Erbestekoak, egundo Arranondon izan ez ziranak, zurturik egozan ikusten eben edertasunagaz.

—Hau ez da guri esan deuskuen herria —zirautsen—. Arrain-sundadun uri koskor bat zala-ta... Amarrua egin deuskue guri... Herri hau, beste edozein ainakoa edo hobea da.

—Gaur bai behintzat —ninoan nik—. Garbitasunean eta jazkera onean dago edertasunik erdia, eta hauxe dagoan baino itxurazkoagoa beste bat aurkitutea ez da errez.

Aspaldietan ez nintzan Arranondon izan ni, eta bertako neu-re ezagunen barriak jakiteko asmoa neroian: baina alperrik. Ni heldu nintzanean, Andre Maria eta Andre Maria baino beste auturik ez ebilen herri hatan.

Baetozan ordurako, kaleak betean, Berrituko gizon morrosoak eta emakume galantak, bularren gainean Antiguako Amaren irudiak zituela; agertu ziran gero Markina, Xemein, Goibar, Etxebarria eta Zigarrotzakoak; igon eben danak, aldizka-aldizka, Antiguaraino, soinu gozoak joaz, Ama Mariari ikuste bat emotera; eta guztiak agur biguna egin eutsienean, heldu zan Mariaren irudia herrira jasteko ordua.

Une hatatik gertaurokoa ezin leike nire luma kaskarrak zehaztu. Kanpaiak, txupinak, eresiak, soinu-joteak, txaloak, goramenak, bizibediak; atsegingarrizko durundi, zunburrun, hots, alaio, deadar guztiak, danak hasi ziran batera, bihotza taupadaka ipinten eutsien nahasterik eztitsuenean.

Arranondotarraiz zoratu behar jakoen. Hainbeste urtean ez eben ikusi Andre Maria maitea baselizatik kanpora, eta egun gomutagarri hatan kalean behera etorkoen, soinekorik onenagaz jantzita, elizgizon gazteen sorbaldetan, hain ederra, hain biguna, hain maitegarria. Ezin zituan narruak hartu hango gizadiak, ezin gorde eben euren barruko zarradea, eztanda egin behar eben, pozak urteten eutsen begietatik, maitetasuna erio-

en²⁰⁷ ahotik. Soloetan, zugatzetan, ateetan, leihoetan, kale-hari guztian gizaldra ugariak agiri ziran besoak jasoaz, oihuka, eskarika, oparika, bizibedika; Ama laztan, Ama errukitsu, Ama kutuna deiezka; gurariak autortzen, eskerrak emoten, umeak eskeintzen, ahora etorkoezan hitz on guztiak esaten, aspertu ezinik. Ez dau inongo erreginak halango sarrerarik inon egin.

Andre Mariaren aurretik joiazan, banderatxoakaz, horretarako aukeratu zituen mutil-koskor batzuk, eta honetariko bat, azal zuriduna, arpegi betekoa, guri-guria, babalorea baino ederragoa, Anjelek eroian eskutik.

Pozik ikusi neban gure antxinako ezagun hau, eta beragana joan jatazan begi biak. Gizon bikaina egoan, osasun itxura handikoa, arrantzaleai jagokoen lez burutik behatzetara ondo soinekotua.

Ezin nintzan egon norbaiti itaunketa batzuk egin barik. Hain zuzen Artobero idoro neban alboan eta berari itandu neutsan:

—Entzuizu, Anjelek eskutik daroan mutiltxo bere semea dau?

—Bai, jauna.

—Zeinegaz senartu zan Anjel?

—Ez daki? Mañasigaz.

—Ondo bizi dira?

—Ezin hobeto. Txalopa-jaube handiak dituzu, aurtengo atuntzuan be nahi aina irabazi daroe eta senar-emazteak barriz egunero eta maiteago dabe alkar.

—Zeu be bere txalopan ibiliko zara?

—Ez, jauna, ni ez nabil haren txalopan, edo bai...

—Zelan da hori?

—Hara, jauna, ni txalopako patroia naz, eta nik darabildan potina Anjelena da. Berak beste bat darabil.

—A! Lagun ona dozu beraz Anjel?

²⁰⁷ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: jariokoen.

—Ona? Ez dago beste holango gizonik Bizkai guztian, lagunentzat eta lagun ez diranentzat. Haren goramenak esateko asti handia beharko neuke.

—Eta Mañasi? Ona izango da Mañasi be.

—Gure maestresea?²⁰⁸ Zerutik jatsitako aingerua, ezta baino eztiagoa, bihotz handikoa, ongilea, etxekoa eta elizkoa. Bere senarra, bere umeak, bere etxea eta bere elizea: harek ez dauka beste gauzarik, behartsuren bati laguntzea ez bada. Herri guztiak gura deutso. Ia ba, Tramanak be..., ezagutzen dau berorrek Trama?

—Bai.

—Ba Tramanak be Mañasi lango emakumerik ez dala jaio dino-ta... Hara non dagoan bera, Mañasi, elizondoko makoaren azpian... Gaur ez dau horrek lo handirik egin. Gau guztian ibili da geure Josepa eta beste lagun batzukaz, kaleak, makoak eta elizmahaiak jazten. Etxean daukazan oinazpiko²⁰⁹, ohe-estalki, lorontzi eta gainerontzeko gauza onak kanpoan ditu gaur.

Artoberok zinoan alderantz begiratuaz batera ikusi eta ezagutu neban Mañasi, beste andrakume batzuen artean. Urteak joan jakozanik ezin zeitekean esan, lehengo-lehengoa egoan, ule zuri bat eta zimur bat bagekoa, gazte-egunetan lez txit jaso, eta joraneke arazoetan zerbait arpegiz gorritua. Ondo jagokon itxuraz eginiko soineko baltza, ondo matrailetako gorriunea, ondo betiko begirada biguna, ondo ezpanetako barre-antz gozoa. Berez behar, eta berezkoa eban dana Mañasik. Inok ez eukean esango arrantzale baten andrea zanik halango emakumea, bada berak uste barik, erregin apal baten itxurea eukan. Baina ez, ez dinot ondo: haren arpegi zuri leunak, burutik beherako oihal mehe-sengleagaz inguraturik, gure elizetako irudi on bat zirudian.

²⁰⁸ [Ez dakit zelan sartu dan Arranondon hitz barregarri hau, baina askoren ahotik entzun dot, atsekabez].

²⁰⁹ [Alfombra].

Toki hatan, kalean baino zabalune gehiago egoan-ta, gizadi mordozka lodia ikusten zan hutsune guztiak beteaz. Buruak eta buruak eta arpegi baltzeranak baino ez zan besterik agiri, bada arrantzaleak ziran gehienak, ikazkina baino askozaz hobeto eta beroago sinistetsu diran arrantzaleak.

Mako gainean egozan, Andre Mariari lora eta usoak botateko gertauta, zuriz jantziriko neskatilatxu batzuk, eta Mañasi zan euren zuzendari edo erakustzaile. Bere alabea eban bat, ondo polita, urduria, pitin batean geldi ezin egon zana, eta honi eta beste guztiari aginduak emoten ebilen gure andrea.

—Geldi, gaixook, neuk esan arte —zirautsen—. Neuk esango deusuet noiz jaurti, eta orduan, makurtu danok batera zeuen buruak, jaregin usoai eta bota eta bota lorak amaitu arte; danok batera gero, lehen erakutsi deusuedan legez.

Heldu zan irudi bedeinkatua makoaren ondoraino, ez neskatilatxoak gura eben hain laster, eta agintariaren esanera, urten eben usoak umeen eskuetatik, jausi zan Ama Garbiaren aurrean lorazko euririk ikusgarriena, eta itsasoetan deadarka ohituriko eztarriak jaurti eben “¡urra!, gora!, ¡viva!” edo “bizi bedi!” bat itsasoaren orroa baino sendoagoa, luzeagoa, iraunkoragoa, ia azken bagea, baina gozoa, ai zein gozoa!

Hamaika emakume eta gizonezko negar samurra egin eben egun hatan, pozaren pozez! Ez zan miraria Anjelek, bere alabeak ereiten zituan lorak buruan ikutu eutsiengan, gorputzeko ikaratxo baten ondoren, malko lodi batzuk igortzitea, burua goratu barik; eta gitxiago, Mañasik senarrari zer igaroten jakon igarrita, ezin bereak gorde izatea.

Ama maitearen irudia pelotalekuko elizmahai gainean ipini arte iraun eben gizadien gorameneko deadarrak²¹⁰. Hantxe, enparantza zabal hatan ahuspezturik, meza nagusi gogoangarria esaten zan bitartean, emon eutsiezan eskerrak Antiguako Amari

²¹⁰ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: gorameko deadarrak.

arranandotar guztiak, erbestekoakaz batera; hantxe, neure irudi-mena lotu ezinik, egon nintzan zeruagaz amesetan; hantxe egon nintzan A. Praile entzutetsuaren hitzaldia ulertu ezinik, burura jatortazan aspaldiko ezagunak nun ete ziran begira; hantxe ikusi nituan, lehen esandakoakaz gainera, Josepa azkarra, Mañasiren ondoan; Anjelen ama, zuriz jantzitako lobatxo bat alboan ebalá; Ontzi-agintari zaharra, oraindino nahikoa gordina; Tramana eta Brix, bata upela baino lodiago, mailastoa baino meheago bestea, oso atsoturik biak; Antoni, neskazahar itxura handikoa, zedenak jandako arpegiagaz gaixoa, bada naparrei edo sakutea izan ei eban. Besterik ez neban nire begiakaz bilatu...

Nun ete ebilen Indianoa? Gero jakin neban Ontzi-agintari zaharraren ahotik.

—Ameriketara joan da barriro —esan eustan—. Zapokeria handia egin eban dongetzarrak eta... Harako, orain bi urte, Begoñara joan ginanean, bere burua bilbotar edo Bilbon bizi diran gazte nagí, txakil batzukaz bat egin eta, hango gizon malmutz, edari eta labankeriazaleakaz nahastean, geuri harríka eta txistuka ibili zan ozpindurik. Gerora ez da hemen agertu. Narrua kenduko geuntsan-ta...

—Baina Ameriketara? Baeukan Bilbon bizi izatea baizen?

—Zegaz bizi?

—Ez eukan ba beretzat aina?

—Ez, jauna. Bilbon oraintsu erabili daben paper-joku, irabazbide edo galdubide horretan iruzur eragin eutsan norbaitek eta oso kuskilau²¹¹ eben...

Arratsalde hatan, Arranondoko jaialdi guztia amaitu baino lehen neure etxera etorri beharrean nengoalako, lagun batzuei agur esaten nenbilela, idoro nituan beste ezagun bi, elizpeko esarlekuetan jarrita, alkarregaz autuan: Txanogorri eta Sardinzar.

—Lagun zaharra —zinoan honek— egun zoragarria gaurkoa.

²¹¹ Kuskilau: lumatu, diru barik itxi.

—Bai, adiskidea; honezkero egun askotarako ez gaukaz Jaungoikoak, baina gaurkoa behinipehin ikusi dogu.

—Eta zer gauza hoberik ikusi geinke lurrean? Nun izango da guk ikusi doguna baino jaialdi hobea? Zeinek euki leike gaur guk geure Andre Maria eta geure lobatxoakaz euki doguna baino poz handiagorik?

—Halan da, baina laino bageko egunik ez dago, eta hutsune handi bat euki dot nik; neure andrea bizi izan balitz, gugaz batera harek izango eban poza gogoratutea. Egun guztian ezin izan dot bere gomutea burutik kendu... Datorren astean izango dira urte bi hil jatala, Kitolis baino lehentxoago...

—Ia ba, betiko ez ginan jaio-eta...

—Ez, ez gara betikoak —jarraitu eban Txanogorrik, astiro-astiro bere pipa zaharra beteta gero, toxa²¹² besteari emonaz— ez gara betikoak eta gazteagoak be hiltzen dira.

—Bai; eta beste aldetik, gure lurberako zereginak amaitu jakuzala esan geinke. Umeak ondo daukaguz, horixe nahi genduan-ta; lobatxoak osterara asko hasi dira, asko gero... Neskatilea neure sorbaldaraino bada, eta politagoa bera! Ez neure lobearen dalako, baina Espainiako erreginak ez dauka halango umerik.

—Eta mutila?

—Mutila? Argiagorik eta ikastunagorik ez dago herrian. *Katona*²¹³ be badaki-ta! Hara zer esaten deusudan (belarrira, inok entzun ez deigun)²¹⁴: gizon handiren bat izango ete dan susmoa daukat.

—Guk ez dogu ikusiko: guk besteak joan diran bidetik joan behar dogu laster.

—Jaungoikoak gura dauenean izan dedila ba.

—Bai —amaitu eban, Txanogorrik, goruntz begira, eta lagunagaz batera ahoa betean keia boteaz—, Jaungoikoak gura dauenean.

²¹² Toxa: tabakoa gordetako zorrotxua.

²¹³ *El catón*: irakurten ikasteko erabilten zan liburu bat.

²¹⁴ 1906ko Florentino Elosuren edizinoan: inon entzun ez daigun.

Aguratxoan pipetako keiari, ez dakit zegaitik, arrantzale zaharrok, zerura eskinitako elizlurrun edo intzentsua neritxon nik, eta euren azkenengo esana, harako Simeon Igarlearen *Nunc dimittis* iruditu jatan. *Nunc dimittis servum tuum, Domine, secundum verbum tuum in pace.*

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarriugarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterrri maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Evaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratazilea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Sorne Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilén*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardura: Igone Etxebarria

26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar
27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo

